

ADMINISTRATIOA  
**EUSKARAZ**

**IVAP**  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

# GaldezkA

**Euskarazko  
zalantzei  
erantzunez**

# **Galdetzka**

**Euskarazko zalantzei erantzunez**

**EGILEAK:**

**AINZANE ARRIETA**

**JEXUX EIZAGIRRE**

**AITOR GOROSTIZA**

**JOSEBA LOZANO**

**JOSEMARI ROBLES**

**ROSA MARI URRUTIA**

**HAEE-ko Administrazio Hizkeraren Atala**

© Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa  
Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi

Argitaldaria: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de Administración Pública

ISBN: 84-7777-246-0

Legezko gordailua: S.S. 545/03

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Itxaropena, S.A., Araba k., 45 – 20800 Zarautz

## HITZAURREA

Zenbait urte iragan dira euskara administrazioan sartu zenetik. Hasierako garai hartan ozta-ozta ibiltzen zen gure hizkuntza zaharra balantzaka, ume txikien moduan; ez zuen ematen gai zenik administrazioaren jardunbideetara moldatzeko. Denbora haietan, tradizioa behar bezala ezagutu ez, eta erdararen eruedetara makurtu genuen euskara, lana aurrera ateratzeko beharrak bultzatuta. Ondorioak ezagunak dira: testu ilunak, ulergaitzak... erdal bertsiora jotzeko eramaten zaituzten horietakoak.

Zorionez, laster konturatu ginen hori ez zela bidea, eta administrazioiko hizkera errazteari ateak zabaldu beharra genuela, herritarrekiko komunikazioa hobetzeko. Horretan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea aitzindarietariko bat izan dugu azken urteotan: eskuliburuak plazaratu ditugu kalitatezko euskara zabaltzeko (*Hizkera argiaren bidetik, Argiro, Zalantza-dantza*); hizkuntz gomendio ugari eman ditugu *Administrazioa euskaraz* aldizkariaren bidez; ehunka ikastaro antolatu eta eman ditugu Euskal Herriko administrazioetan; agiriak ontzen lagundu diegu hainbat erakunderi...

Baina, egindakoen artean, *Duda-muda* kontsulta-zerbitzua aipatu nahi dugu oraingo honetan. Abian jarri genuenetik –orain dela sei urte– 4.000 galderari erantzun diogu egunez egun, beti ere, onenak emanez edo eman nahian, behintzat; zalantzarik gabe, penagarria litzateke urte hauetako ekarpenak Interneteko amaraunean tratatuta eta erdi ahaztuta egotera kondenatzea; hori gerta ez dadin, *Galdezka* argitaratzea erabaki dugu.

Horrenbestez, eskuartean duzun liburuak eguneroko lanean sortu ohi diren euskarazko zalantzei erantzutea du helburu; eta bere orrialdeak irakurrita buruan darabilzun kezka bat konponduko bazenu, gure eginkizuna beteta egongo litzateke.

Ahul eta motel izan dugu administrazioko euskara aldi batean: bada garaia sendabidean sartzeko. Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundeak eutsi egingo dio hasitako lanari: aurrera egingo dugu gogo beroz administrazioko langileen artean euskara ona barreiatzen, eta gure hizkuntza-  
ren behin betiko normalizazioa bultzatzen. Jakin ezazu zeregin horretan beti izango gaituzula aurrenekoen artean.

**Jon Koldobika Urrutia Mingo**

HERRI ARDULARARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

## EGILEEN SARRERA

HAEEK 1998ko ekainean jarri zuen abian *Duda-muda* zerbitzua. Honen bidez, herritarrek eta erakundeek egindako 4.000 galderari erantzun diogu sei urte hauetan; era guztietako galderak, gainera: terminologia, gramatika, estiloa, diseinua... Batzuk, errazak, edozein gramatika edo hiztegitan aurkitzeko modukoak; gehienak, berriz, zailak, ikerketa-talde baten esku-hartzea eta ausardia eskatzen duten horietakoak. Sarritan amore ematekotan egon gara, baina hitza hitza da, eta aurrera jarraitu dugu, batzuetan ondo, beste batzuetan ez hain ondo, baina, beti ere, gogotsu.

Eman ditugun erantzun guztiak Interneten dituzu ikusgai; hala ere, horiekin beste zer edo zer egin behar genuela-eta, liburu hau hezur-mamitzen hasi ginen. Garbi zegoen 4.000 galdera ezin zirela sartu: batzuk ez ziren oso interesgarriak, beste batzuk errepikatuta zeuden edo gai bera jorratzen zuten, asko terminoak ziren... Garbiketa egin behar, eta horretan ahalegindu ginen hasi berrian. Itaun gehienak bazter utzi genituen, aukeratutakoak elkarrekin josi, eta geuri sortu zitzaizkigunak sartu. Bai, irakurle, ondo irakurri duzu: “geuri sortu zitzaizkigunak”, izan ere, aurrera egin ahala, gero eta zalantza gehiagok erasotzen gintuen.

Liburuan ez genuen errepikatu nahi Euskaltzaindiaren arauetan eta ohiko gramatiketan esandakoa: horiek hor daude, eta guk baino hobeto landuta. Beste zerbait interesatzen zitzaigun guri; hain zuzen ere, besteek azaletik jorratu edo bide bazterrean utzi dutena, baina eguneroko jardunean kezakak eta eztabaidak sorrarazten dituen. Horixe (baldin badu) liburu honen balioa: harea mugikorretan sartzeko atrebentzia (edo lotsagabekeria?) izan duela.

Galdera gehienak benetakoak izanik, hala jaso nahi izan ditugu guk, galdera-erantzunaren fikzioari eutsiz, eta galdegileari zuzenean idatziz.

Hasieran harrigarri gerta dakizuke hori, baina ikusiko duzu zein azkar ohitzen zaren. Gehiago: agian pentsa dezakezu zurekin ari garela buruz buru, eta hori horrela balitz gure asmoak beteta egongo lirateke: guregan-dik ahalik eta hurbilen sentiaraztea.

Esan dugu, dagoeneko, *Galdezka* ez dela gramatika bat, erantzun-bilduma baizik; nolana ere, galderak mota askotakoak dira, hizkuntza-kategoria askori dagozkio, eta nolabaiteko hurrenkeran aurkeztu behar genituen. Hortaz, ohitura den bidetik gehiegi ez urruntzeko honela biltzea erabaki dugu:

- Puntuazioa
- Deklinabidea
- Izen-sintagma
- Aditz-sintagma
- Joskera

Eta horietan sartzerik ez zeukana, atal honetan:

- Bestelakoak.

Seguru asko kapitulu batzuen kokapena eztabaidagarria irudituko zaizu, eta oraingo atalean ez, baizik eta beste batean jarriko zenituzke, edo guk atzean utzitako zenbait kapitulu aurrera pasatuko. Edozein kasutan ere, nahi duzun guztia erraz aurki dezazun, ohiko aurkibideaz gain, giltza-hitzen aurkibide bat sartu dugu azken orrialdeetan.

*Galdezka*-ren asmoa, neurri handi batean, kalitatezko euskara ahalik eta jende gehienari zabaltzea denez, ez gara lerratu gramatiketako terminologia eta kontzeptuetara; azalpen teorikoegiak, hizkuntzalaritzaren alderdi konplexuak eta horrelakoak alde batera utzi, eta ulergarritasunera jo izan dugu guk, beharbada lan-mota hauetan eskatzen den zientifikotasunaren kaltetan. Barka bezate adituek, baina gure liburua ez dago eginda filologoentzat, eguneroko lanean benetako zalantzak izaten dituzten langile euskaldunentzat baizik. Horrexegatik baztertu dugu nahita adierazpide lehorra, eta aukeratu ditugu azalpen samurrak, adibide ugariak, eta estilo didaktikoa.

Adibide horietako asko, esan beharrik ez dago, administraziokoak dira, hori baita gure esparrua, hobeto ezagutzen duguna. Bestalde, zenbait adibideren aurretik izartxo bat (\*) topatuko duzu. Izartxodun adibide guztiak

gaizki daudela esan nahi du horrek? Ez, horixe! Horrekin esan nahi dugu, oro har, esaldi edo esamolde horiek desegokiak direla, edo, behintzat, ondoren ematen dugun adibidea (ereduzkoa-edo) baino desegokiagoa irizten diogula guk. Egokitasun / desegokitasunerako eskailera horretan maila asko dago, eta zure esku dago guk txartzat emandakoa onartzea, zalantzan jartzea edo bazter uztea.

Esana dugu arestian, badugula sentsazioa batzuetan ez ote garen sartu orain arte jende gutxik zapaldutako lurretan. Hala gertatzen da kontakizunaren aspektu-jauziari buruz hitz egiten dugunean, definizioak egiteko moduari buruz, hizkera metaforikoei buruz, testu elebidunak diseinatzeari buruz... Tarzan-en pelikula zaharretan buru-hezur batek markatzen zuen lurralde arriskutsu horien mugarrria, eta berdin egiten zuten indioek beren lantzak erabilia: “komantxeen lurrak hemen hasten dira”. Esploratzaileen modura ibili gara gu gehiegitan, eta badakizu nola bukatzen zuten horietako batzuek... lapikoan, salda gozoaren osagarri. Gure lanak zer ekarriko duen ez badakigu ere, seguru gaude abiapuntua izan daitekeela gu baino ikertzaile prestuagoek (ez baitira zailak aurkitzen) guk urratutako bideari erasotzeko, eta orain ilun ikusten ditugun kontuei gurea baino argi biziagoa ekartzeko.

Baina, oroz gainetik, gauza bat utzi nahi dugu garbi; gure proposamenak horixe dira: proposamen, eta hala hartu behar dira, gu ez baikara inor arauak ematen hasteko. Inor izatekotan, Euskaltzaindia dago horretarako.

Honelako liburu bat amaitzen denean, betiko galderak etortzen dira burura: Ondo aukeratu al ditugu gaiak? Ez al diogu gehiegi begiratu gaztelaniari? Aspertu egingo ote da jendea? Ulertuko al du?

Ikusten, oraingoan gu gara galderak egiten ditugunak eta zuei dagokizue erantzutea.

**EGILEAK**





## ESKER ONAK

Orrri honetan mila esker eman nahi dizkiegu *Galdezka* aurrera ateratzen lagundu diguten guztiei:

Lehenengo eta behin, testua zuzendu dutenei, beren ohar, iruzkin eta belar-rondokorik gabe liburu hau ez bailitzateke izango orain esku artean daukazuna. Eskerrik asko, beraz, adiskide hauei:

Jon Agirre  
Gidor Bilbao  
Itziar Garitagoitia  
Juan Garzia  
Blanca Urgell

Gure eskerrik beroenak ere Begoña Basterretxea lankidearentzat, giltza-hitzen aurkibidea egiten hartu duen nekeagatik.

Eskerrak, amaitzeko, gure zerbitzuburuari, Mari Jose Arrietari, gure lanean beti erakutsi duen konfiantzagatik eta proiektua aurrera ateratzen jarri duen adoreagatik.



## AURKIBIDEA

### PUNTUAZIOA

Koma	17
Puntu eta koma	28
Bi puntuak	33
Letra etzana eta kakotxak	39
Parentesiak, marrak (eta komak)	46

### IZEN-SINTAGMA

Deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan	55
<i>Bat</i>	60
Aposizioa eta deklinabidea	65
Marraz idatzi behar diren hitz-elkartuak	69

### ADITZ-SINTAGMA

Aditzaren elipsia	75
Kortesia	82
<i>Ahal</i> eta <i>ezin</i>	86
Narraziozintza: denbora- eta aspektu-jauziak	89
Hika tratamendua	100
Baldintzazkoen erabilera okerrak	112
Betebeharrak, eskubideak eta debekuak adierazteko moduak	117
Aspektuaren erabilera okerrak	130
Aditzoina	135
<i>Arazi</i>	138

**JOSKERA**

Perpauus menderatu faltsuak . . . . .	147
Erdal formulak euskaraz: nominalizazioaren eragina . . . . .	153
Galderak nola markatu . . . . .	164
Definizioak . . . . .	172
Iragarleak / Mugarriak . . . . .	188
<i>Ere</i> . . . . .	194
<i>Baino gehiago</i> . . . . .	197
Erdal gerundio okerrak . . . . .	199
Galdegaia eta hitz-ordena . . . . .	210
Atzerakarga . . . . .	217
Alferrikako erlatiboak . . . . .	230
<i>Zein</i> erlatiboak . . . . .	237

**TERMINOLOGIA**

Erdaratik datozkigun hitzen itzulpena . . . . .	247
Hizkera metaforikoa . . . . .	251
Umeen kontuak . . . . .	259
Adjektibo erreferentzialak . . . . .	271

**BESTELAKOAK**

Itzulpena: testu elebidunak . . . . .	283
Nola diseinatu testu elebidunak . . . . .	295
Bibliografiak . . . . .	302
A, B, C, D motako galderak eta zerrendak . . . . .	312
Onomatopeiak . . . . .	321
Harridura-perpauak . . . . .	331
Laburtzapenak . . . . .	336
Giltza-hitzak . . . . .	341

IVAP

**P**untuazio**A**  
**u**  
**n**  
**t**  
**u**  
**a**  
**z**  
**i**  
**o**  
**A**



## K O M A

### Ba al dago “erregelarik” komak ondo erabiltzeko?

Erregela matematikorik ez dago. Ezintasun hori ulertzeko, kontuan izan behar da komak eta puntuazioko gainerako zeinuak intonazioa “islatzen” saiatzen diren arren, hurbildu baino ezin direla egin, beren eskasean. Nolanahi ere, puntuazioak –eta batez ere komak– berebiziko garrantzia du testuak egituratzeko orduan; maiz aitortzen ez diogun garrantzia, irizpide argirik gabe erabiltzen dugu-eta<sup>1</sup>.

Tira, anima zaitez! Egia da formula magikorik ez dagoela, baina, izan, badira arau batzuk testuaren zatiak mugatzen eta mailakatzen laguntzen digutenak. Hona arau horietariko behinenak, eta haiek ez errespetatzea-gatik sortu ohi den zenbait arazo. Egin dezagun, bada, galdera: zertarako erabiltzen da koma?

### ► Funtzio bera betetzen duten osagaiak komaz bereizten dira, sigidan datozenean (enumerazioa)

Serieak egiten direnean (izenenak, adjektiboenak, esaldiak...), komak erabiltzen ditugu zerrendaren elementuak bereizteko. Adibidez:

Hona hemen landutako atalak: deklinabidea, aditza, sintaxia, hiztegia eta esamoldeak.

Lantokira ailegatu, eseri, ordenadorea piztu, eta lanean hasi zen Mikel.

1. “Uste arrunt batek nahi luke puntuazioa (irakurtzerako) arnasketaren laguntzaile soil izatea (hala izatera, biologoek agindu beharko lukete komak non jarri). Irizpide horrek inoiz, larrialdiren batean, aplikazioren bat izan dezakeela ukatu gabe ere (irakurlea esaldiaren luzera pausaunegabeak itotzeko arriskua, kasurako), badirudi justu beste muturrean aurkitu behar dela, nagusiki, puntuazio-konbentzioen arrazoa: semantikaren eskakizunetan, alegia”. GARZIA, Juan. *Joskera Lantegi*. Donostia: HAEE-IVAP, 1997, 37. or.



### ***Kontuz!***

Normalean seriea honela bukatzen da: *hau, hori, hura eta bestea*. Gauza jakina da amaierako *eta* horren aurretik ez dela koma jarri behar, baina... adi! Inoiz elementu simple horien artean sintagma zailagoren bat sartzen zaigu, eta orduan behar-beharrezkoa dugu koma. Erreparatu adibideari:

Demagun Jaurlaritzan bilera bat izan dela eta bilera horretara sail hauek bertaratu direla:

- Jaurlaritzaren Lehendakaritza
- Osasuna
- Kultura
- Herrizaingoa

Esaldia honelako zerbait litzateke:

Gaurko bilerara sail hauek bertaratu dira: Jaurlaritzaren Lehendakaritza, Osasuna, Kultura eta Herrizaingoa.

Ikusten denez, komak erabili ditugu zerrendako elementuen artean, baina ez, azken *eta*-ren aurretik. Demagun, orain, beste sail honek ere parte hartu duela: Nekazaritza eta Arrantza (adi barruko *eta* horri). Nola gertatu litzateke esaldia?

Gaurko bilerara sail hauek bertaratu dira: Jaurlaritzaren Lehendakaritza, Osasuna, Kultura, Herrizaingoa, eta Nekazaritza eta Arrantza.

Azken koma hori behar dugu (*Herrizaingoa, eta Nekazaritza eta Arrantza*), bestela esaldi anbigua izan daiteke eta Jaurlaritzako sailak nahastu.

Eta elementuen ordena aldatuko bagenu?

Gaurko bilerara sail hauek bertaratu dira: Jaurlaritzaren Lehendakaritza, Osasuna, Kultura, Nekazaritza eta Arrantza, eta Herrizaingoa.

Begira nora joan zaigun koma (*Nekazaritza eta Arrantza, eta Herrizaingoa*). Eta hor egon behar du, hain zuzen ere, *Nekazaritza eta Arrantza* sail bat dela eta *Herrizaingoa* beste bat dela adierazteko, eta biak ez nahasteko.

Bukatu baino lehen, esan dezagun *eta abar* esapidearen aurretik ere koma jarri ohi dela, osagaiak labur-laburrak izan ezean.

### ► Deikiekin ez ahaztu koma

Norbaiti dei egiten diogunean, izen hori koma artean idatzi behar dugu beti. Izena esaldiaren hasieran edo amaieran badator, nahikoa da koma bakarrarekin. Ikusi adibidea:

Entzun ondo, **Martin**.

**Martin**, entzun ondo.

Berriro diotsut, **Martin**, ondo entzuteko.

### *Kontuz!*

*Non dago Mikel?* eta *Non dago, Mikel?* ez dira gauza bera. Lehenengoan, hirugarren bati galdetzen diogu ea non dagoen Mikel; bigarreanean, berriz, Mikeli berari galdetzen diogu ea non dagoen hirugarren bat. Hortaz, ondo zaindu gutun eta mezuen idazpuruak:

Zorionak, Mikel:

Kaixo, Mikel:

Aupa, Mikel:

### ► Tartekiak eta aposizioak, koma artean

Tartekiak eta aposizioak esaldi baten elementu bat argitzeko, osatzeko, iruzkinen bat egiteko... erabiltzen dira; neurri batean, beraz, kontakizunaren haria eten egiten dute, eta, hori adierazteko, koma artean jartzen dira. Tartekiok luzeagoak badira, komaren partez parentesiak zein marrak erabil daitezke<sup>2</sup>:

Hizkuntzak, **adituek diotenez**, ez dira berez zailagoak edo errazagoak.

Hizkuntza guztiek, **handi nahiz txiki**, eskubide berberak dituzte.

<sup>2</sup>. Ikusi *Parentesiak, marrak (eta komak)*, 46. or.

## **Kontuz!**

Honelako aposizioetan egin dezakegun okerrik handiena hauxe da: koma bietako bat ahaztea. Irakurri esaldi hau:

\*Zuzendariak, Juan Ramon Goikoetxeak aurkeztutako aurrekontuen aurka hitz egin du.

Geroxeago ikusiko dugunez, esaldia ez da zuzena, subjektuaren eta aditzaren artean koma (bakarra) dagoelako; baina, horretaz gain, esaldiak zalantza handiak sorrarazten ditu. Dagoen bezala, honela ulertzen da: Juan Ramon Goikoetxeak aurrekontuak aurkeztu ditu, eta zuzendaria horien kontra mintzatu da.

Errealitatea oso bestelakoa da, ordea. Kasu horretan, idazleak ez du asmatu hau adierazten: alegia, Juan Ramon Goikoetxea dela zuzendaria.

Zuzendariak, Juan Ramon Goikoetxeak, aurkeztutako aurrekontuen aurka hitz egin du.

Aposizioa koma artean jarrita, esaldia behar bezala ulertzen da: baten batek aurkeztu ditu aurrekontuak, eta zuzendariak (Juan Ramon Goikoetxea izenekoa) horien kontra hitz egin du.

## **► Zenbait lokailurekin erabiltzen da koma**

Lokailu horiek mota askotakoak izan daitezke:

Aurkaritzakoak: *ordea, aldiz, berriz, hala ere, dena dela, ostera, aitzitik, alabaina...*

Kausazkoak: *izan ere, bada...*

Ondoriozkoak: *beraz, hortaz, orduan, horrenbestez, hargatik...*

Hautakariak: *bestela, gainerakoan, osterantzean, ez bada ere...*

Iritzi-adberbioak: *nire ustez, nire iritziz, dirudienez, antza denez...*

Beste batzuk: *hau da, egia esateko, azken finean, hain zuzen ere...*

Lokailu hauek beti jartzen dira puntuazio-zeinu biren artean:

- Hasieran badoaz, puntuaren eta komaren artean:

Nire ustez, bilera behar baino gehiago luzatu da.

- Esaldiaren erdian badoaz, komen artean; edo puntu eta komaren, eta komaren artean:

Gobernu batek hartzen dituen erabakiak, **ordea**, epe luzera azertu behar izaten dira.

Euskaraz jardun nahi duten liburuzain, artxibozain eta dokumentalistentzat prestatu da liburua; **beraz**, ez da edonorentzako argitalpena.

- Bukaeran badoaz, komaren eta puntuaren artean:

Idaztearen zatirik garrantzitsuenari ekingo diogu orain: komunikazio egoera aztertzeari, **hain zuzen ere**.

### **Kontuz!**

Lehenengo arazoa: puntuazio-zeinu bakarra jartzea.

\*Kontuan izan behar da negoziazio kolektiboaren **mapa hau da**, lan-baldintzak arautzeko nondik-norakoak.

\*Kontuan izan behar da negoziazio kolektiboaren **mapa, hau da lan-baldintzak** arautzeko nondik-norakoak.

Kontuan izan behar da negoziazio kolektiboaren **mapa; hau da**, lan-baldintzak arautzeko nondik-norakoak.

Bigarren arazoa: inolako koherentziarik ez gordetzea; hau da, testuinguru berean, batzuetan koma jartzea eta beste batzuetan ez.

### **► Aditza “ezkutatzen” denean... haren ordeaz (elipsia)**

Zenbait esalditan aditza ezkutatu egiten da, hain zuzen ere, aurreko esaldian aditz bera agertzen delako-edo, eta ez errepikatzeko. Horrelakoetan koma izaten da eskuarki galdutako aditzak uzten duen arrastoa:

Bi gauza azpimarratu zituen bere hitzaldian: bata, aurreztearen garrantzia (*izan zen*); bestea, plangintzaren beharra (*izan zen*).

### **Kontuz!**

Begira zein esaldi iluna, puntuazioa behar bezala ez erabiltzeagatik:

\*Alkateak txostenak eraman zituen bilera hartara, idazkariak argitalpen berriak, zinegotziak buletinak eta langileen ordezkariak sindikatuen proposamenak.

Ikusi aldea (koma guztiek aditzak ordezkatzan dituzte):

Alkateak txostenak eraman zituen bilera hartara; idazkariak, argitalpen berriak; zinegotziak, buletinak; eta langileen ordezkariak, sindikatuen proposamenak.

### ▮ **Perpaua nagusiaren eta mendekoaren artean, mendekoa atzean doanean**

Euskaraz atzizkiek edo postposizioek markatu ohi dute aurrean daramaten funtzioa eta muga. Beste hitz batzuetan esateko: gatzelaniaz ez bezala (*cuando, porque, si, como*), euskaraz mendekotasunaren markak ez datoz mendeko perpauaren aurrean, aditzari lotuta baizik (...*(e)nean*, ...*-(e)lako, ba-*, ...*-(e)n bezala*). Horiek horrela izanik, Juan Garziak erre-zeta moduko bat ematen digu komaren auzia argitzeko: “perpaua zirkunstanzialak-eta (gehien-gehienak), perpaua nagusiaren atzetik badatoz, komaz bereizi, printzipioz”. Ikusi adibideak:

Zurekin tabernara joaten naizenean haserretzen da Miren.

Kasu horretan ez da koma erabili behar baldin eta galdegaia *Zurekin tabernara joaten naizenean* bada. Zergatik? Mendeko perpaua aurrean doalako, eta bi perpauen arteko muga (*-(e)nean*) argi gelditzen delako. Begira zer gertatzen den esaldiari buelta ematen badiogu:

Miren haserretzen da zurekin tabernara joaten naizenean.

Oraingoan *-(e)nean* hori atzean gelditu zaigu, eta ez du balio bi perpauen arteko muga ezartzeko. Ez dakigu non bukatzen den esaldi nagusia: *Miren haserretzen da* edo *Miren haserretzen da zurekin*. Zalantzak sortzen zaizkigu: norekin haserretzen da Miren... zurekin, nirekin, bere buruarekin? Norekin joaten naiz tabernara... zurekin, bakarrik? Arazoa konpontzeko biderik errazena koma jartzea da:

Miren haserretzen da, zurekin tabernara joaten naizenean.

Edo

Miren haserretzen da zurekin, tabernara joaten naizenean.

### **Kontuz!**

Jende gutxik erabiltzen du koma hori behar bezala, eta horra hor gaizki-  
-ulertuak. Juan Garziak adibide polit hau ematen digu:

Andereñoa haserretu zaio klasean jende guztiaren aurrean izozkia jan  
duelako.

Dagoen horretan –komarik gabe– esaldia erabat anbigua da. Ikusi kon-  
binazio batzuk:

Andereñoa haserretu zaio, klasean jende guztiaren aurrean izozkia jan  
duelako. [Antza, ume batek izozki bat jan du klasean –ikaskide guztien  
aurrean–, eta horrexegatik haserretu zaio andereñoa. Badakigu arrazoia; ez  
dakigu non egin dion errieta].

Andereñoa haserretu zaio klasean, jende guztiaren aurrean izozkia jan  
duelako. [Oraingo honetan badakigu istilua klasean gertatu dela –agian leku-  
korik gabe–, baina litekeena da izozkia kanpoan jan izana –jende guztiaren  
aurrean, hori bai–].

Andereñoa haserretu zaio klasean jende guztiaren aurrean, izozkia jan  
duelako. [Garbi dago istilua klasean eta ikaskide guztien aurrean gertatu  
dela; baina litekeena da izozkia kanpoan eta bakardade osoan jan izana].

Esango duzu hamaika modu dagoela korapiloa askatzeko; besteak beste,  
esaldiaren egitura edo hitzen hurrenkera aldatuta. Zuzen zaude, baina par-  
tida jokatu aurretik hobe dugu jokoaren arauak ondo ezagutzea.

### **► Zenbait perpaus koordinaturen mugan**

Eskolan behin baino gehiagotan esan digute *eta* baten aurretik ezin dela  
komarik jarri; baina hori ez da egia, batzuetan behar-beharrezkoa baita,  
esaldia taxuz ulertzeko. Saia gaitezen azaltzen. *Eta*, *edo* eta horrelako jun-  
tagailuek horixe egiten dute: hitz batzuk juntatu. Adibidez: *berrikuntza  
lanak egin dituzte liburutegian eta kiroldegian*.

Eta horrela irakurri ohi ditugu: *liburutegian eta kiroldegan*, batera eta bata bestearen segidan, bi hitzek sintagma itxi bat osatuko balute bezala. Egia da gehienetan hala gertatzen dela, baina ez beti: izan ere, batzuetan esaldiak lotzen ditu juntagailu horrek; hau da, sintagma horretako lehen osagaia esaldi bati dagokio, eta bigarrena, berriz, beste bati. Erreparatu adibideari:

Berrikuntza lanak egin dituzte *liburutegian eta kiroldegan* laster hasiko dira obrak.

*Liburutegian eta kiroldegan* ikusita, begiek automatikoki sartzen dituzte bi izenak sintagma berean, esaldi ezberdinetakoak izan arren. *Eta*-ri koma jartzen badiogu berriz, halako seinale bat daukagu lehen esaldia amaitu dela jakin ahal izateko. Beraz, ondorio gisa: printzipioz, [, *eta*] jarri koordinazioan datozen bi esaldiren artean.

Berrikuntza lanak egin dituzte *liburutegian, eta kiroldegan* laster hasiko dira obrak.

## **Kontuz!**

Jendeak ez dio kontu honi merezi duen garrantzia aitortzen, eta hortik datorkigu idazki batean gerta daitekeen arazorik latzena; alegia, irakurleak atzera eta aurrera ibili behar izatea, lehen irakurraldian testua ilun suer-tatu zaiolako.

\*Atzo heldu ziren **Bilbora eta Gasteizera** gaur arte ez dira ailegatuko.

Atzo heldu ziren **Bilbora, eta Gasteizera** gaur arte ez dira ailegatuko.

\*Txosten horretan ahal izan zuen moduan sartu zituen **datuak eta bere proposamenak** beste egun baterako utzi zituen.

Txosten horretan ahal izan zuen moduan sartu **zituen datuak, eta bere proposamenak** beste egun baterako utzi zituen.

## **► Bai edo ez batzuk segidan**

*Bai* edo *ez* bat baino gehiago segidan joanez gero, komaz bereizi ohi dira. Adibidez:

Horrek, bai euskaraz, bai frantsesez, bai ingelesez zoragarri egiten du.

Aurkezpenera ez zen azaldu, ez politikorik, ez idazlerik, ez inor.

### ▮ **Zenbaki hamartarrak (dezimalak)**

Zenbaki osoa eta dezimalak bereizteko, koma ipini ohi da: 2,75. Ikusten duzenez, kasu honetan ez dugu tarterik utzi komaren atzetik.

Nolanahi ere, esan beharra dago gaur egun puntua ari dela nagusitzen nazioartean (2.75); hala, ordenagailu, erloju, irrati eta enparau gehienetan, puntua topatzen dugu azkenaldian.

### ▮ **Datan, toki-izenaren ondoren**

Arrieta, 2002ko martxoaren 14a

### ▮ **Perpaua menderatuen barnean... kontuz komarekin**

Amaierarako utzi dugu, seguru asko, konturik latzena, edo, hobeto esanda, zalantzazkoena; hain zuzen ere kontu honetan irizpide garbirik ez dagoelako. Komak erabiltzekotan, perpaua menderatuen esparruak bereizteko erabili behar dira (lehen azaldu dugunez); ez gaitezen harritu, perpaua menderatu horien barruan beste koma batzuk jarrita, arazoak sortzen badira.

Eta zergatik jarri ohi dira beste koma horiek? Bada, agian, bertigoa sentitzen dugulako esaldia luze datorrela ikusterakoan; ez gara konturatzen, ordea, koma horiek erabilia anbiguotasuna areagotzen dela. Esate baterako:

Orain dela astebete Bartzelonan ezagutu nituen lagunekin bazkaldu nuen.

Orain dela astebete, Bartzelonan ezagutu nituen lagunekin bazkaldu nuen.

Lehen esaldian hauxe ulertzen dugu: orain dela astebete lagun batzuk ezagutu nituela Bartzelonan eta eurekin izan dudala bazkaria (ez dakigu noiz). Bigarrena ezberdina da: orain dela astebete izan dut bazkaria, Bartzelonan ezagutu nituen lagunekin (ez dakigu, baina, noiz ezagutu nituen horiek).



Askatasun handiegiz erabiltzen ditugun koma horiekin kontuan hartu beharreko bigarren arazoa hau da: ez da arauzkoa, printzipioz, koma (koma bakarra, noski) jartzea subjektuaren eta aditzaren artean; ez eta aditzaren eta osagarri zuzenaren artean ere. Jende askok, ordea, araua hausten du hainbat arrazoi tarteko direla: esaldia luzeegia dela, subjektua eta aditza elkarrengandik urrunegi gelditzen direla, mintzagaia (subjektua, kasu honetan) nabarmendu nahi dutela, esaldi ilunak “argitu” nahi dituztela...

Joxe Ramon Zubimendik eta Pello Esnalek adibide ederrak ematen dizkigute *Idazkera-liburua*-n:

Alaba gaztearen atzetik dabil.

Maria alargunarekin ezkondu da.

Esaldi biak zuzenak dira, baina, zenbaiten ustez, anbiguoak: gazte baten atzetik dabil alaba, ala baten bat dabil alaba gazte baten atzetik? Maria ezkondu da alargun batekin, ala baten bat ezkondu da Maria alargunarekin?

Arazorik egon ez dadin, biderik errazena hartzen dute batzuek:

\*Alaba, gaztearen atzetik dabil.

\*Maria, alargunarekin ezkondu da.

Baina, lehen esan dugunez, legez kontrakoa da hori; beraz, bestelako bideak hartu behar dira, besteak beste:

Gaztearen atzetik dabil alaba. [Subjektua atzera]

Alargunarekin ezkondu da Maria. [Subjektua atzera]

Alaba, orain, gaztearen atzetik dabil. [Tartekiren bat sartu]

Maria, azkenean, alargunarekin ezkondu da. [Tartekiren bat sartu]

Bi ondorio nagusi, beraz:

- Ez da komeni subjektua aditzetik urrun ibiltzea.
- Mintzagai garbia denean baino ez jarri koma hasieran. Adibidez, *Gaur goizean ikusi dute alkatea* esaldian *Gaur goizean* da galdegaia, eta *noiz* galderari erantzuten dio; hortaz, ezin da koma erabili.

Zer gertatzen da hau jartzen badugu?: *Gaur goizean, ikusi dute alkatea*. Bada, esanahia guztiz aldatzen dela; izan ere, oraingo honetan *Gaur goizean* mintzagaia da (informazio ezaguna) eta aditza bera da galdegaia, hau da, aditzaren baiezkotasuna da azpimarratu nahi duguna.

## BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, Andres. *Eskola gramatika*. Donostia: Elkarlanean, 1998, 263.-264. or.  
Egunkaria. *Estilo Liburua*. Donostia: Egunkaria, 2001, 44.-49. or.
- ESNAL, Pello; ZUBIMENDI, Joxe Ramon. *Idazkera-liburua*. Donostia: Kultura Saila, 1993, 33.-45. or.
- GARZIA, Juan. *Joskera Lantegi*. Donostia: HAEE-IVAP, 1997, 37.-145. or.
- Real Academia Española. *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*. Madrid: Espasa Calpe, 1986, 146.-147. or.
- ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 2001, 54.-56. or.

## PUNTU ETA KOMA

**Nik uste dut badakidala komak eta puntuak erabiltzen, baina zalantza egiten dut beti puntu eta komarekin. Azalduko al didazue nola erabiltzen den?**

Zuri gertatzen zaizuna beste hainbat jenderi ere gertatzen zaio; bada halako beldurra puntu eta koma erabiltzeko, eta, ondorioz, zaila da aurkitzen gure testuetan. Hasteko, esan dezagun puntuazio-zeinu batzuen artean hierarkia nabari bat dagoela: komaren gainetik, puntu eta koma dator; eta horren gainetik, puntua. Eta “hierarkia” esaten dugunean ez dugu esan nahi pausaldia luzeagoa dela zeinu batekin beste batekin baino; edo ez hori bakarrik, behintzat. Esan nahi duguna da testu bat osatzen duten zatien artean harreman-mota ezberdinak daudela: batzuk, estu-estuak; beste batzuk, lausoagoak; eta horrek eragina du, zalantzarik gabe, kasuan kasuko puntuazio-zeinua aukeratzekoan. Azter dezagun, bada, noiz eta nola erabiltzen den puntu eta koma.

### ► Esaldiak elkarrekin lotzeko

Esaldi konposatu baten perpausak zenbait modutan elkartu daitezke: juntagailuen bidez (*eta, edo...*), menderagailuen bidez (*nahiz eta, -(e)la, -(e)lako*); beste batzuetan, berriz, zentzu osoko esaldi horiek ezer gabe –puntuazio-zeinuak bakarrik erabilita– lotzen dira elkarrekin, nahiz eta beren artean lotura estua izan. Eta, hain zuzen ere, horrelako kasuetan baliatu ohi gara puntu eta komaz.

Demagun bi ideia eman nahi ditugula aditzera: *Portu aldea bestelakoa da / Arrantzaleak baino ez dira bizi bertan*. Hamaika bide daude bi ideiei esaldi batean emateko:

Portu aldea bestelakoa da, arrantzaleak baino ez **baitira** bizi bertan.

Portu aldea bestelakoa da, **izan ere** arrantzaleak baino ez dira bizi bertan.

...

Baina, esan dugun bezala, juntagailurik gabe ere lotu daitezke (lotura semantikoa, ez sintaktikoa), eta, horretarako, puntu eta komara jo dezakegu, edo, aurrerago ikusiko dugun bezala, bi puntuetara<sup>1</sup>:

Portu aldea bestelakoa da; arrantzaleak baino ez dira bizi bertan.

Edo

Portu aldea bestelakoa da: arrantzaleak baino ez dira bizi bertan.

Ikusten denez, bi esaldiek zentzu osoa dute, eta baita harreman estua ere (lehenena bigarrenaren ondorioa da, edo bigarrena, lehenengoaren arrazoia). Kasu horretan, koma ahulegia litzateke, eta gainera, ondoren datorrena mendekoa dela-edo adieraziko luke:

\* Portu aldea bestelakoa da, arrantzaleak baino ez dira bizi bertan.

Eta puntua, beharbada, gehiegi:

\* Portu aldea bestelakoa da. Arrantzaleak baino ez dira bizi bertan.

Egokiena, zein? Puntu eta koma, edo bi puntuak.

## ► Komak dituzten esaldiak lotzeko

Begiratu adibideari. Bi esaldi dauzkagu (eta bakoitzaren barruan komak ageri dira):

Administrazioko langile batzuk behin betikoak dira, eta “funtzionario” esaten zaie.

Beste batzuk, gehienak gaur egun, behin-behinekoak.

Eman dezagun bi esaldiok bakarrera bildu nahi ditugula. Zein puntuazio-zeinu aukeratuko dugu horretarako? Koma bat gutxiegi da komadun esaldiak uztartzeko:

\*Administrazioko langile batzuk behin betikoak dira, eta “funtzionario” esaten zaie, beste batzuk, gehienak gaur egun, behin-behinekoak.

1. Ikusi *Bi puntuak*, 33. or.

Puntua, gure ustez, gehiegi, ideia berari buruz ari garela kontuan izanik:

\*Administrazioko langile batzuk behin betikoak dira, eta “funtzionario” esaten zaie. Beste batzuk, gehienak gaur egun, behin-behinekoak.

Loturarik egokiena puntu eta koma da, zalantzarik gabe:

Administrazioko langile batzuk behin betikoak dira, eta “funtzionario” esaten zaie; beste batzuk, gehienak gaur egun, behin-behinekoak.

Berdin gertatzen da adibide hauetan ere:

Alkateak txostenak eraman zituen bilera hartara; idazkariak, argitalpen berriak; zinegotziak, buletinak; eta langileen ordezkariak, sindikatuen proposamenak.

Ikusten duzunez, komek “eraman zituen” aditza ordezkatzan dute (elipsia)<sup>2</sup>; beraz, logikoa da hierarkiari jarraitzea, koma horien arteko lotura egiteko.

Dena dela, inguruan izango ditugu aurrerantzean hark biztu zituen itxura xotilak: Udaberri neskatxa, urdinez jantzia, basoak maitea; goizegi karra-xika hasi zaion Otalora ezinegona; Uda, mendiaren eguerdia; Negu agurea: Itzal beltzerana, Baso’ren umea; Jaun Iguzki oraila, lehorteen aita; bere ama, Gau naroa, ezagutzen ez duen Egun begi urdina; Pago per-txenta gaztea; lurrezko jauregian bizi den Kilker olerkari arlotea; Urretxindor adiskidearen hilketarekin berandu beldurrez lehiatzen diren txori saldoak, eta hainbeste eta hainbeste (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak II. Liburuak I.*, 64. or.)

### ► Aurkaritzako juntagailu eta lokailuekin (*baina, ordea...*)

Honetan, esaldiaren luzerari begiratu ohi zaio. Laburrak badira, nahikoa da koma:

Gaztea da, baina azkarra.

Luzeagoak badira, puntu eta koma behar dute gutxienez:

Txosten baten testua laburra edo informala baldin bada ez du zertan eraman aurkibiderik; bai, ordea, informazio asko ematen duenean.

2. Ikusi Aditza “ezkutatzan” denean... haren ordez (elipsia) (Koma), 21. or.

Puntu eta koma hori, besteak beste, hauekin erabiltzen da: *baina, ordea, ostera, aldiz, berriz, hala ere, dena dela, aitzitik...* Gogoratu koma jarri ohi dela horien ondoren:

Nagusi gogorra dela diote zerbitzuko guztiek; dena dela, ezagutu arte, hobe isilik egon.

Irakasleek esaten dutenez, ez da batere trebea hizkuntzak ikasten; **hala ere**, sekulako ahaleginak egiten omen ditu euskararekin.

### ► Beste zenbait lokailurekin

Lokailu hauek, askotan, puntu eta koma eramaten dute aurretik, eta koma atzetik<sup>3</sup>:

Kausazkoak: *izan ere, bada...*

Ondoriozkoak: *beraz, hortaz, orduan, horrenbestez, hala...*

Hautakariak: *bestela, osterantzean, gainerakoan...*

Beste batzuk: *hau da, gainera, bestalde, halaber, behintzat...*

Legearen arabera, alkatea gaixorik badago alkateordeak egin behar ditu haren lanak; **beraz**, berari dagokio bilkurako deia egitea eta gai-zerrenda finkatzea.

Erregimena edo zer edo zer asmatu beharko dugu; **bestela**, gizendu egingo gara.

Hala eta guztiz ere, hori ez da inolaz ere legea, eta ezin da modu automatikoan egin; izan ere, lokailu horiek, batzuetan, atzeko esaldiarekin ez, baizik eta aurrekoarekin doaz, eta hori argi utzi behar da puntuazioaren bidez. Erreparatu adibideei:

Mutil jatorra eta trebea zen, **gainera**; denok izan nahi genuen bera bezalako.

Garai hartan horrela uste genuen, **behintzat**; gaur egun, zeharo aldatu da egoera.

### ► Zenbait testu-antolatzaileekin

Testu-antolatzaileek diskurtsoa behar bezala egituratzeko balio dute. Mota askotakoak izan daitezke: kronologikoak (*lehenik, bigarren, hirugarren,*

3. Ikusi *Zenbait lokailurekin erabiltzen da koma (Koma)*, 20. or.

*amaitzeko...*), deskriptiboak (*hemen, hor, han...*), zerrendak logikoki antolatzeko modukoak (*batetik, bestetik, azkenik...*). Bada, horrelako testu-antolatzailleekin puntu eta komaz baliatzeko joera handia dago. Ikusi adibideak:

Hona hemen liburuan landu diren gaiak: lehenengoa, gizakia bera eta beraren premia; bigarrena, gizakiaren ingurunea; hirugarrena, gizakiaren jardura nagusiak; eta, azkenik, berbeta bera.

*Asmoz* programaren bidez hauxe lortu nahi da: alde batetik, eusko ikaskuntzetan adituak izango diren ikertzaile berriak sortaraztea; eta, bestetik, ikerketa horietarako diru-laguntzak ematea.

## BIBLIOGRAFIA

Egunkaria. *Estilo Liburua*. Donostia: Egunkaria, 2001, 49.-50. or.

ESNAL, Pello; ZUBIMENDI, Joxe Ramon. *Idazkera-liburua*. Donostia: Kultura Saila, 1993, 46.-49. or.

GARZIA, Juan. *Joskera Lantegi*. Donostia: HAEE-IVAP, 1997, 37.-145. or.

Real Academia Española. *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*. Madrid: Espasa Calpe, 1986, 147. or.

ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 2001, 56.-57. or.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

MITXELENA, Koldo. *Euskal Idazlan guztiak II. Liburuak I*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1988.

## BI PUNTUAK

**Bi puntuak, orain arte behintzat, enumerazioak egiteko erabiltzen ziren; baina, orain, beste testuinguru askotan ere agertzen dira. Hortaz, lehen garbi neukana nahasian ikusten dut gaur egun. Laguntzarik bai?**

Egia da, lagun, bi puntuak nagusiki enumerazioei sarrera egiteko erabiltzen direla; baina, ezin ditugu bazter utzi beste erabilera batzuk. Zergatik? Bada, estrategikoki oso erabilgarri zaizkigulako, joserik errazteko eta esaldi trinkoak arintzeko. Nolanahi ere, erabilera eta adibide horiek aztertu aurretik, jo dezagun definiziora: bi puntuek esaldia oraindik ez dela amaitu adierazten dute; hau da, ondoren badatorrela zerbait (azalpena, argibidea, hitz zerrenda edo antzekoren bat).

### ► Adibideak edo zerrendak emateko erabiltzen dira bi puntuak

Zuk zeuk oso ondo esan duzunez, hauxe da bi puntuen erabilerarik ohikoena:

Eskutitza formala izango bada, zenbait zati bereizi beharra dugu: norentzakoa, data, sarrerako eta bukaerako agurrak, arazoa eta eskaera.

Hona hemen argitaratu berri den liburuan lantzen diren atalak: fonetika-aldaerak, deklinabidea, aditza, joserik eta hiztegia.

Kontua nahikoa garbi dagoela-eta, ez gara honetan luzatuko.

### ► Hitzez hitzeko aipamenei sarrera egiteko

Gogoratu bi gauza: aipamena kakotx artean idaztea, eta letra larriz hastea<sup>1</sup>:

1. Ikusi *Kakotxak (Letra etzana eta kakotxak)*, 44. or.



Honela esan zuen Umberto Eco *Administrazioa euskaraz* aldizkarian: "Gure garaian utopiak ez du ia tokirik".

Paulo apostoluaren hitzak datoz gogora: "Haur nintzenean, haurrari dagokionez hitz egin; haurrari dagokionez uste, haurrari dagokionez asmatzen nuen. Gizondu orduko, berriz, haurkeriak utzi ditut" (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak IV. Literaturaren inguruan I.*, 25. or.).



Honaino, bi puntuaren erabilerarik arruntenak, galderan esan diguzunaren arabera, lehendik ezagutzen zenituenak; baina, zuk zeuk aurreratu duzunez, badira beste erabilera batzuk. Horiek ulertzeko, kontu bat argitu beharra dago. Perpausak elkartzeko bi modu nagusi daude: lehena, erabili-ena, juntagailuez (*eta, ala*) edo bestelako menderagailuez (*nahiz eta, ...(e)lako, ...(e)nean*) baliatzen da. Bide hori erabilita, honelako esaldiak ateratzen zaizkigu:

Zailena eta gogorra den hirugarren proba dator orain.

Ez gaitezen engaina; izan ere, oso ondo dakigu bera dela benetako protagonista.

Irakurleari lastoa eman beharrean, hobe dugu informazioa ondo aukeratzea.

Jakin beharra dago hizkuntzak ez direla, berez, hobeak edo txarragoak.

Bigarren modua ezberdina da: juntagailuak erabili beharrean, puntuazio-zeinuez baliatzen gara; hau da, lotura sintaktikoak (*baina, arren, (e)la...*) deuseztatu egiten ditugu nolabait, eta haien ordean, lotura semantikoak ezartzen. Puntuazio-zeinu gehienek balio dute honetarako, baina guztietan emankorrenak bi puntuak dira. Ikusi aurreko adibide horiek, bi puntuak erabilita:

Hirugarren proba dator orain: zailena eta gogorra.

Ez gaitezen engaina: oso ondo dakigu bera dela benetako protagonista.

Ez lastorik eman irakurleari: hobe dugu informazioa ondo aukeratzea.

Jakin ezazue: hizkuntzak ez dira, berez, hobeak edo txarragoak.

Ikusten duzunez, lotura sintaktikoak ez daude dagoeneko begien bistan; horien orde, bi puntu jarri ditu idazleak, eta irakurleari dagokio bi per-pausen ertzen artean zubi logiko bat eraikitzea.

Zure galderan esaten diguzu “beste testuinguru askotan” topatzen dituzula bi puntuak. Hemen duzu erantzuna: bi puntuek ederki asko balio dute joskerari trinkotasuna kentzeko eta esaldiak errazago, arinago irakurtzeko. Agian galdetuko duzu: eta zer lortzen dugu horrekin?

Jakin ezazu, esaldiak neurri gabe elkarri uztartuz gero, zenbait arrisku dugula: testuak freskotasuna galtzea; esaldi luzeegiak egitea; eta, teknika kontrolatzen ez badugu, aditzak (informazio nagusia) oso atzean gelditzea. Alde honetatik, esaldiak sinplifikatzea komeni zaigu, eta honetan bi puntuek laguntza polita ematen digute.

Dena dela, gezurra badirudi ere, jendeak oso gutxi erabiltzen ditu; bakarrik idazle onek (Mitxelenak, kasu) baliatzen dituzte behin eta berriro, estilo zuzenagoa eta adierazgarriagoa lortzeko, eta erritmo aldaketa sorrazteko. Eta, Mitxelena aipatu dugunez, ikus ditzagun adibide batzuk (sailkatu, ezkutuan duten lotura sintaktikoaren arabera sailkatu ditugu):

### ERLATIBOZKO ESALDIAK:

Iparraldeko gizon hezea zen: Hegoalde lehorrak ez zuen gehiegi kilikatzen. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak VIII. Artikuluak eta beste I., 77. or.*).

### KAUSAZKOAK:

Madariagak nonbait dioenez, ba omen dute elkarren antza pixka bat gaurko bankuek XVIgn. mendeko Berberi-aldeko itsas-lapurrekin: batzuekin ala besteekin harremanetan hasten dena, nolnahi ere, arinago irteten omen da sartu den baino, diru gutxiagorekin alegia. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak II. Liburuak I., 81. or.*).

### AURKARITZAKOAK:

Gaurko irakurlerik gehienak ez ditu aspertu etengabeko lelo horrek: gerokoekin zer gertatuko, ezin esan. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak VIII. Artikuluak eta beste I., 76. or.*).

Ez zen hizkuntzaz ari: mamiari dagokion auzia zen eta da. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak II. Liburuak I., 51. or.*).

**KONPLETIBOAK:**

Hauxe esango dut aurrenik, neretzat argi eta garbi dagoenez gero: bizi-ro alaitzen nau, besteri besterik iruditzen bazaio ere, liburu hori euskaraz idatzita ikusteak, bizi-bizirik dugulako seinalea baita. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak II. Liburuak I.*, 136. or.).

Ikusi dugu, beraz, nola jokatu esaldiekin, nola askatu trinkotasunaren korapiloa, nola aditzera eman gauzak beste era askeago batean: estiloaz ari gara. Honezkero garbi geratuko zen oker handia litzatekeela bi puntuak gutunen hasieran egotera kondentatzea. Puntuazio-zeinu honek joko handia ematen digu eta gauza askotarako balio dezake; besteak beste:

**▮ Aditz nagusiak aurreratzeko<sup>2</sup>**

Esaldiak luzeak badira, ez zaigu komeni aditzak oso atzean geratzea, informazio-gune nagusi baitira. Bi puntuek bide ematen digute, batzuetan, aditz nagusiak aurrera eramateko.

**Hauxe da** gerra aurretik, gerratean eta gerra ondoan **ikasi dudana**: agintzen duena egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin dakiokela besteri agin. (Mitxelena. *Idazlan...*, 376. or.).

**Hauxe da** nornahiri euskararen gaitasunak adierazteko biderik zuzenena: euskal ederlandak sortzea. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak II. Liburuak I.*, 66. or.).

**Hauxe diot**: delako historia hori zertu-gabeko zeren linboan edo dagoela, nork handik aterako duen zai. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak V. Literaturaren inguruan II.*, 22. or.).

**Ziurtagiri bat hauxe da**: idatzizko aitorten ofizial bat, ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duena.

**▮ Ideiak azaltzeko**

Idazleak ideia nagusi bat botatzen du, biribila; eta gero, bi puntuen ondoren, frogatu edo zehaztu egiten du beste esaldi baten bidez. Hau da, *oro-korretik zehaztasunetara* eramaten gaitu bi puntuen bidez.

Orixe ez zen inoiz hizkuntzaren edertasun hondargabeetan ito: hizkuntza zerbaitetarako nahi zuen, euskaldunaren izaera, gogo-giroa eta bizi-

2. Ikusi *Atzerakarga*, 217. or.

moduak adierazteko. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak V. Literaturaren inguruan II.*, 120. or.).

Batzuetan, ordea, justu alderantziz gertatzen da: azalpenak datoz lehenago, eta ideia nagusia ondoren. *Zehaztasunetatik orokorrera* goaz honelakoetan.

Euskaldun gehienok, guziok ez bada, badugu geure barrendegian txoko urri eta apaindura gabeko bezain maite bat: gure euskal baraztea. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak IV. Literaturaren inguruan I.*, 29. or.).

Leturiak, bada, tentazio eder bat ezagutu zuen: maitasuna. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak II. Liburuak I.*, 137. or.).

Ideiak azaltze horretan, aukera hau ere badugu: *arrazoietatik ondoriora* jotzea.

Lan egiten du, umeak zaindu, bigarren karrera bat ikasten ari da, eta gainera, pianoa jotzeko astia dauka: bera bezalakorik ez dago.

Edo bestera: *ondoriotik arrazoietara*.

Nazkatuta nago: egunero jaiki, lanera joan, handik atera, telebista apur bat ikusi eta... hurrengo egunerako prest.

Nik ezagutu dudan hiztunik ederrena galdu dugu: ezin agortuzko iturri izkutu batetik bezala zerion hitza eta hitz ozenak, ahotik irten orduko, lerro-lerro antolatzen zitzaizkion zein bere tokian, soldadu ongi ezien antzera. (Mitxelena. *Euskal Idazlan guztiak VIII. Artikuluak eta beste I.*, 1988, 80. or.).

Ez dugu azalpen hau bukatu nahi, bi puntuen beste pare bat erabilera eza-gun gogoratu gabe. Hona hemen:

## ► Gutunetako hasierako agurretan

Besterik esaten ez den bitartean (badakizu beste hizkuntza batzuetan bestelako puntuazio-zeinuak erabiltzen direla honetarako) gutunetako hasierako deikiaren ondoren bi puntuak jartzen ditugu, eta gero letra larriz hasten gara idazten.

Lagun hori:

Gutun honen bidez...

## ► Orduak zenbakiz adierazterakoan

Honelakoetan, bi puntu jarri ohi dira orduen eta minutuen artean: *18:30, 23:15...* Ikusten duzunez, tarterik ez dago bi puntuen ondoren.

## BIBLIOGRAFIA

Egunkaria. *Estilo Liburua*. Donostia: Egunkaria, 2001, 50.-51. or.

ESNAL, Pello; ZUBIMENDI, Joxe Ramon. *Idazkera-liburua*. Donostia: Kultura Saila, 1993, 57.-61. or.

GARZIA, Juan. *Joskera Lantegi*. Donostia: HAEE-IVAP, 1997, 37.-145. or.

Real Academia Española. *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*. Madrid: Espasa Calpe, 1986, 147.-148. or.

ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 2001, 57.-58. or.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

MITXELENA, Koldo. *Euskal idazlan guztiak*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1988.

MITXELENA, Koldo. *Mitxelenaren idazlan hautatuak*. Bilbao: Etor, 1972.

## LETRA ETZANA ETA KAKOTXAK

### Bi kontu, galdera bakarrean:

1. **Etzana eta kakotxak direla-eta, argituko al didazue noiz erabiltzen den bata eta noiz besteak?**
2. **Nola hartzen dituzte deklinabide-atzizkiak etzanez edo kakotxen artean doazen hitzek?**

Jarraian esango ditugunak irakurrita, arauak ematen ari garela pentsa dezakezu: oker zaude. Ortotipografiako kontuetan ez dago legerik; ezin da esan “hau horrela da”, hainbat modu eta proposamen ezberdin daudelako. Hemen aurkezten dizuguna, horietako bat baino ez da; hedatuena, agian, baina ez bakarra.

Letra etzana eta kakotxak gauza ezberdinetarako erabiltzen dira. Azter ditzagun biak:

### LETRA ETZANA

Besteak beste, honelakoetan:

#### ► Izenburuak

Hauen guztien izenburuak etzanez idazten dira: liburuak, artikulua, filmak, antzerki-lanak, abestiak, esloganak...

*Zero akats* kanpaina nahiko ospetsua izan zen bere garaian.

Ederki pasatu zuten umeei *Kalabaza tripontzia* ikusten.

*Katabegi galdua* irakurri dut orain dela gutxi.

Nolanahi ere, etzanez idazten den izen batetik sigla ateratzen bada, sigla hori letra zuzenez idatzi behar dugu:

Hona hemen *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*-ren sigla: EHAA

## ► Atzerriko hizkuntzetako hitzak

Atzerriko hizkuntzetako hitzak etzanez idazten dira:

Antza, idazten hasi aurretik *brain storming*-a egitea komeni zaigu.

Hala ere, atzerriko berba horiek ez dira etzanez idatziko kasu hauetan:

- Dagoeneko euskarak barneratu baditu edo Euskaltzaindiak bere hiztegian sartu; hau da, euskal hitz bihurtu badira:

Izugarri gustatzen zaio jazza.

- Atzerriko berba horiek geografia izenak, kaleak, eraikuntzak... badira:

Eusko Jaurlaritza Wellingtongo Dukearen kalean dago.

- Kirol batzuen izenak, arrazak, hizkuntzak, diru edo dibisak, neurriak, industria-konpainiak, merkataritzako erakundeak... badira:

Peugeot a erosi omen du.

Squashean egin genuen eta baita irabazi ere.

Jokalari brasildarrek ez dute kruzeirotan kobratu nahi; dolarrak nahiago dituzte.

## ► Animalien izenak

Animalien izen bereziak etzanez idazten dira:

Badakizu nola deitzen den katua?: *Argitxu*.

*Dolly* ardia guztion ahotan ibili zen ez hain aspaldi.

Zezenak ere etzanez aipatzen dira, ganaderiaren edo jabearen izen orokorra hartzen dutenean:

Sei *Pablo Romero* hil zituen korrida zoragarri hartan.

## ► Itsasontzien, hegazkinen, espazio-ontzien... izenak

Izen bereziei buruz ari gara, noski:

*Voyager, Spirit of St. Louis, Titanic...*

Eta ez, markei edo programa zientifikoei buruz (hauek guztiak, letra zuzenez):

Boeing 727, Apollo programa...

### ► **Pertsonen izengoitiak**

Izenarekin batera doazenean idazten dira etzanez:

Jose Maria Agirre *Lizardi* Zarautzen jaio zen 1896an.

Hala ere, ez dira etzanez idatziko kasu hauetan:

#### ■ **Bakarrik doazenean:**

Kirikiñok Azkue ordezkatu zuen Bizkaiko Aldundiko Euskarako katedran.

#### ■ **Izengoiti horiek izenaren zati direnean (eta gainera, pertsonaiak berak onartutakoak):**

Txiki Benegasen ustez, indarberrituta atera da PSE udaberriko kongresuaren ostean.

#### ■ **Ezta ere politiko jakin baten, alderdi politiko jakin baten edo doktrina jakin baten jarraitzaileak izendatzeko erabiltzen direnean:**

Redondotarrak PSEren erabaki askoren aurka azaldu dira azken aldian.

### ► **Hitz arrunten adiera bereziak**

Ohiz kanpoko adierak (argotekoak) direla markatzeko idazten ditugu etzanez:

Kristoren *aitzurra* zeramala, istripua izan zuen.

*Zaldia* saltzeagatik harrapatu omen zuen Ertzaintzak.

### ► **Latinezko esamoldeak**

Hauek ere, etzanez:



*Honoris causa* izendatu dute berriki.

## ► Metahizkuntza

Hau da, hitzak erabili beharrean, aipatu egiten ditugu:

Aditz batzuek, aspektu marka burutua edo ez-burutua jartzeko orduan, *izan* edo *ukan*-en laguntza behar izaten dute.

*Lagundu* aditzak buruhauste ederrak sortarazten dizkie ikasle batzuei.



Egin diguzun lehen galderari erantzun diogula uste dugu. Hel diezaiogun, bada, bigarrenari; alegia, nola deklinatzen dira letra etzanez doazen hitzak? *Egunkariaren estilo liburu*-an (bigarrenean) hainbat aukera ematen zituzten (euskal hitzek ez zuten marrarik hartzen, atzerrikoek bai, eta abar); hirugarrenean, ordea, hau esaten da: “Letra etzanez emandako izen bat deklinatzen denean, marratxoa jarri eta atzizkia letra zuzenez ematen da: *Berrigara*-n argitaratu dute”.

Oro har, bat gatoz *Egunkaria*-k esaten duenarekin; praktikan, ordea, zailagoa da kontua. Zer dela-eta? Bada, hainbat hitz arrotz bertakotu egiten direlako, bide horretan gorabehera ugari sortuz. Jar dezagun adibide bat.

Aurretik esan dugu atzerriko hitzak etzanez idatzi behar direla (baldin eta gure hizkuntzan barneratuta ez badaude); baina nork esaten du noiz sartu diren gure hizkuntzan? Eta nolakoa da barneratze hori: bat-batekoa, mailakakoa? Demagun aplikazio txiki-txikiak izendatzeko hitz hau hartzen dugula ingelesetik: *applet*. Deklinatzerakoan, honela egin beharko genuke: *applet*-ak. Eta ondo dago, hitz oso ezezaguna baita. Arazoa sortzen da, hitz hori poliki-poliki gure hizkuntzan sartzen denean; eta horretaz ez du inork abisatzen. Informatikako adituak hasiko dira erabiltzen gehien, eta egun batean litekeena da beren idazkietan honela agertzea: *applet*-ak (etzana galduta, arrotzasuna ez baita dagoeneko erabatekoa). Denbora aurrera joan ahala, jende arruntak oraindik *applet*-ak idazten duen bitar-

tean, litekeena da termino honekin oso ohituta dagoen baten batek hau erabiltzea: appletak (ez baitu ikusten gidoiaren beharra). Azkenik, erabat zabalduta dagoenean, litekeena da Euskaltzaindiak jasotzea, eta baita euskal itxura ematea ere: apletak. Begira, bestela, zer gertatu den hitz hauekin: kanpina, futbola, errugbia, budina... Euskaratze horretan aldiak izaten dira, zalantzak, atzera-aurrerak, kontraesanak. Normala da hori, ez baitago, ez hemen, ez inon, ohiz kanpokoa ohikotik bereizteko muga finkorik, hots, hitz bat noiz arte etzanez eta noiztik biribilez idatzi behar den erabakitzeke irizpiderik. Idazlearen senak erabakitzen du, eta batzuetan adostasunik ez dago honetan. Esan dugunez, hau zeharo normala da, buruhauste handirik eman beharko ez ligukeena.

Antzeko zerbait gertatu ohi da, esate baterako, animalien izenekin. Arrazoizkoa dirudi etzana erabiltzea esaldi honetan: “*Sherezade*-k irabazi du Lasarteko bosgarren lasterketa” (zaldia ezezaguna delako). Baina Pinttori buruz ari bagara, beharrezkoa ote da umeentzako ipuin batean etzana eta marra behin eta berriro jartzea? Ez al litzateke onargarria esaldi hau: “Pinttori asko gustatu zitzaizkion opariak”?

Ondorioa: kontu honetan ez dago araurik, Euskaltzaindiak kasuan kasuko hitza bere hiztegian sartu arte. Horrenbestez, zenbaitetan (atzerriko hitzetan, batez ere), ekilibristen modura mugituko gara: batzuek *Euskaldunon Egunkaria*-ren (edo *Egunkariaren* edo, *Egunkariaren*...) proposamenari tinko eutsiko diote; beste batzuek, berriz, askatasun handiagoz jokatu dute. Nolanahi ere, jakin dezagun gehienetan gertatuko zaigula hitz batzuk, arrotasunarekin batera, etzana eta marra ere galtzen joatea.



## KAKOTXAK (“komatxoak”)

Kakotzek, nagusiki, bi gauzatarako balio dute: hitzez hitzeko aipamenak jasotzeko, eta ironiaz esandako hitzak nabarmentzeko. Ikus ditza-gun biak:

### ► Hitzez hitzeko aipamenak

Hitzez hitzeko aipamenak kakotx artean idazten dira, eta ez etzanez, jende askok honela egiten badu ere.

*\*Juan Garziak hau esan zuen behin: Testua bazterrik gabeko itsasoa da eta, hortaz, ezin da dena arautu.*

Juan Garziak hau esan zuen behin: “Testua bazterrik gabeko itsasoa da eta, hortaz, ezin da dena arautu”.

Batzuetan gertatzen da aipamenaren barruan beste aipamen bat egin beharra. Horrelakoetan, komatxo bikoitzen artean komatxo bakunak jarri.

“Alkateak behin eta berriro errepikatzen du ‘Kiroldegia aurten egongo da amaituta’, baina nik ez dut uste horrela izango denik” aitortu zuen atzo Auzokoen Elkarteko presidentek.

Hitzez hitzeko aipamena oso luzea bada eta paragrafo bat baino gehiago hartzen badu, kakotxez hasi eta amaituko dira paragrafo guztiak.

Gutxitan egiten bada ere, aipamen baten barruan tarteki bat sartzen badugu (gure iritzia edo argibide bat emateko, esate baterako), tartekia zabaldu baino lehen itxi egin behar dira kakotzak, eta behin tartekia itxitakoan, berriro zabaldu, aipamenari segida emateko.

Ados nago Txepetxek esandakoarekin: “Gaur egun hizkuntzen transmisioa” –euskarari buruz ere ari da, jakina– “telebistaren bidez gauzatzzen da, familiaren bidez barik”.

Aipamenetik hitz batzuk edo esaldiak kendu nahi baditugu, eten-puntuak jarri behar dira ezabatutako zatiaren lekuan. Kentzen duguna aipamenaren hasiera bada, hortxe jarriko ditugu eten-puntuak (beti ere, kakotxen ondoren); atzekoa bada, amaieran puntuak; eta kendutakoa aipamenaren barruan badago, parentesi artean jarriko ditugu eten-puntu horiek.

**Hasieran:**

Satrustegik, beste askoren artean, hau ere esan zuen: “.. eta beldur naiz gaurko gure agintari askori ez ote zaion bost axola euskararen kultura, zeren eta horretarako laguntzak gero eta gutxiago dira”

**Erdian:**

Administrazioko euskara zelan ikusten zuen galdetu ziotenean, hala erantzun zuen Garziak: “Administrazioa oso zabala da. (...) Dena den, eta oraindik egiteko bidea bada ere, aurrerapauso handiak egin dira”

**Amaieran:**

Honela hitz egin zuen Alvarez Solis-ek: “Madrilen ez diote bere buruari galdetu behar euskaldunek zein katalanek zer demontre nahi ote duten, hori euskaldunek galdetu behar diote bere buruari...”

Goiko adibide guztietan ageri denez, kakotxekin batera puntuazio-zeinuren bat badago (koma, puntua...), marka hori beti kakotxen ondoren jarri behar da.

**► Ironiaz esandako hitzak**

Hitz baten ironia adierazteko kakotzak erabil daitezke; hau da, hitz batek duen esanahiaren guztiz alderantzizkoa agerian utzi nahi bada, kakotx artean jarriko dugu.

Nire arduraduna nolakoa den? Oso “azkarra”: beti izaten da lehena lanetik irteten.

**BIBLIOGRAFIA**

Egunkaria. *Estilo liburua*. Donostia: Egunkaria, 1995, 92.-95. or.

Egunkaria. *Estilo Liburua*. Donostia: Egunkaria, 2001, 54.-55. / 87.-89. or.

(Kontuan izan gaztelaniaz ugariak direla kontsultatu daitezkeen egunkarien estilo liburuak: *El País*, *Agencia EFE*, *ABC*, *El Mundo*...).

## PARENTESIAK, MARRAK (ETA KOMAK)

---

### **Berdin erabil daitezke komak, marrak eta parentesiak informazioaren bat esaldietan txertatzeko ala badago alderik haien artean?**

---

Ondo esaten duzunez, bai komak, bai marrak, bai parentesiak, hirurak erabiltzen dira, diskurtsoan informazio osagarria txertatzeko. Komeriak... arauak ezartzeko orduan sortzen dira. Batzuek berdin erabiltzen dituzte puntuazio-zeinu horiek guztiak, inolako bereizketarik egin gabe; beste batzuk, berriz, legeak ezartzen ere ausartzen dira. Gu araurik ez, baina, argibide / adibide batzuk ematen ahaleginduko gara, beti ere, usadio zabalduenei begira. Ea argi pixka bat ekartzen dugun.

Gure ustez, puntuazio-zeinu horietako bat edo bestea aukeratzeko orduan, batez ere, hau hartzen da kontuan: txertatu beharreko informazio horiek zenbateraino “desbideratzen” diren esaldiaren edukietatik eta egituratik.

Hau da, litekeena da esaldiaren eta tartekiaren artean harreman estu-estua egotea; are gehiago, tarteki hori, era batera edo bestera, esaldiaren zati izatea. Horrelakoetan, nahikoa da komak erabiltzea.

Aurtengo aurrekontuak, lehendakariak aitortu duenez, iazkoak baino murrizagoak izango dira.

Beste batzuetan, tarteki horiek aldenitu egiten dira esaldiaren diskurtsotik, harremanak indarra galtzen du, eta irakurlea nahasteko arriskua dago. Hori gertatzen bada, irakurleari abisatu behar diogu: “Aizu, kontuz ibili, hemen badator iruzkinen bat esalditik kanpo ateratzen dena”. Eta abisatzeko ez dago marrak eta parentesiak bezalakorik.

Egin beharreko presioa –eta honekin ez dut esan nahi bestelako neuririk ezin hartu daitekeenik– denon artean egin behar dugu.

Agian, hasieran baino ilunago ikusiko duzu kontua; konturatuko zinen, dagoeneko, hartu beharreko erabakia, neurri handi batean, subjektiboa dela; horrenbestez, berriro diogu: ez hartu legetzat hemen esandakoa.

Ikus dezagun, bada, nola erabili parentesiak, marrak eta komak; baina, hasi baino lehen, gomendio bat: parentesiak, marrak, tartekiak... neurritz erabili, erredakzioa zapuztuko ez badute.

## PARENTESIAK

Parentesiak, besteak beste, honetarako erabiltzen dira:

### ▮ Leku-izenak eta horrelakoak zehazteko

Uztaritze (Lapurdi) Errobi ibaiaren ertzean dago.

### ▮ Era askotako zenbakiak emateko

Koldo Mitxelenak (1915-1987) hasiera eman zion *Orotariko Euskal Hiztegiari*.

Taldeak osatzeko, gutxieneko kopuru bat behar da (8 ikasle).

Atxiloketa ordu erdi beranduago izan zen (19:50) eta ez zen zauririk gertatu.

### ▮ Siglak, laburdurak... argitzeko

Euskaltzaindiak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) sortu zuen 1980an.

NOLEGAK (Normalizazio Legearen Garapena) ikastaro asko antolatu ditu azken urteotan.

### ▮ Liburuen, filmen... izenburuak itzultzeko

Joxe Austin Arrieta izan zen *Mémoires d'Hadrien* (*Hadrianoren Oroitzapenak*) liburuaren itzultzailea.

### ▮ Izengoitiak eta beste

Orixek (Nikolas Ormaetxea) jesuitetan egin zituen ikasketak.

Ikusten duzunez, parentesi artean datu txikiak sartu ohi dira, aditzik gabe gehienetan; perpausaren beraren egiturarekin lotura sintaktiko oso ahula

dute, eta deklinatu gabe joan daitezke inolako arazorik gabe. Hitz batean: tarteki hauek, neurri batean, kontakizunetik kanpo ateratzen dira, diskurtsoaren haria moztuz, eta horregatik jartzen ditugu parentesi artean, alegia irakurleak jakin dezan hor zerbait berezia datorrela (datu bat, azalpen txiki bat eta abar).

Bukatzeko, esan dezagun komenigarria dela parentesia esaldiaren barruan ondo kokatzea, sintagmak nolana ez mozteko eta irakurketa ez oztogatzeke:

\*1.000 euroko (166.386 PTA / 6.559,57 FRF) isuna ordaindu beharko dute, hitzarmena betetzen ez badute.

1.000 euroko isuna (166.386 PTA / 6.559,57 FRF) ordaindu beharko dute, hitzarmena betetzen ez badute.

\*Bilboko erakustazoka **Ansio** (Barakaldo) **ibarrera** eramango dute.

Bilboko erakustazoka **Ansio ibarrera** (Barakaldo) eramango dute.

## MARRAK

Marrak eta komak esaldiaren barruan tartekiak sartzeko erabiltzen dira; baina bada bien arteko alderik: koma arteko tartekia erabat lotuta dago esaldiaren egiturarekin, konexio logikoa du; marren kasuan, aldiz, lotura hori zeharkakoa baino ez da, nolabait esateko, tartekia “jokuz kanpo” dago; horregatik erabiltzen ditugu marrak, irakurleari ohartarazteko hor azalpen bat datorrela, iruzkinen bat...

Argiago ikusiko dugu adibide batekin. Irakurri esaldi hau:

\*Andoni izan zen zuzendariarekin hitz egiteko hautatu zuten ordezkaria nahiz eta, behin baino gehiagotan pentsatu izan dut hori, pertsonarik egokiena ez izan horretarako.

Ikusten arazoa? Komak ahulegiak dira diskurtsotik aldentzen den komentario bat gordetzeko; zeinu argiagoak behar ditugu: marrak.

Andoni izan zen zuzendariarekin hitz egiteko hautatu zuten ordezkaria nahiz eta –behin baino gehiagotan pentsatu izan dut hori– pertsonarik egokiena ez izan horretarako.

Hala ere, berriro esango dugu: kontuz eta neurritz erabili, tarteki gehiegi edo luzeegiak txertatuz gero, oztopo lasterketan bezala ibiliko baikara, eta irakurleari lagundu beharrean, bidea galarazi egingo diogu. Hobe dugu ondo hausnartu eta bestelako aukerak hartzea: esaldia berrantolatu, moztu...

\*Ez da erraza –hamaika bider saiatu gara gu horri irtenbide egokia aurkitzen, baina ezin; behin eta berriz egiten dugu topo harri berberarekin– behar den soluzioa kausitzea.

Ez da erraza behar den soluzioa kausitzea; hamaika bider saiatu gara gu horri irtenbide egokia aurkitzen, baina ezin: behin eta berriz egiten dugu topo harri berberarekin.

Aposizio batek komunztadura gordetzen ez duenean, marrak ez dira lagun txarra. Ondoko adibidean ikusten denez, ez da beharrezkoa subjektuak duen kasu marka jartzea aposizioan doanari:

Aritz Ansolak –tripazale galanta bera– aitaren batean jan zituen ogitar-tekoak.

Gorabehera asko izaten da beste puntuazio-zeinuekin, zalantza izaten baita zer non jarri. Arazorik ez izateko aski da marra artekoa kentzea eta dagokion puntuazio-zeinua bere tokian jartzea:

\*Zergatik egin zuen galdetu genion arren erantzuten ez zuenez –entzun eta isil, baiezko biribil– behar bezala zigortzea erabaki genuen.

Ondo al dago puntuazioaren aldetik? Kendu marrak:

\*Zergatik egin zuen galdetu genion arren erantzuten ez zuenez behar bezala zigortzea erabaki genuen.

Badirudi koma bat behar dela mendeko perpausaren azkenean:

Zergatik egin zuen galdetu genion arren erantzuten ez zuenez[,] behar bezala zigortzea erabaki genuen.

Eta orain, marra artekoa komaren aurrean edo atzean jarri behar den jakiteko, kontuan hartu zein pasarteri dagokion; adibidean, lehenengo pasarteri dagokionez gero, komaren aurrean kokatuko dugu marra artekoa:

Zergatik egin zuen galdetu genion arren erantzuten ez zuenez –entzun eta isil, baiezko biribil–[,] behar bezala zigortzea erabaki genuen.



Puntuazio-zeinu batzuek –galdera eta harridura markak, esaterako– esaldia ixten dutenez, zalantza izaten da esaldia berriz itxi behar den, horien atzean marrako tartekirik jartzen bada. Erreparatu ondoko adibideei:

\*Erraza da, ezta? –galdetu zion, begietara so eginez– Esan nizun ez zela hainbesterakoa izango.

\*Txomin! –oihu egin zion– Ez al duzu etorri behar, ala?

Bi kasuetan argi dago marra artekoa dela kontalariak aurreko pasarteari erantsi dion zerbait. Letra xehez hasiko da kontalariarena eta, nahiz eta galdera- zein harridura-markak esaldia itxi ohi duten, puntua jarriko dugu azken marraren ondoren, bi pasarteen arteko muga argi uzteko.

Erraza da, ezta? –galdetu zion, begietara so eginez–[.] Esan nizun ez zela hainbesterakoa izango.

Txomin! –oihu egin zion–[.] Ez al duzu etorri behar, ala?

Elkarrizketa idatzietan barra-barra erabiltzen dira marra luzeak, esatari bakoitzaren hasiera adierazteko:

—Ez al zara gaur etorriko? Ez zaitut animatuta ikusten.

—Ez horixe; oso lanpetuta nabil.

Horrelakoetan, kontalariak zerbait txertatzen badu esatari baten jardunaren barruan, marren artean txertatzen da kontalariarena, eta txertatutakoarekin amaitzen bada lerroa, ez ohi da bukaeran marra sartzen:

—Ez al zara gaur etorriko? –galdetu zion Jonek, tristerik, begietara begiratuz–. Ez zaitut animatuta ikusten.

—Ez horixe; oso lanpetuta nabil –erantzun zuen.

Baina, kontuz ibili: txertatzen ditugun segida horien barruan ere zerbait txertatu behar badugu, parentesia erabiliko dugu, testu barruko ahotsak ez nahasteko:

\*—Ez al zara gaur etorriko? –galdetu zion Jonek, tristerik –berak antolatzen zuen afaria–, begietara begiratuz–. Ez zaitut animatuta ikusten.

—Ez al zara gaur etorriko? –galdetu zion Jonek, tristerik (berak antolatzen zuen afaria), begietara begiratuz–. Ez zaitut animatuta ikusten.

Bukatu baino lehen, kontu formal bat gogoraziko dizugu: ondo bereizi hiru marra-motak:

**Marratxoa:** hitz-elkarketarako (Adib.: *lore-jokoak*)

**Marra:** tartekietarako (Adib.: *Euskaltzaindiak –eta beti aipatu behar dugu erakunde hau– ez du ezer esan horretaz*).

**Marra luzea:** elkarrizketak hasteko (—).

## KOMAK

Ez gara hemen luzatuko; esan dezagun komak erabiltzen direla aposizioak eta tarteki laburrak egiteko, beti ere, esaldiaren egituran eta segida logikoan txertaturik.

Antonio Rivera, EHUko Gasteizko errektoreordea eta Historiako irakaslea, Unibertsitatearen beharrez mintzatu da.

Hizkuntzak, adituek diotenez, ez dira berez zailagoak edo errazagoak.

Hizkuntza guztiek, handi nahiz txiki, eskubide berberak dituzte.

## BIBLIOGRAFIA

ABC. *Libro de estilo*. Barcelona: Ariel, 2001, 65.-68. or.

Egunkaria. *Estilo Liburua*. Donostia: Egunkaria, 2001, 52.-55. or.

ESNAL, Pello; ZUBIMENDI, Joxe Ramon. *Idazkera-liburua*. Donostia: Kultura Saila, 1993, 33.-45. or.

RODRÍGUEZ-VIDA, Susana. *Curso práctico de corrección de estilo*. Barcelona: Octaedro, 1999, 43.-44. or.



IVAP

# izen-sintagma

z  
e  
n  
-  
s  
i  
n  
t  
a  
g  
m

A



## DEKLINABIDE-ATZIZKI BERDINAK ELKARREN ONDOAN

**Administrazioa euskaraz aldizkariko artikulua batean esaldi hau okertzat ematen duzue: “legearen 12. kapituluaren 3. atalean jasotako arauak garatzen dira”. Zer dela-eta dago gaizki?**

Behar bezala erantzuteko, lehenengo eta behin ikusi beharko genuke zer den “ondo” edo “gaizki” egotea. Gramatikari bakarrik begiratzen badiogu, esaldia zuzena dela esan behar dugu; hau da, ez duela ageriko akatsik. Baina, ortografia- eta gramatika-zuzentasunak ez du beti testu bat egokia egiten. Kontuan izan beharreko beste alderdi batzuk ere badira, esate baterako, komunikagarritasuna.

Zubimendiren eta Esnalen *Idazkera-liburua*-n honela definitzen da euskara egokia: “lehenengo irakurketan ulertzen dena”; eta definizioa biribiltzeko, Txinako esaera zahar hau eranstean dute:

“Idazkia irakurri eta lehenengoan ulertu ez?  
Irakurle motza.  
Idazkia berriro irakurrita ere ezin ulertu?  
Irakurle motza ala idazle kaskarra.  
Idazkia hirutan irakurrita ere ulertezina bada,  
Idazlea da motza eta kaskarra”.

Hauxe da, hain zuzen ere, goiko esaldiak duen arazoa: behin baino gehiagotan irakurri behar dugula esanahiari antzemateko eta anbiguotasunari aurre egiteko; izan ere, zer esan nahi du esaldi honek?:

Legearen 12. kapituluaren 3. atalean jasotako arauak garatzen dira.

12. kapituluak atal batzuk dituela, eta horietatik 3.ean, ez dakigu non jasotako arau batzuk garatzen direla? Bada, ez. Kontua da lege baten 3. atalean arau batzuk jaso, eta arau horiek 12. kapituluaren garatzen direla.

Hona hemen, beraz, galdera: zergatik ez dugu ulertzen honen esaldi erraza lehen irakurraldian? Erantzuna: egileak eskura zeuzkan aukera guztie-

tatik bihurriena hautatu duelako. Azal dezagun hobeto. Euskarak –kontrakoa uste bada ere– askatasun handia du esaldiaren hurrenkera aukeratzeko orduan; beraz, badugu modua irakurleari gauzak xehe-xehe eginda emateko. Hala ere, beste bidetik abiatzen gara maiz, zurruntasunaren bidetik, alegia, eta, hala, mezua deskodetzera kondentzen dugu irakurlea. Begira zein erraz konpontzen den zalantzak sortu dizkigun esaldia:

Legearen 3. atalean jasotako arauak garatzen dira 12. kapituluan.

Zer egin dugu baina? Bada, hurrenkera aldatu, esaldiari traba egiten dion korapiloa askatzeko: kasu berdin bi (*non* kasua), elkarren segidan. Gramatikan ez duzu aurkituko, ez, arazo horren gaineko azalpenik; hala ere, oztopo handia denez, aztertu egingo dugu jarraian.

Han-hemen, ondo ala gaizki, hamaika aldiz entzun dugu euskal esaldiaren berezko hurrenkera hau dela: subjektua / objektua / aditza<sup>1</sup>.

Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak sailburuordearen kritikak berretsi ditu.

Batzuek azken muturreraino eramaten dute entzundakoa. Esaldiak simpleak badira, horrek ez du aparteko arazorik sortzen: nonbait, dena dago “bere lekuan”. Esaldi konplexuagoak idazten ditugunean izaten dira komeriak. Demagun, esate baterako, goiko esaldi horretan objektu simplearen partez, konpletibo bat sartzen dugula:

Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak Arrantza sailburuordeak kritika egokiak egin dituela uste du.

Ikusten denez, subjektuak esaldiaren hasieran pilatzen dira, eta aditzak, berriz, amaieran:

*Subjektua1* (sailburuak) / *Subjektua2* (sailburuordeak) / *Objektua* (kritika egokiak) / *Aditza2* (egin dituela) / *Aditza1* (uste du)

Eman dezagun orain objektu hori zabalagotu egiten dugula erlatibozko esaldi baten bidez. Euskal hurrenkera zurrun horri jarraituz gero, hauxe litzateke esaldia:

1. Ikusi *Galdegaia eta hitz-ordena*, 210. or.

Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak Arrantza sailburuordeak Europako Batasunak sare pelagikoen inguruan emandako irizpideen aurka egin dituen kritikak egokiak direla uste du.

Hiru subjektu dauzkagu orain aurrean, elkarren segidan (*sailburuak, sailburuordeak, Europako Batasunak*), baina bakoitza perpaus bati dagokio. Dena dago “bere tokian”; gramatika aldetik, esaldia zuzen-zuzena da; hala ere, zerbait gertatzen zaio... eta etentxo bat egin behar dugu (eta atzera bueltatu) mezuaz jabetzeko. Bestela esanda: esaldiak ez du korritzen. Nork eman ditu irizpideak? Nork kritikatu du, eta zer? Nork uste du zer edo zer egokia dela? Lehen esan dugun bezala, arazoa hurrenkeraren zurruntasunean datza, eta batez ere, amaiera bereko kasuak (-ak, adibide honetan) elkarren ondoan idaztean. Garbi dago, hortaz, hiru ergatibo horiek elkarrengandik bereiztea komeni zaigula. Nola? Saia gaitezen.

Esaldi korapilatsu horren atzean, kronologikoki, hiru ideia nagusi daude:

1. Europako Batasunak irizpide batzuk eman ditu sare pelagikoen gainean.
2. Arrantza sailburuordeak kritikatu egin ditu irizpide horiek.
3. Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak uste du kritika horiek egokiak direla.

Hiru ideia horiek hamaika modutan eman daitezke euskaraz, adibidez:

Europako Batasunak sare pelagikoen inguruan emandako irizpideak kritikatu ditu Arrantza sailburuordeak. Iritzi berekoa da Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburua, egokitzen jotzen baititu kritika horiek.

Nolanahi ere, biderik bihurriena aukeratu du egileak (esaldi bakarra), eta hurrenkerarik trinkoena eta ulergaitzena (subjektuak mutur batean, aditzak bestean). Tira, ahalegindu gaitezen hori konpontzen, esaldia gehiegi aldatu gabe.

1. Aditz nagusia (*uste du*) deklaratihoa denez (*esan, galdetu, erantzun, adierazi...* eta horiek bezalakoa), aurrera eraman daitezke eta hasierako bi ergatiboen artean jarri<sup>2</sup>:

Industria, Nekazaritza eta Arrantza **sailburuak** uste du Arrantza **sailburuordeak** **Europako Batasunak** sare pelagikoen inguruan emandako irizpideen aurka egin dituen kritikak egokiak direla.

2. Ikusi *Aditz deklaratihoak aurrera pasa (Atzerakarga)*, 225. or.



## 2. Hobeto, ezta? Eta konpletiboa ere aurrera mugituko bagenu?

Industria, Nekazaritza eta Arrantza **sailburuak** uste du Arrantza **sailburuordeak** kritika egokiak egin dituela **Europako Batasunak** sare pelagikoen inguruan emandako irizpideen aurka.

Horrenbestez, uste dugu garbi geratu dela ez zaigula komeni deklinabide-atzizki bera daramaten bi hitz elkarren ondoan jartzea; izan ere, atzizki-pilaketa horrek bidea zabaltzen die zalantzei eta gaizki-ulertuei. Hori ekiditeko, hainbat estrategia daukagu, besteak beste:

- Perpaus nagusiko subjektua aditz nagusiaren atzean jartzea:

\*Eskuliburu berriak Euskaltzaindiak agindutakoa bete nahi du.

Euskaltzaindiak agindutakoa bete nahi du **eskuliburu berriak**.

- Aditz deklaratihoa aurrera pasatzea:

\*Langileen Estatutuaren Legearen 49.1 artikulua d) **atalak langileak** lan-kontratua dimisioa aurkezten duelako iraugiko dela zehazten du.

Langileen Estatutuaren Legearen 49.1 artikulua d) **atalak** zehazten du **langileak** dimisioa aurkezten duelako iraugiko dela lan-kontratua.

Langileen Estatutuaren Legearen 49.1 artikulua d) **atalak** zehazten duenez, **langileak** dimisioa aurkezten duelako iraugiko da lan-kontratua.

- Aditza deklaratihoa ez bada eta besterik gabe aurrera pasatzerik ez badago, galdegai “faltsua” erabil daiteke, edo (ahal dela) aditza galdegai bihurtu:

\*Ibarretxe lehendakariak Josep Piqué ministroak atzo Espainiako Parlamentuan egin zituen adierazpenak kritikatu ditu.

Ibarretxe lehendakariak GOGOR kritikatu ditu Josep Piqué ministroak atzo Espainiako Parlamentuan egin zituen adierazpenak.

Ibarretxe lehendakariak kritikatu EGIN ditu Josep Piqué ministroak atzo Espainiako Parlamentuan egin zituen adierazpenak.

- Kataforak erabil daitezke:

\*Legearen 12. kapituluaren 3. atalean jasotako arauak garatzen dira.

3. atalean jasotako arauak hemen garatzen dira: Legearen 12. kapituluaren.

- Tartekiak:

\*Legearen 12. kapituluaren 3. atalean jasotako arauak garatzen dira.

Legearen 12. kapituluaren –funtsezko kapitulu bera– 3. atalean jasotako arauak garatzen dira.

- Aditz iragarleak:

\*Legearen 12. kapituluaren 3. atalean jasotako arauak garatzen dira.

3. atalean jasotako arauak **garatu**, Legearen 12. kapituluaren garatzen dira.

## BIBLIOGRAFIA

ESNAL, Pello; ZUBIMENDI, Joxe Ramon. *Idazkera-liburua*. Donostia: Kultura Saila, 1993, 46.-49. or.

GORROTXATEGI, Enrike. “Kasu markekin, kasu!” *Administrazioa euskaraz* (28. zenbakia). Gasteiz: HAEE-IVAP, 2000ko apirila.

## BAT

---

**Entzun izan dut *bat* zenbatzeko baizik ez dela erabili behar, zenbait salbuespen alde batera utzita. Adibidez kontakizunetako hasieran egin ohi dena: “Behin batean bazen neska *bat*...” Hortik kanpora ezin al da erabili?**

---

Garai batean eta zenbaiten arabera, ia-ia debekaturik zegoela ematen zuen *bat* erabiltzeak, non eta zuk esandako kasu horietan ez bazen. Zenbatzeko baino ez omen zen erabili behar. Kontua da, ordea, euskaldunak bestelako etekina ere ateratzen diola *bat* zenbatzaileari, eta Euskaltzaindia ere ez datorrela bat halako iritzi estuak erabiltzearekin. Besteak beste, honako egoera eta testuinguru hauetan erabili ohi da:

► **Elementu ezaguna ez dela adierazteko** (*Andre batekin dabil*)

Ikusi aldea:

Joxe etxe **batean** sartu da. / Joxe etxean sartu da.

Baserri **batera** joan gara. / Baserrira joan gara.

Butanero **bat** etorri da. / Butaneroa etorri da.

Gizon **batekin** ikusi dut. / Gizonarekin ikusi dut.

Ezkerreko esaldietan, *bat* zenbatzaileak adierazten duena hau da: elementua ez dela ezaguna, edo ez dela norberarena, edo ez dela ohikoa, edo badirela era horretako beste elementu gehiago ere.

► **Kontakizun-hasieran, pertsonaia aurkezteko** (*Bazen gizon bat...*)

Uri txiki batean neskatila aberats **bat** bizi zen, alaba bakarra, askok emaztegaitzat begiz jota zeukatena (Azkue. *Yakintza*, 306. or.).

► **Definizioetan / deskribapenetan**<sup>1</sup>: (*Hura zen gizon bat, jatorra, apala...*)

Zer dela uste duzu infernua?

Hura da demonioaren eta bere zerbitzarien leize izugarri **bat**, non betikotasun guztian egon beharrak diren oinazez lehertzen. (Agirre. *Arpoi*, 133. or.).

► **Izen ezagun baten atzetik, indartzeko** (*Orixe baten garaian*)

Miresgarria besterik da: Lizardi **bat** sortu zen garaian sortzea, Orixe **bat** bizi zen aldietan bizitzea (Mitxelena. *Idazlan...*, 227. or.).

► **Etenik gabeko ekintza adierazteko**<sup>2</sup> (*Negar batean*)

Azken-bordara lagundu dio auzoak negar **batean** (Etxaniz. *Lur*, 270. or.).

► **Adjektiboaren atzetik / aurretik** (*Egiten du eguraldi bat... izugarria*)

Euskaltzaindiaren arabera<sup>3</sup>, euskaldunak badaki honelako egiturak egiten: izena + **bat** + adjektiboa (zenbait adituri bitxia eta bortxatua egiten bazaio ere).

Egiten zuen haize **bat**... izugarria (Euskaltzaindia. *EGLU-I*, 109. or.).

Izotz beltza zan... Aize **bat** otzagoa!... Ebaki bear zuan! (Mokoroa. *Ortik eta emendik*).

**Izena + adjektiboa + bat:**

Egiten zuen haize izugarri **bat** (Euskaltzaindia. *EGLU-I*, 109. or.).

1. Ikusi *Definizioak*, 172. or.

2. Ikusi *Erdal gerundio okerrak*, 199. or.

3. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I.*, 109. or.

Agian, galdera hau egingo diozu zeure buruari: zer lan egiten du *bat* zenbatzaileak, ordea, adjektiboarekin batera agertzen denean? Jarrai dezagun adibideak ikusten, galdera horri erantzute aldera:

... eta gaur daukazu, hobiz, itsaso handia (“Mari”ri jasotako oroitarrian, Donostiako kaian).

Gu Zelaira heltzean argi zabala zen: urrezko eguzki eder bat zeruan...  
(*Gure Herria* aldizkaria, 528)

Gure ustez, lehen esaldiko adjektiboak ez du *bat* zenbatzailerik, “epitetoa” delako (gaztelaniazko “la inmensa mar”). Hau da, itsaso berez da “handia”; belarra berdea den legez. Baina, litekeena da une zehatz batean “belar berdea beltz egotea”. Bada, antzeko lana egiten du *bat* zenbatzaileak bigarren esaldian (“urrezko eguzki eder bat”); hau da, eguzkia berez da urre kolorekoa, baina une hartan kolore berezia zuen: gutxitan bezalakoa. Esaldi horren ordez, “urrezko eguzki ederra zeruan” balitz ohiko eguzkia litzateke. *Bat* zenbatzaileak, beraz, indartu egiten du adjektiboak adierazten duen ezaugarria. Esango genuke zenbatzailea lagun harturik, adjektiboa ez dela epitetoa. Bestela esanda lehen puntuan esandakoaren ondorio da (elementua ezaguna ez izatea). Dena den, azalpen hau iritzi bat baino ez da.

Gauzak horrela, badirudi ahozkoan entzuten dugun “Egiten du eguraldi bat...!” esaldiaren iturria beste hau izan litekeela:

Egiten zuen haize bat... izugarria = Egiten zuen haize bat...!

Halere, zenbaitentzat joskera hori baino jatorragoa beste hau da:

Haize bat egiten zuen... izugarria = Haize bat egiten zuen...!

Azkenik, adituen artean bada inor azken esaldi hori guztiz okertzat jotzen duenik, era batera edo bestera josia egonagatik (“Egiten zuen haize bat...! / Haize bat egiten zuen...”). Gure ustetan, aldiz, *bat* zenbatzaileak adjektiboa isilik doala salatzen du.

### ► **Bat egin duten kontzeptuen ordez, erakuslea ondotik duela** (... har ezazu bat hura mila bider)

Herrialde hartan, lurrak eta gizakiek bat egin dute, eta bat hark ez du parerik.

Denok bat egin genuen lanean, eta **bat** horri esker salbatu da enpresa.

### ► **Gauza biren (edo gehiagoren) arteko identitatea adierazteko** (*Biak uztarri bati lotzekoak*)

Bular **bateko** anaiak ziran biak (Etxeberría. *Léxico*, 185. or.).

Zuen mutilla eta gurea “biak uztarri **bati** lotzekoak”. (Mokoroa. *Or-emen entzunak*).

Joxe eta Jon herri-**bateko** dira [gaztelaniazko “tal para cual”]. (Urnietan entzuna).

Ikusten dezu itz **bateko** naizela (“hitzeko naiz”; Iraola. *Euskal Herria*, 552).

Bananduta egon arren etxe **batean** bizi dira (“etxe berean”).

Horrek ez du esan nahi *bera* (“bular **berako** anaiak ziren”) erabiltzea gaizki dagoenik, baizik eta beste aukera bat dela.

### ► **Elkarrekin hitzaren orde** (*Gu laurok batera etorri gara*)

Gu biok txikitan **batera** ibiltzen ginen eskolara (elkarrekin ibiltzen...).

Neskak eta mutilak **batera** dabilta unibertsitatean.

### ► **Jakin, zehatz hitzen orde** (*Adin batera iritsiz gero...*)

Anai zarrena ezkondu-ezkero senideak banan-banan lanera atera bear, sasoi batera iritxi-ezkero beñepein (Mokoroa. *Ortik eta emendik*).

Esan oi da atso-agurak, bein goialde batera eldutakoan umetu egiten dirala (Mokoroa. *Ortik eta emendik*).

### ► **Zerbait hitzaren orde** (*Bat ere naizen artean, eutsiko diot*)

Beti alkarrekin ibilliak giñán; ...; eta oiek, **batere** biotzik duanari, gogoratu egiten zaizka (Uztapide. *Lengo egunak*, 338. or.).

**Batere** naizen artean, lanean jarraituko dut.

Euskaltzaindiaren gomendioei jarraiturik, batzuetan bananduta (*bat ere*) eta besteetan batera (*bater*) idatzi behar da:

Ez du bilera **bat** bakarrik, **bera ere** huts egin.

Jesus ez da **bater** egokia lanerako.

## BIBLIOGRAFIA

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1991, 101.-118. or.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

AGIRRE, Juan Bautista. *Arpoi baten eran*. Zarautz: Alberdania, 1996, 133. or.

AZKUE, Resurrección María. *Euskalerrriaren Yakintza. II. liburukia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1989, 306. or.

MITXELENA, Koldo. *Idazlan hautatuak*. Bilbo: Mensajero, 1972, 132., 227. or.

MOKOROA, Justo Maria. *Ortik eta emendik: Herri euskarako esamolde bilduma...* [CD]. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1998.

## APOSIZIOA ETA DEKLINABIDEA

**Sarritan irakurri izan ditut halako esaldiak: “Angeles Iztuetak, Hezkuntza sailburuak, Unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du”. Horrela deklinatu behar da? Edo, “Angeles Iztuetak, Hezkuntza sailburua, Unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du”. Noiz bata edo bestea?**

Izen bat nolakoa den adierazteko adjektiboa erabili ohi dugu. Baina, batzuetan, adjektiboaren zeregin hori aposizioaren bidez egiten dugu.

Aposizio mota bi bereizten dira:

- Murrizgarriak: izena zehaztu eta mugatzen du, errespetua, lanbidea, ahaidetasuna, lekua adieraziz. Esaterako:

Amaia ANDEREA, Manu OKINA, IZEKO Miren...

- Ez-murrizgarriak: izenari buruz ematen dugun informazioa izenaren azalpena egiteko denean. Esaterako:

Bizenta, ANTONEN EMAZTEA, zendu da.

Zure adibideari erreparatuz gero, azken kasuaz ari gara, hau da, *Hezkuntza Sailburua* izen-sintagma aposizioa egiten ari da, eta *Angeles Iztueta*-k izen-sintagmaren azalpena ematen digu (kargua).

Hona nola jokatu behar den era horretako aposizioetan doazen izen-sintagmak deklinatzerakoan:

**► Perpaus batean izen-sintagma bi edo gehiago aposizioan daudenean, deklinabide-marken komunztadurari dagokionez, honako aukera hauek ditugu:**

a) Deklinabide-marka izen-sintagma bakoitzaren amaieran jarri. Hau da biderik erabiliena; alegia, izen-sintagma guztiak deklinatzea:

Angeles IztuetaK, Hezkuntza sailburuAK, unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du.



**b)** Izen-sintagma biak unitate bakartzat hartu ditzakegu, hau da, izen-sintagmaren lehen osagaiari mugatzailerik jarri ez, eta deklinabide-marka sintagmaren amaieran jarri:

Angeles Iztueta Hezkuntza sailburuAK, unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du.

Edo

Hezkuntza sailburu Angeles IztuetaK, unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du.

Baina ez

\*Hezkuntza sailburua Angeles IztuetaK, unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du.

**c)** Perpaus batean izen-sintagma asko ditugunean, egitura konplexuak ateratzen zaizkigunez, aposizio mota biak batera erabiltzeko aukera izaten dugu. Halakoetan, bi aposizioak eta perpausa arindu:

Angeles IztuetaK, Euskal Gobernuko kide, Hezkuntza sailburuAK Unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du.

Edo aposizioa eta juntadura (*eta*) erabilita:

Angeles IztuetaK, Euskal Gobernuko kide eta Hezkuntza sailburuAK, Unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du.

### **▮ Perpausa erlatibozkoa bada, eta oso luzea, zenbaitetan, aposiziora jotzen dugu**

Halako kasuetan, baldin eta ez badugu aposizioa behar den lekuan ipintzen, esaldi nahasiak sortzen zaizkigu. Adibide modura, perpaus solte batzuk hartu eta lotzen joango gara:

Izaskun Larrinaga Caritaseko kidea da.

Izaskun Larrinaga idazlea da.

Izaskun Larrinaga idazleak iazko Gabriel Aresti saria irabazi zuen.

Bilboko Konpartsen Koordinadorak Izaskun Larrinaga aurtengo jaietarako txupinera izateko aukeratu du.

- a) Izaskun Larrinaga, Caritaseko kidea, idazlea da.
- b) Izaskun Larrinaga, iazko Gabriel Aresti saria irabazi zuen idazlea, Caritaseko kidea da.
- c) Bilboko Konpartsen Koordinadorak txupinera izateko aukeratu du Izaskun Larrinaga, Caritaseko kidea.

Aukera guztiak batu, eta, batzuetan, era honetara osatzen ditugu esaldiok:

Izaskun Larrinaga idazlea, Caritaseko kidea, iazko Gabriel Aresti sariaren irabazlea, txupinera izateko aukeratu du Bilboko Konpartsen Koordinadorak aurtengo jaietarako.

Ikustenenez, nahiko nahasia da esaldia eta informazio garrantzitsuena, hau da, “*txupinera izateko aukeratu dutela*” atzean utzi dugu. Beraz, horrelako aposizio luzeak egitean arazoak sortzen direnez, hobe da esaldiari bestelako egitura bat ematea:

Bilboko Konpartsen Koordinadorak Izaskun Larrinaga idazlea izendatu du aurtengo jaietako txupinera izateko. Izaskun Caritaseko kidea da eta iaz Gabriel Aresti saria irabazi zuen.

Normalean aposizioak komaz bereizten baditugu ere, badaukagu marra luzeak erabiltzeko aukera<sup>1</sup>. Esaterako:

Komaz bereizita, hala izenari nola aposizioari jarri deklinabide-marka:

Angeles Iztueta<sup>K</sup>, Hezkuntza sailburu<sup>AK</sup>, unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du.

Marrak erabiliz gero, deklinabide-marka izenean bakarrik jarri:

Angeles Iztueta<sup>AK</sup> –Hezkuntza sailburua bera– unibertsitaterako lege propioaren alde egingo du.

Ikusten duzunez, koma artean egitean, izen-sintagma biak jokatzen ditugu. Marrak erabiltzean ez, ordea.

1. Ikusi *Parentesiak, marrak (eta komak)*, 46. or.

## BIBLIOGRAFIA

Euskaldunon Egunkaria. *Estilo Liburua*. Egunkaria, 2001

Euskaltzaindiaren arauak. *Komunztadura aposizioetan*. 109. araua.

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1993, 553. or.

ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 2001, 903. or.

## MARRAZ IDATZI BEHAR DIREN HITZ-ELKARTUAK

### Marraren erabilera dela-eta, erabat galduta nago. Ba al dago jakiterik noiz erabili behar den nahitaez hitz-elkartuetan?

Euskaltzaindiak 1995.eko urtarrilaren 27an onartu zuen esparru honi buruzko araua. Erabilera errazteari begira, hona hemen **beti marrarekin** idaztekoak diren hitz-elkartuak:

a) *Gorri-gorria* moduko bikoiztapenak (lehen osagaian deklinabide-atzizkirik ez dutenak): honela, honako hauek beti idatziko ditugu marrarekin: *labur-labur, adi-adi, bete-betea, hasiera-hasieratik...*

Txostenaren mamia labur-labur azalduko dizuet.

Hitzaldi horretara joaten bazarete adi-adi egon beharko duzue.

Zuzendari berriak hasiera-hasieratik esan zigun zer nahi zuen.

b) *Apurka-apurka* moduko bikoiztapenak (bi osagaiek atzizki berbera dute): *tarteka-tarteka, aldian-aldian, egunero-egunero, astiro-astiro...*

Lanpostu berrian prestakuntza-ikastaroak eskaintzen dizkigute tarteka-tarteka.

Birusaren kontrako programa egunero-egunero gaurkotzen da, berez.

Azaldu iezaiozu astiro-astiro eta oso erraz ulertuko du.

c) *Seme-alabak* moduko elkarteak: *galde-erantzunak, izen-deiturak, hamar-hamaika, han-hemen...*

Galde-erantzunetarako garaian ez zuen inork ere parte hartu.

Izena emateko orrietan oso toki eskasa utzi zenuten izen-deiturak jartzeko.

Bilerara hamar-hamaika lagun etorriko ziren guztira, ez gehiago.

d) *Barra-barra* modukoak: *pil-pil, kili-kolo, duda-muda, handi-mandi...*

Gaur egun pil-pilean dagoen gaia duzu hori.

Aspaldi dabil kili-kolo, eta oporrak hartu behar izan ditu.

Lankide berria handi-mandi bat denez, ez diogu kasu handirik egiten.

e) *Ezkio-Itsaso* moduko leku-izen elkartuak: *Gernika-Lumo, Lasarte-Oria, Arratzu-Ubarrundia...*

Kontuz ibili beste hauekin, aukerakoa baita marra jartzea edo ez:

### 1. Marrarekin edo bereiz idatz ditzakezu:

a) *Eguzki-lore (eguzki lore)* moduko izen-elkarte arruntak. Atal honetan sartzan dira idazleak eratzten dituen izen-elkarte berriak: *lan-hitzarmen* edo *lan hitzarmen, batzorde-atal* edo *batzorde atal, arau-proposamen* edo *arau proposamen, eskabide-orri* edo *eskabide orri...*

b) *Kale-garbitzaile (kale garbitzaile), adar-jotze (adar jotze)* edo *ate-joka (ate joka)* moduko elkarte sintetiko arruntak.

Horrelakoak idatzi behar badituzu, kontuan izan osagai biak letra larriz hasten direnean hobe dela hitz-elkartua marrarik gabe idaztea: *Eusko Jaurlaritz, Foru Aldundia...*

### 2. Marrarekin edo loturik idatzi ditzakezu:

*Sudur-luze (sudurluze)* moduko elkarte arruntak: *esku-zabal* edo *eskuza-bal, angelu-zuzen* edo *angeluzuzen...*

Honaino Euskaltzaindiaren araua. Baina gaur bi joera nagusitzen ari dira:

a) Marrazalea. Batik bat idazkera zientifikoan: EHUko Euskara Institutuan, UEUn, Itzulpengintzan...

b) Marraren oso lagun ez direnak. Batik bat kazetaritzan: *Euskaldunon Egunkaria*-n... Arrazoi nagusia da zutabetan idatzi behar denez, marrak arazo bihurtzen direla.

**BIBLIOGRAFIA**

Euskaltzaindia. 1995.eko urtarrilaren 27an onartutako araua. Donostia.

LEF batzordea (Mikel Zalbide), *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. Bilbo: 1992.



IVAP

**A ditz-sintagm A**

**d  
i  
t  
z  
-  
s  
i  
n  
t  
a  
g  
m  
A**





## ADITZAREN ELIPSIA

**Lehenago batean lagun bat txikitako pasadizoak kontatzen ari zela, konturatu nintzen erdietan ez zuela aditzik esaten. Honelakoak botatzen zituen etengabe: “Beste baten e... joan auzokora eta... akerra hantxe! Isil-isilik bete poltsikoak harriz, hurreratu, eta tiragoma atera, eta...: dinbi-danba! Gu barre algara baten... eta... konturatu ez, atzean nor zegoen! Hasi da auzoko agure hori makila astintzen, eta...” Zuzena da horrela, aditzik barik, jardutea?**

Bai, zuzena da. *Aditzaren elipsia* (aditza ezkutatzea) ahozko narraziogintzaren ezaugarrietako bat da. Kontatzeko modu hori du zure lagunak; eta, esan gabe doa, kontatzeko era hori benetan dela bizia eta adierazkorra. Gure zalantza da kontatzeko era dotore hori ez ote dagoen galbidean. Izan ere, aditzaren elipsia idatziz ez da ikusten, ez dago boladan.

Eta, sarritan, gure testu trontzo horietan, ondo egongo litzateke bizigarriren bat, ezta? Zergatik ez diren erabiltzen? Gure ustez, badira zenbait arrazoi:

Batetik, ondotxo dakizun bezala, aditzaren elipsi hauek karga subjektibo handia dute; eta ez dira, berez, egokiak, esate baterako, administrazioari zuzenean lotutako paperetan erabiltzeko, non eta ez duzun horixe egin behar; hau da, iritzia eman. Halere, Administrazioaren adarrak luzeak dira, eta gazte edo haurrentzako testuetan edota zenbait kanpainatan erabiltzeko aproposak izan daitezke.

Bestetik, gaur egun, idazle asko eta asko nahiko urrundu dira ahozko jardunetik, bereizi egiten dituzte idatzia eta ahozkoa: ez daukate zerikusirik.

Eta hirugarrenez, kontu egin euskaldun berrien erreferentziak, batez ere, irakasleak, komunikabideak eta lehen aipatutako idazle horiexek direla; eta horiek, bistan da, ez dute aditzik ezkututzen.

Halere, kontua da aditzaren elipsia etengabe egiten dugula, ohartu ere egin gabe. Izan ere, hizkuntzak horretarako bide ematen digu eta ekonomiak horretara behartu. Horrexegatik, bada, zergatik ez erabili idatzian

ere? Zergatik ez bizitu gure testu zailak, gure prosa ortopedikoa, zuzena baina aspergarria?

Eredua nahi dugu? Horra Mitxelena bera. Mitxelena batek behin eta berriz erabiltzen zituen ahozko baliabideak bere idatzietan: aditzaren elipsiak, errepikapenak, galdera erretorikoak, ironia... Zer lortzeko? Prosa gozoa. Zabaldu *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak* liburua eta ikusiko duzu. Badakigu, bai, ondo jakin ere, maisu izan zela eta guk ez daukagula haren trebeziarik; baina ahalegintxo bat egiteak, kalterik ez behintzat, gure testu triste hauei.

Ikusten duzunez, guk geuk aditzaren elipsia idatzira jalgi dadin nahi dugu. Hori bai, esatea erraza da. Kontu latzagoa da elipsiok identifikatu eta zerrendatzea. Izan ere, batzuk normalagoak dira, eskolan erakusten direlako edo ahoz zein idatziz maiz agertzen direlako; baina beste batzuk, batez ere ahozkoan erabiltzen direnak, ez dira hain erraz atzematen. Halere, nahiz eta jakin batzuk bazterrean lagako ditugula, sailkapentxo bat egiten ausartu gara. Ea erabilgarri duzun:

### ▮ **Koordinazioak dakarren errepikapena saihesteko**

Normalean laguntzaileetariko bat ezabatzen da. Ez beti, ordea, batzuetan ez baita bat ere agertzen. Honelakoa da, hain zuzen ere, adibidean jarri diguzunetako bat: "... joan (**gara**) auzokora eta... Ixil-ixilik bete (**genituen**) poltsikoak harriz, hurreratu (**ginen**), eta tiragoma atera (**genuen**), eta... (**ez ginen**) konturatu ez atzean nor zegoen”.

Bistan dago laguntzaile guztiak jarrita erritmoa pataldu baino ez dela egiten. Zertako jarri, orduan? Hara beste zenbait adibide:

Txalupetan egiten dute dena. Bertan egiten dute beharra, bertan **jan**, **lo** bertan. (URIBE, Kirmen. "Zain", *Administrazioa Euskaraz*, 36. zk., 16. or.).

Bakar-bakarrik bizi zan, gurasoak itzi eutsena yaten. Bearrik (lanik) ezeban inoiz egin: ez lurrik **aitzurtu** ta azirik **erein**, ez firurik (aririk) **irun** ta aldagarririk **garbitu** (ikuzi), ez autsik **kendu** ta sastarrik **batu**, ez egurrik ta surik **biztu**. (Azkue, *Euskalerraren Yakintza II, Emakume arpela*, 124. or.).

Herria bereganatuko zuela **sinetsi**, eta herria oso osorik etsai **bihurtu**; (Mitxelena. *Idazlan...*, 133. or., Unamunoz ari da).

Txilabaz jantzirik, kontraste ikaragarria egiten dute aurreko argazkiko gizon jantzi eta zuriekin. Hurrekoak zaizkigu lehenak. **Urrunekoak bigarrenak**. Bakea ematen dute aditzera batzuk, **besteek gerra**. (URIBE, Kirmen. *Ibidem*, 16. or.).

### ► **Atsotitz askotan ageri zaigu aditz laguntzailea janda**

Zer ikusi, hura ikasi.

Asto joan eta mando etorri.

Eskua eman eta besoa hartu.

### ► **Jokatu gabeko zehar galderak onartzen dituzte zenbait aditzek**

Ez dakit nola hasi testu hori itzultzen.

Organigrama horrek ez dauka nondik heldu.

### ► **Galdera erretorikoak egiten ditugunean**

Zer erantzun? Eskerrik asko, Steiger jauna, eskerrak bihotz bihotzetik. (Mitzelena. *Idazlan...*, 146. or.).

Mahaia ere ez zigun garbitzen, baina **nork esan** ezer andre gaixoari, nahikoa lan bazuen hark lehendik ere! (nork esango zion)

### ► **Ipuinetan-eta, elkarrizketa bati sarrera ematean**

Sarritan, hasieran baino ez da jartzen *esan* aditza. Beste zenbaitetan aditza guztiz ezkutatu, eta *zeinek* hitz egingo duen baino ez da adierazten. Begiratu:

Atea yota sartu zanean, **esan eban**:

—Il bat zainduko ete zeunkean yakitera nator.

—Bai.

—Baina zeu bakarrik ilaren ondoan gaubelan egotekotan.

—Baita. ¿Nora da yoatea?

(...)

Gerotxoago zerraldokoak barrero zirkin andiago bat. **Zapatariak berari:**

—¡Hmmm! ¡Gero, damutu barik gero!...

(Azkue. *Ibidem*, 349.-350. or.).

Narrazioaren barruan bertan ere agertzen da horrelakorik:

Barrero zerura yogan bear izan eban suginak. **San Pedrok ezetz**, ezeu-kala sartzen izteko usterik. (Azkue. *Ibidem*, *Martin sugin*, 245. or.).

**► Aditz berezi batzuek (*kanporatu, etxeratu...*) amaierako *-tu* hori galtzen dute, eta aditza ezkutatu egin dela ematen du**

Kanpora **garenean**, ... mendien itzala luzatuxea da. (Mitxelena. *Idazlan...*, 133. or.).

Paris-aldetik etxera **naizenean**, (Mitxelena. *Idazlan...*, 211. or.).

Uretan iturrira, egarriak itoko ezpaeban; eta gosez ilgo ezpazan, auzo-  
ra yateko zerbaiten bila. (Azkue. *Ibidem*, *Emakume arpela*, 124. or.).

Zamarridak *Manual del vascófilo*-n dioenez (175. or.), *joan* ardatz hartuta beste era batzuetara ere egin daiteke:

**1. *-ra* jarri, eta *barik* erabilita:**

Itsasora **barik** egon beharko dugu gaur.

Elurra dela eta lanera **barik** gelditu gara.

**2. *-ra* jarri, eta *ordua* erabilita, *joateko* kendu:**

Umeak, **ohera-ordua** da!

Tira, gazteak, **mezara-ordua** da ta maneatu!

Azken baten, jakinekoea da adlatiboak (nora kasuak) berez ere baduela erraztasuna aditzak sortzeko: *etxera* > *etxeratu*; *ohera* > *oheratu*; *beregana* > *bereganatu*...

### ▮ Ez edo *bai*-ren atzean ere maiz ezkututzen da aditza

Sail guztietan jarriko da plangintza abian; baina gurean ez.

Iritsi berandu baten, sartu barrura eta... lagunik ez! Neu lehenengoa!

Metro ta erdi luzeko kuadroa, eta zero-zerrenda mehar bat besterik ez.

(Mitxelena. *Idazlan...*, 130. or.).

### ▮ *Izan, egon, ibili eta jardun* bezalakoak ere maiz ezkututzen ditugu

Zuk jarritako adibidean ere badira batzuk: “eta... akerra hantxe (**zegoen**)” ; “...eta dinbi-danba (**genbiltzan**)! Gu barre algara batean (**geunden**)”. Hara beste adibide bat:

Astuak ez eban arinik egin gura, ez burubari nekerik emon, ta aguria **diadarka** estu eta estu. (Mogel. *Ipuinak, Asto asko jakina*, 136. or.).

Orain artekoak ezagun samarrak dira, ezta? Halere, badira elipsi berezia-goak ere, eta horrelakoak hartuko ditugu aintzat hemendik aurrera: ea arraroak izateari utzi, eta hauek ere sarritxoago erabiltzen ditugun!

### ▮ *Nahi, ezin eta behar* aditzek aditz laguntzailearen elipsia eragiten dute

Hiru aditzok *izan*-en laguntza behar dute aspektua markatzeko: besteen aldean luze, beraz. Horrexegatik ezkutatu da hain sarri laguntzailea, beharbada. Hara adibide batzuk:

Gizon bezala, bazituen horrek ere... Nobel-saria eman, eta 4.000 libera ez **gastatu nahi** Sueziara joateko (Mitxelena. *Idazlan...*, 130. or.) [ez zuen / zituen gastatu nahi].

Batzuek soinua aditzen dute, besteek soinuak ernatzen dien gogo-oihartzuna. Lehenbiziko era, soinuari soil-soilik adi egotea, da agian bikainena. Halaz guztiz ere, nik behintzat musikak zerbait gehiago **adieraztea nahi** (Mitxelena. *Idazlan...*, 156. or.) [nahi izaten dut].

Hori bai, Euskal herriko jan-edanei opari bat eskaini behar geniola eta, **ezin bakailaoari ezetz esan**. (Mitxelena. *Idazlan...*, 144. or.) [ezin genion bakailaoari ezetz esan].

Badirudi gainera iratxo madarikaturen batek okertzen zituela –**ezin zuzentzen esan**– gure pausoak hitz eta esaera jatorren ordeko bila genbiltzanean (Mitxelena. *Idazlan...*, 72. or.) [ezin dut esan zuzentzen].

Adimen aberatsa **behar** gizonak horren antzeko burutapen bat izateko! (Mitxelena. *Idazlan...*, 203. or.) [behar du izan].

### ► **Batzuetan, aditz nagusia era burutugabea utzi, eta aditz laguntzailea ezkutatu egiten da**

Elipsi hauxe izango da, beharbada, ederrena; izan ere, erabat aldatzen du testuaren doinua:

Metro ta erdi luzeko kuadroa, eta zero-zerrenda mehar bat besterik ez. Eta jendea **ez gustatzen** hori (Mitxelena. *Idazlan...*, 130. or.).

Laztura batek hartu zituen eta yadanik aipha zuten bazkatokiz aldatu behar zirela. Bainan toki gizenaren uzteak ere **dolu egiten** eta elgarri erranez hasi ziren ikusi behar zutela lehenik argi hura zer othe ziteken (Azkue. *Ibidem*, 246. or.).

Aditz burutuekin, berdin:

Halako danbatekoa eman, eta **apurtu ez** kristala!

### ► **Beste zenbaitetan, partizipioa agerian utzi, eta *egin* indar-tzailea eta laguntzailea ezkutatu egiten dira**

".. Arrisku gogorrean gaude. Au esan bearra zegoan, eta ala bear eta nik **esan**" (Mitxelena. *Idazlan...*, 214. or.) [esan egin dut].

Albait arinen itzuli beharra zegoen, eta nik, bada, **itzuli** [itzuli egin nuen].

*Egin*-dun aditzekin, esan nahi baita, *lo egin*, *barre egin*, eta horrelakoekin sarri gertatzen da hori; batez ere, aurretik *egin* agertu bada. Seguru aski, hau ez da benetako elipsia, esapidearen zatien banaketa baizik, baina tira:

Lorik bai, zarata honekin?

Dantzan bai?

Euskaraz bai?

Edota aginduak ematean:

Egin lo, maitea. > Lo, maitea.

## ► **Eta zuzen-zuzena ez den elipsi bat, kontu hau amaitzeko**

*Esan, aipatu, adierazi* eta horrelako aditzak laguntzailerik gabe erabiltzen ditugu batzuetan. Eta honelako esaldiak egiten ditugu:

\*Amaitzeko, bakarrik esan, hamabost egun daudela errekurtsua aurkezteko.

Amaitzeko, esan dezadan hamabost egun daudela errekurtsua aurkezteko.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

AZKUE, Resurrección María de. *Euskalerrriaren Yakintza II. Ipuin eta irakurgaiak*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1989.

—*Emakume arpela*, 124. or.

—*Meza misteriotsua*, 246. or.

—*Zapatari izukaitza*, 349. or.

—*Martin sugin*, 245. or.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *Zalantza-dantza*. Zarautz: HAEE-IVAP, 2000, 28. or.

MITXELENA, Koldo. *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*. Bilbo: Mensajero, 1972, 72., 80., 130., 133., 144., 146., 156., 203., 211., 214. or.

MOGEL, J. A. Juan Antonio Mogel, Ipuinak; Xabier Altzibarrek paratutako edizioa. Bilbao: Labayru ikastegia..., 1995.

—*Asto asko jakina*, 136. or.

URIBE, K. “Zain”, *Administrazioa Euskaraz aldizkaria*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 2001, 36. zk., 16. or.

ZAMARRIPA, Pablo. *Manual del vascófilo*. Bilbao: Wilsen editorial, 1987, 175. or.



## KORTESIA

---

**Azken aldi honetan *ahal izango dugu, dezakezue, daiteke... eta antzekoei susmo txarra hartzen diet. Iruditzen zait desegoki erabiltzen hasi garela, inguruko erdarek eraginda. Esate baterako, afaltzen egon eta ez duzue inoiz honakoren bat entzun?: “pasa zeniezadake ogia?” edo “ekar diezagukezu beste botila bat ardo?” Nire susmoa ote da bakarrik? Zuek zer diozue?***

---

Arazoia duzula uste dugu: izan daiteke bai, inguruko erdarek eraginda, erabilera berriak ematea ahalerari; beharbada, berezkoak ez direnak. Eta itxura denez, badira beste sasi-erabilera zenbait ere<sup>1</sup>. Hala ere, ez dugu horietaz jardungo.

Gatozen zure galderara; badirudi ahalera, berez, gaitasuna eta posibilitatea adierazteko erabiltzen dela. Eta zer gertatzen da “pasa zeniezadake ogia?” bezalakoetan? Bada, kortesia adierazteko erabili dela. Guk ez dugu esango euskaraz kortesia ezin dela inola ere modu horretara adierazi, baina argi dago baditugula beste bide batzuk askozaz ere geureagoak –edo normalagoak nahi bada– esateko modu diferenteak markatzeko. Ingelesak, frantsesak edota gaztelaniak ahalera erabiltzen dutela kortesia graduak markatzeko? Ederto, guk beti, behintzat, ez:

*Can / Could I have...?*

*Est-ce que vous pouvez / pourriez...?*

*Puede / Podría...?*

Horixe da kontua, *polite* izan nahi baduzu hizkuntza indartsu horietan, horrela jokatu beharra dago. Guk ez dugu horrela egiten, beraz *impolite* gara? Euskaldun basatiak? Ez; guk badugu geure era kortesia markatzeko. Eta nola egiten dugu, bada, guk? Modu askotara; normalean, honela: agintera edo geroaldia erabilita.

---

1. *Estilo liburua*, Egunkaria, 2001, 69., 71.-72. or.

## ► Agintera

Agintera ez da bakarrik “aginduak” emateko, aholku eta erreguak egiteko ere bada. Baina, betikoa, inguruko erdaretan gutxiago erabiltzen denez, gutako askok uste du basatikeria dela horrela eskatzea. Uste okerra. Honela esango genuke:

Amaitu, lasai!

Amaitu, mesedez!

Amaitu, gero!

Esan gabe doa, berba egitean intonazioa, keinuak, bokalak luzatu... komeni dena egiten dugula efektu bat edo beste eragiteko; idatziz, ezin egin honelakorik, ordea: *Amaaaaitu!* edo *amaitu, mesedeeeee!*

## ► Geroaldia

Geroaldiak baditu erabilera nagusi bi:

Erabilera tenporala: *Bihar euria egingo du* [bihar].

Erabilera modala: *Honezkero etxean egongo da* [orain].

Halere, horietaz gain badu beste zeregin bat. Hara Euskaltzaindiaren gramatikaren hitzetan esanda<sup>2</sup>: “Aipa dezagun, gainera, baimena eskatzeko eta horrelakoetan ere orain-geroa erabili ohi dela”. Adibideak ere bertakoak dituzu:

Beste taberna batera joango gara?

Ardo gehiago emanen dizut?

Eseriko zara?

Leiho hori hertsiko duzu, faborez?

Hertsiko dut ate hau?

Goiko adibideari berriz helduta, honela esango genuke:

Amaituko duzu?

Amaituko duzu, mesedez?

<sup>2</sup>. *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak-II*, 421. or.

Zenbait tokitan, testuinguru itxietan eta motzetan aritzean, laguntzailea kenduta erabiltzen dute. Esaterako, umeak amari merienda honela eskatu-ko lioke:

Ogitartekoa ipiniko, amatxo?

Bistan dago baditugula moduak eskatzeko; kontuz ibili gaitezen, beraz, honelakoekin:

\*Ematen didazu ogi zati bat?

\*Deitzen didazu zeuk?

\*Pasatzen dut orria?

Orain arte esandakoak laburbilduta, hauxe duzu gure kortesia-eskailera-txoa:

Pasatu ogia!

Pasatu ogia, mesedez!

Pasatuko didazu ogia?

Pasatuko didazu ogia, mesedez?

Ogia pasako?

Ekarri beste botila bat ardo!

Ekarri beste botila bat ardo, mesedez!

Ekarriko duzu beste botila bat ardo?

Ekarriko duzu beste botila bat ardo, mesedez?

Beste botila bat ardo ekarriko?

Eta amaitzeko, ohar bat; kontu maiz entzuten den beste egitura honi ere:

\*??Egingo zenidake zeuk marrazkia, andereño?

\*??Etorriko zinateke gurekin poto-potoka egitera?

Kortesia handiz hitz egin nahi izatekotan, hobeto honela:

Egingo didazu zeuk marrazkia, andereño?

Etorriko zara gurekin poto-potoka egitera?

Eta era normalena –beti ere ahozkoari dagozkion estrategia guztiak erabiltita–:

Andereño, etorriiii potopotoka ibiltzera!

## BIBLIOGRAFIA

Egunkaria. *Estilo Liburua*. Donostia: 2001, 69. or., 71.-72.or.

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatikaren. Lehen Urratsak-II*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987, 351.-352., 430., 421. or.

## AHAL ETA EZIN

**Ahalera dela eta, baditut zalantza bi ezezkoak nola moldatu irakatsi behar dudan bakoitzean:**

- 1. Ez dezaket ala ezin dezaket? Gure inguruan ezin gehiago entzuten da, zein erabili? Zein da ordenarik egokiena?**
- 2. Ondo dago ezingo erabiltzea?**

Banaka erantzungo diegu zure galderei, ea horrela argiago-edo egiten dugun.

### **1. Ez dezaket esan ala ezin dezaket esan**

Badirudi XIX. mendearen erdi aldera arte, salbuespenak salbuespen, *ezin* + *dezaket* erakoak izan zirela nagusi. Handik aurrera, ordea, *ez* + *dezaket* erakoak erabiltzen hasi ziren gure autoreak muga alde bietan. Indikatibozko adizkiak ere garai hartantxe hasi ziren ugaritzen (*ezin dut...*). Joera horiek indartuz joan dira XX. mendean.

Eta zertan gara gaur egun? Gaur egun Hegoaldean *ezin* eta *ez* erabiltzen dira; eta, antza denez, maila jasoan gordetzen dira ondoen *ezin* + ahalera-koak. Iparraldean, berriz, *ahal* + indikatiboa erabiltzen dute ahalezko forma guztiak egiteko.

Beraz, guk geuk –beste aukerak inola ere baztertu gabe– *ezin* + *dezaket* era-koen alde egingo dugu. Era horretara, tradizioari eustez gain, geure testuei jasotasun-printzatxoak erantsiko dizkiegu. Hona hemen hiru adibide:

... pensacen duzu duda gabe gauza ori **ecin** artu dezaquedala nere gainian... (Trebiño. *Testu historikoak*, 346 or.).

Nahigabetzen nauenak, ordea, **ezin eraman dezakedanak** berak, poztu egiten nau biziro beste alde batetik. (Mitxelena. *Idazlan...*, 65. or.).

... **ecin** eguin deçaquegu eguin ahalla bainno guehiago...(Trebiño. *Testu historikoak*, 37. or.).

Ordena dela eta, alegia, *ezin dezaket esan* edo *ezin esan dezaket* dela eta, badirudi bigarrena (*ezin esan dezaket*) izan dela ordenarik ohikoena, Iparraldean zein Hegoaldean. Gaur egun hain ezagun egiten zaigun beste hori (*ezin dezaket esan*) Iparraldean ez da ia erabili XX. mendera arte, eta Hegoaldean XIX. mendean zabaldu zen.

Mitxelena berak ere erabiltzen du *ezin esan dezaket* egitura. Izan ere, aditz nagusia aurreratzen duenez, lehenago jakingo dugu horrela zertaz ari garen. Gainera, osagarri luzea edo mendeko perpausak txertatu beharra badaukagu, askozaz ere baliagarriago da, oso-osorik jarriko baititugu eskuinetara.

Eta guk Mitxelenari jarraiki, eta lehen esan bezala beste aukerari uko egin gabe, tradizioari heldu eta *ezin esan dezaket*-en alde egingo genuke. Hona zenbait adibide:

82.garrena **Eziñ ipiñi liteke** kale ta bidietan koche, gurdi, gorotzpilla ta beste gauzarik, ez ta ere utzi zakar, erramienta edo beste edozer gauza pasaioa galerazi edo zorigaitzen bat ekarri lezakeanik... (Trebiño. *Testu historikoak*, 572. or.).

... horien eta beste askoren aburuz, **ezin egizta ez gezurta daitekeen** esaldi batek ez du ezer adierazten, ez du ezer esan nahi. (Mitxelena. *Idazlan...*, 89. or.).

Izan ere, **ezin mugatu daiteke** zenbat nekazarirengan duen eragina sail horrek egiten duen lanak eta ze ondorio izango dituen Europatik dirurik ez jasotzeak.

## 2. Ondo dago *ezingo* erabiltzea?

*Ezingo*-ren kontua bitxia da. Hegoaldekoa da guztiz, bizkaierazkoa zehatzago. Itxura denez XIX. mendean hasi ziren forma hori erabiltzen zenbait autore bizkaitar, bestea baztertu gabe. XX. mendean Gipuzkoara ere hedatu omen zen apurren bat. *Ezin*-i laguntzen *izango* erabiltzea ere (*bihar ezin izango naiz zuen bila joan*) zenbait autore bizkaitarren kontua izan zen.

Honek zer esan nahi du? Bada, euskararen eremuan tradizioarik handiena duena eta hedatuena egon dena *ezin esango dut* egitura dela.

Eta guk geuk, berriz ere, –eta bestea baztertu gabe, jakina– tradizioaren alde egingo dugu. Eta, bide batez, jasotasun-itxura emango diogu gure testuari. Izan ere, gorago esan bezala, horixe lortzen baita gaur egun “nor-

mala” den edozer laga eta beste forma bat hartuz gero. Beraz, guk geuk *ezin esango dut* ere irakatsiko genuke.

Hara zenbait adibide *Administrazio zibileko testu historikoak* liburutik ateratakoak. Behin baino ez da agertzen *ezingo*, eta bera 1918.eko testua da, Bizkaiko Aldundiak euskaratua:

... baita egurretako bakarrik dagozan basuak edo berezizak be eztagoz debeku onen azpijan, baña sustarretik atara **ezingo** dirala ebaten diranian.(Trebiño. *Testu historikoak*, 671. or.).

84.- **Eziñ ipiñiko da** bideetan pelota-leku, bola-toki edo beste edozeiñ joku jendeari pasaizoa galerazi lezayokeanik. (Trebiño. *Testu historikoak*, 572. or.).

54.- **Eziñ gorputzik lurperatuko da**, ill ta hogeit ta lau ordu igaro bitartean, eta erriko Juezaren baimenik gabe. (Trebiño. *Testu historikoak*, 570. or.).

## BIBLIOGRAFIA

Euskaltzaindia. Gramatika batzordearen erantzuna, 2000-07-19.

Euskaltzaindia. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987-.

ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 2000, 454.-455. or.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

TREBIÑO, Imanol. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: HAEE-IVAP, 2001.

—Urruña eta Hondarribiaren arteko korrespondentzia (1680), 37. or.

—Frantziako dekretua herrietako kargudunetz (1789), 130.-131., 147. or.

—Sara eta Etxalarren arteko korrespondentzia (1837-1838), 346. or.

—Usurbilgo ordenantzak (1888), 570., 572. or.

—Espainiako legea basoen gainean, Bizkaiko Aldundiak euskaratua (1918), 671. or.

MITXELENA, K. *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*. Bilbao: Mensajero, 1972, 65., 89. or.

SARASOLA, I. *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa, 1997.

## NARRAZIOGINTZA: DENBORA- ETA ASPEKTU-JAUZIAK

**Badakit ipuinak euskaraz lehenaldian idazten direla gehienbat, nahiz eta gaur egun orainaldia ere sarri erabiltzen den. Dena dela, nik jakin nahi dudana da ea honelakorik egin daitekeen: “soineko zahar bat jantzi zuen eta amak saski bat eman zion... Hartu saskitxo eta joan da basorantz, eta han esaten dio agure bizar zuri batek...” Niri senak baietz esaten dit, baina lehenalditik orainaldira jauzirik ia ikusten ez dudanez ipuinetan, zalantza egiten dut.**

Bai, horrelakoak egin daitezke eta egiten dira. Ahoz gehiago, jakina. Egia da idatziz horrelako “jauzi” gutxi ikusiko dituzula. Izan ere, hori idatzizko jarduna ahozkoa hurbiltzea izango litzateke, eta egungo narraziogintzan ipuinik gehienak leitzeko dira, eta ez boz goraz kontatzeko.

Bestalde, zer gertatzen zaigu? Pentsatzen dugu idatziz ageri ez bada, ez dela. Baina hori ez da horrela: kontalari onek, normala den bezala, lehenalditik orainaldira jauzi egiten dute komeni zaienean. Nola ikasi dituzten estrategia horiek? Bada, tradizioz: ahoz aho, eta horrela jaso ez dituenak ez dauka nola ikasi. Lehenagokoek bai, haiek patxada hartzen zuten, eta behar den beste denbora ematen zuten kontu-kontari. Eta hala ikasten zuten. Baina gaur egun? Gaur egun, zertan da ahozko tradizioa? Zenbat ipuin entzuten ote dituzte gure hurrek asmo didaktikorik gabe? Zenbat, kontalari onen ahotik?

Baina gatozen harira: zuk erakutsi diguzun aditzen dantza hori bene-benetakoa da euskarazko narraziogintzan; hau da, lehenaldian kontatzen hasten bazara ez daukazu nahita berdin jarraitu beharrik, ezta orainaldian kontatzen hasten bazara ere. Izan ere, ipuinetan normala da jauziak izatea, bai denboran, bai aspektuan.

Eta baietz esan dugunez, zein kasutan agertzen diren erakutsi beharko dugu, ezta? Dena dela, beti ere honakoak argi utzita:

- Ez da berdin ipuinak entzunez edo idatziz jasotzea; zeren, normalean, idatziz ez da entzulearengana hurbiltzeko hainbeste saio egiten, ez eta ahoz beste iruzkin edo komentario ere.



- Arlo guztietan bezala, kontalarien artean ere batzuk baino ez dira izaten onak.



Aditz batzuk jarri dizkiguzu galderan. Euroi begiratuta, pentsa liteke ekintzak agertzen dituztenez zaudela kezkatuak, hau da, narrazioaren haria azaltzen dutenez. Halere, guk geuk, horiei eta beste batzuei helduko diegu.

Helduko diegu esan dugu, baina kontuz, zeren, batetik, gure erantzuna idatzian oinarrituta baitago gehienbat –hori bai, kontalari onak diren idazleak hartu ditugulakoan gaude–; eta bestetik, nahiz eta testu asko erabiltzen ahalegindu, lan hau txikia da: zirrikituz beteta egongo da.

Aditz hauek aipatu dizkiguzu: “jantzi zuen”, “joan zen”, “hartu saskitxoa eta joan da”, “esaten dio”; bi gauza bereizi behar ditugu ezertan hasi baino lehen: *denbora* eta *aspektua*.

*Denbora* aditz laguntzaileak erakusten du: *zuen*, *zion* lehenaldikoak dira; eta *da* eta *dio* orainaldikoak.

*Aspektua*, berriz, aditz nagusiak: *jantzi*, *eman*, *hartu* eta *joan*-ek aspektu burutua dute, hau da, ekintza bukatua dela adierazten dute; eta *esaten*-ek burutugabea, hau da, ekintza ez dela oraindik amaitu. Eta nahiz eta zure adibideen artean egon ez, *geroaldia* ere ezin aipatu gabe utzi: aditz nagusiari *-ko* edo *-en* erantsita egiten da.

Behin hori argituta, has gaitezke kontzeptu horiek biak erabiltzen. Eta hauxe da lehenengo-lehenengo ikusten dena:

Ipuin zaharrak, normalean, lehenaldian eta era burutuan narratzen dira. Hau da, istorioaren haria (*etxetik bota zuen*, *erreka ondora hurbildu zen*, *lamina ikusi zuen*...) era horretara kontaktzen da; eta hori horrela dela ikusteko, zabaldu Joxe Arratibelen *Kontu zaharrak* liburua eta begiratu: ipuin guztiak era horretara idatzi ditu: lehen aldia eta era burutuan. Zabaldu *Euskalerraren Yakintza II* eta zabaltzen duzun orria zabaltzen duzula, berdin.

Dena den, badakigu ez direla beti horrela kontatzen. Badirudi batzuetan kontalariek, zooma erabilia, hurbildu egiten dizkigutela aditzak. Ikus dezagun orain, bada, zoom hori noiz egiten duten, hau da, noiz egiten duten aditzek jauzi orainaldira eta era burutugabera:

**1. Elkarrizketak orainaldian izaten dira,** kontakizun zaharretan zein gaur egungoetan. Jauzi hau da normalena narraziogintzan. Hara pare bat adibide:

Behin artzain batek atera zuen bere artaldea larrera, oso belar ona zegoen toki batera, eta ardiei esan zien:

—Larre ona **daukazue** gaur, eta nahikoa jandakoan, etorri etxera.

Iluntzean etorri ziren ardiak etxera eta nagusiak galdetu zien:

—Nahikoa **jan** al **duzue**?

—Batere **ez dugu jan** —erantzun zioten ardiek.

—Zer bada?

—Jaten hasten ginen bakoitzean, “aurrera ta goxoago, aurrera ta goxoago,” esaten zigun belarrak, etaaaa... egun guztian ibili eta ibili, **ez dugu** ezertxo ere **jan**.

(Joxe Arratibel. *Kontu zaharrak: Ardiak eta belarra*, 189. or.).

Etxola batean ikazkin bat, baba, talo ta gasna beste yakirik gabe, estu ta erremeski bizi zen. Bein bere afari puska egiten ari zela, atean norbaitek ots egin zuen.

—¿Nor **da**?

—Gau untako legorra nai nuke.

—¿Bainon nor **zara**?

—Ni Yainkoa **naiz**.

—¡Zuri legorra! Batzuk ondasunez beterik **dauzkazu**; besteak, egun guzian lan egin ta ere, yatekoa urri dutelarik. Ez, zoazi ortik.

Gero apurto baten buruan Yainkoa bera itzuli zen ta atea yo zuen...

(Azkue. *Euskalerraren Yakintza II: Ikazkina ta erioa*, 166. or.).

**2. Jendeari, entzuleei... orainaldian hitz egiten zaie**

Oraingo honetan idazle zaharrez ari gara batez ere. Aspaldi konturatu ziren gure idazle handiak entzulea / irakurlea dela garrantzitsuena, eta

hauen gain eragina izateko eurengandik ahal denik eta hurbilen jarri beharra zegoela. Abildade aparta zuten horretarako. Horregatik erabiltzen zuten erraz orainaldia haiekin jardutean –aspektua burutugabea norma-lean– eta lehenaldia eta era burutua antzinako istorio edo pasadizoak kontatzean.

Orainaldira jauzi horiek hiru funtzio hauek, behintzat, betetzen dituzte:

- Ikasgaia eman.
- Kontakizunaren barruan norbere jarrera azaldu.
- Entzulea erne eduki.

Ikus ditzagun banan-banan.

- Ikasgaia batzuek hasieran ematen dute, beste batzuek amaieran eta bada bietan –gogoan ondo hartzeko moduan– ematen duenik ere.  
Hara:

**Hasieran eta amaieran:**

Lagun hurkoa zinez edo benaz amatzen duenak, ahaleginean **edertzen** edo, behintzat, **estaltzen ditu** haren okerrak, eta **egiten du** Apeles pintore trebeak errege Antigonorekin egin zuena.

Errege honek agindu zion Apelesi egin zezala beraren antz edo pintura bat.(...)

Hau **egiten du** askotan lagun hurkoarenganako onginahi eta amorio egiazkoa duenak. **Ezkutatzen du**, ahal badu, alde okerra **eta agertzen du**, denbora egokian, alde ederra.

(Agirre. *Arpoi baten eran, Apeles Pintore trebea*, 39.-40. or.).

**Amaieran:**

Ugarasijo batek ikusi ebanian idi bat lodi lodi eginda ebillela zelaiko laarrian bedarra jaaten, begitandu jakon bera...

(...)Ipuin onek **erakusten dau** ez dogula arrotu bihar andijago, ederrago ta aberatsago izan guraz.

Igoten dabenak goregi,

Joko dau gero beeregi.

Axez gizenduba,

Laster da galduba.

(Mogel. *Ipuinak: Ugarasijo ta idijarena*, 88. or.).

- Kontakizunaren barruan norbere jarrera azaldu: iruzkinak egin

Iruzkin askotan erabiltzen dute orainaldia. Zer diren iruzkinak? Kontalariaren iritziak, entzuleei zuzenduak. Eta nolakoak diren ikus dezazuen, pare bat adibide ekarri dugu hona.

Hona, esate baterako *Jentilen orrazea* ipuina kontatueran, zer dioen Migel Ramon Zabaleta kontalari apartak. Testua hobeto uler dadin batuan jarri dugu. Barkatuko ahal digute berak eta transkripzioa egin duenak!

Kontua da etxeko andre batek orrazi bat ostu ziola jentilen bati, eta jentila eske joan zitzaiola esanez:

—Non da nire orrazia? Ematen ez badidan izango dun hezur guztietako oinazea!

Ez dakit nik kulparik bazuen-**ez** zuen... Handik denbora gutxira behinik behin hil omen zen emakume gaixo hura. Ez dakit izan zuen deus ere, baina hil zela behinik behin, hori esaten zuen. **Gainerakoan ez dakit...** (Mikel Olano. *Areso eta Leitzako hizkerak*, 323. or.).

Beste hau Atharratzeko Jauregiberriri jaso zion Azkuek. Hau ere batuan jarri dugu:

Orain duela aspaldi Lexarantzü mendiko laminek hitz hartu zuten Ligin, uhaitz handian, zubi baten egiteko. Lan gaitza, baldin bazen! **Baina badea laminek egiten ahal ez dutenik?** Gau ilun bat hautatu zuten...

(Azkue. Ibidem, *Ligiko zübia*, 233. or.).

- Entzulea erne edukitzeko egiten diren jauziak.

Intrigari eusteko eta entzulea erne edukitzeko egiten diren galderak ere zenbaitetan orainaldian egiten dira, nahiz eta, itxura denez, lehenaldian zein geroaldian ere egin daitezkeen. Lehenengo zatitxo bat batura bihurtu dugu. Hara:

Orainaldian:

“.. eta Minttorlako hori, neskatxa beteta uztea aski ez, burlaka eta irrintzika hasten omen zen Urbitako parean igarotzerakoan (...) eta Urbitako neskatxa horren anaia, Miel Joxepe hori, nazkatuxea omen zegoen, **eta ze egin du?** Gau baten bide bazterrean gordeta jarri, Urbita baino lehen-  
txeago, mutil hori irrintzika hasten zen lekuan.”

(Patziku Perurena. *Leitzako errege erreginak*, Mikela Labayen Astaitzagakoari jaso, 55. or.).

... Kriminalak galde egin zuen hamabost egun epe eta espazio, presondegitik jalgirik, bere adiskideen eta askazien ikustera joateko. Justiziak refusatu zuen kriminalari galdatu zuen epe eta espazioa, beldurrez (...)

**Zer egin du bertze adiskideak?** Sartzen da kartzelan adiskide kondenatuaren berme, (...)

**Zer gertatu da?** Hitza zen bezala, hamabost egunen barnean kriminala itzuli zen presondegiala, bere adiskidearen bere bermegotik delibratzera...

(Juan de Tartas. *Sugearen errautsa, Historia eder bat*, 59. or.).

### Lehenaldian:

... Ez bazuen pintatzen zen eran, gaizki pintatuko zuen, eta pintatzen bazuen begi okerrarekin, aurpegira emango zitzaion bere tatxa.

**Zer egin zuen Apelesek?**, pintatu zuen, ez aurkez aurke, baizik zehar aldera begiratzen zuela...

(Agirre. *Arpoi baten eran, Apeles Pintore trebea*, 39. or.).

### Geroaldian:

Hogei ta iru urte banituan, da atzera Irunen egon zan anaia etxeratu zan, da libre giñan etxetik. **Nora joango ta** berriz ere basora.

(Uztapide, *Lengo egunak gogoan I*, 111. or.).

... Baina, biek ere bake-gose izan behar zuten, auzokoak izaki. **Zer egingo eta...** ikusirik bakoitzak bereari eusten ziola, hor non hasten diren Patxi Maiaren bila...

(EIZAGIRRE, Jexux. "Mugarriak erakusten duenez...?" *Administrazioa Euskaraz aldizkaria*, 32. zk., 25. or.).

## 3. Gertaerak kontatzean

Dagoeneko esan dugu kontalariak baduela aditza (ekintza) zoom handi batez hurbilarazteko abildadea. Eta aipatu ere egin ditugu bi bide horretarako: elkarrizketak eta jendeari edo entzuleei hitz egiteko moduak. Gatozen orain hirugarrenera eta garrantzitsuenera, hau da, narrazioaren haria kontatueran, noiz erabiltzen du zooma kontalariak? Noiz egiten du jauzi orainaldira ekintzak kontatueran?

Bada, badirudi orainaldira jauzia egiten dela une misteriotsu, beldurgarri edota uste gabekoak nabarmentzeko; zenbaitetan, baita gertaerak bizitzeko ere; horregatik maiz topatuko dugu aditz laguntzailea kenduta. Zein den hariaren gune hori? Hori kontalariaren esku gelditzen da, berak bakarrik daki aurrean dituen entzuleei noiz eta nola eragin. Aspektua izaten da burutua edo burutugabea, honela:

*eman diogu, joan gara* = aspektua: + burutua / denbora: oraina  
*sartzen dio, tiratzen du* = aspektua: – burutua / denbora: oraina

Zenbait kasutan –gutxitan, eta badirudi, batez ere, bizkaieraz eta gipuzkeraz– orainaldirako jauzia indartzeko beste egitura hau erabiltzen dute: *hona / horra / hara + non + aditz burutugabea + orainaldia + -N*

Hona non heltzen dion belarrietatik eta esaten dion...

Gainera, ipuin zaharretan, –guk aztertutako ipuinetan hala da, behintzat– burutugabea da nagusi une horietan<sup>1</sup>; zertako? Jakina da burutuak edo partizipioa erabiltzeak amaituta dagoen zerbait adierazten duela, eta ipuin kontalariak edota sermolari onek ez dute beti hori nahi: hurbil sentitu eragin nahi dute ekintza, orduantxe bertan gertatzen balego bezala. Hori bai, gertaerak bizitzea bada helburu bakarra, burutua ere badakite erabiltzen. Esandako guztia argitzeko adibide batzuk emango ditugu, sailean:

Gure lagun batek beti *tikili-takuluak*<sup>2</sup> onak izaten zituan. Eskolatik etxera gentozela batean, basarri baten ondoan ollo-mordo aundia zegoan, da ura beti ixilik ibilli oi zan, gure lagun ori alegia. Beti egingo zuan zerbait azioa ta **tiratzen du** ollo-pilla ortara; **sartzen dio** bati ipurdiko luma tartean takoa ta aren garraxiak olloak! Ura mogitu zanean, baita bes-teak ere danak. Guk jarri genduan an eskandaloa!

(Uztapide. Ibidem, 40. or.).

Ikatza egiten ere probatu giñan. Ni ere artean ikazkin txarra nintzan, da nagusia ere asko etzekiana. Txondor bat bazegoan an, noizbait kargatua, ta ari su eman bear zitzaiola pentsatu zuan, neguan beste lan aundirik etzegoan batean; baita eman ere.

1. Ez zaio hori gertatu Pello Esnali *Nafarreteko mendigainean* kontakizunean: “Beraz, bost adizkik marrazten dute, kontakizun honetan lehen-lehenengo planoan; eta bostak daude orain burutuan”. (35. or.).

2. *Tikili-takulua*: umeen arma, intusari muina aterata egiten zutena. Takoak trapuekin egiten zituzten.

Eman diogu su illunabarrean; apal ondoan buelta bat egin genion da oera **joan gera**. Urrengo gu esnatu giñaneko, ango suak! Erreka-aldean etzan illunik. Erreka-aldeak argitzeko ez da ikazkin txarra bezelakorik.

(Uztapide. *Ibidem*, 83. or.).

Gauza bera egiten zuen Juan Antonio Moglek. Hona *Zaldi ta leoiaren* fabulako pasarte bat:

... —Ekartzu, bada, oin gaixotu ori —dirautsa leoiak—.

—Eutsi —dino zaldijak—.

Ta **jasoten dau** emotera balijua legez; baña **ona nun jaurtigiten deutsan** ostikada zoli ta indartsu bat; **joten dau** leoia bekokijaren erdijan; **ezarten dau** lurrera, ta **isten dau** konorte baga. Artu eban zaldijak igesa leoia lurrian etzan artian, ta au beregan etorri zanian ez eban zaldirik ikusi, ...

(Mogel, *Ipuinak*, 91. or.).

Koruan bakarrik egoala, **orra non** lanparako argian **dakusan** keriza baltz ikaragarri bat...

(Mogel. *Confesino ona*, Mokoroak egindako bildumatik jaso).

#### 4. Elkarrizketei sarrera ematen dieten aditzak

Aditz horiek ere merezi dute aipamentxo bat, horiek ere ipuin zaharretan nahiko egiten baitute dantzan. Ematen du gehienetan gertaerak izaten direla, hau da, narrazioaren hariaren parte direla. Eta horregatik badirudi gertaeren jokaera bera dutela: gune garrantzitsuenetan orainaldira jotzen dute. Hauxe da topa dezakeguna:

- Ekintzak lehenaldian eta era burutuan kontatuta badaude, elkarrizketei sarrera ematen dieten aditzak berdin:

Lamiazuloko bat emainez beartu zen. Bat errira yoan zen emain-billa. Etzuen emainak alako yendetara yoan nai. Aiek ere yendeak zirala ta yoateko. Yoan zenean **esan zioten**:

—Andik gero ez deusik atera.

Lamia libratu zen.

Emainak ogi-puxko bat artu zuen, etxean probatzeko. Ogi ori zeukalako, etziteken atra zulo artatik. Gero esan zioten zerbait bazukela. Berak uka, ezetz, ezetz...

—¿Nola ezin atara aiz emendik?

Orduan ogia zeukala **esan zuen**.

(Azkue. *Ibidem*, *Lamia bat eta bere emaina*, 425. or.).

- Narrazioan zehar orainaldira jauziak gertatzen badira, elkarrizketei sarrera emateko aditzek gauza bera egingo dute: lehenaldian eta burutuan (*esan zuen*) edo orainaldian eta burutugabea agertuko dira (*dio*, *esaten dio*). Halere, bada salbuespen bat: lehenaldian kontatutako ipuinetan ez da inoiz agertuko *esan dio* bezalako adizkirik, hau da, orainaldian eta era burutuan. Begiratu ipuin bakarrean nola erabiltzen dituen hirurak:

Lapur bat ebillen gabaz gauza asko ostuten, ta elduzan aberats baten etxera. Urten eutsan ataira txakur andi eta etxejaola batek, eta **esan eutsan**:

—Zer dakarzu oná, kaltegin gaisto orrek?

**Dirautsa** lapurrak:

—Ago ixillik, autsa ogizatibat, ta ez egin zaunkarik, ez usigirik niri.

**Esaten deutsa** txakurrak:

—Emoten deustazu ogi zati au mesedez, borondate bakarraz, ondo guraz, edo eztalduterren zure lapurretia?

—Ixillik egon zaitian amorez, zuk salatu baga sartu nadin etxebarruban, ta zuri emoten ez deustubezan ta ezertako ezdituzun diru ta tresnaak eruateko.

—Baña **–dino** txakurrak–, nok amongo deust niri bizinasan arteko ogija, zuk ill badaidazu niri ugazaba, edo eruan diru ta etxe-tresnak?

(Moguel. *Ipuinak*, *Lapur ta etxe-txakurrarena*, 71. or.).

Narraziogintzako jauzien berri ematen saiatu gara, eta amaitzeko onena zer izango?... eta, bada, kontakizun bat. Begira Lazkao Txikik zeinen ondo kontatzen duen istoriotxo hau:

Apaiz tripa aundi bat gaixo samar omen zebillen; beti ondoezik. Illobak beti erreguka ari zitzaizkion, medikuarengana buelta bat egiteko esanez.

—Zertara medikuarengana? –esaten zuan apaizak.

—Tripa ori gero eta aundiagoa dezu, eta or zerbait ere badaukazu zuk: ura edo beste edozer. Ori ez da gizonaren itxura: lepoa meetu eta tripa azi!

Ez bereala, baiña noizbait ere **lortu dute** medikuetara eramatea. **Egin dizkio** bear diran miaketak, eta onela **esaten dio**:



—Garai batetik gizon galdua zaude. Analisiak egin bear dituzu.

Odola atera zion. Baita ere botikan pote txiki bat erosi eta urrengo egunean an txixa ekartzeko esan. **Erosi du** kristalezko pote txiki ori, presaren presaz **txixa egin** eta **utzi du** sakristiko armario gainean.

Meza ondoren **etorri da** serora garbiketak egitera, eta uste gabean **bota du** potea eta **puskatu**. Usaia **artu dio** eta **konturatu da** don Justoren txixa dala eta analisiak egiteko bearco duala. Nola edo ala okerra konpondu bear eta beste potetxo batean **jarri du** bere txixa; eta pote ori leengoaren tokian **utzi**, berdin izango dalakoan.

Urrengo goizean don Justo **gogoratu da** sakristian utzi zuala bere potetxoa, eta **artu** eta or **dijoa** botikara, txixa analizatzeko uztera.

Urrengo goizean, emaitzak **artu** eta **joan da** medikuarengana. Onek **esan dio**:

—Zer pasatzen da emen? Oso gauza raroak agertu dira! Estaduan zaudela adierazten du onek!

Eta don Justok:

—Ai, ai, ai! Alperrik da, izan ere! Esaten nion, ba, nik sakristau txotxolo orri kontuz ibiltzeko!...

(Lazkao-Txiki. *Irriz eta malkoz I*, Antonio Zabalak zuzendua, 260. or.).

Amaitu da gure sailkapena. Luzetxoa, agian, —eta ez osoa, seguruena— baina nahikoa, seguru asko, erakutsi nahi genuena erakusteko, hau da: testuak grazia eta airea hartzen duela noizean behin denboran eta aspektuan jauzika ibilita. Horra hor, bada, gure erronka: ea idatziz sarritxoago erabiltzen ditugun!

## BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, J. B. *Arpoi baten eran, Juan Bautista Agirre*; Inazio Mujika Iraolak paratutako edizioa. Irun: Alberdania, 1996.

—*Apeles pintore trebea*, 39.-40. or.

—*Bada oraindik denbora*, 83. or.

ARRATIBEL, J. *Kontu zaharrak*. Donostia: Erein, 1995.

—*Ardiak eta belarra*, 189 .or.

AXULAR, *Gero*, 267. or.

AZKUE, R. M. *Euskalerrriaren Yakintza, Ipuin ta irakurgaiak II*. 3.ed. Bilbo: Euskaltzaindia; Madrid: Espasa-Calpe, 1989.

- Ikazkina ta erioa*, 166. or.
- Ligiko zübia*, 233. or.
- Lamia bat eta bere emaina*, 425. or.
- EIZAGIRRE, J. “Mugarriak erakusten duenez...?”, *Administrazioa Euskaraz aldizkaria*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 2001. 32.zk., 25. or.
- ESNAL, P. “Kontakizuna: hiru osagai eta zenbait adizki”, *Hizpide* 46, 2000, 29.-44. or.
- Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987, 124.-128., 410.-412., 417.-421., 424.-425. or.
- LAZKAO TXIKI, J. M. *Iztueta. Irriz eta malkoz I*. Oiartzun: Sendoa; Tolosa: Auspoa, 1994.
- Medikuak atalean*, 260. or.
- MOGEL, J.A. *Juan Antonio Mogel, Ipuinak*; Xabier Altzibarrek paratutako edizioa. Bilbo: Labayru ikastegia..., 1995.
- Ugarasijo ta idijarena*, 88. or.
- Zaldi ta leoiarena*, 91. or.
- Lapur ta etxe-txakurrarena*, 71. or.
- MOKOROA, J. M. *Ortik eta emendik*. [cd]. Bilbo: Labayru ikastegia, 1990.
- OLANO, M. *Areso eta Leitzako hizkerak*. Lasarte-Oria: Nafarroako gobernua, 1998.
- Migel Ramon Zabaleta zenari jaso, 323. or.
- PERURENA, P. *Leitzako errege erreginak*. Erandio: Fundación BBK, 1996.
- Mikela Labayen Astaitzagakoari jaso, 55. or.
- PLAZAOLA, I. “Ipuin kontaketa euskaraz: aditzaren funtzionamenduaz zenbait elementu”. *Hizkuntzaren psikopedagogia. Testu motak, funtzionamendua eta didaktika*. Bilbo: Labayru ikastegia, 1990, 61.-79. or.
- TARTAS, Jean de. *Sugearen errautsa, Juan de Tartas*; Inazio Mujika Iraolak paratutako edizioa. Irun: Alberdania, 1998.
- Historia eder bat*, 59. or.
- UZTAPIDE. *Lengo egunak gogoan I*. 2. ed. Tolosa: Auspoa liburutegia, 1975, 40., 83., 111. or.

## HIKA TRATAMENDUA

**Gidoigile izan nahi nuke, eta sarritan pertsonaien elkarrizketak egin behar izaten ditut. Baina, euskaldun berria naizenez, ez dut bestelako tratamendurik ezagutzen, “duzu” baizik. Egia esateko, “duk/dun” tratamenduaren paradigmak ezagutzen ditut, baina ez dakit noiz erabili behar diren, zertarako, nola, eta abar. Horiek dira, gutxi gorabehera, nire kezkek.**

Euskal tratamendu-izenordainen sistemari dagokionez, Euskal Herri osoan bi hauek funtzionatzen dute gaur egun:

HI

ZU

Baina, euskalkika harturik, Hegoaldean *hi*, *zu*, *berori* erabili izan dira (*berori* gaur egun nekez erabiltzen da) eta Iparraldean *hi*, *zu*, *xu*<sup>1</sup>.

Adibidez, Joanes Leizarragak erreginari bidalitako gutunean *zu* izenordaina erabili zuen eta ez *berori*:

“GUCIZCO ANDRE NOBLE Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina Bearnoco andre guehiénc, denari, bere cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obendentac, Ioannes Leizarraga (...) Andrea, ceren ni çure eçagun gabea beçala naicelariç, Testamentu berriaren heuscarazco translatione hunen çure Maiestateari dedicatzera...”

Beraz, Euskal Herria osoa kontuan harturik, bi tratamendu dauzkagu gaur egun: *zuka* neutroa eta *hika* (toki batzuetan, ez guztietan). Dena den, aditzaren arloari heltzen badiogu, bada beste bereizketa bat ere.

### ► Hika tratamenduaren aditz-sistemak

Euskaldun berri askok (eta hika inoiz etxean entzun ez dugun euskaldun zaharrok ere bai) uste ustel hauxe dute: *hika* tratamendua = *hi* izenordainari dagokion adizkia jarri eta kito. Alegia, *hi haiz*, *hi hago*, *hi hator*, *hi habil*, *hi hoa*, *hik duk/n*, *hik daramak/n*...

1. ALBERDI LARIZGOITIA, Jabier. *Euskararen tratamenduak: erabilerak*, 419. or.

Uste ustel honen eraginez, era honetako solasaldiak egiten dituzte, *hika* tratamenduarekin “borrokan” egitera ausartzen direnean, lehen aldiz:

(Neskak mutilari) Kaixo, zer moduz **hago**?

(Mutilak neskari) Ni ondo \*nago. Heu zer moduz **hago**?

(Neskak mutilari) Neu ere ondo \*nago, baina aita ez \*dabil ondo.

(Mutilak neskari) Ez \*nuen horren berri.

Ez dira konturatzen *hika* tratamenduan sartuz gero, aditz-sistema osoak marka bat hartu dezakeela (solaskidearen sexuaren arabera), era honetara hain zuzen:

(Neskak mutilari) Kaixo, zer moduz **hago**?

(Mutilak neskari) Ni ondo nagon. Heu zer moduz **hago**?

(Neskak mutilari) Neu ere ondo nagok, baina aita ez zabilek ondo.

(Mutilak neskari) Ez ninan horren berri.

Ikusten den legez, kasu batzuetan aditza aldatu egin da *ni (gu)* eta *hura (haiek)* izenordainei dagozkien adizkietan: *nagon/k*, *zabilen/k*, *nian/ninan*...

Bigarren sistema honi (hain zuzen ere, lehen eta hirugarren izenordainei dagozkien adizkiek osatzen duten sistema) deritzo *hika* “alokutiboa”, “afektiboa”, “zeharkakoa”. Jakina denez, *hika* alokutiboaz gain, Iparraldean badira beste bi alokutibo: *zuka* eta *xuka*, baina guk Euskal Herri osoan erabiltzen den alokutiboa soilik landuko dugunez, ez diegu beste bi horiei erreparatuko.

Ez pentsa alokutiboa beti erabil daitekeenik. Adibidez, beltzez markatzen den kasu honetan ez da zuzena:

(Neskak mutilari) Kaixo, zer moduz hago?

(Mutilak neskari) Ni ondo nagon.

(Neskak mutilari) Zer esan duk?

(Mutilak neskari) Ondo **nago**ela (ondo \*nagokela).

Beraz, hemendik aurrera hiru aditz-sistema bereiziko ditugu, hartzailearekin *hi* izenordaina (eta ez *zu*) erabiltzen dugunean:

- a) *Hi* izenordainaren adizkiei dagokiena: *hi haiz*
- b) Alokutiboa (*ni/gu, hura/haiek* izenordainei dagokiena): *aizak/aizan, ondo nagok/nagon*.
- c) Neutroa (alokutiborik-eza): *aizak/aizan, bai ondo nagoela!*

Bereizketa hori egitea nahitaezkoa da, zeren eta hizkeraren zenbait funtziotarako (gero azalduko ditugu zein diren) ez baitu balio alokutiboak, nahiz eta solaskideari *hi* izenordainez hitz egin.

Beraz, lehenik eta behin adieraziko dugu *hika* tratamendua zein solaskideri eman ohi zaion; eta ondotik azalduko dugu alokutiboa noiz ez den erabili behar.

### ► Zein solaskideri egin ohi zaion hika

Esan dezagun lehenengo eta behin, hika tratamenduak ez daukala zerikusirik gaztelaniak edo frantsesak erabilitako *tú* (tutoiement) tratamendurakin. Adibidez, “numeroari” dagokionez, gaztelaniaz *tu* izenordainak badu plurala: *vosotros*; bere aditz eta guzti: *vosotros sois (ustedes son)*. Aldiz, euskaraz *hika* tratamenduak singularrean soilik funtzionatzen du: *hi haiz*. Pluralerako, berriz, tratamendu bakarra du euskarak: *zuek zarete*.

Gainera, *hika*-ren erabilerari dagokionez, ezin dugu esan Euskal Herri osoan funtzionatzen duen lege bat eta bakarra dagoenik, baizik eta joera bat edo batzuek agintzen dutela; urteen poderioz, gizartea aldatu ahala, herritik herrira, auzotik auzora, etxetik etxera aldatuz doan joera, hain zuzen.

Horregatik, lan honetan azaltzen dugun joerak, Xabier Alberdi Larizgoitia ikertzaileak Markina aldean duela hogeit bat urte egindako ikerketa du oinarri<sup>2</sup>.

### ► Nork bere buruari

Dakitenetatik, gehientsuek *hika* egiten diote bere buruari. Gizonezkoek gehiago, emakumeek baino.

Joxe, ederra egin duk!

2. Euskaltzaindia. *Iker-9*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1996.

Emakumeen kasua, korapilatsuagoa da. Zenbaitek nork bere buruari hitz egiteko bi era bereizten dute:

1. Ispilu baten aurrean bageunde bezala, solaskide moduan nork bere burua hartuta: geure buruari, geure izenez deituta hitz eginez. Kasu horretan, gaur egun, emakume gehienek *noka* (emakumezkoarena) egiten diote bere buruari:

Nekane, Nekane, ederra egin **dun**.

2. Bakarrik egon arren entzule imajinario bat (geure burua ez den beste bat) ondoan bagenu bezala: bestela esanda, ahots gora pentsatzea litzateke. Kasu horretan hainbat emakumek (ez denek) *toka* erabiltzen dute:

Aurten ez **nauk** zezenetara joango.

Hala ere, zenbait emakumek *toka* egiten diote bere buruari, baita lehenengo kasuan ere:

Nekane, Nekane, ederra egin **duk**.

## ► **Familian**

Familia osoa (hiru belaunaldi: aiton-amonak, senar-emazteak, seme-alabak) otorduan-edo bilduta daudela:

- Senar-emazteek elkarri *neutroan* egiten diote ia-ia beti seme-alaben aurrean (besterik da senar-emazteak gelan bakarrik daudenean): *Zer moduz **zaude**?*
- Seme-alabei, koskortu eta gero (8-11 urte) *hika* egiteko joera dago. Hala ere alabari gutxiago egiten zaio semeari baino.
- Neba-arreben artean *hika* egiten da. Hala ere, gizona eta bere arrebarekin nekezago egiten du *hika*. Ez da gauza bera gertatzen neskekin: jeneralean *hika* erabiltzen dute beren nebarekin. Beraz, ez da simetriarik gordetzen.
- Bilobari eta ilobari *hika* egiten zaio, baina semeari baino askoz ere gutxiago. Eta are gutxiago biloba edo iloba neska bada.

- Nork bere “goragokoari” (aitari, amari, aitaitari, amamari, osaba-izekoei) ez dio hika egiten, ia salbuespenik gabe (egitekotan osaba-izekoen kasuan).
- Suhiari eta errainari, gutxitan gertatzen da *hika* hitz egitea; are gutxiago errainari.
- Amaginarrebari eta aitaginarrebari *neutroan*, huts egin gabe.
- Koinatuari askok *neutroan*. Baina, ez dira gutxi *hika* egiten diotenak. Koinatarekin gutxiago erabiltzen da *hika*.

Beraz, familian *hika* edo *zuka neutroan* (esan nahi baita ez dela Iparraldeko *zuka alokutiboa*), aldagai hauen arabera:

TRATAMENDUA, FAMILIAN	
ALDAGAIK	TRATAMENDUA
Komunikazio-egoera (jangela, logela...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jangelan, familia osoaren aurrean, senar-emazteek elkarri <i>zuka</i>, ia hutsik gabe.</li> <li>• Logelan, bakarrik daudela, <i>hika</i> ere erabili ohi dute.</li> </ul>
Rola (hezitzailea, laguna...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gurasoek hezitzaile-lanetan, <i>zuka</i> egiten diote hezten ari diren haurrari.</li> <li>• Hazi eta gero, <i>hika</i>.</li> </ul>
Familia-hierarkia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Goragokoei, <i>zuka</i>.</li> <li>• Parekoei, <i>hika</i> gehiago, <i>zuka</i> baino.</li> <li>• Beheragokoei, <i>hika</i> gehiago, <i>zuka</i> baino.</li> <li>• Hierarkian zenbat eta urrutiago orduan eta <i>zuka</i> gehiago.</li> </ul>
Adina	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat eta zaharrago <i>zuka</i> gehiago.</li> </ul>
Sexua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neskari, nekezago <i>hika</i>.</li> </ul>

Aldagai horiek direla-eta, familian ez da simetriarik gordetzen. Alegia, arrebak anaiari *hika* egin diezaioke, eta honek hari, berriz, *zuka* erantzun. Gauza bera gertatu daiteke koinatu-koinaten artean, edo iloba nahiz biloben artean.

### ▮ Familiaz kanpo, noiz erabiltzen den hika

- Txikitako lagunari, soldadu-lagunari, lankideari (bakarka). Halere, txikitako laguna, lagun-mina nahiz lankidea neska bada, nekezago egiten zaio *hika*, eta askoz ere zaharragoa bada ere bai (adibidez, lankideen kasuan).
- Koadrilan eta koadrilako giroan (hiztunak sarritan ez baitio talde osoari hitz egiten, baizik eta koadrilako bati ez bada besteari: nori begiratzeko dion eta hari egin dio *hika*, mutilarenean ala neskararenean).
- Elkarrizketa batean hiztunak solaskideari iseka ekin badio, *hika* erabili ohi du hark.
- Lagunarteko gutun pribatuak, posta elektronikoak, eskuz idatzitako abisuak...
- Lan-harremantetan, behekoekin (nagusiak morroiari nahiz langileari, edo bezeroak zerbitzariari), konfiantza giroan. Baina, nekezago, behekoa (morroia, langilea, zerbitzaria) askoz ere zaharragoa bada edo emakumea.
- Zaharrak gazteari. Nekezago, ordea, gaztea neska bada.
- Pertsonaia mitologikoei (*Mari*-ri, adibidez).
- Izaki bizigabeei (itsasoari, elurrari...), gizonezkoarenean.
- Landare eta animaliei, gizonezkoarenean, baita emea bada ere. Erleei, ordea, *noka*. Gainera, arlo honetan ere gizarte-mailaketa islatuko da: inurriak lehoiari *zuka*. Honek hari, berriz, *hika*.
- Deabruari.

### ▮ Familiaz kanpo, noiz erabiltzen den zuka neutroa

- Pertsona ezezagunari; baldin eta askoz ere gazteagoa ez bada, eta mutila.
- Zaharrei.
- Estatus handiko ofizioko pertsonari, bere zereginetan ari dela: abadeari elizan, medikuari kontsultan, epaileari epaiketetan, alkateari alkate lanetan...
- Gutun formaletan (adibidez, administrazioari egindakoa), baita hartzailea txikitako laguna bada ere eta kalean *hika* egiten badio ere.
- Lan-harremantetan, goikoak behekoari *zuka* egin ohi dio, errespetua gorde behar den guztietan. Behekoak goikoari *zuka* egin ohi dio normalean, non eta ez den askoz ere gazteagoa edo txantxa giroan.



- Gaia formala bada, eta komunikazioa jendurrean egin ohi denean. Adibidez, mahai-inguru batean.
- Jainkoari eta santuei errezatzeko.

Beraz, familiaz kanpo *hika* edo *zuka* (neutroa) egingo da, aldagai hauen arabera:

TRATAMENDUA, FAMILIAZ KANPO	
ALDAGAIK	TRATAMENDUA
Komunikazio-egoera (publikoa / pribatua; jendurrean / koadrilan; formala / lagunartekoa)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jendurrean, egoera formalean... <i>zuka</i>.</li> <li>• Pribatuan, lagunartekoan, koadrilan... <i>hika</i>.</li> </ul>
Estatusa eta gizarte-mailaketa (abadea, nagusia, zerbitzaria...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatus handikoari <i>zuka</i>.</li> <li>• Behekoak goikoari <i>zuka</i>.</li> <li>• Goikoak behekoari <i>hika</i>.</li> <li>• Parekoari, <i>hika</i>.</li> </ul>
Lagunak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagun bati (eta ez denei) <i>hika</i>.</li> <li>• Bestelakoei <i>zuka</i>.</li> </ul>
Egoera psikologikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Iseka, <i>hika</i>.</li> <li>• Konfiantza eta txantxa, <i>hika</i>.</li> <li>• Errespetua, <i>zuka</i>.</li> </ul>
Adina	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteak zaharrari <i>zuka</i>.</li> <li>• Zaharrak gazteari <i>hika</i>.</li> </ul>
Sexua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neskari nekezago <i>hika</i>.</li> </ul>
Natura	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izaki bizigabeari <i>hika</i> (gizonezkoarena).</li> <li>• Animalia eta landareei <i>hika</i> (gizonezkoarena).</li> </ul>
Erlijioa / mitologia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mitologiako pertsonaiei <i>hika</i>.</li> <li>• Deabruari <i>hika</i>.</li> <li>• Jainkoari eta santuei <i>zuka</i>.</li> </ul>

Aldagai horiek direla medio, familiaz kanpo ere ez da simetriarik gortetzen. Gertatu liteke, eta gertatzen da, koadrila barruan ere batek besteari *hika* egin, eta besteak hari *zuka* erantzutea.

## ▮ Noiz ez da alokutiborik erabili behar?

Perpau nagusietan, oro har, alokutiboa erabil daiteke. Perpau nagusia ala mendekoa den jakiteko modu bat, aditzari erreparatzea da: aditz nagusia, eskuarki, “biluzik” joan ohi da.

Mendeko perpausetan, aldiz, normalean zerbait erantsia eraman ohi du aditzak, aurretik nahiz atzetik. Adibidez:

- Berandu etorri naiz, autobusa berandu etorri **baita**.
- Berandu etorri naiz, autobusa berandu etorri **delako**.
- Autobusa berandu etortzen **bada**, berandu etorriko naiz.
- Berandu etorri dela esan du.
- Ez du uste berandu etorri **denik**.
- Ba al dakizu norena den?
- Berandu etorri den autobusean etorri naiz.

Azpimarratutakoak aditz nagusiak dira, beltzean daudenak, mendekoak. Bada, mendeko aditzari ez zaio alokutibo-markarik ezarri behar. Nagusiarri bai, noski. Hortaz, arestiko esaldi horiek guztiak, hika tratamendua erabiliz gero, era honetara egin behar dira, aditz nagusiarri eta mendekoari dagokienez:

- Berandu etorri nauk(naun), autobusa berandu etorri **baita**.
- Berandu etorri nauk(naun), autobusa berandu etorri **delako**.
- Autobusa berandu etortzen **bada**, berandu etorriko nauk(naun).
- Berandu etorri dela esan dik(din).
- Ez diat(dinat) uste berandu etorri **denik**.
- Ba al dakik(dakin) norena den?
- Berandu etorri den autobusean etorri nauk(naun).

Euskaltzaindiaren arabera, beste kasu hauetan ere ez da erabili behar alokutiborik:

“... subjuntibo deitu formetan (**dadin, dadila, dezan, dezala**), subjuntiboak subordinazioan bakarrik erabiltzen direnez, ez zaigu alokutiborik agertuko. Etxepareren eta Leizagarraren hizkeran bai, noski, haientzat **etor zedin** gure **etorri zen** baitzen, eta ez subjuntiboa). Beste zenbait perpau motatan ere ez dirudi alokutiboa agertzea zilegi denik. Joera nagusi bezala behintzat

ez. Hori da galderazko perpausetan gertatzen dena, eta baita harridurazkoetan eta hirugarren pertsonako agintekeran (**bego, joan bedi** eta antzekoetan, alegia), e.a. Iduri luke, forma alokutiboa zuzenean baieztatuta edo enuntziatua denerako gordetzen dela. Baieztapen soila izatetik urruntzen gairenean alokutiboaren erabilerak debekuak aurkitzen dituela<sup>3</sup>.

Oro har, bat gatoz Euskaltzaindiarekin, baina, gure aldetik, iruzkintxo bat egin nahi genuke.

Harridura-esaldiek, askotan, zehar galderaren forma hartzen dute: “Zein polita den!”. Eta horietan, jakina, ezin da alokutiborik erabili. Aldiz, beste batzuetan baieztapen / ezeztapenaren forma hartzen dute. Eta horietan Orixek batek, adibidez (eta euskaldun zaharrek ere bai), eskuarki alokutiboa erabili ohi zuen:

.Pilosopi zalla duk ori! (*Quito-n arrebarekin*, 60. or.).

.Beltza yuk ori! (*Quito-n arrebarekin*, 88. or.).

.Ori duk ateraldia! (*Quito-n arrebarekin*, 98. or.).

.Azala bear yuk! (*Quito-n arrebarekin*, 105. or.).

.Ez duk gezurra, mutikoa! (*Quito-n arrebarekin*, 139. or.).

.Ez duk makala! Asmatzekoa duk! (*Quito-n arrebarekin*, 190. or.).

Erabileran, galderei dagokienez, Orixek (Euskaltzaindiaren gomendioarekin bat datorrela) ez du alokutiborik erabiltzen (ikus *Quito-n arrebarekin*), eta Domingo Agirrek *Kresala* nobelan, bai; baita gaurko zenbait idazlek ere. Guk bietan bat aukeratu beharko bagenu, alokutiborik ez erabiltzea aukeratuko genuke, kontuan izanda, gainera, galderetan alokutibok anbiguitatea sortu dezakeela:

Nork ekarri du? (aitak ekarri du?).

Nork ekarri dik? (aitak ekarri dik? ala aitak hiri ekarri dik?).

### ► Alokutiboaren ezaugarri formalak

Solaskidearen sexua islatzen duten ezaugarri formalei dagokienez, aditz-bukaeran joan ala tartean, era honetara aldatzen dira:

3. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-II*. Bilbo: 1997, 392. or.

Aditz bukaeran: **k** (gizonezkoa) eta **n** (emakumezkoa).

Aditz barruan: **a** (gizonezkoa) eta **na** (emakumezkoa).

Adibidez:

Hori Joxek esan dik / din gaur

Hori Joxek esan zian / zinan atzo.

Hori nik esan zioat / zionat Joxeri gaur.

Hori nik esan nioan / nionan Joxeri atzo.

Jakina, ezaugarri formal horiek zenbait aldaketa sortzen dituzte aditzean.

Adibidez:

Gustatzen zait (*zuka* neutroa).

Gustatzen zaidak /zaidan (alokutiboa).

Aldaketa horretan euskararen ohiko lege bat gertatu da:  $t + k(n) = da + k(n)$ . Esan nahi baita gainerako aldaketek ere euskararen legeari jarraituko diotela.

Alokutiboak nola funtzionatzen duen ohartu gaitezen, gehien erabiltzen ditugun aditz-formak ekarri ditugu, ondorio batzuk atera ditzagun:

### IZAN (LAGUNTZAILEA)

<i>ni</i>	<i>toka</i>	<i>noka</i>
naiz	nauk	naun
nintzen	ninduan	nindunan

<i>gu</i>		
gara	gaituk	gaitun
ginen	gintuan	gintunan

<i>hura</i>		
da	duk	dun
zen	zuan	zunan

<i>hai</i>		
dira	dituk	ditun
ziren	zituan	zitunan

Bistan denez, pluralaren marka, hirugarren pertsonari dagokionez bederen, *it* da:  $duk = dituk(n)$ ;  $zuan = zituan (zitunan)$

**EGON (NOR TRINKOA)**

<i>ni</i>	<i>toka</i>	<i>noka</i>
nago	nagok	nagon
nengoan	nengoan	nengonan
<i>gu</i>		
gaude	gaudek	gauden
geunden	geundean	geundenan
<i>hura</i>		
dago	zagok, zegok	zagon, zagon
zegoen	zegoan	zeganan
<i>haiek</i>		
daude	zaudek, zeudek	gauden
zeuden	zeudean	zeudenan

Orainaldiko hirugarren pertsonak, hasierako *d* letraren ordeaz, *z* hartzen du: *dago* = *zagok(n)*; *daude* = *zaudek(n)*. Bestelako aldaketak samurrak dira: sexu-markari dagozkionak, alegia.

Analogiaz atera daitezke gainerako aditz trinkoak, *nor* sailekoak jakina, aldaketa batzuk gorabehera. Orainaldikoekin hasiko gara, adibidez *etorri*: *nator*, *gatoz*, *dator*, *datoz* = *natorrek(n)*, *gatozak(n)*, *zatorrek(n)*, *zatozak(n)*. Bistan denez, pluraleko pertsonetan (*gu*, *haiek*) aditza kontsonantez bukatzen bada (*gatoz*) loturatzat *a* bokala erabiltzen da (*gatozak/gatozan*), eta singularrekoetan, *e* (*natorrek/natorren*).

Pluralean honela jokatzen da: *nentorren*, *gentozen*, *zatorren*, *zetozen* = *nentorreetan(nentorrenan)*, *gentozaan* (*gentozanan*), *zatorreetan* (*zatorrenan*), *zetozaan* (*zetozanan*). Hau da, bi *a* bata bestearen ondoan gertatzen badira (*gentozaan*), bata lotura da, eta bestea gizonezkoaren marka.

**EDUN (NOR-NORK SAILA)**

<i>ni-hark(haiek)</i>	<i>toka</i>	<i>noka</i>
nau	naik	nain
ninduen	nindian	nindinan
naute	naitek	naiten
ninduten	ninditean	ninditenan

*gu-hark(haiek)*

gaitu	gaitik	gaitin
gaituzte	gaitiztek	gaitizten
gintuen	gintian	gintinan
gintuzten	gintiztean	gintiztenan

*hura-nik (guk, hark, haiek)*

dut	diat	dinat
dugu	diagu	dinagu
du	dik	din
dute	ditek	diten
nuen	nian	ninan
genuen	genian	geninan
zuen	zian	zinan
zuten	zitean	zitenan

*haiek-nik (guk, hark, haiek)*

ditut	ditiak	ditinat
ditugu	ditiagu	ditinagu
ditu	ditik	ditin
dituzte	ditiztek	ditizten
nituen	nitian	nitinan
genituen	genitian	genitinan
zituen	zitian	zitinan
zituzten	zitiztean	zitiztenan

Pluralaren marka *ti*: gauza bat diat; bi gauza ditiak.

Amaitzeko esan dezagun gainerako aditz formak orain arte esandako horietan oinarritzen direla, neurri handi batean. Adibidez: *diot* = *zioat* / *zionat*; *dezaket* = *zezakeat* / *zezakenat*. Alegia, hirugarren pertsonaren marka *z* letra da, eta aditz barruan sexua islatzeko *a* (gizonezkoa) edo *na* (emakumezkoa) erabiliko dugu.

**BIBLIOGRAFIA**

ALBERDI LARIZGOITIA, Jabier. *Euskararen tratamenduak: erabilera. Iker-9*.

Bilbo: Euskaltzaindia, 1996, 145.-286. or.

GAMINDE, Iñaki. *Aditz etikoa*. Bilbao: Aek, 1984, 7. or.

## BALDINTZAZKOEN ERABILERA OKERRAK

---

**Zenbait tokitan, aldizkarietan-eta, honako egitura hauek ikusi ditut:**

*Gripe-epidemia baten aurrean egongo ginateke, sailburuak esan duenez.*

*Musika-talde honen buruak adierazitakoaren arabera, abuztuan aterako litzateke disko berria.*

**Nire galdera hauxe da: esaldi horiek ondo taxututa daude? Egokiak dira?**

---

Aspaldion gehiegitan erabiltzen dugu baldintza behar ez den tokian, eta zuk aipatutako esaldiek argi islatzen dute joera hori. Gaztelaniaz oso normala da “condicional de rumor” erabiltzea:

*Según el consejero, estaríamos ante una epidemia de gripe.*

Baina horrelako esaldietan berez ez dago baldintzarik; beraz, honela adierazi beharko genituzke:

Antza, gripe-epidemia bat dago, sailburuak esan duenez.

Musika-talde honen buruak adierazitakoaren arabera, dirudienez, abuztuan aterako da disko berria.

Era berean, gaizki eratutakoak dira zurrumurrua besterik ez diren hauek:

\*Iturri batzuen arabera, Madrilen izango litzateke datorren urteko Kongresua.

Iturri batzuen arabera, Madrilen izango omen da datorren urteko Kongresua.

\*Printzea laster ezkontzekotan litzateke.

Printzea laster ezkonduko omen da.

Kontuz ibili, bestalde, honelakoekin:

\*16 km. geratuko **lirateke** mugara heltzeko.

16 km. geratzen **dira** mugara heltzeko.

\*Hemen morfologia diogunean, forma hutsez ari garela adierazi nahi **litzateke**.

Hemen morfologia diogunean, forma hutsez ari garela adierazi nahi **dugu**.

\*Solaskidearekin zuzenean hitz egingo **lukeen** arduradun bat izendatuko dugu.

Solaskidearekin zuzenean hitz egingo **duen** arduradun bat izendatuko dugu.

Baina baldintza dela-eta, ez dira horiek egiten ditugun akats bakarrak. Honako esaldi hauek ere ez dira egokiak:

- *Esan, uste izan...* bezalako aditzak lehenaldian jarrita zer edo zer kon-tatu nahi dugunean honelakoak idazten ditugu:

\*Josebak esan zuen bihar bukatuko **lukeela** txostena.

Josebak esan zuen bihar bukatuko **zuela** txostena.

- Gaztelaniaz baldintza kutsua dutenak orpoz orpo itzultzen ditugu:

\*Hezkuntza Sailak 200 langile **baditu**, Nekazaritza Sailak 80.

Hezkuntza Sailak 200 langile **ditu eta** Nekazaritza Sailak 80.

Alderantziz ere gertatzen da, hau da, behar denean ez dugu baldintza era-biltzen:

\*Gaixotasunaren **kasuan**, ordezkoa etorriko da.

Gaixorik **badago**, ordezkoa etorriko da.

\***Erakusten diozu** txostena, eta gero bileran ezin izango duzu atzera egin.

Txostena **erakusten badiozu**, bileran ezin izango duzu atzera egin.

Beste forma hauek erabiltzerakoan ere, erne ibili:



- *Bailitzan, bailuen*

EGLU-V liburukian (371. or.) esandakoaren arabera, forma hauek “bazter utzi beharrekoak ez badira, bultzatzekoak ere ez dira”. Ematen du, beraz, honelakoak idatzi beharrez:

\*Hemendik segituan alde egin du, tximista **bailitzan**.

Honelakoak idatzi beharko ditugula:

Hemendik segituan alde egin du, tximista **balitz bezala**.

- *Gutxi balitz esamoldea*

Esamolde hau desagokia da (EGLU-V, 371. or.). Honela, gaizki esanda dago:

\*Hori **gutxi balitz**, akta egiteko agindu zidan zuzendariak.

Honela esan beharko genuke:

Hori **gutxi balitz bezala**, akta egiteko agindu zidan zuzendariak.

Hori **gutxi iritzi eta**, akta egiteko agindu zidan zuzendariak.

Edo honela:

Bilera oso berandu amaitu zen, eta, **hori nahikoa ez zela eta**, akta egiteko agindu zidan zuzendariak.

Bilera oso berandu amaitu zen, eta, **hori ezer ez balitz bezala**, akta egiteko agindu zidan zuzendariak.

Bilera oso berandu amaitu zen, eta, **gainera**, akta egiteko agindu zidan zuzendariak.

Bukatzeko, badira zenbait esamolde gero eta gutxiago erabiltzen direnak, baina erabilgarriak direnak:

- *Non (eta) ez -n (izan ezik adierazteko)*

Ordu oyec ezkerro iñolaere eziñ iñor geldituko da toki oyetan, **non eta ez dan** echean bizi dana, edo bertan gauba pasa bear duen kanpokoak. (Trebño. *Testu historikoak*, 570. or.).

**Hau da:**

Ordu horiek ezkerro toki horietan ez da inor geldituko, hauek izan ezik: etxean bizi direnak edo bertan gaua pasa behar duten kanpokoak.

- *Nor izatera / Ni zu izatera*

Gu **nor izatera** etzan Sakramentu orren bearrik. (Mokoroa) [*Nor bagina*]

Zure **illoba ez izatera** biotzez zure alaba bearko luke. (Mokoroa) [*Zure iloba ez balitz*]

Ni **zu izatera** ez nuke horrelakorik egingo. [*Ni zu banintz*]

- *-ko bada... (-tzeko adierazteko)*

Gai ori landu ta **leunduko bada**, Maisuaren erreglakin lan egin, ekin ta ekin bear da. (*Orotariko Euskal Hiztegia*, Cb EBO 46, 633. or.).

**Hau da:**

Gai hori landu eta leuntzeko, Maisuaren erreglakin lan egin, ekin eta ekin behar da.

- *Ba-... ere, -enean ere, -ta ere...*

Euria **badagi ere**. (*Orotariko Euskal Hiztegia*, 646. or.).

Guardasola hartuko dugu, euria eginenean **ere**.

Eraman visa txartela, edozer gertatuta **ere**.

**BIBLIOGRAFIA**

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999, 100.-101., 370.-371. or.

Egunkaria. *Estilo Liburua*. Donostia: Egunkaria, 2001, 72.-75. or.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

TREBIÑO, Imanol. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: HAEE-IVAP, 2001.

—Usurbilgo ordenantzak (1888), 37.a, 570. or.

MOKOROA, J.M. *Ortik eta emendik*. [cd]. Bizkaia: Labayru ikastegia, 1990.

## BETEBEHARRAK, ESKUBIDEAK ETA DEBEKUAK ADIERAZTEKO MODUAK

Dokumentu batean honelako esaldi asko agertzen zaizkigu; eta, egia esan, ez dakigu zuzen itzultzen ari garen: *“Las aceras son espacios para los peatones, y, por tanto, los juegos no podrán obstaculizar el paso. En situaciones y lugares especiales los vehículos podrán utilizar las aceras (garajes, talleres...) y, en consecuencia, los peatones deberán tener cuidado también al andar por las aceras”*.

### Galderak:

- **Nola adierazi *no podrán* debekua? Ezin da, ezin izango da, debekatuta dago... Eta, *podrán* nahitaez jarri behar da geroaldian euskaraz? Zein da zuen proposamena?**
- ***Deberán tener* hori ez dakigu nola adierazi: *kontuz ibili behar dira, kontuz ibili beharko dira, kontuz ibiliko dira?* Zein da, zuen ustez, modurik egokiena?**

Lehenengo galderari dagokionez, esan behar dugu eskubideak eta debekuak adierazteko zenbait modu daudela. Euskaraz idatzitako testu zaharrek aztertu ondoren, administrazioan gehien erabili izan diren formak hartu ditugu, zerrenda moduko bat egiteko. Baina testu zaharretatik ateratuko adibideen ondoan, gaur egungoak ere ikusiko dituzu, denak erabilgarriak administrazioko testuak aspergarri ez gertatzeko:

## ESKUBIDEAK

### ► **Ahal izan**

...Agindua agertu danetik hamabost egun geroago arte eskatu al izango da. (Trebíño. *Testu historikoak*, 731. or.).

...errentadoreari berari atzera emon al izango yakez (Trebíño. *Testu historikoak*, 731. or.).

...euneko 20'raño yatsi **al izango da** errentea; (Trebiño. *Testu historikoak*, 732. or.).

Ziurtagiriak HAEEko Egoitza Nagusian eskatu **ahal izango dira**.

## ► **Ahalera**

...Eskakizun orregaz batera, eta bertan eskatzen dana edo azaltzen dana zelanbait argituteko, nai izango direan agiri guztiak bidaldu **leitez**. (Trebiño. *Testu historikoak*, 733. or.).

Baso baten agertu ba'daite zula uztentzen daun gatx irazkorrik, bere jabiak ezkatu **lei** zugatzak eperditik ebaitia, baita sustarretik ataratia be, zula galdu orduko, eskakixuna zuzendurik bere Batza porbintzijalari, ta onek... (Trebiño. *Testu historikoak*, 672. or.).

Ibilgailuek ere espaloiak erabil **ditzakete**.

## ► **Esku-eskuan izan**

Juezaren edo Batzorde Epaikariaren epayaz errentea bajatutea erabagi daitenean, errentadoreak, etxetik kanpora bidaltzeko demandea atzeratu eragitea, bere **esku-eskuan izango dau**, ta erraz-erraz lortu al izango dau; onetarako, erabagi dan errentea juzgaduen agertu, ta, bertan ezartzea naikoa izango dau. (Trebiño. *Testu historikoak*, 732. or.).

Udalak **esku-eskuan izango du** eskaerak ezeztatzea.

## ► **Eskubidea izan**

Era beran, lekukorik bear izango baleukee arazoa geyago argitu al izateko, **eskubidea daukee**, edozein laguneri lekukotzat ots egiteko... (Trebiño. *Testu historikoak*, 734. or.).

Alcateac edo aren ordezoac **izanen du eskubidea** castigatcecoa ordenantcetan dagon moduan pensatceco ayen disposicioac eta botceco 777 bandoac (bandoac) berari iduritcen zayonean **eta gañera izanen du eskubidea** castigatceco faltac parte ematen diotenean. (Trebiño. *Testu historikoak*, 611. or.).

Alkateak **eskubidea izango du** egoki ikusten dituen aldaketak egiteko.

### ► **Utziko da**

Iñauteri egunetan **utziko da** kalietan zomorroz jantzita ibiltzen goizeko bederatzietatik illunabarra arte, baña ez Eleiz-funzioak diran bitartean. Debekatua dago Eleiz-jantzirik, edo beste autoridadea dutenentzat izendatuak daudenik jaztea. (Trebiño. *Testu historikoak*, 569. or.).

**Utziko da** librekiro saltzen edozer jateko, non ta bere prezioa izendatua ez dagoen erriko errematean. (Trebiño. *Testu historikoak*, 570. or.).

Herriko jaietan bakarrik **utziko da** suziriak botatzen.

### ► **Izanen da libre**

Gorozpillac **izanen da libre** iduquitzea jabeac bere terrenoan barranean. (Trebiño. *Testu historikoak*, 611. or.).

Libre izanen da txapiroitan joatea hilabete honetan.

### ► **Nahi duenak ikusi... -n izanen dira**

...naiduenak **ikusi** condiciunak herricochean izanendire. (Trebiño. *Testu historikoak*, 746. or.).

Dirulaguntza **eskatu nahi duenak** HAEEko Egoitza Nagusian izango ditu bete beharreko agiriak.

## DEBEKUAK

### ► **Ahal izan ezezkoan**

Agindu onen aurretik eskatuta dagozan maisterrak etxetik botatzeak bere, ta baita, juzgaduak etxe bateko trasteak kalera botatzeko aginduak, oraindiño eginda ezpaldin badagoz behintzat, eta maisterra etxean bertan bizi izaten yarraitu ezker, **eztira** aurrera eroan **al izango** ezegatik bere. (Trebiño. *Testu historikoak*, 729. or.).

Froga amaitu ondoren, **ez dira** atera **ahal izango** azterketa-ereduak.

## ▮ **Ezin**

...maisterrak edo lugiñak **ezin** izango dira ezelan bere, juzgadutik, etxetik kanpora bota...(Trebiño. *Testu historikoak*, 729. or.).

Ordu oyek ezkerro iñolaere **eziñ** iñor geldituko da toki oyetan, non eta ez dan echean bizi dana, edo bertan gauba pasa bear duen kanpoko. (Trebiño. *Testu historikoak*, 570. or.).

**Eziñ** iñori esan leikioke, bere izen onaren kontrako gauzarik, ez ta ere kantatu modu orretako kantik, ezta iñor artu ere farragarritzat. (Trebiño. *Testu historikoak*, 570. or.).

Hiztegiak **ezin** izango dira liburutegitik atera.

## ▮ **Eskubiderik ez izan& erabilita**

Ez Ayuntamentuac bacarric ez eta ere veintenarequin **ez dute izango escubideric** emateco emengo mendietan lurric edo terrenoric particularrari licencia lenagotic conseguitu gabetanic Autoridade tocatcen zayonangandic legueac gauza oyetaco escatcen ditun formalidadeac cumplitu gabe. (Trebiño. *Testu historikoak*, 611. or.).

Hemendik aurrera funtzionarioek **ez dute eskubiderik izango** oporrak eurek nahi dutenean hartzeko.

## ▮ **Geroaldia**

Ez da kale-funziorik **egingo**, ez ta ere pelota-leku, bola-toki edo beste orrelako berririk **ipiñiko**, autoridadearen baimenik gabe. (Trebiño. *Testu historikoak*, 569. or.).

Edariac neurceco **ez dirá usatuco** basija cobrezcoac ez baldin badaude ongui estañatuac, eta ala egonda ere biarco dute egon ongui garbituac. (Trebiño. *Testu historikoak*, 609. or.).

Hizkuntza eskakizunetako idatzizko azterketak **ez dira** inolaz ere arka-tzez **egingo**.

## ▮ **Debekatu aditza erabiliz**

...Jaun Aphezpicu harc hautatcen duen Imprimatçaileaz bertce guciei **debecatcen diotegu** erran diren liburu hec edo hequin cenbait parte imprimatcea edo salcea cer nahi errecluren azpian, non ezduten... (Trebiño. *Testu historikoak*, 47. or.).

**Debekatzen da** igande ta jai-egun ezagutu guztietan, agirian lanik egi-tea. (Trebiño. *Testu historikoak*, 568. or.).

**Debekatua dago**, jakiñen gañean, eche oyetan artzea bizimodu charreko gizon ta emakumerik, ta erriz-erri alferkeriyan dabillenik. (Trebiño. *Testu historikoak*, 569. or.).

**Debekatuta dago** espaloietan pilotarekin jolastea.

### ▮ **Ez da utziko**

**Ezta utziko** zaldi edo beste abererik, ez ta ere, koche, karro ta gurdirik ibiltzen prozesioak pasatzen diran tokietatik, oek pasatzen diran orduan. (Trebiño. *Testu historikoak*, 568. or.).

**Ez ta utziko** ere debekatutako jokorik: bestela, kastigatuko da ango jabea. (Trebiño. *Testu historikoak*, 570. or.).

**Ez da utziko** herriko frontoian jolasten harik eta konponketak amaitu arte.

### ▮ **Ez da libre izanen / izango**

Irugarrenecoric apirillaren irutic eta San Juan Eguneraiño defendatua izanen da aziendabelzic oyan eta edo saroyetan ibiltzia; guisa berian ezcurra den urtian **ez da libre izanen** aziendaric allazia ez eta ere pasacia ezcurra den lecuetan, non eta yabiac ez dituen merecizen lenagoco facerietan esplicaturic dauden punicioniac. (Trebiño. *Testu historikoak*, 319. or.).

Anizlarreco partidán **ez da libre izanen** oraindaño bezala ez bordaric, ez baserriric eguitea ez eta ere lurraric labaquitcea. (Trebiño. *Testu historikoak*, 611. or.).

**Ez da libre izanen** bide honetatik bizikletaz ibiltzea gaueko bederatzietatik goizeko bederatzia arte.

Horixe duzu guk egindako sailkapentxoá; dudarik gabe, beste modu batzuk ere badira eskubideak eta debekuak adierazteko, baina emandako horiek testu aspergarriak baztertzeo nahiko izango direla uste dugu.





Bigarren galdera aspektuari buruzkoa da; nola adierazi euskaraz: *kontuz ibili behar dira, kontuz ibili beharko dira, kontuz ibiliko dira?*

Guk dakigula, ez dago inolako araurik forma bat edo bestea aukeratzeko. Administrazioeko testu zaharrak aztertu ditugu eta, horietan, forma horiek guztiak agertzen dira:

### ► **Behar (orainaldia)**

Ikendatu behar ciren Cargudunac oro hautatu ondoan eta publicatu, Asamblada bakhotcheco Presidentac alchatu **behar** du eta barrayatu Bilçarra. (Trebíño. *Testu historikoak*, 134. or.).

Musikalari, dantzari eta beste orrelako konparsa edo gizatalde eskean dabiltzanak, eskatu **bear** diote lendanaz Alkate jaunari orretarako esku-bidea. (Trebíño. *Testu historikoak*, 568. or.).

Establecimentu oyec guciac iduqui **biar** dute ongui arguituac illunabarretic ichitceco orduraño eta gañera argui oriec egon **bear** dute alturan lurretic escuarequin arrapatu ez ditezquen moduan iñorc itzali ez ditzan intencio gaistoarequin. (Trebíño. *Testu historikoak*, 606. or.).

### ► **Beharko (geroaldia)**

Aiuntamentuak agintzen duen guztian, **bearko** dituzte eche-jabeak beren eche-aurreak zuritu. (Trebíño. *Testu historikoak*, 571. or.).

Carnabaletan permitituco da ebiltcea caleetan mozorroac careta edo mascaraquin, baño careta edo máscara (sic) quendu **biarco** du avemari ezquilla jotcen dan becin pronto. (Trebíño. *Testu historikoak*, 606. or.).

### ► **-go / -ko + aditz laguntzailea**

Besteren lurretan utziak arkitzen diran abereak **geldituko** ditu lur onen jabeak, eta **eramango** ditu autoridadearengana, autoridadeak eskatu dezayon bear dan kontua aberejabeari. (Trebíño. *Testu historikoak*, 572. or.).

Cafeac, tabernac eta gañeraco establecimentu guciac **ichico** dirá faltaric gabe arratseco bederacietan, urriaren lendabico egunetik asi eta Marchoaren ogeita amaicagarren eguna bitartean eta gañeraco illabeteetan **ichico** dirá gabeco amarretan, eta gende guciac non ta

familloa ez dan edo ayequin bici dena **ateraco** da ostatutic canpora... (Trebiño. *Testu historikoak*, 606. or.).

Ikastola bakotxian ibiliko diran umiak ogei gitxienez **ixango** dira, baña bein bez berrogei baño geyago. (Trebiño. *Testu historikoak*, 680. or.).

Itzulpenak aztertuz gero, konturatuko gara ez dela beti errespetatzen gaztelaniazko testuan agertzen den aditz-denbora. Esaterako, Usurbilgo ordenantzetan honelakoak aurki daitezke:

...**obtendrán** la autorización... (Trebiño. *Testu historikoak*, 575. or.).

...eskatu **bear** diote... eskubidea. (Trebiño. *Testu historikoak*, 568. or.).

Los propietarios **quedan obligados** al blanqueo de las fachadas cuando lo disponga el Ayuntamiento, previo (sic) informe de la Comisión de policía. (Trebiño. *Testu historikoak*, 578. or.).

Aiuntamentuak agintzen duen guztian, **bearko dituzte** eche-jabeak beren eche-aurreak zurutu. (Trebiño. *Testu historikoak*, 571. or.).

Hala ere, testu modernoetan, gehienetan (ez beti), itzulpen estu-estuetara jotzeko ohitura hartu dugu. Ikus ditzagun *Euskararen Legea*-ren pasarte adierazgarri batzuk:

Artículo 1º. El uso del euskera y el castellano **se ajustará**, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a lo dispuesto en la presente Ley y demás disposiciones que en desarrollo de esta Ley dicten el Parlamento y el Gobierno Vascos.

Lehenengo Atala. Euskararen eta gaztelaniaren erabilkera Lege hone-tan agindutakoari eta Lege honen hedapenerako Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak eman ditzaten gainerako aginduei **atxikiko zaie**.

Artículo 2º. La lengua propia del País Vasco **es** el euskera.

2garren Atala. Euskal Herriak euskera **du** berenezko hizkuntza.

Artículo 8º.1. Toda disposición normativa o resolución oficial que emane de los poderes públicos sitos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, **deberá estar** redactada en forma bilingüe a efectos de publicidad oficial.

8garren Atala.1. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean egon daitezen Herri-Agintaritzagatikako edozein aginte-araupide edo erabaki ofizialek bi hizkuntzetan idatzita **egon beharko du** zabalkunde ofiziala egiteko.

Baina, nahiz eta erdal egituretara oraindik askotan makurtu, badirudi berriz ere lehengo jokabidea hartzen hasi gara euskarazko testuak pres-tatzerakoan, euskarak bere bidea hartu nahian edo. Ikusi *Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea*:

Artículo 47.1. Las convocatorias para la provisión de puestos de trabajo, sea por el concurso o por libre designación, **se publicarán** en el Boletín Oficial del País Vasco y, cuando correspondan a Diputaciones forales o Corporaciones locales, en el Territorio Histórico respectivo, **y contendrán necesariamente:**

47.1 Atala. Lanpostuak lehiaketaz edo izendapen jarez betetzeko deiak Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian **argitaratuko dira** eta, foru Diputazioetakoak edo Udalbatzarrenak direnean, dagokien Kondaira-Lurraldekoan, eta honako **hauek izan beharko dituzte:**

Artículo 47.2. En las convocatorias de concurso **deberá incluirse** el baremo de méritos, con expresión de las pruebas específicas que se incluyan, la puntuación mínima exigida para acceder al puesto y la composición de la comisión de selección, en la que **deberá figurar** un representante del personal, designado por la representación sindical.

47.2 Atala. Lehiaketarako deian, honako hauek **sartuko dira:** merezi-menduen baremoa, sartutako berarizko saioak adieraziz, lanpostura iristeko eskatzen den gutxieneko puntuaketa eta aukeraketa-batzordearen osakideak, eta hor langilegoaren sindikatuetako ordezkariak izendatutako ordezkari batek **izan beharko du.**

Jokaera hau hobeto antzematen da *Administrazio eta Prozedura Legean (30 / 1992)*:

Artículo 36.3 La administración pública instructora **deberá traducir** al castellano los documentos...

36.3 artikulua. Herri-administrazio instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli behar ditu agiriak...

Artículo 38.3. Asimismo, el sistema **garantizará...**

38.3 artikulua. Sistemak **bermatu egin behar du,** halaber...

Artículo 41.1. Los titulares de las unidades administrativas y el personal al servicio de las Administraciones Públicas que tuviesen a su cargo la resolución o el despacho de los asuntos, **serán responsables directos** de su tramitación y adoptarán las medidas oportunas

para remover los obstáculos que impidan, dificulten o retrasen el ejercicio pleno de los derechos...

41.1.Artikulua. Gaiak ebazteko edo bideratzeko ardura duten administrazio-unitateetako arduradunak eta herri-administrazioetako **langileak dira, zuzenean, izapideen erantzule**. Arduradun eta langile horiek, bestalde, hartu beharreko neurriak **hartuko dituzte** izapideetan sor daitezkeen oztopoak kentzeko...

Beraz, tradizioak zuk aipatutako hiru forma horiek erakusten dizkigu. Eta egindako galderari zuzen-zuzenean erantzuteko, esan dezakegu hirurak daudela ondo. Hala ere, hori esatea ez zaigunez nahikoa iruditzen, graduazio bat egiten ausartuko gara:

- **Behar / beharko / behar izango** erabili, adierazten den beharra hain zorrotza ez denean (zenbaitetan, baldintza bat agertuko zaigu aurretik):

Nahi badezu zerbait' dantzatu **bearko** dezu beste zerbait. (Mokoroa)

Gizonak zaintsu iraun **bear** du, ez du bere bururik saldu **bear**, ez diru-truke, ez makil-bildur". (Mokoroa) [Araua da baina, azken finean, gizonak erabakitzen du zer egin].

Dirulaguntza eskuratu nahi duenak ondoko hau egin **beharko** du: eskaera-orria bete, sarrera eman, ziurtagirien kopiak aurkeztu... [Hori eskatzen zaio baldin eta helburua lortu nahi badu, baina, azken finean, bere esku dago hori dena egitea].

Ekonomia Batzordeak hartu **behar** du erabaki hori. [Berari dagokio, baina bere esku dago hartzea ala ez].

- **Kasuan kasuko aditza geroaldian** erabili, agindu zorrotza denean edo nahitaezko jarraibideak ematen direnean; hau da, esaten dena nahitaez bete behar denean:

Karguak honela **izendatuko** dira: ... [Egin egingo da eta, gainera, modu horretara].

Hemendik aurrera zuen arteko bilerak lan-orduetatik kanpo egingo dituzue, eta ez lan-orduetan.

Hiri arteko errepideetan oinezkoek beti **zirkulatuko** dute galtzadaren ezkerreko bazter-bazterretik.

Gidariei ibilgailua **geldituko** dute oinezkoren batek galtzada gurutzatu nahi duela ikustean.

■ *Izan* aditza orainaldian erabili, betebeharrari “errealitate” kutsu handiagoa eman nahi diozunean. Adibideetan ikusi dugunez, zenbaitean, orainaldia erabiltzen da beharrak adierazteko. Orainaldia errealitatearekin lotzen da eta, nolabait esateko, dagoeneko ezarrita dagoen arau orokorra edo adierazten du:

Langileak *dira*, zuzenean, izapideen erantzule. (30/1992 Legea)  
[Langileena da, nahitaez, erantzukizun hori].

Orainaldia da, hain zuzen ere, Katalunian beharrak adierazteko erabiltzen den aldia. Eta han lege-proposamenak katalanez sortu, izapidetu eta onartzen direnez, aspaldi hasi ziren, ziurtasun juridikoa dela eta, gaztelaniazko testuetan ere orainaldia erabiltzen: *deben atenerse a lo que establece, tienen que atenerse a lo que establece, han de atenerse a lo que establece, son los responsables...*

Eta amaitzeko, gogoan izan administrazioan bestelako formak ere baditugula beharrak adierazteko. Hona hemen, testu zaharretatik eta berrietatik aterata, adibide batzuk:

### ► **-tze(ak) izan**

Beti buruan eukiteko *da* gai au... (Mokorooa)

Aztertzeoak *dira* gai hauek.

### ► **-tu beharra izan**

Alkarren urrean bizi-bearra *degu* (baserritar eta arrantzale). (Mokorooa)

Lehendabiziko ariketa egin duten guztiek aurkeztu **beharra daukate**.

### ► **-tu beharre(t)an egon**

Gauza bat zuri esan **beharrean nago**, eta da oraiñ adituko dezuna.  
(Orotariko Euskal Hiztegia)

Sindikatuekin beste bilera bat egin **beharrean zaudete**.

### ▶ **Beharturik / behartuta / behartuak egon / derrigorturik / derrigortuta / derrigortuak egon**

Adibide zaharretan bi forma hauek aurkitu ditugu: *-tzera behartua* eta *-tzeko behartua*. Gaur egun lehenengoa nagusitu da:

Mesedeak artzen dituana **beartua dago**, bere ongillea aintzakotzat idukitzera. (*Orotariko Euskal Hiztegia*)

Lanpostu honetan jarraitu nahi baduzue, goizeko seietarako bertan egotera **behartuta zaudete**.

### ▶ **(Behar-) beharrezkoa / nahitaezkoa / derrigor(rezko)a izan**

Lenengo bostak **beharrezkoak dira**, izatez edo borondatez [...]. Beste biak dira borondatezkoak. (*Orotariko Euskal Hiztegia*)

Derrigorre(z)koa duzue baldintza hauek betetzea.

### ▶ **Partizipioa + beharreko + izena**

Eurek **jakin-arazi beharreko** gauzea zoan au. (*Orotariko Euskal Hiztegia*)

**Aurkeztu beharreko** agiriak dira: NANaren fotokopia eta zuzendaria-  
ren baimena.

### ▶ **Elipsia**

Herritarren betekizunak / eginkizunak / zereginak / eginbeharrak: ...

Nahitaezko baldintzak: ...

### ▶ **Ez + subjuntiboa**

Iñorbe **estella** [ez dadila] guelditu dirua emon barik bakotzak aldaben bestian. (Trebiño. *Testu historikoak*, 573. or.)

Ez **dadila** inor atera Egoitza Nagusitik txartela entregatu barik.

## ▮ Agintera

Yruqui **zazute** garbitasun aundi bat ceren echietan eta bizardetan, eta **bentilatu** edo **egoidatu** ondo egunaz cuartuac eta habitaciyo guztiyac... (Trebiño. *Testu historikoak*, 563. or.).

Zehaztu orri honetan egin dituzun fotokopiak.

Aurkeztu eskatutako agiriak hilabetea igaro baino lehen.

## ▮ “Ikuspegi positiboa” erabilia

Zenbaitetan, tonua zaintzea komeni da; honelakoetan hobe esaldiari kutsu positiboa ematea:

Honela adierazi beharrez:

Azterketa egin ahal izateko beharrezkoa da nortasun agiria aurkeztea.

Dirulaguntza lortzeko aurreko ikasturtean izandako notak aurkeztu beharko dituzu.

Hobe honela esatea:

Azterketa egin ahal izateko **nahikoa da** nortasun agiria **aurkeztea**.

Dirulaguntza lortzeko aurreko ikasturtean izandako notak **aurkeztea** **besterik ez duzu**.

Ikusten duzunez, ez dugu zertan beti forma berberak erabili: euskarak badu non aukeratu. Aprobetxa ditzagun, bada, eskura ditugun baliabideak.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

TREBIÑO, Imanol. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: HAEE-IVAP, 2001.

—Frantziako Dekretua herrietako kargudunetz (1789), 134. or.

—Usurbilgo Ordenantzak (1888), 568., 569., 571., 572. eta 576. or.

—Goizuetako Ordenantzak (1897), 606. or.

—Espainiako Legea basoen gainean, Bizkaiko Aldundiak euskaratua (1918), 672. eta 673. or.

- Gipuzkoako Diputazioaren araudia ganadua estaltzeaz (1925), 711. or.
- Berako bandoak (1933), 746. or.
- Datarik gabeko Hegoaldeko herri zehaztugaberen bateko erremateak, 223. or.
- Hernani eta Lasarteko horniduren errentamendurako kondizioak (1861 eta 1865), 466. or.
- Donostiako Udaleko lehiaketa literarioa edo Euskal-Erria aldizkarian agertzen diren programa ofizialak (1881), 541. or.
- Bizkaiko Aldundiaren arautegia eskolentzako laguntzak finkatzen (1918), 680., 681. or.
- II. Errepublika Espainiarraren Dekretua nekazarien errenten gainean, Bizkaiko Aldundiak euskaratua (1931), 731. eta 732. or.

MOKOROA, Justo Maria. *Ortik eta emendik: Herri euskarako esamolde bilduma...* [cd]. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1998.

Euskaltzaindia. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987-.

Azaroaren 24ko 10 / 1982 oinarrizko Legea, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa.

6 / 1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39 / 1992 Legea, azaroaren 26koa.

Herrizaingo Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. *Bide-hezkuntza / Lehen Hezkuntza / 2. eta 3. zikloak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001.



## ASPEKTUAREN ERABILERA OKERRAK

---

**Nire idazlanetan askotan esan izan didate aditzaren aspektua ez dudala zuzen erabiltzen. Ba al dago modurik jakiteko zein forma ez diren erabili behar?**

---

Ikasleen idazlanetan-eta ikusi izan dugunez, aspektu kontuetan oso erraza da hanka sartzea, konturatu barik, batzuetan erdararen eraginez. Hona hemen gehien errepikatzen diren erabilera okerrak:

### ► **Orainaldi historikoa:**

Gaztelaniaz honelakoak irakurtzen ditugu behin eta berriro:

Mozart nace en Salzburgo en 1756.

Eta, horren ondorioz, euskaraz:

\*Mozart Salzburgen jaiotzen da 1756an.

Euskaraz, ordea, lehenaldia erabiltzea komeni da:

Mozart Salzburgen **jaio zen** 1756an.

Modu berean:

\*Orain hamar urte, Eusko Jaurlaritzak hitzarmena **sinatzen du** erakunde honekin.

Orain hamar urte, Eusko Jaurlaritzak hitzarmena **sinatu zuen** erakunde honekin.

► **Gonbita edo proposamena egiten dugunean, gaztelaniak orainaldia erabiltzen du; guk, ordea, geroaldia<sup>1</sup>:**

*¿Celebramos la reunión?*

\*Zer, egiten dugu bilera?

Zer, egingo dugu bilera?

*¿Me pasas el agua?*

\*Pasatzen didazu ura?

Pasako didazu ura?

*¿Cerramos la puerta?*

\*Ixten dugu atea?

Itxiko dugu atea?

► **Gertatutakoak, amaitutakoak, lehenaldi burutugabea ematen ditugunean:**

*En la reunión de esta mañana era el director el primero en tomar la palabra, seguido de los técnicos.*

\*Gaur goizeko bileran aurrena zuzendariak hitz egiten zuen; gero, teknikariok parte hartzen genuen.

Gaur goizeko bileran aurrena zuzendariak hitz egin du; gero, teknikariok parte hartu dugu.

\*Atzoko aurkezpena sailburuaren hitzaldiarekin hasten zen, parte hartzaileen hitzekin jarraitzeko.

Atzoko aurkezpena sailburuaren hitzaldiarekin hasi zen; gero, parte hartzaileek hitz egin zuten.

► **Denborazkoetan, ekintza bat etorkizunean kokatu nahi denean:**

\*Etorriko direnean hasiko gara.

Etotzen direnean hasiko gara. (Burutugabea erabiliz)

\*Prest egoten zarenean hasiko gara.

Prest zaudenean hasiko gara. (Puntukaria erabiliz)

1. Ikusi *Geroaldia (Kortesia)*, 83. or.

► **Gaztelaniazko orainaldi neutroaren ordaina ematerakoan, Euskaltzaindiaren arabera, bi forma hauek erabil daitezke:**

Zer ordutan iristen da trenea bihar?

Zer ordutan iritsiko da trenea bihar?

► **Aspaldian berba erabiltzen dugunean:**

Aspaldian ez da etortzen / etorri bileretara.

Kontua da zenbait tokitan erabilera okertzat ematen dela hemengo hau:

Aspaldian ez dut ikusten zure lankidea; beste lanposturen bat lortu du ala?

Eta ontzat ondorengo hau:

Aspaldian ez dut ikusi zure lankidea; beste lanposturen bat lortu du ala?

Baina testu zaharretan forma biak erabili izan dira. Ikusi, esaterako:

Aspaldian, maitea, ez zaitut ikusten. (Pascual de Iturriaga. *Orotariko Euskal Hiztegia*).

Kristau-lkasbidearen azalpen baten bearra **sumatzen da**, ba, aspaldian gure artean. (D. Inza. *Orotariko Euskal Hiztegia*).

Ez dut aspaldian ikhusi. (J. Duvoisin. *Orotariko Euskal Hiztegia*).

Aspaldian **ez da sartu** gure errian orrelako ardorik. (A.M. de Zabala. *Orotariko Euskal Hiztegia*).

Beraz, Euskaltzaindiak ezer esaten ez duen bitartean, ezin esan forma ezburutua gaizki dagoenik. Hori bai, badirudi bigarren joera nagusitzen ari dela:

Aspaldian ez da etorri bileretara.

► **Aditza + izana**

Ohituragatik edo, nominalizaziora jotzen dugu honelako esaldietan:

Barkatu zure urtebetetzea **ahaztea** baina oso lanpetuta ibili naiz.

Ez du damu atzoko bileratik ezer esan gabe **ateratzea**.

Lastima hereneguneko afarira ez **joatea**.

Esanguratsua da nagusiak horrela **hitz egitea** aurreko aurkezpenean.

Esaldi horietan guztietan, nominalizazioaren bidez, pasatutako ekintza bat adierazi nahi dugu. Horrelakoak hobe honela idazten baditugu:

Barkatu zure urtebetetzea **ahaztu izana** baina oso lanpetuta ibili naiz.

Ez du damu atzoko bileratik ezer esan gabe **atera izana**.

Lastima hereneguneko afarira ez **joan izana**.

Esanguratsua da nagusiak horrela **hitz egin izana** aurreko aurkezpenean.

Hona hemen Mokoroaren lanetik hartutako beste adibide batzuk:

Eztu kalteko, bide ortatik orren zuzen **ibilli izana**.

Daukadan damua da' aita-semeon bizkarretan ez **egiñ izana** ori.

Egia esan bear bada' eztot damu ori **egin-barik itxi izana**.

**► Ez ahaztu, geroaldia adierazteko, forma puntuala erabil dezakezula:**

Bihar etorriko da lankide berria.

Bihar dator lankide berria.

**► Erabilera oker asko daude aditz jakin batzuk besteen logikaren barruan sartu nahi izaten ditugulako; kontuz ibili, besteak beste, forma hauekin: *bizi izan, nahi izan, falta izan...***

\*Hemen Luis **bizitzen** da.

Hemen Luis **bizi** da.

\*Zergatik joan zen Parisera? Hala **nahi** zuelako.

Zergatik joan zen Parisera? Hala **nahi izan** zuelako.

\*Nor faltatzen da gaur?

Nor falta da gaur?

\*Ez du postrerik hartu? Ez, ez zuen nahi.

Ez du postrerik hartu? Ez, ez du nahi izan.

## BIBLIOGRAFIA

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999, 411. or.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

Euskaltzaindia. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987-.

MOKOROA, Justo Maria. *Ortik eta emendik: Herri euskarako esamolde bilduma...* [cd]. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1998.

## ADITZOINA

---

**Entzun dut Euskaltzaindiak arau bat eman duela aditzoinaren gainean eta jakin nahi nuke, alde batetik, subjuntiboan eta ahaleran zer erabili behar dugun, partizipioa (*sartu*) ala aditzoia (*sar*). Eta, bestetik, zein den *ezagutu* aditzaren aditzoia: *ezagutu*, *ezagut* ala *ezagun*.**

---

Galdera bat barik, bi nahasten dira hor: ahaleran eta subjuntiboan zer erabili behar den; eta aditzoinak zein forma duen. Hori dela eta, erantzun bi eman beharko.

Hasteko, **partizipioa ala aditzoia?**

Euskaltzaindiak ez du orain arte araurik eman horren gainean; beraz, **bi aukerak dira zilegi**: *sar naiteke* nahiz *sartu naiteke*<sup>1</sup>.

Egia da Euskaltzaindiak arau bat<sup>2</sup> eman duena aditzoinaren gainean, baina arau horrekin aditzoinaren forma baino ez du erabaki; hau da: aditzoia erabili nahi baldin badugu, zein forma izan behar duen horrek, besterik ez.

Eta, hain zuzen, arau horrexetara joko dugu zure bigarren zalantza argitzearren: zein da, bada, **aditzoinen forma?** Ez da kontu makala, gero...

Hamaika zalantza izaten dira aditzoinaren formaren inguruan. Hori argitze aldera eman du Euskaltzaindiak araua, eta bertan hainbat aukera finkatu du, aditzen formaren arabera. Dena dela, gogoratu: ondoko arauak aditzoinaren formari dagozkio eta ez dute esan nahi aditzoia ezinbestean erabili behar denik.

**Aditz eratorriak:** Aditz batzuk eratorriak dira, alegia, aditz ez den hitz batetik sortuak. Adibidez: *zoro* > *zoratu*; *gozo* > *gozatu*; *lodi* > *loditu*; *ur* > *urtu*... Hemendik aurrera, *oinarri* esango diegu jatorrizko hitz horiei: *zoro*, *gozo*, *lodi*, *ur*.

---

1. Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea, 2000-07-19.

2. Aditzoinen forma: 1995-2-24.

- Aditzoina eta oinarria berdin-berdinak badira, biak dira aditzoin. Esaterako: lodi eta loditu, ur eta urtu, hobe eta hobetu.

Gehiago eman beharko diozu jaten, loditu / lodi dadin.

Ez dakit txosten hau hobetu / hobe daitekeen.

- Aldiz, aditzoina eta oinarria desberdinak badira, forma bakarra onartuko da: *zora, goza, urezta, elesta...*

Dena dela, honelako aditzekin bietara ondo dagoela esan du Euskaltzaindiak: *oheratu / ohera, mendiratu / mendira, noratu / nora, ...*

Bestalde, **hiru kasu berezi** aipatu dira:

- Oinarriak bukaera afrikatua duenean, hau da, *-ts, -tx* edo *-tz*.
- Aditzak *-i* bukaera duenean.
- Aditzoinak *-i* bukaera duenean.

### ► Oinarriaren bukaeran *-ts, -tx* edo *-tz* dagoenean, zein da aditzoina?

Hainbat aditz bukaera afrikatua duen hitz batetik eratorriak dira, hala nola, *hustu < huts, hoztu < hotz, zorrotzu < zorrotz...* Ikusten denez, *-tu* atzizkia hartzean galtzen da bukaera afrikatua, baina zer gertatzen da aditzoinarekin? Bada, nahitaez gorde egin behar du afrikatua. Esaterako: *huts dezaket* (ez *\*hus dezaket*), *hotz ninteke* (ez *\*hoz ninteke*), *zorrotz dezaket* (ez *\*zorroz dezaket*).

Hala ere, gogoan hartu euskara batuko aditzoin hauetan onartuta daudela *-tu* marka duten partizipioak: *zorrotzu* edo *zorrotz, hustu* edo *huts, hoztu* edo *hotz, aberastu* edo *aberats, laztu* edo *latz...*

### ► Zer gertatzen da aditzak amaieran *-i* bat badu?

Horietan begiratu egin behar da aditzak nominalizazioa hartzean *-i* hori oraindik baduen:

Galdu ez badu, *-i* berezkoa da eta aditzoinak ere gorde egin behar du:

eraiki > eraik-l-tze: eraiki dezagun (\*eraik dezagun)

jaiki > jaik-l-tze: jaiki gaitezen (\*jaik gaitezen)

jaurti > jaurt-l-tze: jaurti dezake (\*jaur / \*jaurt dezake)

Galdu badu, ez da *-i* berezkoa; hortaz, aditzoinak EZ du hartu behar:

ikasi > ikas-tea: ikas-Ø-dezagun

utzi > uz-Ø-tea: utz dezan

Salbuespenak: *itxi*, *eutsi* eta *iritzi*:

***itxi***, *-i* gordeta beti:

Itxi itzazu leihoak, hotz da eta.

\*Itx itzazu leihoak, hotz da eta.

***eutsi*** eta ***iritzi***, bietara:

Emandako hitzari eutsi / euts diezaiodan, zeuk ere eutsi beharko diozu.

Sekulako ahaleginak egin ditu aldamenekoez on iritz / iritzi diezaioten.

### ► Noiz hartzen du aditzoinak *-t* kontsonantea bukaeran?

Aditzoina erabiltzen den euskalkietan, maiz ikusten da *-tu* bukaera duten aditz batzuetan *-t* bukaera izaten duela aditzoinak. Hala ere, Euskaltzaindiak *-t* bukaera kentzea hobesten du:

Lana amaitzen lagundu / lagun zaitzadan, noiznahi dei nazakezu.

\*Lana amaitzen lagunt zaitzadan, noiznahi deit nazakezu.

Hala ere, badira **salbuespen** batzuk:

- Aditz eratorria bada eta oinarriak *-t* badu, bietara: (*ausartu* / *ausart*, *laketu* / *laket*, *batu* / *bat*, *oroitu* / *oroit*).
- Literatura tradizioan horrela bakarrik erabili bada, gorde egiten da *-t* hori: (*ezagut*, *lant*, *lot*, *ohart*).
- *-di* bukaera duen oinarri batetik eratorririko aditz baten forma laburtua bada, forma laburtugabearen esanahi berbera ez badu, gorde egiten da *-t* hori.



## ARAZI

**ARAZI erabiltzen dugunean, nola erabili behar dugu: lotuta ala berezita? Hau da: *sartarazi, sarrarazi, sar arazi ala sartu arazi?* Ba al dago ERAZI erabiltzerik? Bestalde, beti aldatzen da aditzen erregimena ARAZI hartzean, ala ba al da salbuespenik?**

Zure galderan bi kontu bereizi behar dira: idazkera eta erregimena.

### IDAZKERA

Euskaltzaindiak eguneratu egin du ARAZI formaren idazkera. Arau berriak<sup>1</sup> murriztu egin ditu aurreko arauaren araberrako aukerak<sup>2</sup>, eta horrek hainbat ondorio ekarri ditu:

- ▮ Arau berriaren lehenengo ondorioa hauxe da: batasunerako **ARAZI** forma bakarrik onartzen da eta, beraz, \***ERAZI** forma baztertu egin beharko. Hala ere, *adierazi* da salbuespen bakarra. Eta bigarren ondorioa da aditsoinari **lotuta** idatzi behar dela **ARAZI**. Beraz:

Hizketan jarraituz gero, ixilarazi egingo ditut.

\*Hizketan jarraituz gero, ixilerazi egingo ditut.

\*Hizketan jarraituz gero, ixil arazi egingo ditut.

\*Hizketan jarraituz gero, ixildu arazi egingo ditut.

- ▮ Beste kontu bat da *sartu, sortu*, eta abarrek, **ARAZI** eranstea, tarteko *-t-* bat hartu behar duten ala ez:

- Azken arauaren helburua **ERAZI / ARAZI** auzia erabakitzea besterik ez zen. Horregatik, tarteko *-t-* horri dagokionez, bi aukerak (*-t-* dunak zein *-t-*gabeak) zilegitzat jotzen zituen “oraingoz”.
- Baina, harrezkero, *Hiztegi Batua* argitaratu eta hainbat hitzen idazkera finkatu du Euskaltzaindiak. Hiztegi Batuan, *-t-* dunen eta *-t-*gabeen arteko auzia azkenengoan alde erabaki da, oro har, **-t- gabeko formak** erabat nagusi dira eta.

1. *Arazi* (1994-12-29)

2. *Euskera* XVI, 1971, 156.-159. or.

Hala ere, badira **salbuespen** edo batzuk, *-t-* hori gorderik dutenak:

*Agindu > agintarazi*

*Batu > batarazi*

*Berandutu > berantarazi*

*Berretu > berretarazi*

*Ezagutu > ezagutarazi*

*Gogaitu > gogaitarazi*

*Hantu > hantarazi*

*Hertu > hertarazi*

*Laketu > laketarazi*

*Lotu > lotarazi*

*Ohartu > ohartarazi*

*Oroitu > oroitarazi*

*Ulertu > ulertarazi*

Erantzunaren ondoren eranskin bat duzu, Hiztegi Batuko *arazi*-dun aditzek osatua.

## ERREGIMENA

Aditzak *ARAZI* hartzean, aldatu egiten da aditzaren erregimena, eta subjektuak objektu bihurtzen dira:

- *NOR > NORK*

Oihane etorri da > Oihane etorrarazi dute.

- *NORK > NORI*

Liburua irakurri dut (NIK) > Liburua irakurrarazi didate (NIRI).

- *ZER-NORI > ZER-NORI-NORK*

Txartela galdu zait > Txartela galarazi didate.

- *ZER-NORI-NORK > ZER-NORI-NORK (lehengo subjektua NORI bihurtuta)*

Autoa Mikeli saldu diot (nik) > Autoa (Mikeli) salarazi didate (NIRI).

Hala ere, kontuz ibili behar dugu zenbait aditzekin. Izan ere, *NORK* sailko aditz batzuek ez dute ageriko objekturik, esaterako, *irakin* (*Urak irakin du*) edo *sufritu* (*Ederki sufritu dugu guk*). Horiek nola hartzen dute *ARAZI*? Bada, *ARAZI* gabeko perpauseko subjektua nolakoa den eta horrela jokutzen da:

- *Biziduna bada, NORI bihurtzen da:*

Ederki sufritu dugu guk > Ederki sufriarazi digute guri.

- *Bizigabea bada, NOR bihurtzen da:*

Urak irakin du > Ura irakinarazi dute. (\*Urari irakinarazi diote).

Bestalde, aditz batzuk *NOR* dira euskalki batzuetan, baina *NORK* bestetan. Esaterako: *gosaldu*, *bazkaldu*, *afaldu*... Horiek guztiak *NOR* dira Iparraldean eta *NORK* Hegoaldean. *ARAZI* hartzean, mintzaira edo euskalkiaren arabera erabili behar dira:

- *NOR > NORK*

Nagusiarekin bazkaldu ginen > Nagusiarekin bazkalarazi gintuzten.

- *NORK > ZER-NORI-NORK*

Nagusiarekin bazkaldu genuen > Nagusiarekin bazkalarazi ziguten.



Honaino helduta, uste dugu erantzun dugula zuk eskatutakoa. Baina ezin amaitu, ohar bat egin gabe: beharbada, gehiegi erabiltzen da *arazi* beste forma batzuen kaltetan. Esaterako: *eragin*, *behartu*...

Mendebaldean askoz gehiago erabiltzen da *eragin* aditza *arazi* baino, eta ez bakarrik *egin* aditzarekin osatutakoekin.

Dirua eman eragin zidan.

Zure amodioak igo eragin digu aldats luzea.

Udaltzainak geratu eragin dio autoari.  
 Zenbat lerro idatzi eragin dizkizudan!  
 Jakin eragin digute.  
 Lapurrari aitortu eragin diote egia.  
 Egunkaria itxi eragin dute.

Eta areago: badira hamaika esapide jator *arazi* gabe ideia bera ederki adierazten dutenak. Hona hemen batzuk, Mokoroaren esapide liburutik<sup>3</sup> hartuta:

Beharrak aldatu zuen Napparroa-tik Urdulitz-a.  
*Se vió obligado a trasladarse.*

Zerk ipiñi zuen ara-bearrean?  
*Obligar a ir allá.*

Zer gertatzen zen esatera beartu emen-zon.  
*Obligo a confesar la verdad.*

Ez dabe iñor ezkondutera ekarriko.  
*No le forzarán a casarse...*

Ohitura txarrak utzitzera estutu ta beartu...  
*Urgir, forzar...*

Nor izan ete zan gauza onek erderaz ipinzera lotu zitubena?  
*Quién obligó a ...*

Gogoratu-izu gaztelarrez ikastera nai-ta-naiztuak gagozala.  
*Estamos forzados a...*

Ezertara-be ez nabe ni indarrez-indar ezkonduko.  
*Por nada me forzarán a casarme.*

Goiago aipatu ditugun *arazi*-dun adibide batzuk ere, bestela eman ditzakegu:

Ura irakinarazi > Urari irakin bat eman.

Ederki sufriarazi digute > Ederrak pasa ditugu / hartu ditugu / eman dizkigute.

3. MOKOROA, Justo María. *Ortik eta emendik. Herri euskarako esamolde bilduma...* [CD]. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1998.

Eta bukatzeko, *hitz esana*, *hitz emana*: hona hemen aditz *arazi*-dunen zerrenda:

<b>A</b> biarazi	bararazi	dirdirarazi	errespetarazi	gezurtarazi
agerrarazi	barearazi	distirarazi	errukiarazi	gibelarazi
agintarazi	barkarazi	durduzarazi	esanarazi	gidarazi
ahantzarazi	barreiarazi	<b>E</b> bakiarazi	eserarazi	gizenarazi
ahiarazi	bataiarazi	ebatsarazi	eskainarazi	gogaitarazi
ahoskarazi	batarazi	edanarazi	eskarazi	gogorarazi
ahularazi	bazkarazi	edekiarazi	eskolarazi	gogorrazazi
aiparazi	bazterrarazi	ederrarazi	esnarazi	goibelarazi
aitorrarazi	bedeinkarazi	edirenarazi	estalarazi	goitiarazi
aitzinarazi	begirarazi	edukiarazi	estekarazi	gomutarazi
aldarazi	beharazi	eginarazi	estimarazi	gorarazi
alharazi	behaztoparazi	egokiarazi	estonarazi	gordearazi
altxarazi	beherarazi	egonarazi	estuarazi	goriarazi
amaiarazi	belaunikarazi	egosarazi	estudiarazi	gorriarazi
amilarazi	beldurrarazi	egotzarazi	etenarazi	gorrotarazi
amorrarazi	berantarazi	ekarrarazi	etorrarazi	gozarazi
antolarazi	berdinarazi	ekoitzarazi	etsiarazi	grinarazi
antzaldarazi	bereizarazi	ekurarazi	etzanarazi	gudukarazi
apainarazi	beroarazi	elikarazi	ezagutarazi	guriarazi
apalarazi	berretarazi	elkarganarazi	ezarrarazi	gutziarazi
aplikarazi	berriarazi	elkarrarazi	ezdeusarazi	gutxiarazi
arbuiarazi	betearazi	emanarazi	ezeztarazi	<b>H</b> aizarazi
argiarazi	beztiarazi	entzunarazi	ezkonarazi	handiarazi
argitararazi	bihurrarazi	epelarazi	ezkutarazi	hanparazi
arinarazi	bihurriarazi	erabakiarazi	eztiarazi	hantarazi
arnegarazi	bilakarazi	erabilarazi	<b>F</b> altarazi	harraparazi
arrangurarazi	bilarazi	eraginarazi	finkarazi	harrarazi
arrimarazi	biluzarazi	eraikiarazi	flakarazi	harriarazi
artxibarazi	bipilarazi	eraitsarazi	frijiarazi	harrikarazi
asaldarazi	birarazi	erakarrarazi	frogarazi	hasarazi
asearazi	birmoldarazi	erakutsarazi	fundiarazi	haserrarazi
askarazi	biziarazi	eralgiarazi	fusilarazi	hastiarazi
asmarazi	bizkorrarazi	eramanarazi	<b>G</b> aindiarazi	hautarazi
astinarazi	botarazi	erantzunarazi	gaiztoarazi	hautemanarazi
aterarazi	bozkarazi	ernalarazi	galarazi	hautsarazi
atsedenarazi	bukarazi	ernarazi	galdearazi	hazarazi
atxikiarazi	bulkarazi	ernearazi	galdeginarazi	hedarazi
atzemanarazi	bultzarazi	ernegarazi	garaiarazi	hegaldarazi
atzerarazi	bustiarazi	eroarazi	gararazi	helarazi
aukerarazi	<b>D</b> antzarazi	erorarazi	garbiarazi	herabearazi
aurkiarazi	dardarazi	erosarazi	garestiarazi	herrestarazi
aurtikiarazi	dastarazi	errabiarazi	garraiarazi	hertarazi
azterrarazi	debekarazi	errautsarazi	gastarazi	higiarazi
<b>B</b> akearazi	deiarazi	errearazi	gatzarazi	higuinarazi
baliarazi	desagerrarazi	errelarazi	geldiarazi	hilarazi
baltsamarazi	desirarazi	errendarazi	gerarazi	hiroarazi
banarazi	dibertiarazi	errepikarazi	gertarazi	hitsarazi

hondarazi	itxiarazi	konturarazi	nekarazi	tinkarazi
hordiarazi	itzalarazi	koordinarazi	noziarazi	tirriarazi
hotzarazi	itzularazi	kopiarazi	<b>O</b> bediarazi	trabailarazi
hunkiarazi	itzurarazi	kordokarazi	obligarazi	trebarazi
hurbilarazi	izanarazi	kraskarazi	ohartarazi	trenkarazi
hurruparazi	izarniarazi	kukuarazi	oherarazi	tristarazi
hutsarazi	izenpearazi	kutsarazi	ohorarazi	<b>U</b> galarazi
<b>I</b> biarazi	izerdiarazi	<b>L</b> abainarazi	okerrarazi	ugariarazi
ibilarazi	izuarazi	laburrarazi	onarrarazi	ukarazi
idatzarazi	<b>J</b> abalarazi	laketarazi	onetsarazi	ukiarazi
idorrarazi	jaikiarazi	landarazi	ordainarazi	ulterarazi
igaroarazi	jaioarazi	larriarazi	oroitarazi	umarazi
igarrarazi	jaitсарazi	larruarazi	ostikarazi	unarazi
igoarazi	jakinarazi	lasaiarazi	oztoparazi	urkarazi
igorrarazi	jalgiarazi	lasterkarazi	<b>P</b> agarazi	urrarazi
igurtzarazi	janarazi	latzarazi	pairarazi	urrikalarazi
ihardetsarazi	jantzarazi	laudarazi	partiarazi	urrunarazi
iharrarazi	jardunarazi	leherrarazi	pasarazi	urtarazi
ihesarazi	jariarazi	lehiarazi	pausarazi	usnarazi
ikararazi	jarraiarazi	lerrarazi	penarazi	ustelarazi
ikasarazi	jarrarazi	leunarazi	pentsarazi	utzarazi
ikusarazi	jasanarazi	librarazi	pikarazi	uzkailarazi
ilkiarazi	jasoarazi	limurrarazi	pintarazi	uztarrarazi
ilunarazi	jaulkiarazi	lizunarazi	pitzarazi	<b>X</b> ahuarazi
inarrosarazi	jaurtiarazi	lodiарazi	plegarazi	xehakarazi
inausarazi	jausarazi	lokarrarazi	presarazi	xeharazi
ingurarazi	jauzarazi	lorarazi	prestarazi	xukarazi
inprimarazi	jinarazi	lotarazi	prezarazi	<b>Z</b> abalarazi
ipinarazi	joanarazi	lotsarazi	pulunparazi	zabarrarazi
irabazarazi	joarazi	lurrerarazi	<b>S</b> aiaarazi	zainarazi
iraganarazi	jokarazi	luzarazi	salarazi	zalearazi
irakinarazi	jostarazi	<b>M</b> aitarazi	salbarazi	zaluarazi
irakurrarazi	juntarazi	makurrarazi	saltarazi	zaparazi
iratzarrarazi	<b>K</b> antarazi	matxinarazi	saminarazi	zapartarazi
iraularazi	kantiarazi	menderarazi	samurrarazi	zartarazi
iraunarazi	kargarazi	milikarazi	sarrarazi	zatiarazi
iraungiarazi	kasarazi	mintzarazi	seinalarazi	zeharazi
irekiarazi	kausiarazi	miretsarazi	sendarazi	zentzarazi
irentsarazi	kenarazi	moldarazi	sentiarazi	zerbitzarazi
irozoarazi	kexarazi	motzarazi	sinarazi	zigorrarazi
irristarazi	kezkarazi	mozkorrarazi	sinetsarazi	zimelarazi
irtenarazi	kiskalarazi	mudarazi	soraioarazi	zimurrarazi
irudiarazi	klikarazi	mugiarazi	sorrarazi	zirikarazi
isilarazi	kobrarazi	murgilarazi	sufriarazi	zokorarazi
isurarazi	kokarazi	mutuarazi	sumarazi	zorarazi
itoarazi	kondenarazi	<b>N</b> agiarazi	suntsiarazi	zorrotzarazi
itsatsarazi	konpreniarazi	nagusiarazi	susmarazi	zuriarazi
itsusarazi	kontarazi	nahasarazi	susperrarazi	zutiarazi
itxaronarazi	kontentarazi	nardarazi	<b>T</b> indarazi	zuzenarazi





IVAP

**Josker A**  
**J**  
**o**  
**s**  
**k**  
**e**  
**r**  
**A**





## PERPAUS MENDERATU FALTSUAK

### **Zalantza-dantza liburuxkan “menderatu faltsuak” izeneko perpausak aipatzen dituzue. Zer dira horiek, baina?**

Galderari erantzuteko, kontu bat argitu behar dugu lehenago. Esaldiak elkarri lotzeko hiru modu nagusi daude<sup>1</sup>:

1. Puntuazio-zeinuak ➡ Justaposizioa.
2. Juntagailuak (*eta, edo, hortaz, baina...*) ➡ Juntadura.
3. Menderagailuak (*((e)lako, ba-, ...arren...*) ➡ Menderakuntza.

Esaterako, *ohera noa* eta *nekatuta nago* ideiak uztartu nahi izanez gero, bide hauek ditugu:

#### 1. Puntuazio-zeinuak erabiltzea (justaposizioa).

Ohera noa: nekatuta nago.

Ohera noa; nekatuta nago.

#### 2. Juntagailuak erabiltzea (juntadura).

Nekatuta nago **eta** ohera noa.

Nekatuta nago; **beraz**, ohera noa.

#### 3. Menderagailuak erabiltzea (menderakuntza).

Ohera noa, nekatuta **bainago**.

Nekatuta **nagoenez**, ohera noa.

Ikusten duzunez, formalak baino ez dira aldeak; azalekoak, eta ez esanahiari dagozkionak. Zein da arazoa, orduan? Bada, euskarak, mendeko perpausei dagokienez, gaztelaniak ez bezala funtzionatzen duela. Ikus dezagun zertan diren alde nagusi horiek:

1. Ikusi *Esaldiak elkarrekin lotzeko (Puntu eta koma)*, 28. or.

### ► **Gaztelaniaz joera handiagoa du mendeko perpausetarako**

Gaztelania eta euskara hizkuntza ezberdinak dira tipologiari begira. Badirudi berezkoago ditugula euskaraz justaposizioa eta juntadura, eta ez menderakuntza; nahiago ditugula juntagailuak eta perpaus segida zati-tuak, joskera trinkoaren eta etenik gutxienekoaren aldean. Dena dela, gaztelaniaz mendeko perpausak erruz erabiltzen direnez, bide beretik jotzen dugu guk, eta, hala, gure testuak horrelako esaldiez bete ditugu, kontuan izan gabe arrotzak direla euskaraz. Juan Garziak behin baino gehiagotan salatu du joskera trinkotzeko joera hori<sup>2</sup>.

### ► **Menderagailu batek funtzio bat baino gehiago bete dezake gaztelaniaz**

Erdal gramatiketan, gauzak oso garbi daudela ematen du. Denborazko bat egin behar dugula? Hara, denborazko menderagailuak: *mientras*, *cuan-do...* Helburuzkoa dela? *Para*, *a fin de...* eta abar. Zoritxarrez, dena ez da hain “matematikoa”.

Adibidez, hau esaten badugu:

Se ha pasado la vida estudiando **para** acabar sirviendo copas en los bares.

Ez da “benetako” helburuzko perpausa; hau da, gure ikaslea ez zen hain-beste ahalegindu, zerbitzari lanetan amaitu nahi zuelako, ez. Garbi dago mendeko perpaus “faltsu” horrek beste hauek ezkututzen dituela:

Se ha pasado la vida estudiando, **pero / sin embargo** ha acabado sirviendo copas en los bares.

**Aunque** se ha pasado la vida estudiando, ha acabado sirviendo copas en los bares.

Halako jokoak menderagailu gehienek egiten dituzte... gaztelaniaz. Eta hemen sortzen zaigu galdera: gauza bera egin daiteke euskaraz, ala kalko sintaktikoan erortzen ari gara?

2. “Euskara koordinazio/justaposizioaz (parataxiaz) menderakuntzaz (hipotaxiaz) baino dezentez gehiago baliatzen da (eta baliatu behar du), inguruko erdaratan bestela jokatzeko den hainbat egituratan .../... Erdarak perpaus segida trinko, ahalik eta etenik gutxienekoak bilatzen ditu (periodo luzea, alegia), eta euskarak, berriz, egiturazko arazoiz, zatikako hurrenkera nahiago du”. GARZIA, Juan. *Joskera Lantegi*. Donostia: HAEE-IVAP, 1997.

**ERDAL DENBORAZKO FALTSUAK**

Demagun esaldi hau itzuli behar dugula:

**Mientras** el Alavés vencía el sábado, el Osasuna caía derrotado al día siguiente en el Sadar.

Lehenengo eta behin, jakin behar dugu gaztelaniak, besteak beste, bi *mientras* dituela:

- Denborazkoa: *No se lee **mientras** se come*
- Oposizioak adieraztekoa: *Yo no me meto con su trabajo, **mientras que** él no pierde ocasión de criticar el mío.*

Euskaraz ematerakoan ez bagara konturatzen gure *bitartean*, “oraingoz”, aldiberekotasuna markatzeko baino ez dela, hau gerta daiteke:

\*Alavesek larunbatean irabazten zuen **bitartean**, Osasunak galdu egin zuen Sadarren biharamunean.

Hanka ez sartzeko, erdarazko “azala” barik, “mamia” itzuli beharko dugu:

Alavesek irabazi egin zuen larunbatean, **eta / baina** Osasunak galdu biharamunean Sadarren.

Antzera gertatzen da esaldi honetan ere:

¡Cómo no va a aprobar cuando se pasa el día estudiando!

Denborazkoa ote? Seguru? Honela itzuli beharko ote genuke?

\*Nola, bada, ez du azterketa gaitutiko, egun osoa ikasten ematen duenean!

Ez, horixe; guk beste hauek proposatzen dizkizugu, denborazko arrasto guztiak kenduta:

Gaitutiko ez du ba! / Gaitutu ez, ostera! Egun osoa ikasten ematen du eta!

Nola ez du gaitutiko, egun osoa ikasten emanda!

**ERDAL HELBURUZKO FALTSUAK**

Erreparatu adibideari:

\*Trobeletik ihes egin zuen, helmugatik bi kilometrora **harrapatua** izateko.

Horretarako ihes egin al zuen? Gogo behar da gero! Zergatik ez esan honela?

Trobeletik ihes egin zuen, **baina / eta** helmugatik bi kilometrora harrapatu zuten.

### ERDAL BALDINTZAZKO FALTSUAK

Erdaraz bada *si bien* bat, baldintzaren itxura izan arren, kontzesiboa dena (*aunque*). Ez da zaila asmatzen zer gerta daitekeen (eta gertatzen den) euskaraz jartzerakoan:

Si (bien) la población de Bilbao ha disminuido, la de Vitoria ha aumentado.

\*Bilboko biztanlegoak behera **egin badu**, Gasteizkoak gora.

Bilboko biztanlegoak behera egin du, eta Gasteizkoak, berriz, gora.

## ► Menderagailu batzuk juntagailu ere izan daitezke gaztelaniaz

### 1. Demagun **kontzesibo** hau daukagula gaztelaniaz:

Aunque le he dado una aspirina, le sigue doliendo la cabeza.

Perpauk nagusia: *le sigue doliendo la cabeza*; mendekoa (kontzesiboa): *aunque le he dado una aspirina*. Buelta emanda, gauzak ez dira aldatzen:

Le sigue doliendo la cabeza **aunque** le he dado una aspirina.

Dena dela, gaztelaniazko lotura batzuek (kasu honetan, *aunque*) mendeko perpauzetik nagusira jauzi egiteko ohitura izaten dute. Ikusi nola:

Le he dado una aspirina **aunque...**(todavía) le sigue doliendo la cabeza.

Itxuraz, behintzat, perpauk nagusia oraingoan: *le he dado una aspirina*; mendekoa (kontzesiboa): *le sigue doliendo la cabeza*. Errealitatean, berriz, perpauk biak maila berean daude, eta menderagailuak (*aunque*) juntadura adbertsatibo bat (*pero, sin embargo...*) ezkututzen du.

Le he dado una aspirina **pero / sin embargo** le sigue doliendo la cabeza.

Hori gaztelaniaz gertatzen da; euskaraz, ordea, menderagailuak menderagailu dira, eta ez besterik. Horrenbestez, hau idatz dezakegu:

Nahiz eta aspirina bat eman, buruko mina du oraindik.

edo hau:

Aspirina bat eman diot, baina buruko mina du oraindik.

Baina kale egingo dugu beti, gaztelaniaren menderagailu-dantzan sartzen bagara; alegia, euskal menderagailuak juntagailu bihurtu nahi baditugu:

Le he dado una aspirina **aunque...** le sigue doliendo la cabeza.

\*Aspirina bat eman diot **nahiz eta** buruko mina izan oraindik.

Zer da? Buruko mina izan arren aspirina eman? Ba al du logikarik horrek? Ez, bada: euskaraz ezin baita horrelakorik egin.

## 2. Gaztelaniazko **denborazkoetan** ere beste horrenbeste gerta daiteke:

**Cuando** estábamos trabajando, oímos un ruido espantoso.

Estábamos trabajando... **cuando** (de repente) oímos un ruido espantoso.

Lehen esaldiarekin, arazorik ez; bigarren adibidean, berriz, zein da perpaus nagusia? *Estábamos trabajando?* Betetzen ote ditu horrek perpaus nagusi batek izan behar dituen baldintzak? Garbi dago mendeko perpaus faltsua sortu dugula berriro ere<sup>3</sup>; eta euskaraz apur bat deskuidatzen bagara...:

\*Lanean ari ginen, zarata izugarria entzun genuenean.

3. "Las oraciones con *cuando* no siempre tienen claramente carácter de subordinadas: *Apenas habíamos salido de casa cuando empezó a llover*. En estos casos puede suprimirse *cuando* sin que apenas se altere el sentido: *Apenas habíamos salido de casa empezó a llover*. (Hay una ligera diferencia de matiz, pues en la primera forma se pone el énfasis en la salida, y en la segunda en la lluvia)". MOLINER, María. *Diccionario de uso del español*. Madrid: Gredos, 1991, 817. or.

Hau idatzi beharrean:

Lanean ari ginenean zarata izugarria entzun genuen.

Lanean ari ginela, halako batean, zarata izugarria entzun genuen.

Lanean ari ginen, eta, bat-batean, zarata izugarria entzun genuen.

### 3. Kausazkoekin... berdin

Ha hecho trampa, porque así es como muchos alumnos aprueban los exámenes.

\*Tranpa egin du, horrelaxe gainditzen **dituztelako** azterketak ikasle askok.

Tranpa egin du: horrelaxe gainditzen dituzte azterketak ikasle askok.

### 4. Erdarazko **erlatibo**zko batzuk ere mendeko perpauz mozorrotzen dira, “galdegaia”-edo markatzeko:

Fue el jefe quien me dijo que estabas enferma.

Euskaraz badugu beste modu bat informazio nagusia azpimarratzeko, alferreko erlatiboetara jo gabe<sup>4</sup>; hortaz, hurrengo esaldia zuzena bada ere... adi!

Nagusia izan zen gaixorik zeundela esan **zidana**.

Nagusiak (berak) esan zidan gaixorik zeundela.

## BIBLIOGRAFIA

GARZIA, Juan. *Joskera Lantegi*. Donostia: HAEE-IVAP, 1997, 279.-333. or.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *Zalantza-dantza*. Gasteiz: HAEE-IVAP, 2000, 45. or.

4. Ikusi *Alferrikako erlatiboak*, 230. or.

## ERDAL FORMULAK EUSKARAZ: NOMINALIZAZIOAREN ERAGINA

**Ba al dago hiztegirik administrazioetako formulak euskaraz ematen dituenik: *salvo disposición en contrario, con carácter oficial, de obligado cumplimiento...* Zenbateraino erabili behar ditugu erdarazko formula horiek gure testuetan?**

Euskaraz badira esapide eta formulen zerrendak. Esate baterako:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. “Lokuzioak eta Formulak”, *Hizkera Argiaren Bidetik*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1994, 292.-299. or.
- ETXEBARRIA ARISTIMUÑO, Andoni. *Vocabulario de la administración castellano-euskara...* Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2001.
- EUSKALTERM ([www.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskadi.net/euskalterm)).

Zenbateraino erabili behar diren... beste kontu bat da. Eta honetan, arazorik handiena ez da askok pentsatzen dutena: alegia, esapideek, zehaztasun gutxikoak izateaz gain, halako ukitu sasi-teknikoa ematen diotela Administrazioko prosari. Arazoa larriagoa da, gure hizkuntzaren egitura berari eragiten baitio. Azaldu dezagun nola.

Gaztelaniaz halako hizkera “jasoan” hitz egin edo idatzi nahi izanez gero, gauza agerikoa da estilo nominalerako joera. Badirudi aditzak zokoratu, eta beren orde, izenak jarrita, hizkera arruntetik ihes egiten dela, nonbait. Euskaraz ere horrelako zerbait gertatzen ari zaigu eta batez ere Administrazioan. Ekintzak adierazteko gure hizkuntzaren tipologiak berez aditzetara jotzen badu ere, horra non jarraitzen dugun jo eta ke gaztelanien estilo “jaso” hori geureganatzen. Betikoa: mandoa saldu eta astoa erosi<sup>1</sup>.

Bada, administrazioko hizkerak hain maite dituen formulek eta esapideek horixe egiten dute: alegia, esaldi normalak eta jatorrak ezkutatu, egitura

1. LOZANO, Joseba. “Izenzalekeria”, *Administrazioa euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2000ko urtarrila, 27. zenbakia, 19. or.



substantibodunen azpian<sup>2</sup>. Ikusi nola eman ditzakegun formula horietako batzuk perpausen bidez (Ohar bat: guk egindako itzulpenez gain, beste hamaika aukera daude, eta hobeak, seguru; hortaz, ez hartu legetzat gure proposamenak).

## BALDINTZAZKOAK

### ▶ **A condición de (\*... -(r)en baldintzapean)**

Se podrán conceder las ayudas a condición de presentar las solicitudes antes del 31 de diciembre.

\*Diru-laguntzak eman ahalko dira, eskaerak abenduaren 31 baino lehen aurkeztearen baldintzapean.

Diru-laguntzak eman ahalko dira, baldin eta eskaerak abenduaren 31 baino lehen aurkezten badira.

Diru-laguntzak emateko / emango badira, abenduaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak.

### ▶ **A petición de... (\*... -(r)en eskariz)**

El plazo de ejecución de las obras podrá ampliarse a petición del interesado.

\*Obrak egiteko epea luzatu egin ahalko da, interesdunaren eskariz.

Obrak egiteko epea luzatu egin ahalko da, interesdunak hala eskatzen badu.

Obrak egiteko epea luzatuko bada, interesdunak eskatu egin behar du.

### ▶ **En caso de... (\*... -(r)en kasuan)**

En caso de no presentación de solicitudes, ...

\*Eskabiderik ez aurkeztearen kasuan,...

Eskabiderik aurkezten ez bada / aurkeztu ezean, ...

2. Informazio gehiagorako irakurri hau: ARRASATE, Manu. “Izenak eta izanak”, *Administrazioa euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2002ko apirila, 36. zenbakia, 18.-19. or.

### ▶ **En el supuesto de... (\*... -(r)en suposamenduan)**

En el supuesto de la no aprobación del acta por parte de la Corporación, ...

\*Udalbatzaren aldetik akta ez onartzearen suposamenduan,...

Udalbatzak akta onartzen ez badu, ...

### ▶ **En su defecto (\*... ezean)**

La policía deberá obtener el permiso del interesado para entrar en el domicilio del mismo, o, **en su defecto**, la oportuna autorización judicial.

\*Herritarren etxean sartzeko, Poliziak herritar horien baimena behar du, edo, **horrelakorik izan ezean**, epailearen baimena.

Herritarren etxean sartzeko, Poliziak herritar horien baimena behar du; **eta horrelakorik ez bada / horiek baimenik ematen ez badute**, epailearen(a) / baimena.

### ▶ **Salvo disposición en contrario (\*aurkako erabakirik ezean)**

Salvo disposición en contrario, la Administración podrá ampliar los plazos previstos.

\***Aurkako erabakirik ezean**, Administrazioak luzatu ahalko ditu ezarritako epeak.

**Aurkako erabakitzen ez bada**, Administrazioak luzatu ahalko ditu ezarritako epeak.

**Bestelakorik erabakitzen ez bada**, Administrazioak luzatu ahalko ditu ezarritako epeak.

## KAUSAZKOAK

### ▶ **A causa de... (\*... -(r)en kausaz)**

La Bolsa ha bajado a **causa del incremento** del precio del petróleo.

\*Burtsak behera egin du, petrolioaren prezioaren **igoeraren kausaz / igoeragatik / igoera dela medio**.

Burtsak behera egin du, petrolioaren prezioak **gora egin duelako**.

Petrolioaren prezioak **gora egin duenez**, burtsak behera egin du.

Petrolioaren prezioak gora egin du; horrexegatik / horren eraginez egin du behera burtsak.

Petrolioaren prezioak gora egin du, eta gora egite horrek ekarri du burtsaren beherakada.

### ▶ **A consecuencia de... (\*... -(r)en ondorioz)**

A consecuencia de las renunciaciones presentadas, se ha modificado la lista definitiva de aspirantes.

\*Aurkeztutako ukoen ondorioz, aldatu egin da izangaien behin-betiko zerrenda.

Aurkeztutako ukoak direla-eta, aldatu egin da izangaien behin-betiko zerrenda.

### ▶ **A tenor de... (\*... -(r)en arabera)**

A tenor de la afirmación del alcalde, las obras del polideportivo van a sufrir un retraso.

\*Alkatearen esanaren / baieztapenaren arabera, kiroldegiaren obrak atzeratu egingo dira.

Alkateak esan duenez, kiroldegiaren obrak atzeratu egingo dira.

### ▶ **Con el argumento de... (\*... -(r)en argudioarekin)**

Quieren renovar las aulas con el argumento del aumento de la matriculación por parte del alumnado.

\*Ikasgelak berritu nahi dituzte, ikasleen matrikulazio hazkuntzaren argudioarekin.

Ikasgelak berritu nahi dituzte, gero eta ikasle gehiago matrikulatzen baitira.

Gero eta ikasle gehiago matrikulatzen direnez, ikasgelak berritu nahi dituzte.

Gero eta ikasle gehiago matrikulatzen dira, eta horregatik berritu nahi dituzte ikasgelak.

### ► **Con motivo de... (\*... -(r)en kariaz)**

Hemos organizado una cena con motivo de la celebración del segundo aniversario de la Sociedad.

\*Afari bat antolatu dugu, Elkartearen bigarren urteurrenaren ospakizunaren kariaz.

Afari bat antolatu dugu, Elkartearen bigarren urteurrena ospatzeko / ospatze aldera.

Elkartearen bigarren urteurrena ospatu nahi dugula-eta, afari bat antolatu dugu.

### ► **Con ocasión de... (\*... -(r)en abagunearekin)**

Se celebrarán distintas actividades con ocasión de la visita del Lehendakari.

\*Ekitaldi batzuk izango dira, lehendakariaren etorreraren abagunearekin.

Hainbat ekitaldi izango dira, lehendakaria etorri dela ospatzeko.

Lehendakaria datorrela-eta, hainbat ekitaldi izango dira.

### ► **En base a... (\*...n oinarrituz)**

La resolución ha sido adoptada en base a lo dispuesto en el Decreto X.

\*Erabakia hartu da, X Dekretuak ezarritakoan oinarrituz.

Erabakia hartu da, X Dekretuak ezartzen duena(ri) begira / jarraituz / kontuan hartuta.

### ► **En virtud de...**

Ha podido estudiar en Estados Unidos en virtud de la subvención concedida por el Gobierno Vasco.

Estatu Batuetan ikasi ahal izan du, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzari esker.

Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza dela medio / bide Estatu Batuetan ikasi ahal izan du.

Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza eskuratu duenez, Estatu Batuetan ikasi ahal izan du.

### ► **Por razón de... (\*... -(r)en arrazoiengatik)**

Nadie será discriminado por razón de sexo.

\*Ez da inor baztertuko sexu-arrazoiengatik.

Ez da inor baztertuko sexua dela-eta.

## HELBURUZKOAK

### ► **A efectos de... (\*... -(r)en ondorioetarako)**

Se han adoptado diversas medidas a efectos de impulsar la actividad industrial en nuestra zona.

\*Neurri batzuk hartu dira, gure eskualdeko industria-jarduera bultzatzearen ondorioetarako.

Neurri batzuk hartu dira, gure eskualdeko industria-jarduera bultzatzeko (bultzatzearen, bultzatu nahian, bultzatzeari begira,...).

### ► **Al objeto de... (\*... -(r)en helburuarekin)**

Fue escogido al objeto de representar al IVAP en los tribunales de selección de personal.

\*Aukeratu zuten, langileak hautatzeko epaimahaietan HAEEn ordezkari izatearen helburuarekin.

Langileak hautatzeko epaimahaietan HAEEn ordezkari izateko aukeratu zuten.

HAEEn ordezkari aukeratu zuten, langileak hautatzeko epaimahaietarako.

### ► **Con el deseo de... (\*... -(r)en nahiarekin)**

Un saludo, junto con mis deseos de una pronta recuperación.

\*Agur bat, laster sendatuko zarela nahiarekin.

Ahalik eta lasterren sendatuko zarela, agur t'erdi.

### ► **Con el objetivo de... (\*... -(r)en helburuarekin)**

La Orquesta Sinfónica de Euskadi ofrece conciertos didácticos con el objetivo de dar a conocer la música clásica entre los niños.

\*Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertu didaktikoak ematen ditu, umeen artean musika klasikoa zabaltzeko helburuarekin.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertu didaktikoak ematen ditu, umeen artean musika klasikoa **zabaltzeko**.

### ► **Con la voluntad de... (\*... -(r)en borondatearekin)**

Firmaron el documento con la voluntad de aunar esfuerzos en la lucha contra la discriminación de la mujer.

\*Dokumentua izenpetu zuten, emakumea diskriminatzearen aurkako borrokan **indarrak batzearen borondatearekin**.

Dokumentua izenpetu zuten, emakumea diskriminatzearen aurkako borrokan **indarrak batzeko / batzearren**.

Dokumentua izenpetu zuten, emakumea diskriminatzearen aurkako borrokan **bat egiteko**.

Emakumea diskriminatzearen aurkako borrokan **bat egin nahiak eraginda** izenpetu zuten dokumentua.

### ► **Con vistas a...**

Se organizaron numerosos cursos con vistas a la mejora de la capacitación lingüística de los trabajadores.

Ikastaro ugari antolatu ziren, langileen hizkuntza **gaitasuna** hobetzeko.

### ► **En aplicación de...**

En aplicación de lo dispuesto en el Estatuto de los Trabajadores...

Langileen Estatutoan ezarritakoa beteaz / betetzeko...

### ► **En cumplimiento de...**

En cumplimiento de los preceptos recogidos en la Ley 30/92...

30/92 Legean jasotako arauak betetzeko...

### ► **En evitación de...**

Se lo llevaron de allí en evitación de males mayores.

Gaitzagorik ez gertatzeko (gerta ez zedin, ...) eraman zuten handik.

Handik eraman zuten, zerbait gaitzagoa gerta ez zekion.

### ▶ **En orden a...**

Los partidos presentaron sus propuestas **en orden a su aprobación** por el Pleno municipal.

Alderdiek euren proposamenak aurkeztu zituzten, Udalbatzak **onar-tzeko**.

### ▶ **Para conocimiento de...**

El edicto permanecerá durante diez días en el tablón de anuncios **para conocimiento de los interesados**.

Ediktua hamar egunez egongo da iragarki-oholean, **interesdunak jakinaren gainean egon daitezen**.

### ▶ **Para su posterior...**

La publicación se preparó **para su posterior presentación** a los medios de comunicación.

Argitalpena prestatu zen, **gero komunikabideei aurkezteko**.

## KONTZESIBOAK

### ▶ **A riesgo / con el peligro de... (\*... -(r)en arriskuarekin)**

Se embarcó en el proyecto a riesgo de quedarse sin dinero.

\*Proiektuan sartu zen, dirurik gabe gelditzearen arriskuarekin.

Proiektuan sartu zen, jakin bazekien arren dirurik gabe geldi zitekeela.

Proiektuan sartu zen, dirurik gabe geldi zitekeela ondotxo jakin arren.

Jakin bazekien dirurik gabe geldi zitekeela; hala ere, proiektuan sartu zen.

### ▶ **Con la dificultad de... (\*... -(r)en zailtasunarekin)**

Desempeñó una gran labor con la dificultad de ser la única mujer entre tanto hombre.

\*Lan ederra egin zuen, gizonezko guztien artean emakume bakarra izatearen zailtasunarekin.

Gizonezko guztien artean emakume bakarra zen; hala eta guztiz ere, lan ederra egin zuen.

Lan ederra egin zuen, gizonezko guztien artean emakume bakarra bazen ere.

### ► ***Sin perjuicio de... (\*... -(r)en kaltetan / kalterik gabe)***

El plazo de presentación de solicitudes será de diez días, **sin perjuicio de la posibilidad** de ampliación del mismo.

\*Eskabideak aurkezteko epea hamar egunekoa izango da, epe hori zabaltzeko **aukeraren kaltetan gabe**.

Hamar egun izango dira eskabideak aurkezteko; **nolanahi ere**, epe hori beti ere luzatu ahal izango da.

## MODUZKOAK

### ► ***Con arreglo a...***

Las ayudas fueron concedidas **con arreglo a lo dispuesto** en el Reglamento.

Araudian **jasotakoaren arabera** eman ziren diru-laguntzak.

### ► ***Con carácter de urgencia / forzoso / general / oficial / prioritario...***

El Decreto se tramitará **con carácter de urgencia**.

Dekretua **albait arinen** izapidetuko da.

Los trabajadores deberán respetar el horario **con carácter forzoso**.

Langileek **derrigorrean bete behar dute** ordutegia.

Langileak **derrigortuta daude** ordutegia errespetatzera.

Las ayudas se destinarán **con carácter prioritario** a las zonas más desfavorecidas.

Eskualde behartsuenek **izango dute lehentasuna** laguntzak jasotzeko orduan.

### ► ***Con conocimiento de...***

Las acciones se han desarrollado **con conocimiento de** la situación por parte de las autoridades.

Agintariak **bazekiten** zertan ziren gauzatu diren ekintzak.



**► Con inclusión de...**

La reunión se ha celebrado **con inclusión de nuevos asuntos** en el orden del día.

Gaurko bileran **gai berriak sartu dira** aztergai-zerrendan.

**► Conforme a...**

Los ciudadanos tienen derecho a la concesión del título de familia numerosa, **conforme a lo dispuesto** en la legislación.

Legez, herritarrek familia ugariaren titulua izan dezakete.

Legeak agintzen duenez, herritarrek familia ugariaren titulua izan dezakete.

**► De conformidad con...**

Las entrevistas se realizarán **de conformidad con el calendario** previamente acordado.

Aurretik adostutako **egutegia betez / ...ri jarraituz / ...ren arabera** egingo dira elkarrizketak.

**► En buena y debida forma / de forma adecuada**

Las solicitudes habrán de presentarse en buena y debida forma.

Eskabideak **behar bezala / behar den moduan** aurkeztuko dira.

**DENBORAZKOAK****► A raíz de...**

La situación empeoró claramente **a raíz de la aprobación** del nuevo convenio.

Egoerak okerrera egin zuen nabarmen, hitzarmen berria **onartu zenez / zenez geroztik**.

**► Con anterioridad / posterioridad a...**

Se les valorarán los trabajos realizados **con anterioridad a su integración** en la Administración.

Balioetsi egingo zaizkie Administrazioan sartu baino lehen egin dituzten lanak.

► **Con carácter mensual / anual...**

Las reuniones de la Comisión se celebrarán con carácter mensual.  
Batzordea hilero bilduko da.

► **Con carácter previo a...**

Habrà de acreditarse el cumplimiento de ciertos requisitos con carácter previo a la solicitud de la subvención.

Diru-laguntza eskatu baino lehen, baldintzak betetzen direla ziurtatu beharko da.

Diru-laguntza eskatzeko, baldintzak betetzen direla ziurtatu beharko da.

► **Con carácter temporal**

Ha sido nombrado director de la ikastola con carácter temporal.  
Ikastolako zuzendari izendatu dute aldi baterako.

► **Previa audiencia / presentación / autorización / deliberación...**

El decreto entrará en vigor previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno.

Dekretua indarrean hasiko da, Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren.

## BIBLIOGRAFIA

Herri Ardularitzaaren Euskal Erakundea. *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1997, 175. or.

Herri Ardularitzaaren Euskal Erakundea. *Hizkera argiaren bidetik*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1994, 51.-52. or.

## GALDERAK NOLA MARKATU

**Sarritan irakurri behar izaten ditugu galdera luzeak: umeei eskolan, etxean... Eta euskaraz ikurra bakarrik atzean jartzen denez, batzuetan ez zaizue gertatu galdera dela konturatu orduko beranduegi izatea, eta ondorioz, doinu negargarria ematea ditzosozko galderari, oraingo honetan zuei egin dizue-dan galderarekin egin dudan bezalaxe? Niri askotan gertatu zait bada! Horrexegatik jakin nahi nuke ea dagoen beste modurik galderak galdera direla hasiera-hasieratik igartzeko.**

Bai, horixe! Eta modu bat baino gehiago, gainera; ikusiko duzu. Galdera markak aipatuko ditugu, eta bide batez galderak nola egin ere azalduko dizugu. Izan ere, ondo egingo bagenitu, arazorik gabe irakurriko lirateke, doinu egoki eta guzti.

Modu asko daudela esan dugu eta sailkapena egiten hasi baino lehen, ezingo dugu aipatu gabe utzi denetan errazena: alegia, hasieran ere galde-  
ra ikurra jartzea. Hala egiten zuten Azkue batek edo Mogel batek<sup>1</sup>; baina Euskaltzaindiak ? ! ikurrak amaieran bakarrik jartzea ontzat ematea era-  
baki duenez, beste bide batzuk hartu beharko ditugu.

Jarraian, bada, beste bide horietako batzuk erakusten ahaleginduko gara: banan-banan, nahiz eta gero ikusiko duzun elkarren ondoan ere sarritan agertzen direla:

1. Erabili galdetzaileak, moztu esaldiak eta aurreratu aditza.
2. *Galdetu* aditza erabili.
3. Erabili galderetan agertzen diren partikulak (*ote, al, ea...*)
4. Azalpena jarri lehenengo eta gero... zapla! galdera.
5. Galdera kateak egin, bata bestearen atzean.

1. Zabaldu nahi baduzu *Euskalerraren Yakintza II* edota *Peru Abarca* eta ikusiko duzu. Gauza bera aldarrikatzen zuen Ricardo Dz. Olano jaunak *Administrazioa Euskaraz* aldiz-  
kariko 33. alean, *Eskutitzak* atalean.

## 1. Ahal den guztietan galdetzaileak erabili, moztu esaldiak eta aditza aurreratu

Har dezagun ipuin bateko esaldi bat, arnasa galdu eragiten duten horietakoa:

—Txalupadun! Ibaiaren beste aldera dirurik ez daukadalako ezin nauzu eraman?

Ez al dago hobeto honela?

—Txalupadun! **Zergatik** ezin nauzu eraman ibaiaren beste aldera? Dirurik ez daukadalako?

Zer egin dugu? Esaldi bakarra erdibitu eta galdetzaile bat gehitu. Erraza da.

Beste adibide hau erabiliko dugu aditza aurreratzeko:

—Baina, neskato, negu beltza denean marrubien bila basoan zehar ibiltzea alferreko lana dela ez dizu inoiz esan amak?

Ez al dago hobeto honela?

—Baina, neskato, **ez al dizu inoiz esan** amak negu beltzean ez dagoela marrubirik? Alferreko lana dela basoan zehar bila ibiltzea?

Zer egin dugu? Aditza aurreratu, *al* partikula sartu eta esaldi bakarra erdibitu. Doinua ere hobea ematen diogu, ezta?

## 2. *Galdetu* aditza erabili

Hara beste galdera luze-luze bat:

—Soldadu! Nire alabaorde hori basora eraman, hil eta bihotza erauzi ondoren ekartzeko ez nizun agindu?

Begiratu orain:

—Soldadu! **–galdetu zion** amaordeak—: Hil (al) duzu nire alabaordea? Ekarri (al) duzu bere bihotza? Erakutsi!

edo:

... eta orduan **galdetu zion** amaordeak:

—Soldadu! Egin (al) duzu agindu nizuna? Hil (al) duzu nire alabaordea?  
Ekarri (al) duzu bere bihotza? Erakutsi!

Zer egin dugu? *Galdetu* aditza erabili galderari sarrera emateko; galdera luze bakarra zatitu eta era zuzenean jarri; eta *al* partikulaz hornitu. Bide batez, elkarrizketa bizitu dugu.

### 3. Erabili galderetan agertzen diren partikulak

Badira zenbait elementu galde perpausetan agertzen direnak, hara: *ote*, *ea* hitza, *-(e)netz*, *ala* juntagailua, *al* (Gip., batez ere), eta *-a* atzizkia (Ipar). Atal hau egingo zaizu luzeena, beharbada, izan ere banaka-banaka aztertzea... gogaikarria izan daiteke.

- *Ote*

*Ote*, berez, partikula modala da eta ez galdera marka; halere, bakar-bakarrik galderetan erabiltzen denez, baliagarri zaigu zalantza-kutsua edo duten galderak nabarmentzeko. Esan dugu “zalantza-kutsua edo” ezartzen diola galderari, eta zalantza hori izan daiteke egiazkoa edo erretorikoa. Hara, Mitxelenaren hitzetan adierazia: “Ez dago esan beharrik, noski, partikula hori daramaten galderek ez dutela deus galdatzen. Hobeki esan, erantzunik espero ez duten galderak direla. Dakienari egiten badiozu galde, *Trena etorri (al) da?* edo galdatuko diozu gaztelaniaz *Ha llegado el tren?*; *Trena etorri ote da?* (*Habr  llegado el tren?*) badiozu, ordea, paretarekin ari zara hizketan, eta jakinaren gainean. Ez baitugu horrela geure kezka edo artegatasuna baizik aditzera ematen<sup>2</sup>”.

*Ote* aditz laguntzailearen ezkerrean jartzen da. Eta aditza sintetikoa denean, berdin, haren ezkerrean. Esan beharrik ez dago aditzaren berezko aspektuarekin erabili behar dela, eta ez beti geroaldian:

Bukatu *ote* du?

Egunero joaten *ote* da?

Ba *ote* daki ezer?

Azalduko *ote* da gero?

2. MITXELENA, Koldo. *Euskal idazlan guztiak VI (Hizkuntzalaritzaz I)*. Donostia: Kriseilu, 1988, 166. or.

*Ote* bai / ez erako galderetan, zati galderetan eta zehar galderetan ere erabiltzen da. Hara adibide bana:

Inork ikusi *ote* du, inoiz eta inon, erdaraz, “Don Quijote” edo “David Copperfield” hobeturik? (Mitxelena. *Idazlan...*, 171. or.).

Zertan pensatzen *othe* duzu zuk, orainokoan ere, buruan ille duzun baiño bekhatu gehiago egin duzunorrek? (Axular. *Gero*, 83. or.).

Ez dakit halare ez *ote* nukeen nahiago gauden mundu traketsean bizi berak zuzendutakoan baino. (Mitxelena. *Idazlan...*, 172. or.).

• *Al*, *-a*

Bai / ez erako galderetan erabil daitezke bakar-bakarrik, inoiz ez zati galderetan. Era berean, kontuan izan ezin direla zehar galderetan erabili:

\*Nora joan *al* da?

\*Nora joan *dea*?

\*Ez dakit joan *al* den.

\*Ez dakit joan *dean*.

Gipuzkoa aldean *al* da erabiliena, eta hau ere laguntzailearen ezkerrean jartzen da. Hara:

Xuxen egin *al* dek nere esana?

Zedorrentzat nahi *al* dituzu sari guztiak?

Bistan dago *al* baliagarria izan daitekeela hasieratik igartzeko galdetzen ari garela, baina beti ere esaldiaren hasiera samarrean jarrita; hala ere, oraindik ere honelakoak topatzen ditugu egunkarietan:

Baina hemen arazo nagusia Madrilekiko konfrontazioa ez *al* da?

Guk geuk honela jarriko genuke:

Baina hemen ez *al* da arazo nagusia Madrilekiko konfrontazioa?

*-a*, Iparraldean agertzen da, baina kosta partean ez. Axularrek ez dakar eta Leizarragak ere adibide gutxi. Adibide bakarra jarriko dugu, eta bera Tartasena da. Jarraian ikusiko duzunez, *-a* atzizkia aditz laguntzaileari lotzen zaio:

Badeia deus eré mundian hain simpleric, hain flacoric eta hain fité galtcen ahal denic, nola baita lilia? (Tartas. *Onsa Hilceco Bidia*, 141. or.).

- Galderak mendeko perpausak badira, *ea* eta *-(e)netz* erabili

Jakina denez, galdera mendekoa denean *-n* jartzen diogu, berdin da bai / ez erakoa izan edota zati galdera.

Jakin nahi zenuen nola antzeman galderari doinu egokia emateko. Eta bistan dago zeharrea ez dugula zuzenekoaren doinua erabiltzen; halere, zehar galdera luze-luzeak ere irakurri behar izaten ditugu; bada, zeregin horretarako ere badugu marka bat laguntzeko prest, eta da *ea*. *Ea*-k erakutsiko digu non hasten den zehar galdera eta *-n*-k non amaitzen den<sup>3</sup>. Era horretara, geldione dotoreak egingo ditugu. Zenbait euskalkitan, gainera, *-n* hori indartzeko *-(e)netz* gehitzen zaio. Nork ez du entzun behin edo behin *Maitiak galde egin zautan primu nintzanez...* kanta?

Hori bai, kontuan izan *-(e)netz* jartzeko, galderak bai / ez erakoa behar duela izan eta *ea* jartzeko ez; *ea* erabil daiteke zein bai / ez erakoetan zein zati galderetan:

Ikusi egin beharko litzateke **ea** hezkuntza sistemak dituen behar eta hutsuneak islatzen dituen lanpostuen zerrenda horrek.

Hemen gainean frantzesez galdegiten dautzut zure herriak nahi due-**netz** ene sariak aurten errezibitu. (Trebiño. *Testu historikoak*, 402. or.).

- *Ala* juntagailua

Zuzeneko galderetan zein zeharrekoetan erabiltzen da, aukera eskainiz edo bestela bigarren aukera agertzen ez denean. Hona, jarraian, zenbait adibide:

Noiz aurkeztuko zara 3. HEeko azterketara, oraingo deialdian **ala** uda-koan?

Eztut uste, galdeginen derakula lainkoak, ea probe onari **ala** gaixtoari eman diogunz, eman diogunz baizen. Dagigun ongi, eta eztezagula beha nori. (Axular. *Gero*, 149. or.).

3. Ikusi *Ea... -(e)n* (Iragarleak / mugarriak), 193. or.

—Gure hizkuntzaren egoera larriak ez zaituzte nahigabetzen **ala?**  
(Mitxelena. *Idazlan...*, 138. or.).



Eta galde perpausetan agertzen diren elementuen zerrenda –luzetxoa aukeran?– amaitu ondoren, jo dezagun berriro zuk eskatutakoa gogora ekartzera, zeren seguru ahaztu samartuta daukagula. Ari ginen, batez ere, galdera luzeez: nola erreparatu albait arinen galderoi doinu egokia emateko. Oroitzen gara? Bada, jarraian, galdera bizi-biziak egiteko beste modu bi erakutsiko dizkizugu: bata, azalpenaren ostean jartzea galdera; eta bigarrena, galdera-zerrenda luzea egitea. Hara, bada:

#### 4. Azalpena jarri, eta gero... zapla! galdera

Horixe da, hain zuzen ere ahozko jardunean egiten duguna: azaldu beharrekoak azaldu hasieran, eta ondoren egin galdera; eta laburra bada, hobeto: indartsuagoa izango baita. Horretaz gainera, galdetzailaz edota gorago aipatutako partikularen batez hornitzen badugu, askozaz hobeto!

Begira zer dotorea den Axularren zatitxo ezagun hau:

Dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen. Ur irakinean eztu uliak pausatzen. Ardurako arropari etzaika zerrenik egiten. Zuhaitz bethakorra, eztu nehork ebakitzen. Baiña alferra, fauna, hutsa, bere sasoiñean jasaiten eztuena, **zertako da?** (Axular. *Gero*, 24. or.).

Hona beste adibide bat, beste maisu batena:

Nekez izango da gaur filosofiarik, filosofiaren izena merezi duenik, jakintza-oinarri sendorik gabe. **Ba ote dugu hemen horrelako oinarririk?** Bestek erantzun beza. (Mitxelena. *Idazlan...*, 89. or.).

#### 5. Galdera erretorikoak egin bata bestearen ondoan

Sarritan bigarren galdera lehenengoaren erantzuna izango da, edota lehenengo galdera bera, baina beste era batera esanda. Halere, seguru egon



galdera luze-luze bati baino lehenago erreparatzeaz gain, baliabide hori erabilia sekulako indarra hartuko duela paragrafoak. Esate baterako:

Halako lekhan, hain su beroan, gar eternalean, nor egonen da? Nor biziko da? Nork iraunen du? Nork izanen du sorbaldarik sostengatzeko? indarrrik iasaiteko? Eta pairurik, eta pazientziarik sofritzeko? Orai hemen, den penarik ttipiena, su ihar batek, kilikatzen zaitu, asaldatzen zaitu, zer izanen da bada, suz eta kharrez, kanpoan eta barrenean, ariman eta gorputzean hartua, inguratua, eta burdin goritua bezala, goritua, eta sutua zaudenean? eta sekulakotzat hala egon beharko duzunean? Othe dugu zentzurik? Othe dugu adimendurik? Ala elheak, ametsak, edo gezurrak, othe dira hauk? Edo gurekin mintzo othe dira? Guri othe dagozkigu, ala bertzeri? (Axular. *Gero*, 385. or.).

Baduzue jadanik burdina bidea, Doñi-Banerat, eta Bayonarat? Certako duzue bigarren bidea, menditic, toki beretarat? Ez liteke hobe itsultsia bertze alderdi bateterat? Non da comercio? Espainol mercathuac? Prantxian, Sempereco, Espeletaco, Hasparreneco, eta Heletaco mercathuac? Cambo urac? Bache-Nabarre eta Zuberoa? Eskualdun herri guziac idekiac? (Trebilño. *Testu historikoak*, 487. or.).

Zerrenda amaitzeko zure hasierako galdera itzel hori beste era batera jartzen ahaleginduko gara, ea gustuko duzun!

Eta euskaraz ikurra bakarrik atzean jartzen denez, nori ez zaio gertatu honakoren bat? Nork ez du borrokan egin galdera luzeekin? Nor ez da hasi irakurtzen eta halako batean konturatu galdera datorrela? Nola amaitu duzue horrelakoetan ditzosozko galdera? Doinu negargarria emanda, jakina...

## BIBLIOGRAFIA

MITXELENA, Koldo. *Euskal idazlan guztiak VI (Hizkuntzalaritzaz I)*. Donostia: Kriseilu, 1988, 166. or.

Euskaltzaindia. 15. araua, 2001-02-23an Lekeition onartua.

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987, 485.-516. or.

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1994, 156.-160. or.

Euskaltzaindia. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987-.

**ADIBIDEEN ITURRIAK**

AXULAR. *Gero*, 83., 149., 24., 385.

TARTAS, Jean de. *Oña hilceco bidia*; Patxi Altunak paratutako edizioa. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1995, 141. or.

MITXELENA, Koldo. *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*. Bilbo: Mensajero, 1972, 171., 172., 138., 89. or.

TREBIÑO, I. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: HAEE-IVAP, 2001.

—Anton Abbadiak idatzitako gutuna (1851), 402. or.

—Sara eta Bera arteko korrespondentzia (1865), 487. or.

## DEFINIZIOAK

**Foru-aldundi bateko ogasunean lan egiten dut. Dakizuen legez, foru-aldundiek programa informatiko bat dute, errenta-aitorpena Interneten bidez egin ahal izateko. Hitz tekniko batzuk (“lanaren etekinak” “debengoa”...) jendeak ez ditu ezagutzen. Hori dela eta, herritarrek arazorik izan ez dezaten, terminoen glosario bat sartzea bururatu zaigu, hitz horien esanahia azaltzeko. Baina, bi arazorekin egin dugu topo: edo ez dugu euskarazko azalpenik aurkitu, edo aurkitu dugun apurra ulergaitza da oso (erdarazkoaren “kalko” hutsa dirudi). Ba al dakizue (erdal kalkoetan erori gabe), hitz bat definitzeko zer jarri, eta nola? Biziki eskertuko genizueke, lagunduko bazenigute.**

Modu bat baino gehiago dago hitz bat definitzeko: ez baita berdin definitzen, kontzeptua konkretua izan, edo abstraktua, edo adjektiboa, edo prozesua, edo...

Hurrengo lerroetan, bi gauza egingo ditugu: lehenik, kontzeptu konkretuak definitzeko aholku orokorrak eman; eta ondotik, egokitu egingo ditugu aholku horiek ogasuneko kontzeptu abstraktuetara.

### ► Nola definitu kontzeptu konkretuak

Batik bat, ezaugarriak zerrendaturik definitu ohi dira. Adibidez, elefantearen ezaugarriak hauek izan ohi dira:

- Pakidermoa.
- Ugaztuna.
- Azal-zimurra.
- Belarri-eroria.
- Bi letagin handi, agerian.
- Sudur luzea.
- Animalia.
- Lehorrekoa.
- Belarjalea.
- Proboszidea.
- Gaur egun, lehorreko animalietan, ez da ezagutzen hura bezain handi eta astunik.

Beraz, badugu zer eduki jarri. Hortaz, hurrengo pausoa da zer hori ordenatzea. Ordenatzeko kontu horrek, ordea, prozedura bat eskatzen du. Gure ustez, lau eragiketa egin behar dira prozedura burutzeko.

### **Lehen eragiketa: ezaugarriak sailkatzea**

Hona, adibidez, bi irizpide, sailkapena egiteko:

- Elefanteak berez dituen ezaugarriak (ugaztuna, azal-zimurra...).
- Elefanteari buruzko iruzkina (Gaur egun, ez da ezagutzen...).

### **Bigarren eragiketa: berezko ezaugarrietan zein den orokorrena<sup>1</sup> bereiztea**

Kasu honetan: Animalia.

### **Hirugarren eragiketa: gainerako berezko ezaugarriak<sup>2</sup> ordenatzea**

Ordena bat hauxe litzateke:

- Zein taldetakoa den adieraztea (ugaztuna, pakidermoa, proboszidea, lehorrekkoa, belarjalea...).
- Bestelakoak
  - Ezaugarri fisikoak (tamaina, pisua...).
  - Bereizgarriak (tronpa eta letaginak).
  - Eta abar.

### **Laugarren eta azken eragiketa: iruzkina jartzea**

Kasu honetan, iruzkina hauxe da:

Gaur egun, lehorreko animalietan, ez da ezagutzen hura bezain handi eta astunik.

Prozedura horren arabera, hauxe litzateke ordena, laburbilduta:

1. Deskriptorea
2. Ezaugarri espezifikoak

1. “Deskriptorea” deritzo.

2. “Espezifikoak” deitu ohi dira.

- Zein taldetakoa den
- Bestelakoak
  - Ezaugarri fisikoak
  - Bereizgarriak
  - Eta abar

### 3. Iruzkina

Beraz, elefantearen kasuan, hauexek izango lirateke edukiak eta ordena (hartzailearen arabera, jakina):

<b>Deskriptorea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Animalia.</li> </ul>
<b>Ezaugarri espezifikoak</b>	<b>Zein taldetakoa den</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ugaztuna.</li> <li>• Pakidermoa.</li> <li>• Proboszideoa.</li> <li>• Lehorrekoa.</li> <li>• Belarjalea.</li> </ul>
	<b>Bestelakoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tamaina eta pisua.</li> <li>• Nolako azala, burua, belarriak eta hankak dituen.</li> <li>• Bereizgarriak: tronpa eta letaginak.</li> </ul>
<b>Iruzkina</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaur egun, lehorreko animalietan, ez da ezagutzen hura bezain handi eta astunik.</li> </ul>

Horiek horrela, begi-bistan da hutsegite larrienak hiru horiek adierazteko garaian egiten direla; alegia, deskriptorea, ezaugarri espezifikoak eta iruzkina adierazteko.

Beraz, hurrengo lerroetan, akatsak aurkeztu eta irtenbideak proposatuko ditugu, hiru gai horiek banan-banan landurik.

## DESKRIPTOREA

Gai honetan egin ohi diren akatsik larrienak hiru dira:

- Deskriptorea gaizki aukeratzea.
- Deskriptore bat baino gehiago jartzea.
- Deskriptorea aurrean ez jartzea.

### 1. akatsa: deskriptorea gaizki aukeratzea

Jakina da deskriptore egokia aukeratu behar dela. Horretarako, hartzailea izan behar dugu kontuan. Hala, *elefante*-aren kasuan, hartzaile

arrunt-arruntarentzat, *animalia* izango da deskriptorea (ikus María Moliner hiztegia); berezituarentzat, *ugaztuna* (ikus Real Academia de la Lengua Española); eta adituentzako, adibidez, *proboszideoa* izan daiteke. Gure iritziz, zuen kasuan María Moliner hiztegiaren ildotik jotzea izango litzateke egokiena: *animalia*.

Baina (zehaztasunari eutsi nahi badiogu, bederen), ez da oso deskriptore egokia izango, baldin eta horiek guztiak baino “generikoagoa” bada.

Adibidez, ezaugarri fisikoak dituen izen konkretua (animaliak, hegaztiak, agiriak...) definitzeko garaian, kontuz ibili behar da era honetako deskriptoreekin: *izena*, *zera*, *dena*, *-t(z)ea* eta antzekoekin. Ikusi, bestela, definizio hauek:

\***Zertzeta.** iz. ZOOL. Anatidoen familiako eta *Anas* eta *Marmaronetta* generoetako zenbait hegazti antseriformeren \***izen** arrunta.

\***Baldintza.** Zerbait gertatzeko edo betetzeko nahitaezko den \***zera**.

\***Gizapetiko.** Gizakiaren mailara heltzen ez \***dena**.

\***Jakinarazpen.** Administrazio-prozeduran erabakitakoaren berri  
\***ematea** (IVAP, Udal-espedienteak).

Beste hauek, berriz, ez dira hain orokorrak, baina badago deskriptore zehatzagoa aukeratzetik:

\***Gainordain.** Zerga bat ez ordaintzeagatik edo epez kanpo ordaintzeagatik ezartzen den \***diru-kopuru** gehigarria (IVAP, Udal-espedienteak).

\***Baleontzi.** Baleak harrapatzeko erabiltzen den \***itsasontzia**.

## Irtenbidea: Deskriptore zehatza

Ikusi aldea, aurreko adibideei dagokienez:

Kontzeptua	Deskriptorea
Zertzeta	Hegaztia
Baldintza	Osagaia
Gizapetiko	Izakia
Jakinarazpen	Agiria
Gainordain	Isuna
Baleontzi	Arrantza-ontzia

Jarraitu baino lehen, ohartxo bat. Deskriptorea aukeratzeko kontu hone-tan, ez dira gauzak mutur-muturreraino eraman behar; esan nahi baita ez daukala zertan izanik hitz bakar batekoa.

Horrenbestez, honelako egiturak guztiz onargarriak izan daitezke:

■ Izenlaguna + izena

Kafe. *iz. 1 mulk.* Kafeondoaren fruituaren **hazia**, ...

Manitoba. Kanadiako probintzia, ...

■ Erlatibozko esaldia (labur-laburra bada, jakina) + izena

Dantzaleku. *iz. 1. MAT.* Dantzan egiten den **lekua**, ...

Edalontzi. *iz.* Edateko erabiltzen den **ontzia**, ...

■ Izena + adjektiboa

Haendel, Georg Friedrich. Konpositore alemaniarra, ...

Estepa. *iz.* Larredi hedatsua, ...

■ Izenlaguna + izena + adjektiboa

Bashkiria. Errusiako errepublika autonomoa, ...

Euritako. *iz.* Euritik babesteko **tresna** eramangarria,...

Eta horrela... beste asko.

## 2. akatsa: deskriptore bat baino gehiago jartzea

Definizio honek, adibidez, bi deskriptore ezberdin ditu:

\**Inperio.* *iz.* Estatu batek bere nagusigoa beste zenbait herri edo lurralderen gainean hedatzen duen **politika-antolaketa**; antolaketa hori osatzen duten lurralde **guztien multzoa**, burutzat enperadore edo errege bat duena.

## 3. akatsa: deskriptorea atzean lagatzea

Guk aztertu ditugun definizioetatik (ehundik gora) atera dugunez, hauxe da arazo gehienen iturri: deskriptorea aurreratu ez izana.

Definizioa laburra bada, tira: aukerakoa izan daiteke aurreratzea ala ez.

Adibidez:

**udal-ondare.** Udalaren ondasun eta eskubideen **multzoa** (IVAP, *Udal-espeditentek*).

Kontua, beraz, definizio luzeetan dago, batik bat. Segidako adibidean, deskriptorea ondo aukeratuta dago, baina oso atzean:

**\*Jabetza-erregistro.** Ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealak sortu, aldatu, eskualdatu eta amaitzeko egintzei eta kontratuei publikotasuna ematea helburu duen **\*administrazio-erakundea** (IVAP, *Udal-espeditentek*).

Beste honetan, berriz, ez dago hain atzean, baina “ezkutatuta” dago:

**Ondasunen inbentario.** Merkataritzan eta kontabilitatean, pertsona fisiko nahiz juridiko baten ondasun eta eskubideen **\*zerrenda** balioztatua, kontu-sail desberdinak bereiziz eta ordenatuz, eta hauetako bakoitza kalkulatzeko egiten dena (IVAP, *Udal-espeditentek*).

Hortik atera kontu zer-nolako saltsa ez dugun sortuko, deskriptorea gaizki aukeratu, eta, gainera, atzean jarri (edo ezkutatu), eta, gainera, edukiak gaizki ordenatu, eta, gainera, kilometroko definizioa egiten badugu.

Beraz, kilometrokoetan ia ezinbestekoa da deskriptorea aurreko muturre-raino ekartzea. Gainera, ez da gauza bera definizioa testu barrukoa izan edo glosariokoa. Beraz, irtenbideak proposatzeko garaian ere bi horiek bereizi behar dira.

## ► **Nola bereizi eta aurreratu deskriptorea, testu barruko definizioetan?**

Testu barruko definizioetan ez dugu arazorik. Ikusi bestela adibideak:

Ni **naiz** pertsonak eta animaliak bereizten ditudana (Lazkao Txiki).

Ekonomia **da** zientzia-esparru **bat** non saiatzen garen aurkitzen erregularitateak....

Bi adibide horietan ikusten denez, aditza erabiltzen da mugarriztat: kontzeptuaren eta ezaugarrien tartean jarri baita aditza, biak ere bereizteko. Izan ere, kasu horietan aditza “atributiboa” da. Esan nahi baita ez duela ideia oso bat adierazten nahiz eta subjektuaren laguntza izan (*ekonomia da...*).



Bestela esanda subjektuaren ezaugarriren bat (atributua) behar du, gutxie-  
nez, ideia oso bat adierazteko: *Ekonomia da zientzia-esparru bat...* Aditz  
horien lana, batik bat, subjektua eta atributua lotzea denez, jarri daiteke bi  
horien tartean. Aditz atributiboa sarritan azalduko zaigu definizioetan.

Bigarren adibidean, gainera, *bat* zenbatzailea erabili du deskriptorearen  
atzetik. Hartara, *bat* zenbatzailea dela medio, bereizi egiten dira deskrip-  
torea eta gainerako ezaugarriak.

### ▮ Nola aurreratu deskriptorea glosarioetan?

Baina, glosarioari gagozkiola, gaur egun zenbaitek ez dizute onartuko adi-  
tza honela jartzea (nahiz eta doktrinagile klasikoek hala jartzen zuten<sup>3</sup>):

Meloi. \*Da landare bat, ...

Beraz, aditza non jarri-eta, beste lau aukera dituzue:

a) Kontzeptua errepikatzea (Mogelek egiten zuen legez):

Meloi. Meloia da landare bat,...

b) “hura da...” bikotea jartzea (J.B. Agirrek egiten zuen legez):

Meloi. Hura da landare bat, ...

c) Aditza deskriptorearen atzetik jartzea:

Meloi. Landare bat da,...

d) Aditza kentzea:

Meloi. Landarea,...

Meloi. Landare bat,

3. “Begitandu zait inoiz edo behin ez ote ditugun sarri aski gogorregi juzgatu gure dotri-  
nagile zaharrak, *Zer da Jaungoikoa?* galderaren hurren *Da gauza bat*, etc., zetorrelako,  
eta orobat beste ehunka aldiz. Ez ote ziren horrelakoak, batzuetan bederen, laburdura gisa  
sortu? ‘*Zer da Jaungoikoa?*’ ‘*Jaungoikoa da...*’, alegia, eta gero *da*, izen errepikatua eza-  
batzen zutela” (MITXELENA, K. *Euskal Idazlan guztiak VI, Hizkuntzalaritzaz I*. Kriselu:  
1988, 153.-154. or.).

Zenbaiti bortxatua iruditzen zaio elipsian *bat* erabiltzea; baina, uste dugu beste kasu honetan errazago onartuko genukeela:

Meloi. Landare-mota *bat*,...

Aditza kentzea dela-eta, bi aukera jarri ditugu, bata *bat* zenbatzailerik gabe, eta bestea zenbatzailearekin. Izan ere, zenbaitek ez baitu halako elipsirik onartzen zenbatzailearekin. Gure ustez, aldiz, guztiz zilegizkoa da.

### EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK

Deskriptorearen ondotik ezaugarri espezifikoak jarri behar dira. Joskera aldetik bi modu erabil daitezke, ezaugarriak adierazteko. Bata, esaldiak egitea litzateke, aditz lotura eta guzti. Adibidez:

**Elefante.** Lehorreko animalia bat da, ugaztuna, belarjalea, proboszi-deoa, eta elefantido-familiakoa. 4 metroko garaiera du, eta 7 tonako pisua. Burua handia du, belarriak handiak eta zapalak, eta hankak zuta-be-itxurakoak. Bereizgarri hauek ditu: tronpa eta intzisibo handiak (defentsak).

Modu horixe litzateke, behar bada, egokiena zuek egin beharreko lan horretarako. Azter ditzagun orain mendekoak kentzeko baliabide bat:

### ► **Jarri *eta* juntagailua, mendekoa kentzeko**

Ikusi aldea:

\***Kafe-etxe.** *iz.* Kafea eta alkoholik gabeko edo gutxiko beste edari batzuk zerbitzatzen diren barrupea.

**Kafe-etxe.** *iz.* Barrupe bat da, **eta** han zerbitzatzen **dira** kafea eta beste edari batzuk, denak ere alkoholik gabekoak edo gutxikoak.

Klasikoek erabilitako baliabide horrek, itxura guztien arabera aditza eskatzen du. Hori bai, aditza aurrera daiteke, baliabide hau dela medio: “**eta han zerbitzatzen dira...**”.

Gainera, baliabide hori lehen aipatutakoekin (*-ena*, ...) “konbinatu” daiteke. Adibidez:

Zer dela uste duzu infernua?

Hura da beti sutan dagoen labe ikaragarri bat, behin ere itzaliko ez dena, eta bekatariak berak izango dira hango egurra, ilintxak eta ilintxiak<sup>4</sup>.

Ezaugarriak adierazteko beste modu bat justaposizioa erabiltzea da.

**Elefante.** Lehorreko animalia bat, ugaztuna, belarjalea, proboszidea, elefantido-familiakoa; garaiera, 4 metro, eta pisua, 7 tona; burua, handia; belarriak, handiak eta zapalak; hankak, zutabe-itxurakoak; bereizgarriak: tronpa eta intzisibo handiak (defentsak); gaur egun, lehorreko animalietan handiena.

Bistan denez, bigarren modu horretan ez da ez aditzik, eta ez loturarik. Horregatik, definitzeko modu hori tentu handiz erabili behar dugu; beraz, justaposizioa, mutur-muturreraino eramanda, inon erabiltzekotan, oso hiztegi teknikoetan erabili beharko litzateke.

Hori bai, justaposizioa erabili ahal izateko, ia ezinbestekoa da zenbait teknika erabiltzea, aditza eta loturak kenduko badira. Ondotik datoz horietako zenbait.

## ► Nola saihestu izenlaguna?

Hona, baliabide batzuk, izenlaguna ordezkatzeko:

### ■ Adjektiboa

Ikusi aldea:

Krokodilo. Muskerraren tankerako narrasti handia.

Krokodilo. Narrasti handia, muskerraren tankerakoa.

Bigarren adibideko izenlaguna ere badugu saihesterik, hitz-elkartuak direla medio. Baina, hori hurrengo baliabidearen gaia da.

### ■ Hitz-elkartua

Ikusi aldea:

Krokodilo. Narrasti handia, muskerraren tankerakoa.

Krokodilo. Narrasti handia, musker-tankerakoa.

4. AGIRRE, J.B. *Arpoi baten eran*: Alberdania, 1996, 133. or.

Esan dezagun, berebiziko garrantzia dutela hitz-elkartuek, batik bat glosario, entziklopedia eta antzekoetan. Izan ere, sarritan definizioan agertutako hitz teknikoren bat (*fasianido*) begiratu egin behar da beste tokiren batean (onena litzateke entziklopedia berean); eta, jakina, begiratzeko hobe da deklinatu gabe jartzea (hitz-elkartuetan bezala), hots, *fasianido*; eta ez deklinatuta *fasianidoen*. Ikusi, bestela, adibideak:

\*Eper. *Iz. ZOOL.* Fasianidoen familiako hegazti galiformea...

Eper. *Iz. ZOOL.* Hegazti galiformea, *fasianido*-familiakoa...

Azken kasu honetan, instrumentala erabilia, bazegoen izenlaguna saihesterik (familiaz *fasianidoa*); baina, hori hurrengo puntuaren gaia da.

### ■ Instrumentala *-(e)z*

Instrumentalari etekin handia atera dakioke, batik bat, deskribapenetan (animalien eta pertsonen deskribapenetan, adibidez). Ikusi, bestela, nola joka daitekeen:

\*Lepahori. *Iz. ZOOL.* Mustelidoen familiako ugaztun haragijalea, 50 cm. inguruko gorputz luzexka, eta... dituena

Lepahori. *Iz. ZOOL.* Animalia ugaztuna, mustelido-familiakoa, haragijalea, gorputzez luzexka (50 cm inguru)...

Azken adibidean bada beste baliabiderik: parentesiak. Hartara, edukiak modu honetara ordenatu ditugu: baieztapen orokorra aurretik (gorputzez luzexka) eta zehatza ondotik (50 cm inguru).

### ■ Partizipioa

Ikusi aldea:

\*Katalogo. Argibidez, eta zehaztasunez hornitutako egituratutako izendegia edo zerrenda (Geuk moldatutako adibidea).

Katalogo. Zerrenda edo izendegi egituratua, argibidez eta zehaztasunez hornitua (Sarasola, Hiztegia).

### ► Nola saihestu mendeko perpausa?

Esan ohi denez, azken finean, mendeko baten azpian, izenlaguna omen dago: “Mendian dagoen emakumea” = “Mendiko emakumea”.

Gogora dezagun “Nire bihotzeko gizona” izenlaguna saihesteko modu bat haxe dela: “**Gizona**, nire bihotzekoa”. Mendekoekin ere berdin: “Mendian dagoen emakumea” = “Emakumea, mendian dagoena”.

Horrekin guztiarekin esan nahi baita irtenbidea, zenbaitetan, izenlagunaren kasuan egindakoa izango dela.

### ■ Erabili izenlagunarekin erabilitako baliabidea (partizipioa, adjektiboa, hitz-elkartuak, instrumentalak...)

Adibidez, kasu honetan mendekoa saihesteko **partizipioa** edo **adjektiboa** erabil ditzakegu:

\***Barne-agindu**. Administrazio-organoek, alkateek esaterako, jardunbidea bultzatu eta izapidetzeko ematen **duten ebazpena**.

**Barne-agindu**. Ebazpen-mota bat, administrazio-organoek (adibidez, alkateek) emana / emandakoa, jardunbidea bultzatu eta izapidetzeko.

Ordena ere aldatu egin dugu: “zertarako den” atzetik jarri dugu, komunikazioaren mesedetan.

Beste adibide honetan izenlaguna eta mendekoa juntatu dira. Eta hemen ere, irtenbideak izenlagunarekin erabilitakoak dira: **hitz-elkartuak** eta **instrumentala** (-z).

\***Eper**. iz. *ZOOL*. Fasianidoen familiako hegazti galiformea, burua txikia, gorputza lodikotea, isatsa motza eta mokoa sendoa **duena**.

**Eper**. iz. *ZOOL*. Hegaztia, **fasianido-familiakoa**, galiformea; buru-txikia, gorputzez lodikotea, **isats-motza** eta **moko-sendoa**.

Helburuzkoa ere erabil dezakegu mendekoa saihesteko. Ikusi adibideak:

\***Intsulina**. iz. *KIM*. Odoleko azukrea kontrolatzen duelako diabetearen aurka erabiltzen den **proteina-hormona**.

**Intsulina**. iz. *KIM*. **Proteina-hormona** bat, diabetearen aurka erabiltzeko, odoleko azukrea kontrolatzen duelako.

Bistan denez, “zergatik” adierazten duten esaldiak (-elako / bait-) zertarakoaren atzetik jarri ditugu, komunikazioaren mesedetan.

### ■ Jarri *-dun/-koa* adjektiboa, mendekoa kentzeko

Baliabide hau begi-bistakoa da, baina aipatu beharra dago: Bizarra duen gizona = gizon bizarduna. Adibidez:

\***Lepahori.** *iz. ZOOL.* Mustelidoen familiako ugaztun haragijalea, 50 cm inguruko gorputz luzexka, hanka motzak eta isats luze eta iletsua dituena.

**Lepahori.** *iz. ZOOL.* Animalia ugaztuna, mustelido-familiakoa, haragijalea, gorputzez luzexka (50 cm inguru), hanka-motza, isats luze eta iletsuduna/koa.

### ■ Erabili *non (zein, zeinetan...)*

Partikula honek ere mendeko perpausa eskatzen du, baina gainerako mendekoek ez bezala, ez du esanahia atzeratzen. Gainera, baliabide hau dela medio, bi esaldi batean eman ditzakegu. Lehengo adibidea erabilia, ikusi nola batzen duen:

\***Kafe-etxe.** *iz.* Kafea eta alkoholik gabeko edo gutxiko beste edari batzuk zerbitzatzen diren barrupea.

**Kafe-etxe.** *iz.* Barrupe bat, **non** zerbitzatzen **diren** kafea eta beste edari batzuk, denak ere alkoholik gabekoak edo gutxikoak.

Baliabide hau aproposa da, izena “tokia” edo “gauza” izaki, izen hura eta hartan gertatutakoa lotzeko, adibidez. Izan ere, horrelakoak *-ena* atzizkiaren bidez lotuz gero, ez dira oso naturalak; eta gramatikalak ere ez.

Bada, deskriptorea aurreratu nahian-edo, honelako esaldia egingo bagenu, ez dugu uste oso naturala eta gramatikala litzatekeenik:

\***Kafe-etxe.** *iz.* Barrupea eta alkoholik gabeko edo gutxiko beste edariak zerbitzatzen eta hartzen direna (?). (Geuk moldatutako adibidea).

Beraz, *non* erabiltzeak abantailak ditu, batik bat, izena lekua edo gauza bada: leizea, agiria, etxea... Orain: herritarrei gagozkiela, erabili behar al da? Gure iritziz, badago erabiltzea; ez, ordea, nonahi eta noiznahi, baizik eta tentu handiz, eta beti ere hartzailearen arabera. Esaterako, erabili dugun irtenbide hori, egokia izan liteke oso unibertsitaterako. Baina, ez horregatik setatu.

## IRUZKINA

Iruzkina azkena etorri behar du, eta ez adibide honetan bezala, non ezau-garri guztiak desordenaturik dauden:

\***Elefante.** Elefantidoen familiako ugaztun proboszideoen izen arrunta. 4 m-ko altuera eta 7 t-ko pisuko animalia belarjaleak dira. Belarri handi eta zapalak, buru handia eta zutabe-formako hankak dituzte. Gaur egun, lehorreko animalietan handiena. Bereizgarriak dira bere tronpa eta intzisibo handi edo defentsak.

Beste honetan, ordea, iruzkina azkena dator.

**Elefante.** Lehorreko animalia bat da, ugaztuna, belarjalea, proboszideoa, eta elefantido-familiakoa. 4 metroko garaiera du, eta 7 tonako pisua. Burua handia du, belarriak handiak eta zapalak, eta hankak zutabe-itxurakoak, Bereizgarri hauek ditu: tronpa eta intzisibo handiak (defentsak). Gaur egun, lehorrekoetan, animaliarik handiena da.

Bistan denez, iruzkina azkena jartzeko, ideiak ordenatu egin ditugu, era honetara:

1. Ideia: deskriptorea (animalia)
2. Ideia: zein taldetakoa den (ugaztuna, belarjalea, proboszideoa, elefantido-familiakoa)
3. Ideia: garaiera eta pisua (4 metro eta 7 tona)
4. Ezaugarri fisikoak, ordenatuta (burua, belarriak eta hankak)
5. Bereizgarriak (tronpa eta intzisiboak)
6. Iruzkina




---

## NOLA DEFINITU OGASUNEKO HITZAK, HERRITARREK ULERTZEKO MODUAN?

---

Hasiera-hasieran esaten genuenez, teknika eta jokaera orokor hauek, batik bat, izen konkretuak definitzeko erabil daitezke. Baina, jakina, ogasunean definizio guztiak ez dira izenak (bada definitu beharreko bestelakorik ere: adjektibo, erakunde, toki...), kontzeptu guztiak ez dira konkretuak, edo ez

dute ezaugarri fisikorik. Beraz, moldatu egin behar dira irizpide orokor horiek. Eta horixe egingo dugu hurrengo lerroetan, ogasuneko kontzeptu garrantzitsu bat ariketatzat harturik: **lanaren etekinak**.

(Ezegokia: deskriptorea atzean, ez du errespetatzen edukien sailkapena...)

\***Lanaren etekinak**. Lanaren etekintzat hartzen dira besteen kontura egindako lan pertsonaletik edo zergadunaren harreman laboral edo estatutariotik zuzenean edo zeharka erartortzen diren **ordainsariak**, diruzkoak nahiz gauzazkoak izan, eta beren izena edo izaera edozein dela ere, baldin eta jarduera ekonomikoen etekinak ez badira.

(Egokia, ogasuneko glosarioan jartzeko)

**Lanaren etekinak**. **Ordainsariak**, besteentzat egindako lanaren ordainetan jasotakoak (10-T inprimakian zehaztu ohi dira); dirutan ordaindutakoei (soldatak, adibidez) "diruzkoak" deitzen zaie, eta gauzetan ordaindutakoei (adibidez, ugazabak langileari etxea uztea) "gauzazkoak". Ordainsariak jasotzeko moduari dagokionez, bi daude: berehala jasotakoak (adibidez, soldatak), eta gerora jasotakoak (adibidez, erretiroa, pentsioak...). Berehalakoei "zuzenekoak" deitzen zaie, eta gerorakoei, berriz, "zeharkakoak". Aldiz, ez dira lanaren etekintzat hartzen, norberaren kontura egindako lanaren ordainez jasotakoak jarduera ekonomikoen etekinak baitira, autonomoen kasua adibidez.

Bistan denez, "elefantea" definitzeko erabili ditugun teknikak moldatu egin behar izan ditugu, beharrak eraginda: zein inprimakitan zehazten diren azaldu, adibide konkretuak sartu (soldatak, erretiroa, pentsioa), hitz batzuen esanahia azaldu (diruzkoak, gauzazkoak), kontra-definizio bat egin (autonomoen lana ez da lan-etekina), etab.

### ► **Kontzeptu konplexuekin zer egin?**

Guztiarekin ere, Ogasunean badira hainbat kontzeptu guztiz konplexuak: ezin baitira ulertu gaien norbera ondo jantzita egon gabe. Kasu horietan, beste bide batzuk urratzea komeni zaigu. Ikusi bestela zer gertatzen den definizio honekin:

**Devengo**. El principio del devengo prescribe que se imputen a cada ejercicio los gastos e ingresos acaecidos durante el mismo sin atender al momento de su pago o cobro, respectivamente, primando a efectos de imputación temporal la corriente real de bienes y servicios



respecto de la financiera o monetaria. Constituye, pues, este principio el criterio básico de imputación de gastos e ingresos a atribuir a cada ejercicio (Código de comercio).

Horrelako definizio bat herritar arruntak ulertuko badu (eta komeni zaio ulertzea, eta eskubidea du), bestelako estrategia bat erabili beharra dago, ezinbestez: definizio dibulгатiboa. Estrategia honen urrezko araua: **komunikazio-egoeraren arabera, definizioa hartzailearen neurri eta interesei egokitzea**. Bestela esanda, hartzaileari zer interesatzen zaion eta huraxe azaldu (hartzaileak ulertzeko moduan, erregistroa, egoera eta abar kontuan izanda). Gogora dezagun ez gabiltzala hiztegi “tekniko” bat egingen, baizik eta glosario bat, herritarraren lagungarri. Hona, adibide batzuk:

(*Expansión* aldizkariak, enpresaburuentzat egindakoa):

**Zortzapen-printzipioa (principio del devengo).** Oro har, faktura zein egunetan egin eta huraxe hartzen da kontabilitatean agertzeko eguntzat.

(Errentari buruzko gidaliburu batean, honelatsu jar daiteke):

**Zortzapen-printzipioa.** Printzipio horrek agintzen du zein urtetako aitorpenean sartu behar diren fakturak. Berez, zerbitzua edo produktua bezeroari noiz egin edo eman (hartu-agiriaren eguna, beraz) eta urte hartan aitortu behar da faktura. Normalean, ordea, faktura zein egunetan egin eta urte hartan aitortu ohi da.

Definizio dibulгатibo horiek serioak ez direlakoan bazaudete, erreparatu beste honi (Estatu Batuetan era honetakoak egin ohi dituzte):

**Zein urtetan aitortu behar dira fakturak?**

Andoni arrain-saltzailea da. Urte Zaharretan, zenbait jatetxetara eramaten du arraina. Aurten, lanean itota zebilelako, beranduago egin ditu fakturak. Alegia, urtarrilean fakturatu du, abenduan eramandako arraina. Zein urtetako aitorpenean sartu behar du faktura, aurtengoan ala lazkoan? lazkoan, izan ere, arraina saldu den urteari dagokion errenta-aitorpenean sartu behar baita; nahiz eta hurrengo urtean egin faktura.

Bistan da zer ikasi handia eman diela Estatu Batuetako erakunderik garrantzitsuenetakoak mundu guztiko ogasun zerbitzuei, herritarrek ulertzeko moduko definizioak eratu baititu. Ez al da gure txanda orain?

Oharra: erantzun hauetan guk ezegokitzat jotako definizio gehienak hiztegi eta entziklopedietatik hartutakoak dira, inork esan ez dezan laborategian asmatutakoak direnik. Definizio akastunak nondik hartu ditugun ez dugu jarri, inorekin haserretu nahi ez dugulako. Definizio akastuna geuk egina izan denean, hala aitortu dugu, kontu eske ez gabiltzan seinale. Jakina, definizio “ona” nondik hartu dugun jarri egin dugu, nori berea zor zaiolako.

## BIBLIOGRAFIA

ELHUYAR. *Hiztegi entziklopedikoa*. Usurbil: Elhuyar, 1993.

LUR. *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia: Lur, 2001.

SARASOLA, Ibon. *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazioa, 1996.

SARRIONANDIA, Joseba. *Hitzen ondoeza*. Tafalla: Txalaparta, 1997.

## IRAGARLEAK / MUGARRIAK

**Nik uste nuen kausaletan *-(e)lako* erabiltzea zela jatorrena. Baina, esan didate kausaletan *ze* ere erabil daitekeela. Orduan, nire galdera da ea noiz erabili behar den bata eta noiz bestea.**

**Gainera, badut beste galdera bat ere, aurrekoaren ildotik. Ba al dago antzeko beste kasuren bat? Hau da, atzean jarri barik, perpausaren hasieran jarri daitekeenik?**

Komunikazioaren aldetik konparatzen baditugu, alde batetik *-(e)lako*, eta bestetik *ze*, *zergatik*, *zeren*, ikusiko dugu hark informazioa gorde egiten duela esaldiaren bukaera arte, eta bestetik, berriz, hasieratik bertatik “abisatzen” dizutela norako bidea egingo duen esaldiak. Beraz, aldea ez datza esanahian, baizik eta abisatzean edo ez abisatzean. Horregatik deitzen zaie partikula horiei *iragarleak*, *mugarriak*, *lotura-hitzak*...

Mugarriak erabil daitezke *juntagailu* (*baizik...*), *menderagailu* (*-ela...*) eta *lokailuekin* (*izan ere...*), besteak beste.

Juntagailuek eta menderagailuek bi esaldi erlazionatzen dituzte. Juntagailuek, hitzak dioen bezala, juntatu besterik ez dute egiten, bata bestearen mendean jarri gabe. Menderagailuek, aldiz, horixe egiten dute: bat beste baten mendean jarri. Horretarako adizki jokatuari lotzen zaizkion lau morfemaren bidez marka daitezke euskarazko mendeko perpausak<sup>1</sup>: *-(e)na*, *-(e)la*, *ba-* eta *bait-*.

Lokailuen kontua, aldiz, ez da perpaus mailakoa, testu mailakoa baizik. Euskaltzaindiaren hitzetan lokailu dira: “Testuari lotura ematerakoan esaldi batetik bestera eraman behar izaten den hariari eusten laguntzen diguten hainbat hitz eta esapide<sup>2</sup>”.

Dena den, gramatika aldetik iragarleak nonbait kokatzeko garaian, nahiz eta kategoria horiek (*juntagailu*, *menderagailu*, *lokailu*) baliagarriak izan,

1. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-V*, 24. or.

2. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-III*, 13. or.

ez dute erabat zedarritzen iragarleen gaia. Hau da, iragarle batzuk ez dira kategoria horietan sartzen.

Izan ere, iragarleen zeregina, guztiaren gainetik, komunikatiboa da. Hortaz, gehiago interesatzen zaigu arlo horretan iragarleek egiten duten abisu-lan hori; eta ez zer-nolako kategoria gramatikala duten. Horregatik deitzen diegu izen bereziz: *iragarleak, mugarriak, lotura-hitzak...*

Iragarleen abisu-lanari gagozkiola, bistan da esaldi laburretan ez dagoela zertan erabili.

Iragarle batzuk oso ezagunak ditugunez (*beraz, baina, ordea...*), ez ditugu landuko. Batez ere, hain ezagunak ez direnak edo gutxitan erabiltzen direnak jorratuko ditugu. Aurrera baino lehen, ohar pare bat:

- Jarraian datozen esaldi guztiak zuzenak, eta, gehienetan, esanahiki-deak dira zeharo. Beraz, arrazoi pragmatikoengatik bakarrik (per-pausaren luzera batez ere) izan daitezke hobestekoak iragarledunak.
- Iragarledun guztiak ez daude hizkuntza-maila berean: batzuk erabat herrikoiak dira (*ze, nola...*); beste batzuk, berriz, jasoagoak.

### ► **Baldin (eta)**

Sua itzaltzeko tresna jarri egin behar da jarduerako sarbidean, jarduera tokian bertan eta inguruan erregairik **bada**.

Sua itzaltzeko tresna jarri egin behar da jarduerako sarbidean, **baldin eta** jarduera tokian bertan eta inguruan erregairik **bada**.

### ► **Harik (eta)... arte**

Jarrai dezagun, behin bakarrik irakurrita herritar arruntak ere ulertzeko moduko inprimaki samurrak lortu **arte**.

Jarrai dezagun, **harik eta** behin bakarrik irakurrita herritar arruntak ere ulertzeko moduko inprimaki samurrak lortu **arte**.

### ► **Nahiz (eta)**

Udalbatzak aldeko erabakia hartu zuen, udal teknikarien txostenak (tar-tean idazkariarena), hedabideak eta herritar gehienak aurka **zeuzkan arren**.

Udalbatzak aldeko erabakia hartu zuen, **nahiz eta** aurka **zeuzkan** udal teknikarien txostenak (tartean idazkariarena), hedabideak eta herritar gehienak.

### ▮ **Baita (bai eta)... ere**

Aberatsa beti nagusi, munduan dauden eta izan diren pertsonetan nahiz animalietan eskasena **izanda ere**.

Aberatsa beti nagusi, **baita** munduan dauden eta izan diren pertsonetan nahiz animalietan eskasena **izanda ere**.

### ▮ **Ezta (ez eta)... ere**

Aberatsa **ez** da beti nagusi, munduan dauden eta izan diren pertsonetan nahiz animalietan dirudun handiena **izanda ere**.

Aberatsa **ez** da beti nagusi, **ezta** munduan dauden eta izan diren pertsonetan nahiz animalietan dirudun handiena **izanda ere**.

### ▮ **Baizik (eta) / ezpada (ere)**

Ez dira horiek bi sinesbide, elkarren orpoz orpo daudenak, bi bide bata bestearen ondotik doazenak **baizik**.

Ez dira oiek bi siñisbide, alkarren orpoz orpo daudenak; **baizik eta** bi bide bata bestearen ondotik dijoazenak (Orixe. *Jainkoaren billa*, 273. or.).

Ez dira horiek bi sinesbide, **ezpada (ere)** elkarren orpoz orpo daudenak; bi bide bata bestearen ondotik doazenak.

### ▮ **Izan ere, zeren (eta)**

Berandu etorri naiz, Etxegarateko obrak direla medio autobusa ordu bete beranduago etorri **delako**.

Berandu etorri naiz; **izan ere**, Etxegarateko obrak direla medio autobusa ordu bete beranduago etorri da.

Berandu etorri naiz; **zeren (eta)**, Etxegarateko obrak direla medio autobusa ordu bete beranduago etorri **baita / den (da)**.

Euskalkietan eta ahozko jardunean, batik bat, beste hauek ere erabiltzen dira:

Berandu etorri naiz; **ze**, Etxegarateko obrak direla medio autobusa ordu bete beranduago etorri da (Bizkaian).

Berandu etorri naiz; zergatik, Etxegarateko obrak direla medio autobusa ordu bete beranduago etorri da (Gipuzkoa).

### ▮ **Non eta... ez -(e)n**

Ez dute garorik ekarriko, alde z aurretik bost euro pagatu eta baimena eskatu **ezean**.

Ez dute garorik ekarriko, **non eta** alde z aurretik bost euro pagatu eta baimena **eskatzen ez duten**.

### ▮ **Ez bada**

Ez dute belarrik ekarriko, kortako nahiz bordako oheak egiteko **ez bada**.

Ez dute garorik ekarriko, **ez bada** kortako nahiz bordako oheak egiteko.

### ▮ **Hori bai**

Udalbatzak gure aurkako erabakia hartu zuen, gure ordezkariet arreta handiz entzun eta gero hartu **badu ere**.

Udalbatzak gure aurkako erabakia hartu zuen; **hori bai**, gure ordezkariet arreta handiz entzun eta gero.

### ▮ **Nola... -(e)n / baita**

Goizuetatik hasiko naiz. Oihartzunekin muga egiten **duenez**, auzo-herri bezala dugu Goizueta.

Goizuetatik hasiko naiz. **Nola** Oihartzunekin muga egiten **duan**, auzo-erri bezala degu Goizueta (Uztapide. *Lengo egunak*, 195.or.).

Kanaberak, zuhaitz alferra, fruiturik ematen ez duena, eta barrenean ere hutsa **denez**, esan nahi du pertsona alferra.

Kanaberak, **nola baita** zuhaitz alferra, fruiturik iasaiten ez duena, eta barrenean ere hutsa, signifkatzten du presuna alferra (Axular. *Gero*, 25. or.).

### ▮ **Hala bada**

Eta zenbatenaz eta gehiago, baitabil mailua, hainbat eta gehiago zapalzenago eta gogortzenago du ingudea. Bekatariak ere bekatutan ibiltzeaz eta usatzeaz gogortzen du bere kontzientzia, mailu kolpeek ingudea gogortzen **duen bezala** (Axular. *Gero*, 67. or.).

Eta zenbatenaz eta gehiago, baitabilla [mailua], hanbatenaz zapatzenago eta gogortzenago du [ingudea]. **Hala bada**, bekhatoreak ere bekhaturan ibiltzeaz eta usatzeaz gogortzen du bere kontzientzia, mailu kolpeek ingudea gogortzen **duen bezala** (Axular. *Gero*, 67. or.).

### ▮ **Ezen [maila jasoan]**

Solon handiak ordenatu zuen, aita batek bere semeari ofiziorik erakusten ez zionean, **ez zela** seme hura... obligatu izanen.

Solon handiak ordenatu zuen, **ezen** aita batek bere semeari ofiziorik erakusten etzionean, **etzela** seme hura... obligatu izanen (Axular. *Gero*, 19. or.).

### ▮ **Hots, alegia**

Atentatua Manhattan-en gertatu zen; Estatu Batuetako auzorik eta tokirik esanguratsuenan.

Atentatua Manhattan-en gertatu zen; **hots (alegia)**, Estatu Batuetako auzorik eta tokirik esanguratsuenan.

### ▮ **Hain zuzen ere (hain juxtu ere)**

Idazki honekin batera bidaltzen dizut Udalbatzak zure enpresari egiten ari zaion zehapen-espeditari buruz **hartu duen ebazpena**.

Idazki honekin batera bidaltzen dizut Udalbatzak **hartu duen ebazpena**, zure enpresari egiten ari zaion zehapen-espeditari **buruzkoa**.

Idazki honekin batera bidaltzen dizut Udalbatzak **hartu duen ebazpena**, **hain zuzen ere (hain juxtu ere)** zure enpresari egiten ari zaion zehapen-espeditari **buruzkoa**.

### ▮ **Hau da**

Idazki honekin batera bidaltzen dizut Udalbatzak **hartu duen ebazpena**, zure enpresari egiten ari zaion zehapen-espeditari **buruzkoa**.

Idazki honekin batera bidaltzen dizut Udalbatzak **hartu duen ebazpena, hau da**, zure enpresari egiten ari zaion zehapen-espedienteari buruzkoa.

Idazki honekin batera bidaltzen dizut Udalbatzak **hartu duen ebazpena, zein baita** zure enpresari egiten ari zaion zehapen-espedienteari buruzkoa.

### ► **Ea... -(e)n**

Begiratu, haurra, beti bezala, bihurrikeriaren bat egiten dabilen.

Begiratu, **ea** haurra, beti bezala, bihurrikeriaren bat egiten dabilen.

### ► **Dela... dela...**

Ezin irozo ditzakeen gastuak egiten ditu, jantzian, herriz herri dabilela.

Ezin irozo ditzakean gastuak egiten ditu, **dala** jantzian, **dala** erriz-erri dabilela (Agirre. *Platicac*, 575. or.).

## BIBLIOGRAFIA

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1990, 13. or.

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999.

ESNAL, Pello; ZUBIMENDI, Joxe Ramon. *Idazkera-liburua*. Donostia: Kultura Saila, 1993, 206. or.



## ERE

---

**Euskara ikasten ari naiz eta EGA azterketako atariko proba prestatzen nabil. Kontua da zenbaitetan *ere*-ren erabilerarekin zalantzak sortzen zaizkidala. Mesedez, azalduko didazue nola erabili behar dudan?**

---

*Ere* erabiltzen duzunean, gogoan izan beti kontu hauek:

1. Esaldiaren toki ezberdinetan koka dezakegunez, hala jokatzean, non kokatu eta honen arabera esaldiaren esanahia aldatzen dugu.
2. Ia edozein tokitan ager daitekeenez, zenbaitetan, zuri gertatu bezala, zalantzak sortzen zaizkigu. Hori gerta ez dakizun, argibide batzuk agertuko dizkizugu.

- a) *Ere*-k bere ezkerretara dagoen osagaiarekin bat egiten du, eta osagai hori mintzagai bihurtzen da, hau da, esaten ari garenaren erreferentzia izango da (baita ezkerreko osagai hori aditza bada ere). Honegatik esan dugu *ere*-k hartzen duen tokiaren arabera esaldiaren esanahia aldatzen dela. Goazen ikustera zer gertatzen den aspaldiko lelo honekin:

*Nik administrazioan ere euskaraz (egiten dut)*

1) *Nik **administrazioan ere** euskaraz egiten dut.* Kasu honetan *ere*-ren ezkerrean *administrazioan* daukagu eta ondorioz, *ere*-k horri egiten dio aipamena. Hau da, etxean edo kalean egiten dudan moduan, *administrazioan ere euskaraz egiten dut.*

2) *Nik **ere** administrazioan euskaraz egiten dut.* Kasu honetan *ere*-ren ezkerrean *Nik* daukagu eta ondorioz, *ere*-k horri egiten dio aipamena. Hau da, beste zenbait lankidek bezala, *nik ere euskaraz egiten dut administrazioan.*

3) *Nik administrazioan **euskaraz ere** egiten dut.* Kasu honetan *ere*-ren ezkerrean *euskaraz* daukagu eta ondorioz, *ere*-k horri egiten dio aipamena. Hau da, *administrazioan beste zenbait hizkuntzaz gain, euskaraz ere egiten dut.*

4) *Nik administrazioan euskaraz egiten ere dut.* Azken erabilera hau, batez ere Iparraldekoa da, eta kasu honetan azpimarratu nahi den osagaia, aditza bera da, hau da, *ere* indargarri funtzioa egiten ari da. Gaztelaniazko “es que”, “en verdad”, “en efecto”... Hegoaldean berriaz honelako egitura erabiltzen dugu:

*Nik administrazioan, egin ere, euskaraz egiten dut.*

Edo

*Nik administrazioan, euskaraz egiten dut, egin ere.*

### b) Kontuan izan beharrekoak:

- Esaldiaren hasiera da hartu ezin duen toki bakarra.

—Zer egingo duzu?

—Jan. \*Ere siesta egin.

—Jan. \*Eta ere siesta egin.

### Zer egin honelakoetan?

—Zer egingo duzu?

—Jan. Baita / Bai eta siesta egin ere.

- Ez erabili *ere bai / ere ez* aditz sintagmarekin batera.

Aurtengo uztailan \*ni ere bai oporretara joango naiz.

Aurtengo uztailan ni ere oporretara joango naiz.

—Baita neu ere.

—Bai neu ere.

—Neu ere joango naiz.

\*Baita ni ere joango naiz.

- Ezezko esaldietan, ezinbestean erabili behar da ezeztatzailea. Baiezkoen kasuan –Iparraldean erabilera ezberdina egiten den arren–, Mendebalean *bai* jarri beharra dago, edota aditza sartu.

—Zinegotziak bat datoz alkatearen proposamenarekin.

Herritarrak ere bai.

Herritarrak ere bat datoz.

- Zinegotziak ez datoz bat alkatearen proposamenarekin.
- Herritarrak ere ez.
- \*Herritarrak ere.

- *Baita (ere) / Ezta (ere)* moldeekin honela jokatu ahal dugu:

- |                         |                    |
|-------------------------|--------------------|
| —Nik ez dut hori egingo | —Bihar joango naiz |
| —Ezta nik ere           | —Baita gu ere      |
| —*Nik ezta ere          | *Gu baita ere      |

Erantzun laburretan *baita* edo *baita ere / ezta* edo *ezta ere* erabil litekeen ala ez jakiteko *Orotariko Euskal Hiztegia*-n begiratuta *Baita* normalean *ere* partikularekin batera agertzen da, baina ez dio ezin daitekeenik *Baita* bakarrik erabili. Beraz, besterik ezean bata zein bestea ontzat eman beharko dira, nahiz eta lehenak erabilera zabala goa daukan. Adibidez:

- |               |            |
|---------------|------------|
| —Arrautzak?   | —Ez.       |
| —Sardinarik?  | —Ezta ere. |
| —Bakailaorik? | —Ezta.     |

## BIBLIOGRAFIA

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1990, 35.-57. or.

## ADIBIDEEN ITURRIA

MITXELENA, K. *Orotariko Euskal Hiztegia*. 1987-

## BAINO GEHIAGO

### Arazo batzuk ditut *baino* partikula konparatiboarekin:

- Nola esan beharko genuke: *hiru baino gehiagok nahi dute ala hiruk baino gehiagok nahi dute?*
- Zenbait tokitan *bainoago* partikula irakurri izan dut. Ondo dago?

### Eta beste kontu bat gai honen inguruan:

- *Zu baino lehen etorri naiz ala zu baino lehenago etorri naiz?*

1. Lehenengo galderari dagokionez, gogora ekarri beharko dugu Euskaltzaindiak<sup>1</sup> esandakoa: *baino*-ren bi aldeetan doazen sintagmak kasu berean jarri behar dira.

Horrela, honelako esaldiak ondo daude:

Erdiek baino **gehiagok** eskatu dute ordutegi berria.

Bi mila langilek baino **gehiagok** bete dute inkesta.

*Nori, norentzat*, eta abarretan ere jokabide bera hobesten du Euskaltzaindiak:

Bati baino **gehiagori** ezinezko gertatu zaio opor-egun guztiak hartzea.

Batentzat baino **gehiagorentzat** horixe da, hain zuzen, helbururik garrantzitsuena.

Baten baino **gehiagotan** etorri da laguntza eske eta beti lagundu diogu.

Beraz, zure galderari erantzunez, honela esan behar duzu:

Hiruk baino **gehiagok** nahi dute.

Baina kontuz! Honekin lotuta bada beste zalantza bat askotan sortzen dena: **-tik gora** erabiltzen dugunean izaten duguna, alegia:

1. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999, 418.-421. or.

Bi mila eskabidetik **gora** jaso genituen azken deialdian.

Kasu honetan ere zalantzak sor daitezke deklinatu behar den ala ez:

\*Bi mila eskabidetik gorari eman genien erantzuna.

Kasu horretan ezin da *gora* hitza deklinatu, eta, beraz, honako hauek baliatuko ditugu:

Bi mila eskabideri **baino gehiagori** eman genien erantzuna.

Bi milatik **gora eskabideri** eman genien erantzuna.

**2.** Bigarren galderari erantzuteko, berriz ere, Euskaltzaindiak<sup>2</sup> esandakoari atxikiko gatzazkio. Bai, *bainoago* forma ondo dago, eta, gainera, hizkera jasoari dagokio. Hona hemen liburu horretan bertan aipatzen den adibide bat:

Ezpataz zauritu banindute **bainoago** izutu ninduten gizon haren hitz bortitzek.

**3.** Eta, bukatzeko, hirugarren galderari ekingo diogu: *baino lehen ala baino lehenago?*

Bada, EGLU-V liburuak<sup>3</sup> esandakoari jarraituz, biak erabil ditzakezu:

Parisetik bidali zenuen postala baino **lehen(ago)** heldu zara.

Zuk baino **lehen** amaitu dut lana.

Zuk baino **lehenago** amaitu dut lana.

## BIBLIOGRAFIA

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1999, 397., 408., 418.-421. or.

<sup>2</sup>. Ibid. 408. or.

<sup>3</sup>. Ibid. 397. or.

## ERDAL GERUNDIO OKERRAK

**Gramatika batean adibide hau ikusi dut ontzat emanda: “Gutun bat idatzi diot eskerrak emanaz”. Argiro liburuan, ordea, okertzat jotzen duzue esaldi hau: “Alkateak dekretu bat eman du denden ordutegia arautuz”. Badago ezberdintasunik bi esaldi horien artean? Erabil daiteke -z atzizkia halako esaldiak eratzeko? Erabil daiteke -la(rik) atzizkia aditz jokatuekin aldiberekotasuna adierazteko? Ezin da gerundioa erabili ala?**

Zuk galdetutakoari erantzuteko, aurrena, kontuan hartu behar dugu Euskaltzaindiak ez dituela gerundiozko esaldiak arautu. Beraz, araurik ezean, bai guk, bai zure gramatika horrek esandakoa behin-behineko aholkutzat jo beharko duzu.

Gerundioaren gainean eztabaida sakona dago, erabilera okerrak direla, gehiegizko erabilpena dela. Gogoan izan erdarazko nahiz euskarazko estilo-liburu guztietan ataltxo bana duela gerundioak, eta sasia zarraparra bada... zer edo zer izango da. Hori dela eta, azalpen luze samarra eman beharko dizugu, arazoa zertan den argituko badugu, zuzentasuna ez ezik, egokitasuna ere badago eta auzian.

### GERUNDIOA, EUSKARAZ?

Euskarak, berez, ez du gerundiorik, auzo erdaretako aditzen forma baino ez baita. Hala ere, euskaraz badira hainbat bide erdarazko gerundioa emateko. Esaterako, *llorando* euskaratu nahi badugu, hona zenbat modutan eman dezakegun:

negarrez, negar eginez, negar eginik, negar eginda, negarretan, negar egiten, negarka, negar batean, negar eta negar, negarrez ari dela(rik)...

Ikusten denez, aberatsa da euskara alde horretatik. Baina, kontuz! Ezin zoro-moro jokatu gerundioekin, argi eduki behar baitugu zer esan nahi duen *llorando* horrek, behar bezala euskaratu ahal izateko. Izan ere, goiko

zerrendako aldaera guztiak ez dira baliokideak, eta bakoitzak baditu berezko ñabardurak, testuingurua dela, helburua dela.

Batzuk aditzaren gainean erutzen dira; besteak, ordea, izenaren gainean. Banan-banan aztertuko ditugu:

### ► **Egiten**

*Zertan?* galderari erantzuten dio eta, horregatik, **jarduera** adierazten du.

—Zertan ari da Miren, hor, txokoan? —Negar egiten, triste dago eta.

### ► **Eginez**

*Nola?* galderari erantzuten dio eta, beraz, **bidea** edo **modua** adierazten du. Aditz nagusiarekiko **aldiberekotasuna** adierazten du. Hots, aditz nagusiak adierazten duen ekintzarekin batera gertatzen da haren ekintza.

—Nola sartu zen gelara? —Negar eginez sartu zen gelara. [Sartu eta negar egin, aldi berean egin zuen].

Nahiz eta batzuen ustez ez duen **zergatia** adierazten, badira horren adibide bakan batzuk:

Azterketa erraza izango zela pentsatuz, ez nuen asko ikasi.

*Eginez* formaren ondoan *eginaz* forma ere erabil daiteke, esanahiaren aldetik inolako alderik ez baitago euren artean.

### ► **Eginda / Eginik**

Argi eta garbi adierazten dute **modua** eta **zergatia**. Denborari dagokionez, zerbait aditz nagusiaren ekintza baino lehen gertatu dela adierazten dute. Hots, aditz nagusiak adierazten duen ekintzarekin batera baino lehenago gertatzen dira euren ekintzak. Ekintzen arteko sekuentzia markatzen du:

Asko ikasita gaitutuko duzu azterketa. (Nola)

Hain zaila izanik, ez da harritzekoa gutxik gaitutu izana. (Zergatia)

Zakua lepoan hartuta, alde egin zuen. (Zakua hartu eta gero joan)

Hala ere, moduzko hainbat esapidetan, aldiberekotasuna antzematen da:

Lana amaitu ezinik nabil (Nola + aldi berean)

### ▶ **Eginean**

**Modua** adierazten du. Esapide jator asko sortu dira forma honetatik: *arian-arian, ibilian-ibilian...*

Lana amaitu nahian nabil.

### ▶ **-(e)la**

**Modua** adierazten du, baita **denbora** ere, *-(e)nean* formaren antzera, aldiberekotasun ukitu batez:

Buruan txapela zeramala sartu zen gelara. (Nola)

Nik dakidala, ez dute ezer erosi. (Nola)

Hantxe gelditu zen, zer egin ez zekiela. (Nola)

Hitzaldia amaitzen ari zela alde egin genuen. (Noiz)

Hondartzara zihoala izan zuen istripua. (Noiz)

### ▶ **-(e)larik**

**Denbora, modua, zergatia** eta **baldintza** adierazten du. Ekialdeko euskalkietan erabiltzen da batez ere, gaur egun beste eremu batzuetara ere zabaldu den arren:

Eta hiltzera zihoalarik, haren inguruan zeuden emaztekiek erran zioten:... (Noiz)

Gelara sartu zen, txapela buruan zuelarik. (Nola)

Hain ona delarik, nola ez maitha. (Zergatia)

Nik esaten dudana egiten duzularik, ongi arituko zara. (Baldintza)

Imanol Trebiñoren *Administrazio zibileko testu historikoak* liburuan badira adibide batzuk:

Enkantatzaileak anonimoki jarduten **dutelarik** zilegia da enkante etxeak berak dirua eskaintzea.



Milla eta zazpitan eun eta yrtan oguei eta amiru guaren vrtean; celarik Rejidore Juan de Suescun.

Bitxia da, baina, oraingo administrazio testuetan erruz erabiltzen den arren, guk aztertu ditugun testu zaharretan ez da hainbeste erabiltzen, beharbada, gero eta handiagoa izan delako erdararen eta erdarazko estiloaren eragina euskarazko testuetan. Esaterako: aski da begiratu bat ematea Imanol Trebiñoren *Administrazio zibileko testu historikoak* liburuari horretaz jabetzeko. Are bitxiagoa da alderatzen bada testu historikoetan zenbat *-larik* dauden eta liburuaren egileak berak zenbat erabiltzen dituen. Honekin ez dugu esan nahi txarto erabiltzen denik, baizik eta gehiegi, baina horretaz aurrerago jardungo dugu.

*Ere* partikula erantsita balio kontzesiboa hartzen du:

Nahi ez nuelarik *ere*, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen.  
(Kontzesiboa = nahiz eta... / ba... ere / ...arren)

### ▮ **Negarka**

Aditzari zein izenari jar dakioke. **Moduaz gain, ekintza errepikatua** ere adierazten du.

Deika ibili nintzen, baina ez zidan erantzun.

Gaizki esaka dabilta zutaz.

Bultzaka sartu zen metrora.

### ▮ **Negarrez**

Izenari erants dakioke instrumentala. Modua edo bitarteko tresna adierazten du.

Negarrez sortu nintzen, negarrez hiltzeko.

Kantuz sortu naiz eta kantuz naiz bizi.

### ▮ **Negarretan**

Izenari *Non* kasu-marka jarrita sortzen da. **Jarduera** adierazten du. Batzuetan, singularrean erabiltzen da (*lanean, igerian, dantzan, jolasean,*

*musean, futbolean...*), eta besteetan mugagabeen (*izerditan, izerdi patsetan*).  
-KETA atzizkia ere erabiltzen da (*berriketan, arinetan, egurketan*).

## ► **Negar batean**

Izenaren ondoren *bat* artikulua, *Non* kasuan jarrita. *Zertan* galderari erantzunez, **jarduera** adierazten du, baina balio enfatiko nabarmenarekin eta ekintzan etenik ez dagoela agertuta.

Laster batean amaituko dugu.

Haginetako minez zegoen, oihu batean.




---

## NOIZ DAGO TXARTO ERABILITA GERUNDIOA?

---

Zure lehenengo galderari erantzuteko, zehaztapen bat egin beharrean gaude. *Argiro* gure liburuan, gaztelaniazko gerundio okerren itzulpen are okerragoak jorratzen genituen. Eta hauxe da ezer baino lehenago azaldu beharko genukeena orain ere. Izan ere, gerundioaren erabilera guztiak ez dira gaztelaniaz onartzen; aitzitik, arauemaileek okertzat jotzen dituzte erabilera batzuk, hala nola, helburuzko gerundioa, ondoriozko edo geroaldikoa, adjektibozkoa eta juntaduraren ordezkia.

Azter ditzagun guztiak banan-banan:

### 1. Helburuzko gerundioa

Gerundio hau *Para* baten ordeztu erabiltzen da gaztelaniaz, eta oso zabaldua dago:

\*Les envió la presente carta **agradeciéndoles** la información recibida y **solicitándoles** la admisión de los siguientes funcionarios en los cursos...

\*Gutun hau bidaltzen dizuet jasotako informazioa **eskertuz** eta honako funtzionario hauek ikastaroetan hartzeko **eskatuz**...

Esaldi hori oker dago gaztelaniaz, argi eta garbi, helburuzko egitura bat ordezkatzeko gerundioak. Esaldi zuzenak hauexek dira:

Les envió la presente carta **para agradecerles** la información recibida y **solicitarles** los siguientes cursos...

Gutun hau bidaltzen dizuet jasotako informazioa **eskertzeko** eta honako ikastaroak **eskatzeko**...

## 2. Ondoriozko edo geroaldiko gerundioa

Gerundioa ezin da erabili aditz nagusiaren ekintzaren ondoren gertatzen diren gertakariak adierazteko:

\*Langileak ikasteko baimena eskatu zion zuzendariari, honek ezetz erantzun **ziolarik**.

\*Lehergailu batek eztanda egin du, hamar lagun hilik gertatu **direlarik**.

Horien ordeztu, hainbat aukera dituzu:

### ▶ **ETA juntagailua jarri**

Langileak ikasteko baimena eskatu zion zuzendariari **eta** zuzendariak ezetz erantzun dio.

Lehergailu batek eztanda egin du **eta** hamar lagun hil dira.

### ▶ **Elipsiaz baliatu**

Langileak ikasteko baimena eskatu [Ø] **eta** zuzendariak ezetz erantzun dio.

Lehergailu batek eztanda egin [Ø] **eta** hamar lagun hil dira.

### ▶ **Lokailuren bat erabili**

Langileak ikasteko baimena eskatu zion zuzendariari; zuzendariak, **ordea**, ezetz erantzun dio.

Lehergailu batek eztanda egin du; **horren ondorioz**, hamar lagun hil dira.

### ▶ **-la(rik) lekuz aldatu**

Langileak zuzendariari ikasteko baimena eskatu **ziolarik**, ezetza jaso zuen.

Lehergailu batek eztanda egin **duela(rik)**, hamar lagun hil egin dira.

### 3. Adjektibozko gerundioa

Gerundio honek izen baten zer-nolakoak ematen ditu; beraz, adjektiboa-rena egiten du, nolabait esateko. Erdaraz okerra da baldin eta aditz nagusia ez bada pertzepziozkoa (*ikusi, entzun, sentitu...*) edota erreprezentaziozkoa (*marraztu, deskribatu, irudikatu, idatzi...*).

Beraz, erdaraz okerra da esaldi hau:

\*El alcalde ha dictado un decreto **regulando** los horarios comerciales.

Horregatik, txartzat jo genuen euskarazko baliokide oker hau:

\*Alkateak dekretu bat eman du, denden ordutegia **arautuz**.

Zalantzarik gabe, gaztelaniazko gerundio okerraren kalkoa da, eta horren ordez haxe proposatu genuen:

Alkateak dekretu bat eman du, denden ordutegia **arautzen duena**.

Helburuzko egitura ere erabil liteke kasu honetan:

Alkateak dekretu bat eman du denden ordutegia **arautzeko**.

Garai batean, Estatuaren Aldizkari Ofizialeko arauen izenburuak egitura oker horren bidez ematen ziren:

\*Decreto 30/1969, **regulando** los horarios comerciales.

Nahiz eta gramatika-arauek debekatzen zuten, erruz erabili zen Aldizkari Ofizialean, eta hortik datorkio gramatiketan duen goitizena: *gerundio de boletín*. Horren ordez, hobe erlatiboa erabiltzea:

Decreto 30/1969, **QUE** regula los horarios comerciales. (Erabiliagoa)

### 4. Esaldi juntatuen ordezko gerundioa

Perpau bi edo gehiago juntagailu baten bidez lotu beharrean, gerundioa jartzera jotzen da batzuetan. Horrela, esaldi luze bezain astunak sortzen dira, okerrak eta esangura nahaspilatutakoak.

\*Se presentarán tres ejemplares, **quedando** dos en poder de la administración y **devolviendo** uno a los interesados.

Ikusten denez, gerundiozko aditzek ez diote erreferentziarik egiten aditz nagusiari: horren ondoren gertatzen diren bi ekintzak dira, baina. Horregatik, hobe puntuazioaz eta juntaturaz moldatzea:

Se presentarán tres ejemplares[:] dos quedarán en poder de la Administración y el tercero se devolverá a los interesados.

Gauza bera gertatzen da honako adibide honetan:

\*La presente Convocatoria y sus Bases se publicarán íntegramente en el Boletín Oficial de Bizkaia y del País Vasco, **publicándose**, además, en el Boletín Oficial del Estado extracto detallado de la misma.

Kasu hauetan ere honako itzulpenak maiz ikusiko ditugu:

\*Deialdi hau eta bere Oinarri-arauak oso-osorik argitaratuko dira Bizkaiko Egunkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, zehaztutako laburpen bat ere Estatuko Buletin Ofizialean argitaratuko **delarik**.

Era horretako esaldiak, bai gaztelaniaz, bai euskaraz, juntagailu edo lokailu batekin askoz ulergarriagoak eta zuzenagoak izaten dira:

Deialdi hau eta bere Oinarri-arauak oso-osorik argitaratuko dira Bizkaiko Egunkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian **eta, gainera**, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da laburpen zehatz bat.

Bestalde, zuk bidali diguzun gramatika horretako esaldia daukagu: “gutun bat idatzi diot eskerrak emanaz”. Esaldi hau epaitzeko testuingurua hartu behar da kontuan. Jakina da modua adierazteko –hau da, *Nola?* galderari erantzuteko– zilegi dela gerundioa erdaraz, eta zilegi direla haren baliokide batzuk euskaraz. Beraz, *Nola?* galderari erantzungo bagenio, edo modua adieraziko bagenu, ontzat emango genuke, zalantzarik gabe:

—Nola idatzi diozu gutun bat?

—Eskerrak emanaz.

Baina kasu horretan ez da *Nola?* galderari erantzuten. Izan ere, gure ustez, gutunak idaztean, *Zertarako* idatzi dugun esan ohi dugu, eta ez *Nola*:

Gutun hau eskerrak emateko idazten dizut

Beraz, gure ustez, *-tzeko* egokiagoa da.




---

## GOMENDAGARRIA AL DA GERUNDIOAREN ORDAINAK ERABILTZEA?

---

Ikusten denez, arazoa honetan datza: erdarazko egitura batek hamaika baliokide dituela euskaraz. Baina, gainera, erdal gerundioaren ordain bakoitzak erabilera eremu bat dauka eta, beraz, ez dira denak elkarren baliokideak. Horregatik, askotan ez dakigu zein forma erabili edo, konturatu gabe, baliokide okerra hautatzen dugu.

Gauza askotan bezala, oreka eta neurria hartzea da kontua. Eta ez da komeni erdarari orpoz orpo jarraitzea, eta gerundioa gerundioaren balio-kideekin ordezkatzeta beti. Are gutxiago, beti forma berbera erabiltzea gerundioaren ordeztu: zenbat testu ez ote daude *-larik* edo *-tuz* formez gainezka, irakurketa monotonoa eta astuna bihurtzeraino? Gogoan izan: euskarak bide asko baititu erdarazko gerundioak emateko, eta horrek bizitasuna eta aberastasuna eman diezaioke testuari. Begira Atxagak zer dioen:

“Kasu bat, esaterako, gerundioena; gerundioa ahula baino ahulagoa da; hau da, gerundio guztiak gaztelaniaz, oker ez banago, zorioneko *-ndo* erabiliz osatzen dira. Hizketan hasi eta *llorando*, *cantando*, *moviendo* esan behar da. Eta berdin gertatzen da partizipioekin; lehenik, partizipioa egiteko modu gutxi daudela, euskarak dituenekin alderatuta, eta bigarrenik, oso errepikakorrak direla eta oso ozenak.

Horixe gertatzen zitzaidan hain zuzen lehen komentatu dudana ‘Lo-kanta sagarrondo txiki bati’ olerkiarekin, jatorrizko testuan gerundio asko zegoela, baina bukaera desberdinekoak eta belarrirako soinu samurrekoak (*-z*, *-ez*, *-ten*, *-larik*), gaztelaniara itzuli eta denak *-ndo*; arazoa konponezina

zen kasik: olerkia **monotono eta errepikakorra** gertatzen zen ezinbestean. Alde hori, beraz, ahula iruditzen zitzaidan gaztelanian”<sup>1</sup>.

Baina, gorago esan bezala, zuzentasuna ez ezik, egokitasuna ere badago auzian. Hau da, gaztelaniazko gerundioaren baliokideak zuzen erabili arren, arriskutsu samarrak dira, esaldiak behar baino gehiago luza daitezkeelako eta, hortaz, testu ilunak sortzen ditugulako.

Erreparatu honako esaldi honi:

\* Kontuan izanda Estatuak jabetza eskubide bat duen ondasun higiezinetikiko Euskal Autonomia Elkartearen alde gozamen eskubide bat sortu dela, besterenak diren ondasun batzuek gozatzeko eskubidea ematen **zaiolarik** Euskal Autonomia Elkarteari, Kode Zibileko 467. artikulua araberan, 1536/1987 Errege Dekretuak xedaturikoa **jarraituz**.

Ikusten denez, gerundioen ordainak erabilia, bost lerroko esaldikotea atera zaigu. Zaila da mezua berehala ulertzea, eta ez bakarrik administrazio-hizkeraren berezitasunengatik. Begira zein alde dagoen, gerundio oker horiek kendu eta esaldietan zatitzen badugu:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK: Estatuaren jabetzakoak diren zenbait ondasun higiezinetikiko gozamen eskubidea sortu da Euskal Autonomia Erkidegoaren alde. **Hortaz**, besterenak diren zenbait ondasun gozatzeko eskubidea eman **zaio** Euskal Autonomia Erkidegoari; beti ere, Kode Zibileko 467. artikulua araberan eta 1536/1987 Errege Dekretuak **xedatutakoaren araberan**.

Gauza bera gertatzen da adibide honetan:

\* Alkateak erantzun dio datu horiek urtero ordenantzak onartzerakoan ematen direla eta dena den hori ez dela bilkura honetako gai bat, oposizioko zinegotziak erantzuten **diolarik** beraien ustetan Pleno honetan tratatu beharrekoa dela, uraren gaiarekin zerikusi handia daukalako.

Alkateak erantzun dio datu horiek urtero ordenantzak onartzerakoan ematen direla eta dena den hori ez dela bilkura honetako gai bat. Oposizioko zinegotziak, **ordea, erantzun dio** bere ustez Pleno honetan tratatu beharrekoa dela, uraren gaiarekin zerikusi handia daukalako.

1. ATXAGA, Bernardo. “Hitzaldia literaturaz eta itzulpengintzaz”, *SENEZ*. Donostia: EIZIE, 2001eko azaroa, 23. zenbakia. [www.eizie.org/euskara/argital/senez/23/atxaga.htm]

Hortaz, kontuz ibili gerundioarekin, testuak dotoretzeko asmoa izan arren, kontrako eztaeratik sar daitezke eta.

## BIBLIOGRAFIA

- *Gaztelaniazko gerundio okerrak:*

Edozein estilo-liburutan beti dago gerundioaren gaineko atalen bat. Berezik gomendatzen dugu Maria Moliner-en hiztegiko *gerundio* sarrera: MOLINER, María. *Diccionario de uso del español*. Madrid: Gredos, 1991, 1.393. or.

- *Gerundioa euskaraz:*

ALBERDI, Xabier; SARASOLA, Ibon. *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. Leioa: UPV-EHU, 2001.

ARRASATE, Manu. *Euskarazko Albistegietarako esku-liburua*. Bilbo: EITB, 1992.

Euskaldunon Egunkaria. *Estilo Liburua*. Andoain: Euskaldunon Egunkaria, 2001.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1997. [[www.ivap.org/eusk/argiro/argiro7.htm](http://www.ivap.org/eusk/argiro/argiro7.htm)]

*Aldizkariak:*

ERKIZIA, Joseba. “Gaztelerazko gerundioa eta euskara”, *Administrazioa Euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: Herri Ardularitzaren euskal erakundea, 1986, 1. zenbakia.

GOROSTIZA, Aitor; TELLERIA, Alberto. “Erdal gerundio okerraren eragina euskaraz”, *Administrazioa Euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: Herri Ardularitzaren euskal erakundea, 1996, 12. zenbakia.



## GALDEGAIA ETA HITZ-ORDENA

---

**Nik ikusi ditudan gramatika-liburuetan zorrotz jokaten dute hitz-ordenaren kontuan eta galdegaiaren legeak bete behar direla agintzen dute. Zuen argitalpenetan, ordea, oso malguak zarete: galdegaia ez duzue beti aditzaren aurrean jartzen, mendeko perpausak atzera botatzeko eta aditza aurreratzeko aholkatzen duzue. Ordena horrekin ez al dira gramatika-legeak hausten? Orain arte modu batean idatzi bada, zer dela-eta aldaketa? Ez al da erdararen joskerara makurtzea?**

---

Oso galdera interesgarria egin duzu eta barkatu egin beharko diguzu erantzuna luze samarra bada, ez baita bospasei lerrotan erantzuteko modukoa... baizik eta bospasei orrialdetan!

Aurrena, argitu beharreko zerbait.

Euskarak, beste hizkuntza askok ez bezala, aski librea du hitz-ordena, perpausako osagaien gramatika-funtzioa ez duelako tokiak markatzen, eta funtzio horiei ez dagokielako toki finko aldaezinik. Hau da, lekuz aldatuta ere, subjektua subjektu, aditza aditz, eta objektua objektu dira beti, gramatika-funtzioa ez baita perpausako tokiaren arabera aldatzen<sup>1</sup>.

Esaterako:

Jonek sagarra jan du.

Jonek jan du sagarra.

Sagarra jan du Jonek.

Sagarra Jonek jan du.

Jan du Jonek sagarra.

Jan du sagarra Jonek.

Eta areago: euskalki batzuetan ohi den bezala aditzaren bi osagaiak bereiziz gero, aukera gehiago sortzen dira:

---

1. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruña: Euskaltzaindia, 1985, 356. or.

Jonek du sagarra jan.  
 Jonek du jan sagarra.  
 Sagarra du jan Jonek.  
 Sagarra du Jonek jan.  
 Jonek sagarra du jan.  
 Sagarra Jonek du jan.

Pentsa zer gerta daitekeen perpausak osagai gehiago badu. Adibidez:

Aitak haurrari sagarra eman dio.

Ehun konbinazio baino gehiago sor daitezke, barruko osagaiak konbinatuta, eta denak, zuzenak<sup>2</sup>.

Baina... esanahi bera al dute perpaus horiek guztiek? Hortxe dago gakoa, zeren galderak bi erantzun baititu: ez eta bai. Nolatan? Bada, testuingurua kontuan hartzen dugun ala ez.

Testuinguruari erreparatu gabe, esanahi bera dute: subjektu batek ekintza bat gauzatu du objektu batekin, hartzen dugun ordena hartzen dugula. Baina testuinguruari erreparatzen badiogu, aldiz, osagai bakoitzaren *garrantzia* aldatzen da. Zer dela eta? Itzul gaitzen hasierako perpausetara.

Demagun perpaus bakoitza galdera baten erantzuna dela. Orduan, hiztunak informazio zehatz bat eskatzen digu.

—Zer jan du Jonek?	—Sagarra.
—Nork jan du sagarra?	—Jonek.
—Zer egin du Jonek?	—Sagarra jan.
—Zer gertatu da sagarrarekin?	—Jan (egin) dute.
—Sagarra jan al du Jonek?	—Bai.
—Jonek jan al du sagarra?	—Bai.

...

Ikusten denez, galdera bakoitzean hiztunak zerbait ematen du jakintzat eta zerbait eskatzen. Beraz, erantzutean, osagai batek ematen du galderak

2. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruña: Euskaltzaindia, 1985, 357. or.

eskatzen duen informazioa, eta horri *galdegai* esaten diogu. Jakintzat ematen den informazioari, ostera, *mintzagai*. Aldez aurretik galderarik ez badago, eta informazio guztia berria bada, edota informazio berria osagai multzo bat bada, *iruzkin* esaten zaio horri.

Nola markatu galdegaia? Hortxe dira zinak eta minak.

Oro har esanda, perpauseko tokiaren edo intonazioaren arabera markatzen da, baina esan behar da ez dela berdin jokatu euskalki eta garai guztietan. Hala ere, badira galdegaia eta ordena arautu nahirik legeak eman dituztenak. Azkuek eman zituen lehenengo arauak, Astarloaren ideietatik abiatuta, baina lege ezagunenak Azkueren ikasle Sebero Altubek eman zituen:

■ Esaldiko osagai nagusia, galdetzen digutena, beti aditzaren aurrean jarri:

—Nor etorri da?

—Txomin etorri da.

■ Mendeko perpausetan, nahitaez, aditz nagusia esaldiaren amaieran jarri:

—Lehenago egunean egin genuen azterketan emaitza txarra atera zutelako haserre daudela uste dut.

Lege hauek hedapen zabala izan dute: gogotik errotu dira XX. mendeko prosagintzan eta euskal joskeraren ezaugarri berezkoenak direla ere pentsatu izan da. Auzia hobeto ulertzeko, historian atzera egin beharko dugu.

Gerra aurreko belaunaldian kokatu behar da Altuberen lana. 1890-1936 bitarteko belaunaldi hartan, gorakada izugarria egin zuten euskarazko argitalpenek: euskal aldizkariak sortu ziren, euskalaritzak indarra hartu zuen. Garai hartan ezagutu zuen euskara idatziak, eta euskalaritzak ere, ordura arteko bultzadarik handiena. Baina gehiago idatzi ez ezik, idazteko modu berri bat ezarri ere egin zen, aurreko literatur tradizioan urraturiko ildoak bazter utzirik. Eta eredu horren ezaugarri nagusia garbizaletasuna izan zen<sup>3</sup>.

Zer dela eta jarrera garbizalea?

Normalean, garbizaletasuna Aranarekin eta lexikoarekin lotzen dugu bakarrik. Baina orduko garbizaletasunak adar eta aldezele gehiago izan

3. LAKA, Itziar. "Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra (Hiperbizkaieraren historiaz I)", *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1987. XXI-2 zenbakia, 708. or.

zituen: Azkue bera, Altube, Orkaiztegi... Ez zen hiztegiara soilik mugatu: joskerara ere hedatu zen. Joera berriaren arabera, joskeraren jatortasunak du garrantzi handiena: hitzak hizkuntzaren azaleko gauza dira, hizkuntzaren alderdirik aldakorrena eta azalekoena; joskera, berriz, hizkuntzaren arima bera da. Beraz, euskararen joskera jator garbia zein den azertu beharra dago, eta euskal idazleak bide horietan barna sarrarazi beharra...<sup>4</sup>

Testuinguru horretan sortu zituen Altubek legeak, eta belaunaldi haren itzalari itsatsita hedatu ziren eta adostasun zabala lortu zuten ondorengo prosalarien eta gramatikarien artean, baita Altubek berak jartzen ez zituen mugak ere planteatzeraino. Ez da harritzekoa, beraz, gaur egungo gramatika salduena hartu, eta honako hau nabarmen azpimarratuta irakurtzea:

“Galdegaia, hau da, perpausaren osagairik garrantzitsuen, aditzaren AURREAN jartzen da beti”<sup>5</sup>.

Baina ez pentsa erabateko adostasunik izan denik lege horien gainean, kritikak ere hartu baitzituzten, euskal prosa zurrun eta gozakaitz bat ekarri bide zutelako, ordura arteko literatura eredutik aldentua. Ez edonolako kritikak eta ez edonork egindakoak. Begira Mitxelenak berak zer esan zuen:

“... euskal adimenarentzat ez bada ere –eta ez dakit horrelako entelekia-rik inon aurki ote daitekeen–, hots atseginagoa duela euskal belarriarentzat Axularren prosak Altubek eredutzat hautetsi dizkigun zenbait zatirenak baino”<sup>6</sup>.

Altubek berak onartu egiten zuen legeak ez direla beti betetzen hizkuntzaren benetako praktikan, eta ohikoena dela lege horiek urratzea, batez ere galdegaia luzea eta korapilatsua denean. Hala eta guztiz ere, lege horietara makurtu beharra aholkatzen du.<sup>7</sup>

4. VILLASANTE, Luis. “Hitzaurre gisa”, *Erderismos*. Bilbao: Indautxu editorial, 1975, VII-VIII or.

5. ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 1995, 627. or. Aurrerago ere errepikatzen da *Perpausaren egitura: Hitzen ordena* atalaren amaierako laburpenean (640. or.): “Atal honetan ikusitakoa arau bakar batean laburtu daiteke: euskaraz *galdegaia aditzaren aurrean* jartzen da beti”.

6. MITXELENA, Luis. “Arnaut Oihenart”, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de amigos del país*. Donostia-San Sebastián: Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, IX. zenbakia, 1953, 462. or.

7. ALTUBE, Sebero. *Erderismos*. Bilbao: Indautxu editorial, 1975.

Baina, orduan, zer lege-mota dira horiek, errealitatearen azterketatik atera ez badira? Berriro ere, Mitxelena mintzo:

“Zerbait esan daiteke horratik: bi gauza, berezirik egon behar luketenak, elkarrekin nahasten dituela, **dena eta behar litzakeena**. [...] Labur esateko, **Altube jaunak finkatutako legeak, euskarak gorde behar litzuzkeanak izango dira agian, baina ez euskarak gorde edo gordetzen dituenak**”<sup>8</sup>.

Mitxelenak esaten zuenez, estatistikak bakarrik erakutsi lezake zein diren literatur hizkuntzaren benetako legeak, eta erabat ziur zegoen estatistikak argi eta garbi agertuko lukeela lege horiek ez direla Altubek aldarrikatutakoak bezalakoak.

Gaur egun, azterketa ugari egin dira bide horretatik, eta horietako batek, V. Hídalgo egindakoak, agerian jarri du Mitxelenak aurreikusten zuen tradizioaren eta XX. mendeko joskeraren arteko alde nabarmena:

	Idazle klasikoak	Gaurko prosa estandarra
Aditzaren leku ohikoena esaldian	Aurrealdea (%72)	Atzealdea (%81,8)
Aditzarekin hasitako esaldiak	%18,1	%1,4
Aditzarekin amaitutako esaldiak	%18,6	%39,2

“Gure estatistikako esaldi idatzi zein ahozko posible guztien artean, galdegaiaren legea ez litzateke beteko hirutik batean baino. Eta mendeko perpausetako legeak, berriz, huts egingo luke aditz jokatuako esaldien erdian baino gehiagotan behintzat”<sup>9</sup>.

Hídalgo hipotesi gordina ateratzen du azterketa horretatik: euskaraz ez da inoiz, ez idatzi, ez hitz egin, gaur egun idazten den hitz orden moldean. Alta, Hídalgoen ustez, hipotesi hori egiazkoa ez bada, garbizaleek uste zuten hipotesia onartu beharko genuke: denok erabat erdaldunduta gaude, euskarazko literaturaren sorreratik honako lekukotasun guztiak barne. Izan ere, horixe uste zutelako saiatu ziren euskara “ideal” bat eraikitzen.

8. MITXELENA Luis. *Ibidem* 460. or.

9. HÍDALGO, Victor. “Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari-1”, *Fontes Linguae Vasconum*. 1996, 71. zenbakia. 24. or.

Baina hipotesi hori frogaezina da: euskararen testigantzak ere susmagarriztat jo eta baliogabetzen badira, ametsezko joskera ideal batean oinarritu behar gara. Eta Villasantek dioenez:

“Euskera idealaren eta euskera historikoaren artean tirabira egotea, normala da: baina tirabira honetan behar litzatekeenari zor den baino gehiago ematen bazaio, euskera reala bera, esistitzen den bakarra, kaltiar ateratzen da”<sup>10</sup>.

Ez dira gutxi ondorio horretara heldu direnak. Izan ere, gaur egun, asko dira testu astunak, ulergaitzak, birritan irakurri behar direnak, hain zuzen ere, klasikoen ereduari barik, Altuberen legeei estuegi eta itsumustuka atxikita idatzi direlako, batzuetan Altube bera baino harantzago joanda ere. Eta horrek areagotu egin du euskal prosak duen arazo bat: *atzerakarga*<sup>11</sup>.

## BIBLIOGRAFIA

ALTUBE, Sebero. *Erderismos*. Bilbao: Indautxu editorial, 1975.

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruña: Euskaltzaindia, 1985.

HIDALGO, Victor. “Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari-1”, *Fontes Linguae Vasconum*. 1996, 71. zenbakia.

HIDALGO, Victor. “Euskal joskeraren mito kaltegarriak-I”, *Hizpide*. Donostia: HABE, 1996, 35. zenbakia.

IRIGOYEN, Alfonso. “Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak”, *Euskera*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1980, XXV-2 zenbakia.

LAKA, Itziar. “Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra (Hiperbizkaieraren historiaz I)”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1987. XXI-2 zenbakia.

MITXELENA, Luis. “Arnaut Oihenart”, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de amigos del país*. Donostia-San Sebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, IX. zenbakia, 1953.

<sup>10</sup>. VILLASANTE, Luis. *Ibidem*.

<sup>11</sup>. Ikusi *Atzerakarga*, 217. or.

VILLASANTE, Luis. “Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de la sintaxis vasca”, *Euskera*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1956, I. zenbakia.

VILLASANTE, Luis. “Hitzaurre gisa”, *Erderismos*. Bilbao: Indautxu editorial, 1975.

ZALBIDE, Mikel. *Euskarari buruzko burubideak XX. mendean* (mahai ingurua)  
<http://www.sabinoarana.org/castellano/seminarios/eskualtzaleen/zalbide.html>

ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 1995.

## ATZERAKARGA

---

### Zuen argitalpenetan barra-barra erabiltzen duzue *atzerakarga* hitza. Zer da? Zuek asmatutako zerbait?

---

Aurrena, *bakoitzari berea da legea*. Barra-barra erabili arren, ez dugu guk asmatu. Joxe Ramon Zubimendi eta Pello Esnalen *Idazkera-liburua* argitalpenetik jaso genuen eta horiei zor diegu zorioneko terminoa<sup>1</sup>.

Zer den? Begira, euskarak joera nabarmena du mezuaren gakoa atzean eramateko, atzizkidun hizkuntza delako eta aditza esaldiaren amaieran jartzeko joera duelako<sup>2</sup>. Ahozkoan eta esaldi laburrak idaztean ez da ia oztoporik izaten, baina esaldi luzeak idaztean, perpaus konplexuagoak egin behar izaten direnez, arazo larriak sortzen dira, esaldia birritan (edo gehiagotan) irakurri behar baita, ulertuko bada.

Erreparatu esaldi honi:

1996ko irailaren 12an emandako 30/96 Dekretuaren bitartez, udal ondasun higiezinak den "Hiltegia eta bere frankiziak" deitutako udal ondasun higiezinak saltzeko beharrezkoa den espediente administratiiboari hasiera ematea **erabaki** zuen Alkateak.

Begibistan denez, esaldia bukatu arte ezin jakin jasotzen ari garen informazio guztia nola prozesatu, amaieran bertan baitaude subjektua eta aditz nagusia. Nolabait esanda, burua zamatzen ari gara, informazio-osagarri askorekin, eta ezin burua libratu, mezua ulertzeko behar ditugun subjektua eta aditz nagusia aurkitu arte.

Izan ere, subjektua eta aditz nagusia dira informazioaren zutabe nagusiak, eta horiek gabe kolokan dago eraiki nahi dugun mezuaren argitasuna. Iparrorrazarena egiten dute elementu horiek testuan, lagundu egiten baitigute mezuaren norabidea topatzen, eta amaierarako uzten baditugu, nora ezean ibiliko gara, informazio osagarriarekin zer egin ez dakigula.

---

1. ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello. *Idazkera-liburua*. Zarautz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1993, 172-173. or.

2. Ikusi *Galdegaia eta hitz-ordena*, 210. or.



Gaur egungo hainbat testu irakurrita, badirudi kondenatuta gaudela horrela idaztera, eta larriagoa dena, horrela irakurtzera. Baina ez. Hainbat bide daude arazoari aurre egiteko, gure literatur tradizioan erruz jorratu direnak. Administrazioko testu zaharretan ere aurki daitezke, eta horren erakusgarri dira Imanol Trebiñoren *Administrazio zibileko testu historikoak* liburutik jaso ditugun adibideak<sup>3</sup>.

Hona hemen hainbat aholku atzerakargaren zama arintzeko:

### ▮ Esaldi luzeegiak moztu

\*Ekainaren 27ko 328/1995 Dekretuaren bidez Lanbidezko Prestakuntzarako Babespeko Ikastegiak eta horiek langai teknikoez hornitzeko laguntzak arautzen dira, eta bere 12. atalean ezartzen denez, onartutako prestakuntza ekintzak eta Autonomi Elkarteetan teknologi aldetik aurreratutako prestakuntza eskaini ahal izateko, espezialitate jakin batzuetan teknikoki hornitutako prestakuntza ikastegiak edukitzea helburu dutenak burutu ahal izateko beharrezko diren langai teknikoak erosteko gastuen %100 arteko dirulaguntza emango duela fondo galduan.

Zortzi lerroko esaldi mardul honek barruan azpiesaldi askotxo ditu. Sekulako oroimena behar da esaldia bukatu arte datu guztiak buruan gordetzeko, eta mendeko perpaus ugari egotea ere ez da batere lagungarria.

Ekainaren 27ko 328/1995 Dekretuaren bidez, bi arlo hauek arautzen dira besteak beste: bata, Lanbidezko Prestakuntzarako Babespeko Ikastegiak eta, bestea, ikastegiok langai teknikoez hornitzeko laguntzak[•] Dekretu horren 12. atalean ezartzen denez, Jaurlaritzak %100erainoko dirulaguntza emango du, itzuli beharrik gabe, tresneria teknikoa erosteko[•] Laguntza horiek emango dira baldin eta tresneria hori beharrezkoa bada onartutako prestakuntza ekintzak egiteko, eta ekintzon helburua bada Autonomia Erkidegoan prestakuntza ikastegi espezialduak izatea eta horietan teknologia aurreratuko prestakuntza eskaintzea.

Ikusten denez, lehengo esaldi luze eta ilunaren ordez hiru esaldi argiagoak ditugu moldaketan. Etenak egin daitezke irakurri ahala, eta pasarte laburragoak direnez, arinago ulertzen da informazioa.

---

3. TREBIÑO, Imanol. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Gasteiz: HAEE-IVAP, 2001, 376. or.

Hurrengo testua luze bezain interesgarria da. Erreparatu erdarazko esaldien luzerari. Horren ondorioz, izugarri korapilatzen da testua, mendeko perpausez josita baitago. Horrek, ezbairik gabe, ilundu egiten du testua eta irakurketa moteldu. Azken pasartean, estilo nominala erabiltzen da.

Begira nola eman zuen Gipuzkoako Komisio Probintzialak 1918ko zirkular hau erdaraz:

La Comisión provincial de Guipúzcoa, atendiendo a la gran escasez de combustible que se observa en la Provincia, tanto más lamentable cuanto que no es escasa la producción de carbón vegetal de sus montes, que con detrimento del normal consumo de la Provincia, sirve para satisfacer necesidades de otras regiones o comarcas, y muy en especial al hecho de que en los mismos montes comunales de Guipúzcoa se extraen anualmente grandes partidas de este material, ha adoptado la norma de prohibir que los pueblos que tengan montes comunales saquen a subasta material de los mismos, si de antemano no tienen provistas las necesidades perentorias de sus hogares.

Esaldi *ederra*, benetan: luze-luzea eta mendeko perpausez betea. Orain, ordea, erreparatu euskarazko bertsioari. Erdarazko esaldi erraldoiak zatitu egin dira: erdaraz esaldi bat, euskaraz lau; ondorioz, nabarmen argitu da testua. Erritmo biziagoa du eta klausulen arteko lotura logikoak argiagoak dira.

Gipuzkoa'n, beste toki geienetan ez ezik, bear aña egur ta ikatzik ez daukagu[•] Baña emen bear ainbat ikatz ta egur ez izatea, gure mendiak soil egotetik ez dator, Gipuzkoa'ko erri-baso ta erri-basoak ez diranetan guretzako naiko ikatz ta egur badaukagu-ta[•]

Emen egiten dan ikatza, ordea, Gipuzkoa'n bertan sua egiteko gorde bearean, beste tokietara bidaltzen dute, ta emen, bear degun ain gabe gelditzen gera[•] Kalte au galerazteko, erri bakoitzean bear dena osatu arte, erri-basoetako egurra ta ikatza saltzea debekatu du Gipuzkoa'ko Diputazioak[•] (Trebño. *Testu historikoak*, 699. or.).

## ► Mendeko perpausen orde, juntatuak erabili

Oso ohituta gaude, administrazioko erdaran, esan beharreko guztia –edo ahalik eta gehiena– esaldi luze-luze batean jartzera. Esaldi horietan, gainera, hasieran kokatzen dira mendeko perpaus guztiak, nahiz bigarren mailako informazioa baino ez izan; informazio nagusia, aldiz, bukaeran kokatzen da.

Hurrengo testua Bizkaiko Diputazioan eginda dago, eta 1917-1918 bitarteko zirkular batetik hartu dugu. Begi-bistan da aurreko lerrokadan aipatu dugun arazoa: esaldi bakarra eta luzea, mendeko perpausak aurrean, perpaus nagusia azkenean:

Con objeto de realizar un estudio acerca de la materia de contratación municipal en esta provincia y proceder, si fuere posible, á una reglamentación general, siquiera en cuanto á las bases de la misma, ruego á V. tenga á bien remitir un ejemplar ó copia de las condiciones generales y económicas de que ese Ayuntamiento se vale en la contratación municipal.

Baina erreparatu nola eman zuten, garai hartan, euskarazko bertsioa. Esaldi bakarra egin zuten, bai, baina esaldiaren hasierako mendeko perpausa perpaus juntatua bihurtuenez, izugarri arindu da atzerakarga, bi informazio-unitate autonomo sortuta:

Jakin eta aztertu gura da Bizkaiko erriajak zein eratan lotzen dabean euren egijuniak, gustijentzako araukuntza bat atonduteko al dala, gauza urtenetan edo nagosijetan beintzat, **eta orregatik eskatzen yatzu bidaldu dagixula** ona Udal orrek bere egijunetan ipiñi oi dauzan baldintza orokar ta dirutarren barri. (Trebño. *Testu historikoak*, 659. or.).

### ► **Subjektua eta aditza elkarrengana hurbildu**

\*Jaurlaritzaren ordezkariak, berriz, HPS Kirol Zuzendaritzak urtero egiten dituen deialdietan hizkuntza irizpidea txertatzeko proposamena aztertzen eta lantzen ari dela **adierazi du**.

Agerienez, subjektua lehen hitzetan dago eta aditza, aldiz, amaieran. Esaldia bukatu arte ez dakigu ordezkariak zer egin duen: adierazi, aldarrikatu, ukatu, ezetsi, gogoratu ala ahaztu. Hurrengo moldaketan, ordea, elkarrengana hurbildu ditugu eta argiago uzten da bien arteko harremana zein den:

Jaurlaritzaren ordezkariak, berriz, **adierazi du** HPS aztertzen eta lantzen ari dela Kirol Zuzendaritzak urtero egiten dituen deialdietan hizkuntza irizpidea txertatzeko proposamena.

### ► **Galdegai denean, aditza aurreratu**

\*Hizkuntza normalkuntzako goi-mailako teknikarien kidegoaren oposizioaldiko emaitzen behin betiko zerrendak **argitaratu egin dira**.

Perpausan, argitaratzeko ekintza bera nahi da azpimarratu. Horregatik, inori ez dio batere minik ematen esaldia aditzarekin hasteak, ezta Altuberen legeen zaleenari ere. Gainera, moztu egin dugu aditzaren aurreko klausula, osagai guztiak elkarri lotuta zeudela-eta hitz kate luzeegia zelako, esanahiaz arin jabetzeko behintzat:

Argitaratu egin dira oposizioaldiko emaitzen behin betiko zerrendak, hizkuntza normalkuntzako goi-mailako teknikarien kidegoari dagozkionak.

Erreparatu hurrengo testuari. Usurbilgo 1888ko Udal Ordenantzetatik ekarri dugu. Ohi den moduan, esaldikote eder batean eman nahi da, erdaraz, informazio guztia:

Atento este Ayuntamiento á que se conserve inalterable el orden y la moralidad que en este vecindario ha reinado, y deseando armonizar los intereses particulares con el bien público, estrechando con el mutuo respeto los vínculos de solidaridad con que deben estar ligados todos los miembros de un pueblo para defensa de sus intereses; y persuadido de que la ejecución de estas disposiciones ha de redundar en provecho de la salud pública y seguridad y defensa de las personas y propiedades, precaviéndolas de todos los peligros que puedan alterar los fecundos beneficios de su tranquila posesión, recomienda por estas razones á todos, el más puntual y exacto cumplimiento de aquellas, confiando en que no se verá en la sensible necesidad de hacer uso de las facultades que le concede el artículo 77 de la ley municipal.

Orain erreparatu euskarazko bertsioari. Ohartu nola aurreratzen den aditza. Benetan bide egokia erabili dute euskarazko bertsioan erdarazko gerundio eta partizipioei itzuri egiteko. Erdaraz esaldi bakarra dago, mendeko perpausaz josia, eta bukatu arte ez da esaldi nagusia aurkitzen: *recomienda...* Euskaraz ordea, periodoak laburragoak dira eta puntuazio-eten gogorragoak egin dira: erdarazko testuak duen monotonia hautsi egiten da eta pasarte bakoitzak autonomia handiagoa dauka:

**Nai luke** Aiuntamentu onek oraindano bezela segi dezatela erri ontan oitura onak; **nai luke** bakoitzaren interesari kalterik ez egin ta erriko guzianai mesede: **nai luke** denak, batzuek besteentzat izan dezatela erri bateko jendeen artean izan bear duen errespetoa ta onginaia; bateratu ditezen erri onen interesak eskudatzeko; ta **uste du** agindu oek kunplitzea guztientzat ongi etorriko dala, beren osasuna ta segurantza, eta personen eta ondasunen zaitzerako ta libratuko dituela elkarren

arteko pakeak dakazkien ondasun ugariak galtzeko perilletatik. **Argatik erregutzen die** erriko guztiai egin dezatela al-duten guztia agindu oek ongi kunplitzeko, ta espero du ez duela premiarik izango Errietzako Legeak bere 77-garren agintean esaten duen eskubidea arturik, nor-bait kastigatzeko. (Trebiño. *Testu historikoak*, 573. or.).

Ipuin zaharretan, sarri ikusten da aditza aurreratzeko joera hori. Begira zer zioen Mokoroak, Altuberen legeak zabalduz:

“Ba dakizu noski Altube-k eta, oso tajuz artu zizkatela bere itxura batzuk euskerari, eta jatortzat dauzkala edozeñek aek azaldutako legeak... Ez al da ordea beste legerik? ¿Lege estu orietan sartu bear al da euskeraren joan-etorri guztia? ¿Ez al du gure izkuntzak nun-ibillirik, muga orietarik landara?... Ni nerez baietzean nago... Ba dala beste legerik ere. Nik esango nuke berezko ‘iraña’ gal-azten diola askotan itzaren iturriari, dalako gramatika estuegi orrek; eta ibilpidea lotzen edo trabatzen izlari naiz idazle nor-danari... Izan bear dula beraz euskaldunarentzat hainbeste estuasun eta kezka-gabe ibiltzen utziko dion igespideren bat bederen!”

“(...) ¿Zure ta nere adiñeko euskaldunik ba ote da, suondoan onako onen antzera ipui zarren bat kontatzen aditu eztunik?... ‘Beñ bizi omen ziran aita ta ama ta Katalin da Benardo... eta biak juten omen ziran eskolara... eta egun batean amak esan omen zioten... eta Katalinek ikusi omen zituen pertzean Beñardoren atzaparrak gal-gal gal-gal irakitzen zeoztela... etc.’ Zuk eta nik, eta beste edozeñek irakurri ditzake olakoxe ipuiak, erri-erriari jalki zaizkan bezelaxe jasorik edozein folk-lore liburutan. Esango nuke eundaka urtetan orrelaxe esan izan dirala ipui oiek gure sukaldeetan. Zuk ez? Gure basarrietako laratzak izketan baleki!”

“(...) Esan-postura guzi oetan ba dirudi bere buruari naiz entzuleen azpitikako galde txikiak egiñaziz ari dala itz-egillea: ‘*Beñ bizi omen ziran... (Nortzuk?) — Biak juten omen ziran... (Nora?)*<sup>4</sup>”.

### ► Aditzaren aurrean *galdegai faltsuak* jarri

Galdegaiaren klausula potoloa bada, luze eta astuna egiten da perpausa aditz nagusia aurkitu arte. Erraz konpon daiteke hori galdegai ordezkatzen duen osagai laburrago bat jarrita: hortik datozkio *galdegai faltsu* edo

4. J. M. Mokoroaren gutuna Basarriari: IRIGOYEN, Alfonso. “Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak”, *Euskera*. Bilbao: Euskaltzaindia, XXV-2 zenbakia, 1980, 341.-342. or.

*galdegaiorde* izenak. Nahiz eta benetako galdegaia ez den, lasai asko koka daiteke aditzaren aurrean eta, horrela, esaldiko klausula luzeena atzera bidalita, biziki arintzen da esaldia. Adizlagun askok aise betetzen dute zeregin hori: *laster, beti, ongi, sarri, maiz, orduan, azkar, asko, hobe, askotan, inoiz...*

\*Jaun/Andre hori: Deialdia Aldizkari Ofizialean argitara dadin beharrezkoak diren agiriak bidaltzen dizkizut honen bidez.

Jaun/Andre hori: **Honen bidez** bidaltzen dizkizut behar diren agiri guztiak, deialdia Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Barra-barra erabiltzen da modu hori administrazioko gutunetan, eta auke-  
ra paregabea da aditza esaldiaren amaieratik ateratzeko. Badira bide bera ematen duten hainbat hitz; esaterako, *honenbestez*:

\*Honenbestez, Zuzendaritza horrek egindako proposamena aipatutako xedapenekin bat datorrela adierazten dizut.

**Honenbestez adierazten dizut** Zuzendaritza horrek egindako proposamena bat datorrela aipatutako xedapenekin.

Literatur tradizioan baditugu adibide asko:

**Sarri** dakie gurasoak etxeko seme-alaben zorigaiztoa egiten. (D. Agirre. *Kresala*, 1901-1905).

Beinic bein **ondo** daquigu, gorputzeko gach bacoachac dituan leguez bere medicina osagarriac, alan Arimeco gachac bere dituezala euren senda-garri berezcoac. (Añibarro. *Lora Sorta Espirituala*, 1803).

**Alako batean** sentitu zuen Jenobebak gauerdialdean bere presondegiko sayetara-zuloan kiskatako bat. (G. Arrue. *Santa Genovevaren vicitza*, 1868).

Eta administrazioan ere badira. Begira nola itzuli zuten 1918ko Basoen gaineko legearen pasarte hau:

Art. 6.º La Guardia civil y el Cuerpo de Guardería forestal vigilarán los aprovechamientos de productos forestales que se verifiquen dentro de sus respectivas demarcaciones, confrontando su entidad con las autorizaciones y guías de transporte que expidan las Jefaturas de los distritos, y dando cuenta por escrito á la Junta de conservación y fomento de la riqueza forestal privada de los resultados de sus investigaciones y denuncias, con remisión del atestado correspondiente.

Esaldi luze-luzea da eta galdegaia ere ez da laburra. **Galdegai faltsu** baten bidez aurreratu da aditza, eta erlatibozko perpaua zehar galdera baten bidez emanda arindu egiten da atzerakarga:

6'n Atalgija. Gorda-zibilak eta Baso-zañak **ardurea eukiko dabe euren erki barruan zelan egiten diran** zugatz-eraztiak eta zur ta egur ataratiak, ikusirik onetarako ia egizkuak diran eta ondo dagozan erkiko baso-Agintaritzak baso-jabiei emondako baimen-agirijak, eta eruate-agirijak, eta idatziz jakitun ipiñirik eurek egiten dabezan arakatze ta salakixun gustijekaz Basoen euste ta gearazte Batza, berari ingitza bialdurik. (Trebiño. *Testu historikoak*, 672. or.).

Aipagarria da *ardurea euki* hori. Ez dira gutxi, ez, esaldi hasierara joan ohi diren horrelako formulak: *egia da, bistan da, kontua da, litekeena da, argi dago, garbi dago, damu dut, zaila da, aukera izan, hobe da...*

## ► Definizioetan eta zerrenda luzeetan, laburrena aurrera<sup>5</sup>

\*Bertan adierazten dena egia dela ziurtatzen duen agiria da **egiaztagiria**.

Ikusten denez, bukatu arte ez dakigu zer ari garen definitzen. Hobe definitutakoa aurrean jarri eta definizioa atzera pasatzea:

**Egiaztagiria** da agiri bat, bertan adierazten dena egia dela ziurtatzen duena.

edo

**Egiaztagiria** da agiri bat, ziurtatzen duena bertan adierazten dena egia dela.

Zerrenda luzeak datozenean atzera bidal daitezke osagaiak, galdegai izan arren:

\*Juan Mari Errotazelai, Susana Portuondo, Eduardo Menendez, Iñaki Sagastagoitia eta Ramon Lopez izango dira **irakasleak**.

**Irakasle** izango dira Juan Mari Errotazelai, Susana Portuondo, Eduardo Menendez, Iñaki Sagastagoitia eta Ramon Lopez.

edo

<sup>5</sup>. Ikusi *Definizioak*, 172. or.

**Irakasleak** Juan Mari Errotazelai, Susana Portuondo, Eduardo Menendez, Iñaki Sagastagoitia eta Ramon Lopez izango dira.

### ► **Kataforak erabili: *honako hauek, ondorengoak, hauek...***

Kataforak ondoren zerbait datorrela iragartzen duten hitzak dira: *honako hauek, ondorengoak, hauek...* Laguntza ederra ematen digute zerrenda luzeak ematean:

\***Epaimahaikideak** alkatea, idazkaria, arloko zinegotzia, arloko teknikaria, langileen ordezkaria eta HAEEko ordezkaria **izango dira**.

Epaimahaikideak **honako hauek** izango dira: alkatea, idazkaria, arloko zinegotzia, arloko teknikaria, langileen ordezkaria eta HAEEko ordezkaria.

### ► **Aditz deklaratiiboak aurrera pasa**

Aditz batzuek *esatezko aditz* edo *aditz deklaratiibo* izena hartzen dute, esanahian komunikatzea edo erabakitzea hartzen dutelako: *esan, adierazi, ukatu, aldarrikatu, iragarri, erabaki, agindu*, etab. Modu horretako aditzak erraz asko eraman daitezke esaldiaren hasierara:

\*1997ko maiatzaren 6an bidali zenidan eskabideari dagokionez, eskatu nizkizun datuak euskararen erabilera normalizatzeko plana martxan jartzeko zirela esan behar dizut.

1997ko maiatzaren 6an bidali zenidan eskabideari dagokionez, **esan behar dizut** eskatu nizkizun datuak euskararen erabilera normalizatzeko plana martxan jartzeko zirela.

**Hurrengo adibideak 1875 inguruko Tolosako Ordenantzetatik hartu ditugu:**

Bigarren ordenantzac **aguintzen du** electoreac edo elegitzalleac ez dutela apaizaquin itzeguin bear eleccioa egun arteraño 3000 maravidi penaren azpian. (Trebiño. *Testu historikoak*, 508. or.).

Eta gañera **esaten du** urte betean Alcate izan dana izan ditequeala urte biren barrumbian Erregidore eta Erregidorea Alcate eta **acabatzten du esanaz eman dezala** Secretarioac joan dan urtean Ayuntamientoco izan diraden icenac erratu ez dezaten cargu oyetaraco autu biar diraden nombramentua eguiten. (Trebiño. *Testu historikoak*, 509. or.).



Baina esatezko aditzekin bakarrik ez: badirudi gomendio hau perpaus osagarri guztietara heda daitekeela, Euskaltzaindiak EGLU-V liburuan esandakoari jarraiki:

“Dena dela, esan behar da ezkerrean bezala eskuinean ere koka daitezkeela euskarari perpaus osagarriak. Eta ez dirudi, gainera, horrek izen sin-tagmen kasuan bezalako inplikazioak dituenik [hots: osagai bat markatuagoa izatea]. Ezin da besterik gabe esan, konparazio batera, hurrengo [B] perpausak [A] perpausak baino ordena markatuagoa duenik:

A.- *Tren hau Orion gelditzen dela* entzun dut.

B.- Entzun dut *tren hau Orion gelditzen dela*.

Beharbada zenbaiten ustez [A] dotoreagoa da [B] baino. Baina, usteak uste, **azken hau izaten da askotan hobesten den ordena**, inplikazio bereizirik gabe<sup>6</sup>.”

Areago: Euskaltzaindiaren ustez, zenbat eta konplexuagoa izan perpausa, hainbat eta handiagoa da joera. Hurrengo aukera guztiak dira zuzenak, baina arruntena, bigarrena, perpaus osagarria amaieran kokatzen duena<sup>7</sup>:

*Tren hau Orion gelditzen dela* esan didate gizon horiek.

Gizon horiek esan didate *tren hau Orion gelditzen dela*.

Gizon horiek *tren hau Orion gelditzen dela* esan didate.

Badirudi, ostera ere, gramatika batzuek ez dutela hori gogoko, eta aditza bukaeran kokatzea jatorragotzat jotzen dute euskara idatzirako; ahozkoan egiten den salbuespentzat hartzen dute aditz nagusia aurrean jartzea. Baina ez hori bakarrik: ahozko ordenamendu hori aldatzeko proposatzen dute eta idatzizko ordenamendura hurbildu behar dela aholkatu ere egiten dute<sup>8</sup>.

6. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999, 39. or.

7. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999, 40. or.

8. ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 1995, 640. or.: “Nolanahi ere, salbuespenak salbuespen, komenigarria da aurreko ataletan emandako arauak betetzea, baita euskara mintzatuan ere. (...) Atal honetan ikusitakoa arau bakar batean laburtu daiteke: euskaraz **galdegaia aditzaren aurrean** jartzen da beti”. Ikusi *Galdegaia eta hitz-ordena*, 210. or.

Hala ere, aspaldi esanda zuten Euskaltzaindiak kontrakoa, *EGLU-1* eta *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*<sup>9</sup> liburuetan; baina, antza, ez bide dira konturatu:

“Esan dezagun galdegaiaren nolakotasunak ere garrantzi handia duela. Esaldi menperatu luze eta korapilatsu batek osatzen duenean, adibidez, aditzaren eskuinaldean emateko joera dugu:

Tomasek *baietz* esan zidan.

Tomasek esan zidan, *berak erakutsi zidan bidetik joatekotan, zuk iaz prestatu zenion auto hura hartu beharko nuela.*”

### ► Baiezko perpausak ezezko bihurtu

Dakigunez, perpausaren amaieran joan ohi dira menderagailuak, hots, mendeko perpausen markak:

\*Ezin izan da ezer egin bileran, epaimahaia osatzeko behar den baino kide gutxiago bertaratu **baitira**.

Baina menderagailu asko, perpausa ezezkoan jarrita, aurrera pasatzen dira:

Ezin izan da ezer egin bileran, **ez baita** epaimahaia osatzeko behar den beste kide bertaratu.

### ► Kontuz ibili ezezkoetan: ez *ogitarteko* luzeegirik egin

Jatortzat edo jotzen dira ezezkoetako *ogitartekoak*. Horregatik, gehiegi-kerian erortzen gara maiz:

\***Ez dute** azterketa teorikoa gainditu zuten hautagaien erdiek azterketa praktikoa **gainditu**.

Azterketa teorikoa gainditu zuten hautagaien erdiek **ez dute** azterketa praktikoa **gainditu**.

Azterketa praktikoa **ez dute gainditu** azterketa teorikoa gainditu zuten hautagaien erdiek.

Azterketa teorikoa gainditu zuten hautagaien erdiek **ez dute gainditu** azterketa praktikoa.

9. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruña: Euskaltzaindia, 1985, 368. or. Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1993, 28. or.

**BIBLIOGRAFIA**

- Euskaldunon Egunkaria. *Estilo Liburua*. Andoain: Euskaldunon Egunkaria, 2001.
- Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1993.
- Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruña: Euskaltzaindia, 1985.
- Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999.
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1997.
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. *Hizkera argiaren bidetik*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1994.
- HIDALGO, Victor. “Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari-1”, *Fontes Linguae Vasconum*. 1996, 71. zenbakia.
- HIDALGO, Victor. “Euskal joskeraren mito kaltegarriak-I”, *Hizpide*. Donostia: HABE, 1996, 35. zenbakia.
- IRIGOYEN, Alfonso. “Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak”, *Euskera*. Bilbo: Euskaltzaindia, XXV-2 zenbakia, 1980.
- LOZANO, Joseba. “Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean”, *Eleria*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1996, 1. zenbakia.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello. *Idazkera-liburua*. Zarautz: Eusko Jaurlearitzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1993.
- ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 1995.

**ADIBIDEEN ITURRIAK**

- TREBIÑO, Imanol. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: HAEE-IVAP, 2001.
- Tolosako Ordenantzak (1875), 508.-509. or.
  - Usurbilgo Ordenantzak (1888), 573. or.
  - Bizkaiko Diputazioaren zirkularrak (1917-1918), 659. or.

- Gipuzkoako Komisio Probintzialak zabalduko zirkularrak (1918), 699. or.
- Espainiako Legea basoen gainean, Bizkaiko Diputazioak euskaratua (1918), 672. or.

## ALFERRIKAKO ERLATIBOAK

**Itzultzailea ez naizen arren, askotan egokitzen zait administrazioiko hainbat testu euskaratzea. Normalean, erdarazko testua egiten dugu aurrena eta arazorik ez; baina euskarazkoa egitean sekulako arazoak sortzen zaizkit, batez ere erlatibozko esaldi kilometrikoak ateratzen zaizkidalako. Zer egin dezaket?**

Zoritxarrez, administrazioan oso hedatuta dago gaitz hori, euskara eta euskarazko testua erdararen eta erdarazko testuaren morroi izaten baitira. Aurrena, erdarazko testua egin ohi da, tamalez; jakina, horrela jokatuta erdararen baliabide eta beharren arabera egokitzen da informazioa emateko bidea. Ostera ere, euskarazko testua ondoren egin behar badugu, hamaika katramila pairatu behar ditugu, erdarazko bertsioak askotan erabat lotzen baikaitu.

Gure ustez, hainbat egokitzapen egin behar dira, bi testuek mezua behar bezala komunikatzea lortu nahi baldin badugu, behintzat. Bestela, euskarazko testua ondoko zutabea apaintzeko baino ez da egingo... eta askotan, horretarako ere ez.

Jakina da zeinen zaila den gaztelaniazko erlatibozko perpaus luzeak euskaraz ematea. Baina hori ez da gutxitasun bat, ezta elbarritasun-marka ere; bestelakotasun-ezaugarria baino ez da. Euskarak baditu bide egokiak eta nahikoak edozein informazio taxuz emateko, hizkuntza makurtzen eta okertzen ez badugu. Eta hori egia da euskarari eta erdarari, edozein erdaratan gainera.

Araoa, gurean, larria izaten da, erdarak oso gustuko, berezko eta funtzionala duelako erlatiboa: esaldiak gehiegi korapilatu gabe harilkatzen dira mezua osatzen duten ekintzak eta sekuentziak:

La chica	que vive	en el caserio	que tiene	una puerta roja	hecha de hierro.
1	2	3	4	5	6

Erdarazko egiturari orpoz orpo jarraitzen badiogu, hau ateratzen da:

Burdinaz egindako	ate gorria	duen	baserrian	bizi den	neska
6	5	4	3	2	1

Ikusten denez, arazo franko sor ditzake erlatibo demonio honek, erdarazko erlatiboa euskarazko erlatiboarekin emanaz gero, atzerakarga<sup>1</sup> itzelak sortzen baitira. Baina erlatiboa –hainbat lotura sintaktikoren antzera– ideia batzuen arteko harremanak esaldi batean antolatzeko modu bat baino ez da. Eta kontuan hartu behar da badugula euskaraz bestelako egitura erosoagoak erabiltzea erlatiboaren ordeztuz.

Oso artikulua interesgarria idatzi zuen Koldo Biguri itzultzaileak horretaz jabe gintezen<sup>2</sup>. Erreparatu hurrengo adibideei eta ikusiko duzu zenbat aukera dauden erlatiboak ordezkatzeko: esaldi soilak, izenlagunak, justaposizioa, juntadura, bestelako mendeko perpausak...

### ► Esaldi soila

Esa es la normativa **que** regula esta situación.

\*Hori da egoera hau arautzen duen araudia.

Araudi horre(xe)k arautzen du egoera hau.

### ► Izenlagunak

Las entidades **que** integran la administración local...

\*Toki-administrazioa osatzen duten erakundeak

Toki-administrazioko erakundeak...

### ► Justaposizioa

De cada sesión **que** celebre el órgano colegiado se levantará acta por el Secretario, **que** especificará necesariamente los asistentes...

1. Ikusi *Atzerakarga*, 217. or.

2. BIGURI, Koldo. "Erdarazko erlatiboen itzulpena", *Senex*. Donostia: EIZIE, 1994, 15. zenbakia.

\*Bertaratutakoak zein diren jasoko duen akta bat egingo du idazkariak kide anitzeko organoak egiten dituen bilkura guztietan

Kide anitzeko organoaren bilkura guztietako akta egingo du idazkariak.

**Akta horretan**, nahitaez, honako hauek jaso behar dira: bertaratutakoak...

## ▮ Juntadura

Los ciudadanos... / ... tienen los siguientes derechos:

... / ... A ser tratados con respeto y deferencia por las autoridades y funcionarios, **que** habrán de facilitar el ejercicio de sus derechos y el cumplimiento de sus obligaciones.

\* Herritarrek ondoko eskubideak dituzte:

... / ... Eskubideez baliatzeko eta eginbeharrak betetzeko laguntza emango dieten agintariek eta funtzionarioek errespetua eta begirunea erakutsi behar diete.

Herritarrek eskubide hauek dituzte:

... / ... Errespetua eta begirunea erakutsi behar diete agintariek eta funtzionarioek, **eta** laguntza eman, eskubideez baliatzeko eta eginbeharrak betetzeko.

## ▮ Bestelako perpaus menderatuak

Hurrengo esaldia erlatiboz josita dago eta beste modu batean eman daiteke, kontzesiboa erabilita, esaterako:

\*Ikastaro osoan zehar egiten diren ebaluaketa proba guztiak gainditu dituzten eta azken azterketa egiteko teknika ezagutzen duten ikasle batzuek ez dute, azkenean, eman behar duten maila ematen.

Ikasle batzuek ez dute eman beharreko maila ematen, **nahiz eta** ikastaroko proba guztiak gainditu eta azken azterketa egiteko teknika ezagutu.

### Adbertsatiboan ere bai:

Ikasle batzuek ikastaroko proba guztiak gainditu dituzte eta azken azterketa egiteko teknika ezagutzen dute, **baina, hala ere**, ez dute eman beharreko maila ematen.

Hurrengo hau denborazko egitura erabilita egin daiteke beste era batera:

\*Inkestatua zalantzatan dagoela erakusten duten hauteskondeetan emandako botoari buruzko erantzunak ez dira kontuan hartuko.

Ez dira kontuan hartuko hauteskondeetan emandako botoari buruzko erantzunak, inkestatua zalantzatan dagoela erakusten **dutenean**.

### Eta baldintzazko perpaus baten bidez ere bai:

Hauteskondeetan emandako botoari buruz, ez dira kontuan hartuko erantzunak **baldin eta** inkestatua zalantzatan dagoela erakusten **badute**.

### Hurrengoak, ostera, zehar-galdera erabilia:

Cada Administración Pública establecerá los días y el horario **en que** deban permanecer abiertos sus registros.

\*Herri-administrazio bakoitzak erregistroak irekita egongo diren egunak eta orduak ezarriko ditu.

Herri-administrazio bakoitzak ezarriko du **zein** egunetan eta ordutan **egon behar duten** irekita erregistroek.

\*Honen bidez eskatzen dizut hurrengo ikasturtean euskarazko ikastaroetan ibiliko diren zure erakundeko langileen kopurua lehenbailehen jakinarazteko.

Honen bidez eskatzen dizut lehenbailehen zehazteko zure erakundeko **zenbat langile ibiliko diren** hurrengo ikasturtean euskarazko ikastaroetan.

\*Eta hori da zure eskabidea ez **onartzearen** arrazoa.

Eta **horra zergatik ez dugun** onartu zure eskabidea.

### Esaldi honetako erlatiboa helburuzko baten bidez eman daiteke:

\*Lanez gainezka gabiltzanean datuak sartzan laguntzen digun lankide bat behar dugu.

Lankide bat behar dugu, lanez gainezka gabiltzanean datuak sartzan laguntzeko.

Ikusten duzunez, ia beti aurkitzen da moduren bat perpausa bestela antolatzeko: aski da pittin bat pentsatzea, aukera hobeak aurkitzeko. Eta ez kezkatu joskera aldatzen bada: gehien-gehienetan ondorio pragmatiko berberak izango ditu itzulitako esaldiak.



Ez pentsa arazo hau administrazioan bakarrik denik: arazo bera gertatzen zaigu maila jasoko testu mota guztietan. Zer dela eta, baina?

Erdararen eragina ukaezina da arazoaren nondik norakoak ulertzeko: ikasketak erdaraz egin baditugu, edo idazkera erdaraz soilik landu badugu, edo erdaraz bakarrik irakurtzen badugu, edo idazten erdaraz ikasi zuten aurreko belaunaldien gidaritzapean ikasi badugu euskaraz idazten: horrek guztiak programatu egiten digu garuna, mezuak joskera-baliabide jakin batzuekin osatzeko.

Txarrena da pentsatu ere pentsa dezakegula hizkuntzarena dela errua, eta ez gara konturatzen gu geu garela elbarrituak. Bigarren hizkuntza bat ikasten duenak jakin beharko luke ezerezetik ikasi behar duela hizkuntza horretan komunikatzen; hots, bigarren hizkuntza horrek dituen kohesiobideak bereganatu behar dituela. Bestela, herrenka eta narrasean sortuko ditugu testuak, batere naturaltasunik gabe.

Begira zer gertatzen den itzulita dauden ipuin askorekin, esaterako. Azter dezagun hurrengo adibidea:

Érase una vez un hombre que vivía en lo alto de un monte en una casa hecha de piedra del monte Ereño donde los primitivos habitantes de Santimamiñe se divertían levantando piedras.

Hori euskaraz emateko, hitzez hitz, egituraz egitura itzuliko bagenu, oker joko liguke kukuak: esaldia, beharbada, zuzen emango genukeelako... baina egoki ez, erabat ulerkaitza litzateke-eta honela egingo bagenu:

\*Bazen behin mendi baten gainean Santimamiñeko lehen biztanleek harria jasotzen jolasten ziren Ereño menditik ekarritako harriekin eginko etxe batean bizi zen gizon bat.

Ikusten denez, seme-alabei ipuina horrela kontatuko bagenie, laster gabe joango lirateke *gameboy* zorionekoarekin jolastera edo telebista piztera... eta hasi orduko, akabo ipuina.

Badira bai, beste bide batzuk erlatiboazko esaldiak emateko, hala nola, *Zein* eta *Bait*-erlatiboak<sup>3</sup>. Guztiz zilegi dira egitura horiek, idatzian kinka larri askotatik ateratzen laguntzen digutelako, pedanteak izateko arriskua badugu ere:

3. Ikusi *Zein erlatiboak*, 237. or.

Bazen behin gizon bat zeina mendi batean bizi zen etxe txiki batean, zeina Ereñuko harriez egina baitzen, non Santimamiñeko lehen biztanleak harria jasotzen jolasten ziren.

Dena dela, idatziari hobeto egokitzen zaizkio molde hauek, eta ahozkoan zein umeentzako mezuetan errejistrotik kanpo gerta daitezke. Hori dela eta, umeari horrelakoak erabilia kontatuko bagenio, apur bat geroago joango litzateke bideoa ikustera beharbada; hori bai, aita edo ama xeibre samarra duela pentsatuta. Ez ahaztu ahoz ari garela kontatzen ipuina, eta ez idatziz, eta gainera, ume bati. Izan ere, hizkuntza-formek hizkuntza-erregistroa eta komunikazio helburua egokiro bete behar dituzte, eta horien arabera aukeratu behar ditugu mezua emateko hizkuntza baliabideak.

Ezin da ipuin hori euskaraz eman? Bai horixe. Nola, bada? Euskaraz, jakina, eta betidanik euskaraz kontatu diren moduan: juntadura erruz eta mendeko perpausak doi-doi erabilia.

Bazen behin gizon bat, eta gizon hori mendi batean bizi zen [edo mendian bizi zena], etxe txiki batean. Etxea harrizkoa zen, Ereñuko harriez egina. Bada, Ereñon bertan jolasten ziren harria jasotzen Santimamiñeko lehen biztanleak.

Horrela kontatuz gero, arrakasta handiagoa edukiko dugu gure haurrekin... beharbada; ez badugu nazkatu dagoeneko gure hizkuntza esperimenterekin. Lehiakide gogorrek dira telebista eta jolasgailua, baina ez itzaropena galdu.

Arte honetan zure burua trebatu nahi baduzu, biziki gomendatzen dizugu liburu hau: Joxe Arratibelen *Kontu Zaharrak*. Horiek irakurtzean, amari entzun bezala gozatzen dira ipuinok... eta bide batez, ariketa eta eredu aparta dira narrazioak egiten ikasteko<sup>4</sup>.

## BIBLIOGRAFIA

ARRATIBEL, Joxe. *Kontu Zaharrak*. Donostia: Erein, 1995.

BIGURI, Koldo. "Erdarazko erlatiboen itzulpenak", *Senex*. Donostia: EIZIE, 1994, 15. zenbakia.

4. Ikusi *Narraziozintza: denbora- eta aspektu-jauziak*, 89. or.

- BIGURI, Koldo. “Erdarazko erlatiboen itzulpenak”, *Administrazioa euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1996, 13. zenb.
- ESPAÑA, Edorta. “Defini dezagun geure burua”, *Administrazioa Euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1998, 20. zenb.
- GARZIA, Juan. *Joskera lantegi*. Zarautz: HAEE-IVAP, 1997.
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1997.
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. *Hizkera argiaren bidetik*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1994.
- KALTZAKORTA, Mitxel. “Definizioak ematen”, *Administrazioa Euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1997, 16. zenb.
- LOZANO, Joseba. “Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean”, *Eleria*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1996, 1. zenbakia.

## ZEIN ERLATIBOAK

### **ZEIN erlatiboak oso gutxi erabiltzen dira. Gaizki ikusita daude, ala? Erdarakada al dira? Noiz eta nola erabil daitezke?**

*ZEIN* erlatiboek tradizio luzea dute: gure literaturaren sorreratik bertatik erruz erabili izan dira XVI-XX. mendeetan, euskalki guztietako testuetan, gainera. Esaterako, XVI. mendeko bizkaieran eta gipuzkeran ere agertzen dira *zelan...bai(st)-* eta *non...bait-* anaforikoak.

Alabaina, XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran eten bat izan zen, garai hartako joera garbizaleengatik. Azkuek berak izan zuen pisu handiena gaitzespen horretan, eta haren itzalpean sortu ziren gramatikariek hedatu egin zuten erlatibo mota horren gaineko arbuioa. Etena orokorra izan zen, mugaren bi aldeetan, Iparraldean *bait-* soila gelditu baitzen.

Gaitzespenaren argudioa hauxe zen: euskara hizkuntza postpositiboa da; hau da, menderagailuak, edo mendeko perpausen loturak, atzean daramatza euskarak: *garaiz heldunaizelako*. Auzo erdarak, ostera, prepositiboak dira; hots, mendeko perpausetako lotura horiek aurrean daramatzate: *porque he llegado tarde*. Hori dela eta, menderagailuak perpausaren hasieran erabiltzea erdal moldeetara makurtzea zen garbizaleen ustetan.

Hala eta guztiz ere, atzera-pausutzat jo dute askok haustura hori, eta hasieran erlatibo mota horren aurka ibilitako batzuek (Altube tartean dela) atzera egin zuten. Askoren ustez, gainera, guztiz onargarria da erlatibo mota hori, erromanikoak ez diren hizkuntza askok eta askok bide bera egin baitute, joskera-baliabide aurreratuak latinetik egokituta, baita ingelesak ere. Eta badira hizkuntzalariak latinaren eraginaren teoria hori hain garbi ikusten ez dutenak, euskal galdetzaileek ez baitute bakarrik galdeztzeko zeregina, mugagabe-kutsua ere badute eta: *nori berea...*, *ni ez naiz nor...*, *zein bere...*, *zernahi...* eta abar.

Baina aldaketa eraginda zegoen: hori dela eta, garai batean baliabide modernoak zena eta joskera malgutzeko bide ematen zuena, gaur egun,

kutsu zaharkitua, jaso eta are pedantea dauka. Horregatik da hain urria erlatibo mota horren erabilera gaur egun, lehengo mendeetako literatura-ren aldean.

Dena dela, batzuetan, baliabide ona da maila jasoan idaztean eta itzulpen-gintzan. Izan ere, erdarazko periodo luzeko esaldiak euskaratzeko bidea errazten du, jatorrizko esaldien egitura gehiegi bortxatu gabe. Baina ez dugu jo behar auzo erdaretako erlatiboen ordain bakartzat<sup>1</sup>. Kontuz, bada: ez erabili neurritz gain eta gogoratu, batez ere, idatzirako balio duela.

Tira, bada: azalduta dago zergatik erabiltzen diren hain gutxi. Ekin die-zaiogun erabilerari.

### ► Nola deklinatzen da?

Hiru eredu izan dira literaturan:

1. XVI-XVII. mendeetako eredu zaharra. Mugagabeen deklinatzen da anaforikoa:

zein, zeinek, zeini, zeinen...

2. XVIII-XIX. mendeetako lapurterazko idazleen eredu. Singular-plurala bereizketa egiten dute deklinabidean, leku-denborazko kasuetan izan ezik (mugagabeen baitoaz):

- zeina / zeinak, zeinak / zeinek, zeinari / zeinei, zeinaren / zeinen...

- zeinetan, zeinetara, zeinetarik, zeinetako...

3. XIX. mendeko bizkaierazko eta gipuzkerazko idazleen eredu: singular-plurala bereizketa egiten dute deklinabidean, baita leku-denborazko kasuetan ere, baina singularrean, eredu zaharreko mugagabea erabiltzen dute:

- zein / zeintzuk, zeinek / zeintzuek, zeini / zeintzuei, zeinen / zeintzuen...

- zeinetan / zeintzuetan, zeinetara / zeintzuetara, zeinetarik / zeintzue-tatik, zeinetako / zeintzuetako...

1. Ikusi *Alferrikako erlatiboak*, 230. or.

### ► Zein menderagailu erabili?

Aditz trinko zein laguntzaileari jartzen zaion marka da menderagailua. Historian, euskalki banaketa garbia ikusten da: Iparraldeko eta Hego-Ekialdekoetan *bait-* erabiltzen da; Hego-Mendebaldean (bizkaiera-gipuzkera), ordea, *-n* jartzen zaio aditzari:

Auzitara eraman dute enpresa bat, zeinak ez **baitu** azken hamar urtean zergarik ordaindu.

Auzitara eraman dute enpresa bat, zeinak ez duen azken hamar urtean zergarik ordaindu.

Dena dela, gaur egun oso sartuta dago *bait-* erakoa Hegoaldean ere, eta dagoeneko galdu samarra dauka garai batean zeukan Iparraldeko formaren marka.

### ► Zein hurrenkera hartzen dute perpauseko osagaiak?

Baiezko esaldietan hiru hurrenkera-aukera daude, erabilienetik urrienera:

#### 1. *Zein* + adizkia + osagaiak:

Joan ziren jaun kondearen gaztelura, **non** ezkutatzen baitzen neskatoren hiltzailea herritar amorratuengandik.

#### 2. *Zein* + osagaiak + adizkia + osagaiak:

Joan ziren jaun kondearen gaztelura, **non** neskatoaren hiltzailea **ezkutatzen baitzen** herritar amorratuengandik.

#### 3. *Zein* + osagaiak + adizkia:

Joan ziren jaun kondearen gaztelura, **non** neskatoaren hiltzailea herritar amorratuengandik **ezkutatzen baitzen**.

Tradizioari dagokionez, erabiliena lehena da, alde handiarekin. Ondoren bigarrena eta azkena gutxiena. Horregatik, bitxia da ikustea batez ere hirugarrenera jotzen dela gaur egun: Altuberren eragina ote? Zalantzarik gabe: begibistan dago lehenetik azkenera dagoen jauzia eta atzerakarga.

Bestalde, menderagailu bat ala bestea erabilita ez da aldatzen ordena, ezta adizkia perifrastikoa edo trinkoa bada ere. Nabarmendu behar da *izan* aditzarekin ia ehuneko ehunetan betetzen dela lehenengo ordena<sup>2</sup>.

Ezezko perpausetan, ordea, bereizketa bat egin behar da:

■ Aditz laguntzaileari dagokionez, erabat da nagusi ordena hau: *ez* + aditz laguntzailea + aditz nagusia, hau da, aditz nagusia laguntzailearen atzean doa:

Han azaldu zituzten jaun bat, agindu batzuk emanez, **zeinak ez baitzuzten burutu**.

■ Perpaus barruko osagarrien kokapenari dagokionez, bi ordena dira erabilienak:

1. Perpaus nagusia + *zein* + *ez* + aditza + osagaiak:

Eta sartu zituen gela ilun batean, **non ez baitzen entzuten** negar-marraskadarik baizik.

2. Perpaus nagusia + *zeina* + osagarriak + *ez* + laguntzailea + osagaiak + aditz nagusia:

(...) **zeinaren** ondoan bi konpainia eta biltzarre hek **ezpaitira** sekulan elkarrekin gehiago **kausituko**.

Galdegaiaren arabera aldatzen da kokapena, baina, hala ere, lehenengo ordena erabiltzen da sarrien.

### ► **Esaldian, non kokatzen da erlatibozko perpausa?**

Joera nagusia dago erlatibozko perpausa perpaus nagusiaren ondoren kokatzeko, aurreko adibideetan ikusi dugun bezala. Hala ere, badago perpaus nagusiaren barruan txertzea ere:

Eta alkatea, zeinak aurreko batzarrean kontrako botoa eman baitzuen, alde agertu zen azken bozketan.

2. ALBERDI, X.; GARCÍA, Julio. “Zein (...) bait- / -n erlatiboa: Literatura-tradizioa”, *Fontes Linguae Vasconum*. Pamplona: Departamento de Educación y Cultura del Gobierno de Navarra, 1998, 78. zenbakia.

Dena dela, aurrekariaren ondoren edo harengandik hurbil jarri ohi da, esanahia ez iluntzeko. Berak baldintzatzen du erlatibozkoaren lekua esaldian.

### ► Zer da aurrekaria?

Aurrekaria da erlatibozko perpausaren erreferentzia edo azalpena hartzen duen osagaia.

Gehienetan izena edo izen-sintagma da, baina edozer izan daiteke: izen berezia, izenordaina, aditz-izena, zehar-galdera, erlatiboa bera. Ikus ditzagun adibide batzuk:

#### ■ Izena

Horretarako baimena eman behar du **alkateak**, zein baita bilkuraren burua.

#### ■ Izen berezia

Gogoratu **Koldo**, zeinek zintzo jokatu zuen gurekin.

#### ■ Izenordaina

Kontuan hartu beharko ditugu **horiek**, zeinek ez baitute aberastasunik batere.

#### ■ Aditz-izena

Gure ardura da egoitza **txukuntzea**, zein baita egunero egin beharreko lehen lana.

#### ■ Zehar-galdera

Ikusi dezagun nola **dakizun zer behar duzun hartu**, zein baita azkenekoa.

#### ■ Erlatiboa bera

Aitaren falta astunagoa zitaion, zeinetan bizi zen **desterrua** baino.

### ► Zein da erlatibo honen balioa: murrizgarria ala ez-murrizgarria?

Hasteko, argi dezagun zer diren.

Erlatibo murrizgarria: aurrekaria zehaztu egiten du; hots, murriztu egiten du interpretazioa. Erlatibozko informazioa kenduta, hankamotz geldituko litzateke esaldia, eta esanahia aldatu egingo litzateke. Esaterako:



Azterketako emaitzagarik haserre zeuden ikasleak ez ziren hurrengo eskolara joan.

Hau da, ikasle HORIEK BAKARRIK ez ziren joan; besteak, ordea, joan egin ziren.

Erlatibo ez-murrizgarria: aurrekariari zerbait eransten diote, azalpen gisa; horregatik, erlatibo azalpenezko edo esplikatzaile ere esaten zaio. Informazio hori kenduta berdin ulertuko litzateke esaldia.

Ikasleak, zein azterketako emaitzagarik haserre baitzeuden, ez ziren hurrengo eskoletara joan.

Hau da, ikasle GUZTIAK ez ziren joan eskolara, eta, bide batez, haserre daudela esaten dugu.

Hara, bada: mito bat dago erlatibozko perpausen gainean. Horren arabera, erlatibo arruntak murrizgarriak omen dira beti, eta *zein* erlatiboak, aldiz, ez-murrizgarriak. Hori ez da egia: erlatibo arruntak batekoak zein bestekoak izan daitezke, eta *zein* erlatiboetan erabat nagusi den arren balio ez-murrizgarria edo esplikatiboa, aitortu behar da ez direla gutxi balio murrizgarria duten adibideak. Beraz, ez dago banaketa semantikorik, joskeraren aldetik<sup>3</sup>.

### ► Nola erabiltzen da puntuazioa?

Erlatibo ez-murrizgarria bada, koma artean:

Ergelak bezala jokutzen du, zeina nimiñokeriekin baino ez baita arduratzen, eta arazo larriei bizkar ematen die.

Murrizgarria bada, ostera, komarik gabe:

Irakasle hura zeina bost urtez izan genuen, agurtu dugu kalean.

3. Euskaltzaindia. *Eukal Gramatika. Lehen Urratsak-V*, 235.-240. or.

**BIBLIOGRAFIA**

ALBERDI, X.; GARCÍA, Julio. “Zein (...) bait- / -n erlatiboa: Literatura-tradizioa”, *Fontes Linguae Vasconum*. Pamplona: Departamento de Educación y Cultura del Gobierno de Navarra, 1998, 78. zenbakia.

Euskaltzaindia. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999.



IVAP

# **T**erminologi**A** e r m i n o l o g i **A**



## ERDARARIK DATOZKIGUN HITZEN ITZULPENA

**Aurreko egunean, paseatzen ari nintzela, anbulantzia bat ikusi nuen aparkatuta. Alde batean, “Soporte vital básico” zeukan jarrita, eta bestean, euskaraz, “Oinarrizko bizi-euskarria”. Benetan diotsuet: anbulantzia bat zela ikusi izan ez banu, ez nukeen asmatuko zer demontre izan zitekeen izen ponpoxo horien atzean ezkututzen zena. Zergatik aukeratzen ditugu hain izen zehaztugabeak, gauza zehatz-zehatzak izendatzeko?**

Arazoa bere osoan ulertzeko, euskal terminologia zein egoeratan dagoen aztertu beharko genuke; hain zuzen ere, zein den prozesua erdararik datozen hitzak euskaraz emateko.

Hasteko, sormenaren kontua desmitifikatu nahiko genuke, edo behintzat, dagokion tokian jarri. Gauza jakina da gure inguruan egunero sortzen diren termino gehienak (ez gara ausartzen “guztiak” esaten) erdaraz asmatzen direla lehenik, eta gero euskarara itzultzen ditugula. Prozesua ezagutzen ez duen batek pentsa dezake hitz horiek hausnarketa sakonen ondorioz sortzen direla, edo zerutik datozkigula Parnasoko musek zuzenean opari eginda. Errealitatea, askotan, oso bestelakoa da. Kasuan kasuko teknikariari / nagusiari / politikoari / sortzaileari mementoan bururatu, eta besterik gabe, horixe izaten da aurrera ateratzen den izena. Hona, beraz, lehen mitoa desmitifikatuta: hitz berriak sortzea ez da izaten adituen edo terminologoen batzordeen eskuetan, baizik eta norbanakoen “inspirazioaren” baitan.

Kontua da “inspirazio” hori zenbateraino baldintzatzen duten gaur egungo hizkuntza-joera batzuek. Horietako bat, berri-berria, hizkuntza “politikoki zuzena” erabiltzea da, eta horrekin batera, ezintasunak eta gaixotasunak ezkutatu, eta lanbideak, ekintzak... hizkuntzaren bidez puztu eta dotoretzea<sup>1</sup>. Gaur egun gaztelaniaz ez dago ez *viejo*-rik, ez *ciego*-rik,

1. “El lenguaje políticamente correcto es sólo el rostro contemporáneo de un nuevo intento ideológico para imponerse sobre la libertad de pensamiento y la reflexión (...) Compete a los políticos (directamente) plegarse a los dictados de esa nueva demagogia,

ez eta *pastor*-ik ere. Lehenengoak *miembros de la tercera edad* bihurtu zaizkigu edo *jóvenes con años* edo, horren ezean, irudimentsuek asmatu nahi dutena. Bigarrenak *invidentes* dira edo *ciudadanos/as con incapacidad visual total* edo... nahi duzuna. Hirugarrenak honela definitu omen zituzten hemengo egunkari batean ez hain aspaldi: *técnicos en la utilización, gestión y aprovechamiento de los pastos*. Ikusten dugu, bada, zein den joera: antza, *calvo* esatea baino egokiagoa da *folicularmente discapacitado*; zertarako erabili *mudanzas* hitza, *lógica del mueble* dotorea eskura izanda?

Hori, berez, ez litzateke guretzat arazo izango, hitz berriok euskarara itzuli beharko ez bagenu; baina, hori izaten da gure itzultzaile eta terminologo askoren lana: erdaraz desegoki asmatutako izen horiek, inork ulertzen ez dituenak, euskaraz eman beharra; ez zabalago, ez zehatzago: erdaraz dagoen bezala.

Zure galderan *Soporte vital básico* izeneko hori aipatu duzu. Esan duzunez, anbulantzia da, hori bai, berezia, ospitale txiki bat bezalakoa delako, eta larri-larri dagoen gaixoa zaintzeko prestaturik dagoelako. Zergatik deitzen den *Soporte vital básico*? Bada, baten bati hala bururatu zaiolako; baina berdin deitu zitekeen *Unidad móvil de intervención urgente*, *Hospital rodante de acción inmediata*, *Vehículo sanitario de sostenimiento vital*... Izena zein, hala itzuli behar omen dugu guk: *Unidad móvil* jar-tzen duela... *unitate mugikorra*; *Hospital rodante* gehiago gustatu zaiela... *ospitale errodatzailea*; *Vehículo sanitario*? *Ibilgailu sanitarioa*; hobeto ez!

Arazoa larriagotu egiten da publizitate-kanpainetako leloen kasuan<sup>2</sup>. Horietan, hitz-jokoak, errimak edo esapideak erabiltzen dira maiz, eta zer

---

en función de sus previsiones electorales, o resistirse a los mismos en un valeroso ejercicio de inteligencia y autoestima (...) Pero sobre todo me resisto a creer que la asunción de un principio democrático me obligue a perpetrar frases como ésta: *El afroamericano llegó al centro de readaptación de niños/as discapacitados/as para trabajar como asesor de técnicas de optimización hidráulica*. Es una enunciación literaria imposible, tratándose de un hojalatero negro que acude a un hospital (...) El lenguaje políticamente correcto es una amenaza intelectual y un insulto a la inteligencia humana". UGARTE, Pedro. "Lo correcto y la literatura". *El Correo Español*.

2. Honetan sakontzeko irakurri hau: ARRIETA, Asier. "Euskararen publizitatea eta publizitatearen euskara", *Administrazioa euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2002ko apirila, 36. zenbakia, 9. or.

esanik ez, beti erdaraz sortzen dira. Gogoratzen duzu Eusko Jaurlaritzaren kanpaina famatu hura: *Que no te den gato por liebre?* Horren itzulpena egitea, berez, zaila zen, baina horri gehitu behar zitzaion leloarekin batera zihoan irudia: erbi pilo bat ilaran, eta erdian, katu bat gezurrezko belarri luzeak jarrita, erbi plantak egiten. Ikusten duzunez, kanpaina gaztelaniaz pentsatuta dago: burutik ere ez zaie pasatu arazoak egon daitezkeela Euskal Herriko hizkuntzara itzultzerakoan.

Gure ustez, bi modu nagusi daude, egoerari aurre egiteko:

Euskal Herrian sortzen diren izen, kanpaina... berriei dagokienez, garbi dago: behin betiko erabakia hartu aurretik, kontsultatu adituekin (terminologoak...), negoziatu beraiekin, eta hautatu izenik egokienak bi hizkuntzetan, bat ere baztertu gabe (izen “komertzialak” barne). Adibidez, *Instituto Vasco de la Mujer*, edo *Servicio Vasco de Salud* erakundeek euskal izen ofizialak hauek dira: *Emakumearen Euskal Erakundea* eta *Euskal Osasun Zerbitzua*, hurrenez hurren; baina jendeak honela ezagutzen ditu: *EMAKUNDE* eta *OSAKIDETZA*. Izen “komertzial” horiek arrakasta izan dute eta zabaldu egin dira baita erdaldunen artean ere. Zorionak, sortzaileei!

Kanpotik datozkigun termino berriak negoziatzerik ez dago; baina ziur aski askatasun handiagoz jokatu beharko genuke hemendik aurrera. Nola? Benetako terminoak direnean, garbi dago kontuz ibiltzea komeni zaigula.

Adibidez, *gordura* eta *obesidad* hitzak, berez, gauza bera dira hiztun gehienontzat, bigarrena dotoreago-edo iruditzen zaigun arren; sendagileek, berriz, bigarrena hautatu dute gaixotasun bat izendatzeko, behar baino pisu gehiago izateari daitzeko, hain zuzen ere. Hortaz, *obesidad* hitza medikuntzako termino bihurtu dute arbitrarioki, eta euskaraz ere beste horrenbeste egin behar. Zer proposatu dute batzuek? Errazena: mailegua hartu (*obesitatea*) eta... baietz bete-betean asmatu! Dena dela, sortu berri den zulotxo hori betetzeko ez al da egokiagoa euskararen berezko hiztegiak baliatzea? Zergatik ez aukeratu euskarak dauzkan adierazpideen artean? Honela, adibidez:

**Loditasuna:** Lodia denaren nolakotasuna.

**Gizentasuna:** **1.** Gizena denaren nolakotasuna, loditasuna. **2.** (Med.) Behar baino pisu gehiago izatean datzan gaixotasuna.

Hautapena, ikusten denez, ez da euskararen barruan egiten, terminologi arloan bakarrik baizik. Eguneroko hizkuntzak bere horretan dirau (*gizena*



esaten duen euskaldunari ezin zaio debekatu hitza era arruntean erabil-tzea), baina euskal sendagileek badute gaixotasuna aipatzeko behar zuten terminoa.

Hori, terminoei dagokienez. Bestelako izendapenek, teorian, arazo gutxiago sortu beharko lukete, baina praktikan istilu-iturri galanta dira. Euskaraz gazte batek hau esaten duenean: “Ama, liburutegira noa ikaste-ra”, denok ulertzen dugu. Gazte hori toki publiko batera doa, zeinetan hainbat zerbitzu eskaintzen zaizkion: liburuen kontsulta eta mailegua, batez ere, baina baita bideoak, CD-ak, interneta eta abar. Egunen batean, litekeena da erdaldunen batek pentsatzea *biblioteca* hitza ez dela egokia leku hori izendatzeko, liburuaz gain beste gauza asko aurkitu eta egin dai-tezkeelako bertan (ez dakigu nola onartzen duten *ascensor* hitza, igotzeaz gain jaisteko ere balio duela kontuan izan gabe!). Zein izen jarriko diogu horrelako toki bati? *Centro de consulta bibliotecaria multimedia? Casa municipal de la cultura y las nuevas tecnologías? Biblioteca pública de préstamo y gestión informática?*

Guk, ordea, zergatik ezin dugu *liburutegia* erabiltzen jarraitu? Hitz horrek ongi asko ezagutzen dugun errealitate bat dakarkigu burura, liburuak, ordenagailuak eta guzti. Gehiago: *Kulturetxea* deitu izan bagenio, berdin funtzionatuko luke hitzak, erdarazkoa bezain arbitrario delako.

Honaino gure hausnarketak edo haserrealdiak.

## HIZKERA METAFORIKOA

**Gero eta sarriago entzuten eta irakurtzen ditut honelakoak, eta kezkatzen hasi naiz: “argi berdea eman dio eskolako planari”, “pilota Gobernuaren teilatuan dago”, “... inguruko literaturetan ere eleberria da genero izarra”, “alderdi horretako buruak politikako ‘lehenengo lerroa’ uztea erabaki du...” Belarrian min egiten didate. Zergatik gertatzen da? Normala da? Badu sendabiderik?**

Hara, hizkuntza txikia da gurea eta alde askotatik egiten digute saka eta bultza, etengabe. Zuk aipatzen dituzun esaldiek horixe baino ez dute salatz: gure mundu metaforikoa ere sakapean daukagula, ondo kikilduta gainera.

### ► Hizkera metaforikoa zer den eta zertan den gure artean

*Mundu metaforikoa* aipatuta, seguru dagoeneko ikaratu zarela, pentsaturik institutuko literatura klaseetara itzuliko garela. Izan ere, nork ez du izerdi larririk bota irakaslearen gustuko metaforak topatu ezinik? Baina ez, ez gara horretaz ari; *hizkera metaforikoa* literaturaz gain dagoen zerbait da; *hizkera metaforikoa* herriaren arimari, irudimenari, umoreari, lanari... lotutako zerbait da: zer denik barik, behin eta berriz erabiltzen dugun erreminta, ahoa eta belarriak gozatzen dituen, hizkuntza osasuntsu dagoela erakusten duena. Azken batean fantasia, gauzak zerekin identifikatu, barre eragiteko moduak... norbere inguruari, kulturari lotuak daude; kulturari eta hori baino gehiago: dena delako argot, lanbide edo gaiari, zientifikoa izan edo ez.

Irudi zaigu gaur egun “euskal” hizkera metaforikoa baztertuta dagoela, erdi hila: salbuespenak salbuespen, ezin da aipatu, ez da existitzen. Irudi zaigu denbora gehiegi ematen dugula ebaki txikiak sendatzen; hau da, gaur egun orduak eta orduak ematen ditugu *-a* itsatsia duten hitzen zerrenda ikasten, edo marratxo guztiak euren lekuetan jartzen, edo halako azpieuskalkia nola arraio idatzi pentsatzen (*mahaia, mahaixa, mahaie,*

*mahaije...*), baina gutxi edo bat ere ez euskararen mundu metaforikoa nola eta zerez oratzen den erakusten, edota sasoi bateko identifikazioak eguneratzen. Eta horri heldu beharra dago. Gogoz heldu ere!

Euskararen historiari begiratu eta ikusiko dugu, beste edozein hizkuntza bezala, lasai ibili dela bere mundu hori sortzen eta ahoz aho ematen. Ikusiko dugu lasai hartu izan dituela latinak edota erromantzeek sortutako esaerak eta era berean gai zela metafora berezkoak sortzeko. Baina zer gertatzen zaigu gaur egun? Bada, hizkuntza sortzaile handiz inguratuta gaudela, aspaldi normalizatutako hizkuntzen mende. Horien artean boteretsuena: ingelesa. Gaztelania eta frantsesa eurak ere erdi ikaratuta omen dauzka ingelesak; halere, oraindik guregan eraginik handiena auzo bi horiek daukate. Barra-barra sortzen dituzte hitzak, irudiak, metaforak eta behar den guztia; aski da txirrindularitza saio bati erreparatzea ikusteko zelako hiztegi berezia duten gertatzen dena kontatzeko: *el lanzador del sprinter, chupar rueda, la carretera se empina, llevar muchos dientes en el plato, bajar a tumba abierta...* eta gu euron mende gaude erabat: edo hizkera laua erabili edo denari barru egin.

Eta gure egoera soziolinguistikoak, gaur egun, ez digu batere laguntzen hiru haize bolada indartsu horiei aurre egiten! Eta egia da, euskaldun gehienok elebidunak gara, baina gure artean desberdintasun gehiegi daude: batetik, euskara ikasi berri dugunok erdara dugu eredu; eta irudimena, sortzeko ahalmena, ama hizkuntza horretan. Ikasi bai, ikasiko genuke, baina erakusten al zaigu horretan bada? Hizkuntza estandarra bai, laborategiko hori erakusten da, baina benetako hori... bai? Eta bestetik, euskara ama-hizkuntza dugun gehienok ez dugu tradizioa ezagutzen: transmisioak huts egin du horretan, eta guk jabetu beharra daukagu. Izan ere horregatik egiten dugu egiten duguna: hartu jatorrizko hizkuntzatik eta plasta! zuzen-zuzenean botatzen dugu geurean, konturatu barik esaera hori bakarrik dela ulergarria, jatorrizko hizkuntzan zer esanahi duen jakinez gero. Horixe baino ez dute erakusten zuk jarritako adibideek: *argi berde, pilota, izar* eta *lehenengo lerro* hitzak euskaldun orok ezagutzen ditu: zahar nahiz gaztek, baina ulertuko ote genituzke gaztelania jakin barik? Azkenengoa, gainera, kakotxez apainduta datorkigu:

Alderdi horretako buruak politikako "lehenengo lerroa" uztea erabaki du...

Kakotxak jarrita aditzera ematen zaigu jarraian zerbait bitxia datorrela, eta noiz arte da kontu hori bitxia? Harik eta zabaltzen den arte. Eta gero zer? Euskaratzat hartu? Ez da hobe hasieran euskarazkoa sortzea? Honen antzeko zerbait, esaterako:

Alderdi horretako buruak politikan jarraituko du, baina makila beste bati emanda.

Horixe da gure egoera soziolinguistikoa eta zer esanik ez dago: sekulako arazoak sortzen dizkio, beste gauza askoren artean, hizkera metaforikoari, zeren:

Jakina da elementu horiek kulturari eta gizarteari lotuak daudela; hau da, baserri giroko gizarteak bere hizkera metaforikoa sortuko du eta itsasokoak berea. Horien artean, badira asko zabaldu direnak eta denok barra-barra erabiltzen ditugunak: *jorratu, erein, mintegia, atxurra, joan zaitez popatik hartzera, lantzoi hori...* Baina ez da beti erraz izango honelakoak kaletarren artera ekarri eta arrakasta izatea; izan ere, zenbaitetan ez dituzte ulertuko –eta kontu egin hirietan bizi dela gaur egun jende gehien!–. Esate baterako ulertuko ote zenituzkete honako hauek?

Babalorea halakoa!

Talo para bezalako aurpegia dauka.

Hori da trabeseko paela.

Era berean, ezin gara itsutu antigualeko esanak pizten. Hori bai, aitortu beharra dago tradizioa ezagutzen duenak errazago sortuko dituela esamolde berriak, egokiak, eta bere inguruan ulergarriak direnak. Esamolde berri horiek beti ez direla zabaldu eta arrakastatsu egiten? Eta zer? Horregatik ez dugu etsiko, ezta?

Bestalde, gogoz heldu behar zaio lanari; izan ere, asmatzeko errota mar-txan jarrita, zeregin hori ez da amaitzen sekula, zeren gizartea bera da hizkera metaforikoa hiltzen, lurruntzen duena. Zergatik? Erabiltzearen erabiltzeaz kamustuz doalako edota gaur egungo “politikoki zuzena” izan beharraren beharraz dena zikiratu daitekeelako:

“Maiztea” bilakaera normala da; belaunaldi eta erabilera kontua da: esate baterako, gure gaztetako *está como un queso, como un tren, tumatxa!* haiek aspaldi joan ziren Hobeara! Halere, aurrera egingo dugu, ezta?

Zeren badira bideak histutako metaforak pizteko, eta horietako bat da ostera ere erabiltzen hastea, baina aldaketatxo bat eginda. Hara:

Gure larrosatxoa > Larrosatxoa zara baina arantzatsua.

Gatza eta piperra... > Gatza eta pipermina ere baditu bertsolari horrek.

“Politikoki zuzena” izan beharrak, ordea, gogoeta gehiago eragiten du. Begiratu bestela:

Taberna hori txinatuta dago [gainezka dagoen lekua].

Ahuntza / mari-mutila [neska gangarra].

Taketa, kirtena [mutil zakarra].

Gaur egun lehenengoa arrazista izango litzateke, bigarrena sexista eta hirugarrena sinbolo faliko garbia denez, bada... gauza bera edo okerragoa.

Horixe da egoera, luze joan zaigu beharbada zuk susmatu duzun kontu horri mugak jartzea; baina tira, egin beharra zegoen.

### ► Goratu dezagun, bada, gure hizkera metaforikoa

Saia gaitezen orain sendabideak argitzen; halere, jakin ezazu guk ez daukagula edabe magikorik; guk ezin dizugu erakutsi hizkera metaforiko hori sortzen, eta ezin dugu zerrenda itzel bat jarri behar duzun guztietan nora jo edukitzeko. Ez, gure jomuga askozaz ere gertuago dago, guk bakar-bakarrik hizkera metaforikoaren beharraz jabetu zaitezten nahi dugu, apur batean hausnarrean egotea hizkuntzaren mesederako dela erakutsi. Eta, horretarako, gure ustez, bi dira bideak: *tradizioa* eta *sormena*. Hitz bi baina lan asko egitea eskatzen dutenak.

Uste dugu, gainera, bi alorretan dela behar-beharrezkoa buruari eragitea: eguneroko jardunean eta maila jasoagoan. Honela:

Eguneroko jarduna gutako bakoitzak landu behar du. Zergatik bakoitzak? Bada, horretan giroak, adinak, lagunek edo lanbideak... zer esan eta eragin handia dutelako. Hizkuntza normalizatuetan eguneroko honetan topatzen dituzte gero zabalkunde handia duten metaforak. Badakigu, gurean hori nekeza dela. Dena dela, gure inguruan jarduteko adinakoak badira, itzel!

Bigarren eskabidea, besteak beste, administrazioari, eskolako testuen egi-leei eta kazetaritzako adituei egingo diegu. Gurea bezalako hizkuntza txikituetan, gure uste apalean, horien lana baita hizkera metaforiko hori sortu

eta hedatzea. Jendeak gustuko badu, hartu eta erabiliko du. Zergatik ez irakatsi, bada, horiei unibertitatean beste hizkuntza hori, hizkuntza estandar eta logikotik at dagoena? Sortzaileak behar ditugu? Ba... prestatu eta jantzi ditzagun ondo-ondo!

Has gaitezen, bada, hizkera metaforikoaren graziak agertzen. Badakigu figura erretoriko asko eta asko dagoela, baina saiotxo honetan batzuk baino ez ditugu aukeratuko. Zein? Guretzat atseginenak-edo direnak; horrela, bide batez, ondo pasatuko dugu-eta. Hauexek dira apartatu ditugunak: metaforak, konparazioak eta sinekdokeak.

Euroi heltzeko, lehen aipatutako bi bideak erabiliko ditugu: tradizioa eta sormena.

## 1. METAFORAK

Jakintsuek aspaldi esana da metaforak hizkuntza aberasteko, osatzeko erreminta direla. Aspaldion jolastu zara metaforekin? Ahaztuta? Bada, hona hitz gutxitan zer den metafora: sarritan figura horren aurrekoa konparazioa izaten da, baina konparazio hori ez da ikusten. Metaforetan A eta B terminoak berdindu egiten dira, identifikatu: A B da:

Zu astoa baino takarragoa zara >  $\frac{\text{Astoa}}{B}$  zara  $\frac{zu}{A}$  galanta!

Metaforetan goren a da B argitzen duena bakar-bakarrik:

$\frac{\text{Segapotoa}}{B}$  ekarri duzu?

Oraingo honetan: A = poltsikoko telefonoa      B = segapotoa.

Hona hemen metafora eta irudi “zahar” batzuk:

Mozolo buru handia! [Tentela!].

Txerri zikina! [Zikina!].

Gibel handia! [Patxada gehiegi duena].

Lapiko txiki da hori [Sekretu bat gordetzen ez dakiena].

Txoritxoa, txipristina, txilina, bildoskoa, arrankaria, arrainkoa, izartxoa, txaplatatxoa, txintxirrina, pottoka,... [Umeei hitz egiteko moduak] .

Heste bakarra, tripontzia [Neurririk gabe jaten duena] .

Habia, Txuriren tripa, asto zuriaren tripa [Ohea] .

Lanbasa, sastarra, atxurra, katua, mahaspasa, legatza... [Mozkorra].  
 Eman baietz gaztako bat! [Kolpea] .  
 Hori duk zurda hori! [Iletsua!] .  
 Di-da baten, aitaren baten [Berehala, oso azkar] .

**Eta orain, berriz, beste zenbait guk geuk asmatutakoak:**

Pitxi globoa, txori zorroa... [Kondoia].  
 Tropeleko buztana [Azken txirrindularia].  
 Lansariak baretu [Soldatak beren horretan utzi, igoerarik gabe].  
 Topekada galanta eman eta... gol! [Burukada eman balioari].  
 Terraren akzioak, goitibeheran.  
 Iberia: lainoen gainetik ibili beharreen, sasipetan tatarrez.  
 BBVA barrutik janda dago.  
 BBVAren auzian ere, sokamuturra, PPren eskuetan.  
 Sasitzara bota dute hautagaia bere betiko lagunek.  
 Zuzendariaren lanpostua, din-danean.  
 Etxebizitzen prezioak puntaren puntan daude.  
 Elkarrizketa prozesua errekarako da.  
 Ziaboga politikoa hartzen ez duen artean, ez da alderdi horrekin elkar-  
 rrizketarik izango.

**Metaforen jokia testura zabaldu nahi izanez gero, irudi bat osatzen aha-  
 leginduko gara. Hauexek eskaintzen dizkizugu, egin berri-berriak. Ea  
 gustatzen zaizkizun!**

Izotzak zuri uzten ditu bazterrak eta Sharonek gorri.  
 Bake esperantzak zimeldu egin dira Palestinan...  
 Alferrik egin ura...  
 Usteldu dira sustraiak...

Berriz ere soka zaharrari tiraka palestinarrak eta israeldarrak.  
 Sokatiran aritu ziren palestinarrak eta israeldarrak Cairoko bileran.  
 Soka, behin baino gehiagotan eten beharreen egon zen...

Dema ikusgarria Venezuelan.  
 Estatubatuarrak itzain direla...  
 Venezuela probaleku handia da, eta galtzada harria ez da berdintsua.  
 Venezuelako gobernuburuak proba harri galantari egin beharko dio  
 tira...

*Operación triunfo*-ko pasako txoriek laster ikasiko dute zer den ezezagun izatea.

Telebistako ehiztariek lika polita jarri diete...

Batek baino gehiagok galduko du lumaren bat, ederki ulduta ere itzuli-ko da bere habiara bat baino gehiago...

Urtebetez ondo zainduko dituzte txorikumeak, kaiola ederrean... Handik aurrera...

Telefoniaren izurria zabalduz doa.

Gure herrian ez dute antena gehiago landatuko...

Lehenengo neurria hauxe izango da: iaz jarritakoak jo eta eraistea...

## 2. KONPARAZIOAK

Konparazioetara jotzen badugu, bi termino agertuko dira, baina identifikaziorik ez. *Baino, bezain, legez...* erabiliko ditugu. Beti bezala, lehenengo tradiziotik jasoak jarriko ditugu eta gero geuk asmatutakoak:

Ederrago eguzkia baino.

Bakailaoa baino zuriago nago.

Porruak legez hazten da ume hori.

Abarketa zaharra baino zailago dago okela hau.

Ardoa baino mozkorrago hago!

Lupua baino txarragoa da.

Eta orain geuk asmatutakoak:

Mendigoizale euskaldunak izarren gisara: lainoak baino gorago.

Zezena bezala sartu zen helmugara atzoko etapan.

Sugandilak baino arinago egin zuen aldapan gora.

Amarauna baino finago josi dituzte aurreproiektu horretako artikuluak.

## 3. SINEKDOKEAK

Hara beste figura bat hizkera metaforikoa osatzen lagun dezakeena: sinekdokea. Zer den hori? Zer edo zer izendatzeko haren zati bat aipatzea edo alderantziz: osoa aipatuta zati bat izendatzea.

Lehenengo aldrakoak zaharrak dira eta bigarrenekoak geuk asmatutakoak:

Politikariek esaten dutena ulertuko duen **kristaurik** ez dago.

Ez da aurtengoa **ardo**-urtea izango [Mahats urtea].



Txapela okertu zaio [Burutik jota dago].

Atzea jaten, popan paratuta... [Txirrindulari bat beste baten atzean, indarrak gordetzeko].

Txapel okerrekin sekulako kontrola jarri zuten Lekeitiorako bidean [guardia zibilak] .

Amaitu baino lehen, ohar bat. Badakigu, ederki jakin ere, mundu metaforikoa sortzea eta eraberritzen joatea hizkuntza biziari dagokion prozesu naturala dela, eta, agian, ezin planteatu daitekeela guk egin dugun bezala: aholku modura-edo. Garbi dago hizkuntza osasuntsuetan jendeak bere kabuz sortzen dituela metaforak, konparazioak, irudiak eta beste; baina, zer egin gurea bezalako egoera batean? Gauzak beren horretan utzi?... Ea, bada, denon artean atzerriko adabakiak lagata, geure hizkuntzaren neurriko hizkera metaforikoa josten dugun!

## BIBLIOGRAFIA

LAUSBERG, H. *Elementos de retórica literaria: introducción al estudio de la filología clásica, románica, inglesa y alemana*; traducción de Mariano Marín Casero. Madrid: Gredos, 1983.

LAZARO CARRETER, F. *Diccionario de términos filológicos*. Madrid: Gredos, 1981, 443. or.

PERELMAN, C. *Tratado de la argumentación: la nueva retórica*; traducción de Julia Sevilla Muñoz. Madrid: Gredos, 1989.

## UMEEN KONTUAK

**Badakigu zuena ez dela kontsultorio bat, eta, halere, gure egoera azaldu behar dizuegu, zeren ikusten dugun guri gertatzen zaiguna, berez, anormala izan arren askori gertatzen zaiola. Hara: ni administrazioko langilea naiz; ondo moldatzen naiz euskaraz lanean jarduteko, eta laugarren hizkuntza-eskakizuna ateratzeko prestatzen ari naiz. Emaztea –euskaldun berria hura ere– irakaslea da eta haurrekin egiten du lan; EGAduna izan arren, maiz, agindu sinpleenak emateko izerditan jartzen da. Eta gure etxean berdin: haurrari gauzarik normalenak esatean, trabatuta geratzen gara; tristea da gero! Ez dakigu nola esan: *¿te han arañado en clase?, tiene diarrea, no te quites los mocos, que duermas bien, vaya hipo!...* en fin, ez dakigu etxeko gauzak esaten. Badaukazue gu bezalakoentzat zerrendaren bat-edo? Seguru gu bezalakoek pozik hartuko dutela.**

Sarritan gertatzen dira gauza aldrebesak, eta zuena da horietako bat: zuek etxekoa ikasi nahi, eta ez daukazue nola. Gune euskaldunetako euskaldunik euskaldunenak, ordea, kanpotik datorrena etxean erabiltzen hasiak dira konturatu gabe. Horrela, familian, umei eta lagunei hitz egiteko ere, erdara eredu.

Jo eta ke aritzen gara terminologia eguneratzen, euskara teknologiaz edo beharrezko duenaz janzten, eta bien bitartean zer gertatuko?... eta kokoa barruan, etxean: esku zabalik hartzen ditugu kanpoko esaerak. Hunkigarriagoak edo iruditzen zaizkigu, adiera beteagoaz hornituta-edo, eta zer egiten dugu natural-natural? Hartu eta erabili, geure-geureak histuta, kolorge paratu balira bezala. Esate baterako, umeari hobe beharrez eta maitasun osoz *cariño* deitzen dion ama, edo *zerutxu* deitzen dion aita... Zergatik gutxietsi *maitea, bihotza, laztana, txoritxo, poxpolina, loretxoa, larrosatxo, pitxilorea, txipristina, arrainkoa, sorgintxo, txintxirrina, txolintxo* edo *izartxo*... ?

Beste aldean, zuek bezalakoak: euskara ikasi berria duten guraso, irakasle edota umeekin euskaraz jardun nahi dutenak: etxekoei, batez ere umei, euskaraz egiteko hitzak falta dituzten horiek. Zuek ondo diozuen bezala

“tristeia da” kostata ikasi –zeren aitortu dezagun: meritu galanta dute hirietan euskaraz bizitzea erabakitzen duten guraso eta irakasleek!– euskara estandarra egiteko gauza izan, eta umeari begietako makarrak kendu eragin ezinda ibiltzea... Zergatik? Beharbada, ez delako erakusten; beharbada...

Guraso, irakasle arduratsu, eta etxean euskaraz jardun nahi duten horientzat guztientzat, beraz, zerrendatxo hau, guk asmatutakoa. Eta herri euskaldunetan bizi direnei deia: eutsi zorte handiz etxean ikasitakoari.

### MAITASUNA

Etorri zaitetz altzora, gozatu / igurtzi egin behar zaitut eta (altzoan hartu).	<i>Ven a mi regazo, que te voy a hacer unos mimos.</i>
Badago musutxo bat niretzat?	<i>¿Me das un besito?</i>
Etorri zaitetz hona eder hori! (kutuntxo hori)	<i>¡Ven aquí, mi amor! (preciosa/o, tesoro, vida...)</i>

### LOA

Hara, Txomin / Lorentzo etorri da eta!	
Marixe Bekaineko etorri zaio.	<i>¡Le está entrando un sueño...!</i>
Mamarroa etorri zaio umeari	
Hau da lo-gosea daukadana! (lo-zorrak dauzkat)	<i>¡Tengo un sueño atrasado...!</i>
Logura naiz (logale, logaleak nago).	<i>Tengo sueño.</i>
Zelako lo errea daukan haurrak!	
Ume hau loak erreta dago.	<i>Se cae de sueño y está insoportable.</i>
Lo dago, harria legez.	
Harri eta horma dago lo.	<i>Duerme como un tronco.</i>
Gure haurrak loarina du.	<i>Tiene el sueño ligero.</i>
Lehenengo loa beti izaten da astuna.	<i>El primer sueño suele ser profundo.</i>
Ume honi lo-kuluxka /lo-kuku bat egitea komeni zaio.	<i>No le vendría mal echarse una cabezadita.</i>
Gau txarra eduki du.	<i>Ha dado mucha guerra esta noche.</i>
Lo bat egin dut bart.	<i>He dormido de un tirón.</i>
Zurrunga politak egin dituzu bart.	
Arrantzaka ibili zara gau osoan!	<i>¡Cómo roncabas anoche!</i>
Aharrausika zegoen eta lotara eraman nuen.	<i>Bostezaba mucho y lo llevé a la cama.</i>
Ahuspez lo egitea ez omen da ona; nik albokera egiten dut.	<i>Dicen que no es bueno dormir boca abajo; yo duermo de lado.</i>
Gabon. Ondo lo egin. Bihar arte. Ametseta (amets) gozoak egin.	<i>Buenas noches. Que duermas bien. Hasta mañana. Que tengas dulces sueños.</i>

## LOA

Lorik egin ezinik igaro dut gaua  
(begiak batu / bildu ezinik).

Ametseta txarrak egin / izan ditut.

Otsoarekin egin dut ametsetan.

Atera nagiak!

Berdindu zeure ohea.

*No he pegado ni ojo en toda la noche.*

*He tenido pesadillas.*

*He soñado con el lobo*

*Desperézate.*

*Haz la cama.*

## GARBITASUNA

Garbitu beterreak / begiko bekarrak!  
(makarrak, pistak)

Garbitu belarriak!

Dena basaztuta etorri zara! (kakaztuta)

Kendu moko kandela horiek!

Ez jan mokorik!

Ez ibili peskan / angulatan!

Egizu zintz!

Bota gorro hori komuneko zulotik behera,  
eta gero jo bonba (karkaixa).

Zu! Inori ez zaio txisturik botatzen gero!

Eta gorrerik gutxiago!

Atzamar oskolak ebaki behar dira  
(atzazalak moztu).

Garbitu ondo haginak!

Garbitu ondo esponjarekin!

Altxatu tapa txiza egin baino lehen.

Apuntatu ondo eta kanpora ez egin txizarik!

Orraztu ile-txima horiek!

Ama, ondo orraztuta nago?

Berotzen ere hasi da eta ebaki egin beharko  
dugu ile-zapa hori.

Hori da hori ilajea daukazuna!

Libratu egin beharko da, ba, ile hori!  
(korapiloak askatu)

Kopetak egingo dizkizut gutxiago  
korapilatzen da ilea eta.

Ama, atarako didazu arraia?

Jaso zeure gela! Batu jostailuak, oraintxe  
bertan! (bildu)

Halako zikin-batzailea!

Hemen dago egoteko anabasa hemen!  
(lorrina, nahaste-borrastea)

*¡Quítate esas legañas!*

*¡Límpiate las orejas!*

*¡Qué sucio has venido hoy!*

*¡Quítate esas velas!*

*¡No te comas los mocos!*

*¡No te andes / hurgues en la nariz!*

*(no saques entradas)*

*¡Suénate los mocos!*

*Echa la flema por el váter y luego le  
das a la bomba.*

*¡Oye! No se echan salivazos (escupita-  
jos), y menos, si son gargajos.*

*Hay que cortarse las uñas.*

*¡Límpiate bien los dientes!*

*¡Frótate bien con la esponja!*

*¡Levanta la tapa antes de mear!*

*¡Apunta bien, y no te mees fuera!*

*¡Peinate esas greñas!*

*¿Me he peinado bien?*

*Empieza a hacer calor y tendremos  
que cortar ese pelo.*

*¡Vaya pelambrera que tienes!*

*Habrá que desenredar este pelo.*

*Te voy a hacer trenzas, así se te enreda  
menos el pelo.*

*¿Ama, me haces la raya?*

*¡Ordena la habitación! ¡Recoge tus  
juguetes ahora mismo!*

*¡Mira que es guarro! ¡Qué forma de  
ensuciarse!*

*¡Menudo desorden!*

**JANTZI!**

Jantzi zapatak!	<i>¡Ponte los zapatos!</i>
Erantzi praka zikin horiek!	<i>¡Quítate esos pantalones sucios!</i>
Ez duzu erara jantzi / irulezetara jantzi duzu jertsea.	<i>Te has puesto el jersey al revés.</i>
Atzekoz aurrera jantzi duzu nikia.	<i>Te has puesto el niki al revés.</i>
Lotu botoiak!	<i>¡Átate los botones!</i>
Lotu zapatak! (lokarriak, zapata zintak, aixuetak)	<i>¡Átate los cordones!</i>
Lehenengo egin korapilo bat, eta gero txibistina!	<i>Primero se hace un nudo y luego la lazada.</i>
Jaso prakak, narras horrek!	<i>¡Súbete los pantalones; menudas pintas!</i>
Uretara sartzeko erremangatu praka barrenak! (jaso)	<i>Si quieres meterte al agua, remángate los pantalones.</i>
Beso gorri ibiltzea gustatzen zaigu (mahuka hutsik, manga gorri).	<i>Nos gusta remangarnos.</i>
Ortozik ez ibiltzeko ba! (oinutsik)	<i>¡Que no andes descalzo!</i>
Biluzik ze gustura egoten diren txikitxoak! (larrugorri)	<i>¡Cómo les gusta a los niños estar desnudos!</i>
Kremailera kateatu zait!	<i>¡Se me ha atascado la cremallera!</i>
Zarratu kremailera!	<i>¡Súbete la cremallera!</i>
Aldatu barruko arropak!	<i>¡Cámbiate de muda!</i>
Lotu gerrikoa!	<i>¡Átate el cinto!</i>
Ipini ondo sama buelta! (konpondu)	<i>¡Súbete bien el cuello!</i>
Non utzi dituzu nire betaurrekoak?	<i>¿Dónde has dejado mis gafas?</i>
Aldean dauzkazu eta!	<i>¡Pero, si las llevas puestas!</i>
Eta nork kendu soinetik zapata berriak?	<i>¡A ver quién le quita ahora los zapatos nuevos!</i>

**JANA**

Jarri mahaia (ipini)!	<i>¡Pon la mesa!</i>
Jaso mahaia eta ez bota behera ogi txapurrik (papurrik).	<i>¡Recoge la mesa y no eches las migas al suelo!</i>
Jan ganoraz!	<i>¡Come como es debido! (como Dios manda)</i>
Egin bapo!	<i>¡Termina!</i>
Bapo!	<i>¡Muy bien, te lo has terminado todo!</i>
Busti ogia tomatetan eta jan, ikusiko duzu ze gozo dagoen!	<i>¡Unta el pan en la salsa y lo pruebas, verás que rico está!</i>
Ez jan hainbeste zopa, loditu egingo zara eta.	<i>No untes tanto, que vas a engordar.</i>
Batu ogiaz!	<i>¡Rebaña el plato!</i>
Zausta-zausta jan du haragia.	<i>Ha devorado la carne.</i>
Nahikoa eginda dago?	<i>¿Está suficientemente hecho?</i>

## JANA

Txuleta hori ia gordinik dago.	<i>Esa chuleta está medio cruda.</i>
Ondo al dago hotz-beroan?	<i>¿Está así bien de temperatura?</i>
Ondo al dago gazi-gezan? (Zelan dago gatz puntuan? / Gatzean, zelan dago?)	<i>¿Cómo está de sal?</i>
Motel dago! Ba, egin gatz apur bat.	<i>Está soso. Pues échale un poco de sal.</i>
Gaziegi dago (Gatzean, bizitxo dago).	<i>Está demasiado salado.</i>
Pipermin larregi egin diozu, eta majo berotzen du ahoa.	<i>Le has echado demasiado picante, y pica un montón.</i>
Txorizero minduna hartu dut eta aho dena erre dit.	<i>Me he comido un pimiento picante, y me está ardiendo la boca.</i>
Limoi ura garratzegia da.	<i>El zumo de limón es demasiado agrio (ácido).</i>
Edari hori mingotsegia da umeentzat.	<i>Esa bebida es demasiado amarga para que guste a los críos.</i>
Ez jan horrenbeste litxarrera!	<i>¡No comas tantas golosinas!</i>
Txikitu / Mamurtu jatekoa ondo ahoan eta gero irentsi!	<i>¡Mastica bien antes de tragar!</i>
Jan astiro, ito barik berton!	<i>¡Come despacio, sin atragantarte!</i>
Arrain hezurra irentsi du eta ogi mamia eman diot sakatzeko.	<i>Se ha tragado una espina de pescado y le he dado miga para que le pase.</i>
Ez apurtu intxaur oskola haginekin!	<i>¡No casques la nuez con las muelas!</i>
Zurituko didazu laranja, mesedez?	<i>¿Me pelas la naranja, por favor?</i>
Laranja urak egin dio kalte nonbait.	<i>Parece que le ha sentado mal el zumo de naranja.</i>
Korroskadarik ez bota mahaian.	<i>En la mesa no se eructa.</i>
Ume mizkinagorik ez da izango inguruetan!	<i>Este crío sólo come las cuatro cosas que le gustan.</i>
Sailean jaten ikasi behar da gero!	<i>¡Come de lo tuyo y no de lo de los demás!</i>
Ahoa beteta dagoela ez da berbarik egiten.	<i>No se habla con la boca llena.</i>
Ahoa zarratuta jaten da.	<i>Se come con la boca cerrada.</i>
Sasoiz etorri, bestela mahaiepe egingo dizugu.	<i>Ven a la hora, si no, empezaremos sin ti.</i>
Asetu da tripatxoa? Bai, bete-bete eginda nago (berdindu).	<i>¿Ya te has llenado? Sí, ya estoy lleno.</i>
Mingainari haginka egin dio.	<i>Se ha mordido la lengua.</i>
Mingaina erre du.	<i>Se ha quemado la lengua.</i>
Zurrustadarik egin barik edan!	<i>¡No sorbas al beber!</i>
Zatituko didazu okela? Txiki-txiki ez, e?	<i>¿Me partes la carne? Pero en trozos muy pequeños no, eh?</i>
Alde zartaginaren ondotik, txipristinak botatzen ditu eta!	<i>¡Apártate de la sartén, que salta!</i>
Ama, txikleka inkatu zait ilean (itsatsi).	<i>Ama, se me ha pegado un chicle en el pelo.</i>

**JANA**

Gizenak apartatu plateraren hegalerara.	<i>Deja lo gordo en el borde del plato.</i>
Kontrako eztarritik joan zait ogi txapur bat eta ia ia ito naiz (okerreko zulotik joan, kontrako bidetik joan).	<i>Se me ha ido al revés un trozo de pan y casi me ahogo.</i>
Zure zopa hau hestegorria erretzeko modukoa dago.	<i>Esta sopa está que arde (está que abrasa).</i>
Bero dago? Ez, epel.	<i>¿Está caliente? No, está templadito.</i>
Zotina kentzeko onena: ura edatea.	<i>Lo mejor para quitar el hipo es beber agua.</i>
Egarri naiz.	<i>Tengo sed.</i>
Gose naiz (tripa-zorriak dauzkat).	<i>Tengo hambre. Me suenan las tripas.</i>
Ez da tomatezalea.	<i>No le gusta el tomate.</i>
Higuinduta nago beti babarrunak jaten! (ok egin / gogaitu)	<i>Estoy hasta el gorro de comer siempre alubias.</i>

**IZAERA, EGOERA**

Beroak itota gaude.	<i>Estamos asados de calor.</i>
Hotzak dar-dar egon da.	<i>Estaba congelado.</i>
Kendu egiozu jertse hori, egosi beharrean dago eta.	<i>Quítale el jersey, que se va a asfixiar.</i>
Mututu egin zaio (isil-isilik geratu da).	<i>Se ha quedado mudo.</i>
Piper aldia izan du goizean (zaputzaldia, kasketaldia).	<i>¡Menudo rebote que ha pillado esta mañana (pataleta)!</i>
Txikitan ez zuen berba asko egiten, baina txolin ederra da orain (berbalapiko, hitzontzi).	<i>De pequeño no hablaba, pero ahora no calla.</i>
Udaberria izango da: ume denak birloratuta dabilta (aztoratuta).	<i>Será la primavera, que todos los críos andan alborotados.</i>
Ez harrotu!	<i>¡No te pongas gallito!</i>
Nauskonturik ez esan! (nagusi-konturik)	<i>¡No te metas en las cosas de mayores!</i>
Ez pipertu! (ez zitaidu!)	<i>¡No te sulfures!</i>
Lotsabako hori! Lotsagalduko!	<i>¡Sinvergüenza!</i>
Ume moko, lotsak ematen?	<i>¿Y este mocoso me va a reñir a mi?</i>
Esan txarrekoa halakoa!	<i>¡Desobediente!</i>
Okerra halakoa! (bihurria, dongea)	<i>¡Travieso!</i>
Ez izan zazkarra! (taketa, kirtena, astoa, astakirtena)	<i>¡No seas bruto!</i>
Piperpotoa halakoa! Ipurterrea!	<i>¡Cascarrabias!</i>
Ipurdikara bazara ba! (ipurloka, pararr)	<i>¡Culo inquieto!</i>
Amazulo! Amazulo!	<i>¡Qué enmadrado estás!</i>
Amaren gonapean hazitakoa da.	<i>No ha salido de las faldas de su madre.</i>

**IZAERA, EGOERA**

Sentikorra bai zeu!	<i>¡Qué delicado!</i>
Mutiko mainatia zen txikitan, eta begira egiozu orain zelako taketa!	<i>De pequeño era un llorón y mírale ahora: hecho un animal.</i>
Neskatala hori beti dabil matrakan. Hori Mari-matraka!	<i>Esa niña siempre está riñendo.</i>
Non dago gure txixontzitxo?	<i>¡Meoncete!</i>
Atze bikoitza! Ipurdi handia!	<i>¡Culo gordo!</i>
Ezin zaio ume koskor bati hainbeste lan eragin.	<i>Un crío no puede trabajar tanto.</i>
Zelako kankailua hazi den!	<i>¡Cómo ha crecido!</i>
Luzatu ederra hartu du!	<i>¡Sí que está rellenita, sí.</i>
Mardula neskatoa, bai.	<i>¡Vaya michelines que tiene!</i>
Zelako girringolak dauzkan!	<i>¡Cómo cecea al hablar!</i>
Zelako zizipaza daukan!	<i>¡No seas vago, majete!</i>
Umea, ez zaitetz, ba, alferrontzia izan! (nagia)	<i>¡No seas vago, majete!</i>
Txiki txikitatik ikasi behar da jasoa izaten.	<i>Aprende desde pequeño a ser ordenado.</i>
Gure ume honek esan ezina zeukan txikitan, baina majo joan zaio! (hitz motela)	<i>De pequeño era tartamudo, pero ya no lo es.</i>
Betokerra da eta horregatik darama begi bata estalita.	<i>Es un poco bizco y por eso lleva el ojo tapado.</i>
Belarri apalak zeuzkan, eta burla egiten zioten.	<i>Se reían de él porque tenía unas orejas de soplillo...</i>
Ez nekien zuen umeak kirrimarroa zeukanik.	<i>No sabía que tu hijo era gangoso.</i>
Etxe hartan hiru ahizpak ziren titili-patalak.	<i>Las tres hermanas pronunciaban mal la "r".</i>

**ZARTATEKOAK ETA ENPARAUAK**

Negar zotinka etorri zitzaidan.	<i>Vino llorando a moco tendido.</i>
Talo ederra egin duzu! (Talo!)	<i>Menudo culo que traes.</i>
Eskolako lehenengo eguna eta atzamarkadaz josita etorri da (atzaparkadaz beteta).	<i>El primer día de clase, y ha llegado lleno de arañazos.</i>
Atximurkada bat behar izan du bere onera etortzeko.	<i>He tenido que darle un pellizco para que entrara en razón.</i>
Formal ez bazabiltza txiki-txiki egingo zaitut! (zati-zati / astin-astin...)	<i>Como no te portes bien, te voy a hacer picadillo.</i>
Adar guztietan zintzilika ibiltzen da, hartu behar du narrukoren / plastadaren bat.	<i>Anda colgándose de las ramas y se va a meter un tortazo.</i>
Gizajoa, kaskarreko handia hartu zuen eta gero konortea galdu.	<i>Pobre, se pegó un buen golpe y perdió el conocimiento (se desmayó).</i>
Aizkorarekin hanka jo eta ebaki galanta egin zuen.	<i>Se dio en la pierna con el hacha y se ha hecho un buen corte.</i>



**ZARTATEKOAK ETA ENPARAUAK**

Bizkorregi zarratu zitzaion zauria, eta gero... zoldu (gaiztotu / gaitzosatu).	<i>Se le cerró demasiado rápido la herida y se le ha infectado.</i>
Belauneko handia hartu duzu? Egiozu mailatuentzako krema eta igurtzi ondo.	<i>¡Menudo rodillazo! Date la pomada de los golpes y extiéndetela bien.</i>
Zinbi-zanbotik jausi naiz eta dena mailatuta nago (zinburutik, dindanetik).	<i>Me he caído del columpio y estoy todo magullado.</i>
Ez heldu hain gogor besotik, beltzuneak irteten didate eta (ubeldurak).	<i>No me agarres tan fuerte del brazo, que luego me salen moratones.</i>
Sasi artera jausi da, eta dena urratua etorri da (sasitzara, sasitara).	<i>Se ha caído a las matas y ha venido todo arañado.</i>
Alambre estakadunean kateatu naiz eta urrutada galanta egin dut bizkarrean (urratu).	<i>Me he enganchado en un alambre de espino y me he hecho un arañazo tremendo en la espalda.</i>
Herrenik ez egin, ze badakit aproposalak dela (gezurretan ari zarela).	<i>No cojees, que tienes más cuento...</i>
Asun artera jausi naiz eta dena erreta nago (asuntzara, asunetara).	<i>Me he caído a las ortigas y vengo todo ortigado.</i>
Ezpainak zartzeko moduko hotza egiten du (ebakitzeko).	<i>Hace un frío que pela.</i>
Kiskali baietz! Zatoz hona krema egitera, gero damutzea alferrik da eta.	<i>¿A que te quemas? Ven, que te de crema, no vaya a ser que luego nos tengamos que arrepentir.</i>
Arantza bat sartu zait eta sasta egiten dit (taupadaka daukat).	<i>Se me ha clavado un pincho y me está pinchando.</i>
Zelako koskorrekoa daukazu bekokian! Topeka ibiltzen zarete, ala?	<i>¡Vaya chichón que tienes en la frente! ¿Os habéis dado de cabezasos?</i>
Ipurdiko galanta hartu dut!	<i>Me he dado un buen culetazo.</i>
Min egin dut atzamarrean!	<i>Me he hecho daño en el dedo.</i>
Ukabilka ibili gara eta begia belztu dit!	<i>Nos hemos peleado a puñetazos y me ha puesto un ojo morado.</i>
Eman egingo dizut gero ipurdiko galanta, e? Koskorrekoa eman diot (kaxkarreko).	<i>¿A que te doy en el culo? Le he dado un coscorrón.</i>
Eman egingo dizut gero kokoteko galanta! (zaplatekoa, masailekoa, ostikada, belarri ondokoa...)	<i>¡Te voy a dar un cachete! (bofetada, patada, sopapo...)</i>

**GAIXOTASUN, MIN, ONDOEZ eta abarrak**

Larrituta nago.	<i>Tengo unas arcadas...</i>
Ez ukitu txapari, erre egingo zara eta! (suari, labeari...)	<i>¡No te acerques al fuego, que te vas a quemar!</i>
Bihotz errea daukat.	<i>Tengo ardor de estómago.</i>

## GAIXOTASUN, MIN, ONDOEZ eta abarrak

Gure umeak gutxi behar du gomituka egiteko (errebésaka / botaka).	<i>Mi hijo vomita por menos de nada.</i>
Gomitularri naiz!	<i>Tengo ganas de devolver.</i>
Ondoezik zaude?	<i>¿Te encuentras mal?</i>
Egon ezina dauka egunotan (ezin egona).	<i>Estos días anda fastidiado.</i>
Eztul txarra dauka.	<i>Tiene una tos terrible.</i>
Eztulka pasatu du gau osoa (eztul eta eztul).	<i>Se ha pasado toda la noche tosiendo.</i>
Hagina lokatuta dauka (koloka).	<i>Se le mueve un diente.</i>
Hagin pala kili-kolo dauka.	<i>Se le mueve una pala.</i>
Doministiku askotxo egiten du ume honek.	<i>Este crío no para de estornudar.</i>
Ene, ba! Hazikurentxoak dauzkazu! (hazigurak)	<i>Eso son crecederas.</i>
Ene! kalentura itzela daukazu! (sukar)	<i>Tienes muchísima fiebre.</i>
Berehala busti bat eman behar zaio haurrari sabeloi hori kentzeko, eta igurtzi gabe lehortu.	<i>Hay que dar un remojón al bebe para poder quitarle la costra de la leche y luego secarlo sin frotar.</i>
Igurtzialdi batzuk hartu eta berehala joango zaizu lepoko mina.	<i>Unos masajes y ya verás cómo se te pasa el dolor de espalda.</i>
Orkatila trokatu du.	<i>Se ha torcido el tobillo.</i>
Laban egin, jausi eta ukondoko hezurtxoren bat apurtu du.	<i>Ha resbalado, se ha caído y se ha roto un hueso del codo.</i>
Gerriko mina dauka gaur gure aitak.	<i>A mi padre le duelen los riñones.</i>
Kili-kili daukazu zaurian, baina ez hazka egin, ze bestela zoldu egingo zaizu (hatz egin).	<i>Aunque la herida te escueza, no te rasques, que se te va a infectar.</i>
Azkura daukat bizkarrean.	<i>Me pica la espalda.</i>
Elgorririk ez du inork harrapatu aspaldion.	<i>Ultimamente nadie ha pillado el sarampión.</i>
Astanafarrerriak jota egon dira gelako ume gehienak (basztangak).	<i>La mayoría de los crios de clase han estado con varicela.</i>
Eztul kukurrukua harrapatu du.	<i>Ha pillado la tosferina.</i>
Eztul haizea sartu zait	<i>Me ha dado la tos.</i>
Heste-sobrea kenduta daukazu?	<i>¿Te han quitado el apéndice?</i>
Begiko mina dauka, eta begiak ireki ezinik dabil.	<i>Tiene conjuntivitis y no puede abrir los ojos.</i>
Begitxindorra atera zaizu.	<i>Te ha salido un orzuelo.</i>
Inori ipurdia ikusiz gero txotorrak irteten du.	<i>Si le ves culo, te saldrá un orzuelo.</i>
Zaldar batek irten dit galtzarpean (erlakizten).	<i>Me ha salido un divieso en el sobaco.</i>
Garatxoz bete zaio eskuineko eskua (enorrez).	<i>Tiene la mano derecha llena de verrugas.</i>
Orin handi bat daukat bizkarrean.	<i>Tengo un lunar enorme en la espalda.</i>
Tripalak dauzkat (tripako mina).	<i>Me duele la tripa.</i>
Bularretik dago.	<i>Tiene tuberculosis.</i>
Belarriko mina daukat.	<i>Me duele el oído.</i>

**GAIXOTASUN, MIN, ONDOEZ eta abarrak**

Hagineko mina dauka.	<i>Le duele una muela.</i>
Eztarriko mina dauka eta etxean gelditu da (samako mina).	<i>Le duele la garganta y se ha quedado en casa.</i>
Eztarria zarratuta daukat eta ezingo dut kantatu.	<i>Estoy afónico y no puedo cantar.</i>
Kokota gogortuta daukat (samako mina / kokoteko mina).	<i>Tengo tortícolis.</i>
Pautak dauzka gure umeak.	<i>Tiene paperas.</i>
Txiza egin du praketara.	<i>Se ha meado en los pantalones.</i>
Barruko sikuak nago	<i>Estoy estreñado.</i>
Uzkerra botatzean, kaka zirinak irten dizu.	<i>Al tirarse un pedo, se le ha escapado la caca.</i>
Txizak irteten dio oraindik ohean.	<i>Todavía se mea en la cama.</i>
Beherakoa daukat / Pirrilera egin dut / Tripak arin samar dauzkat.	<i>Ando con cagalera.</i>
Tartulo ederra!	<i>¡Menudo chichón!</i>
Izerdi batean heldu zen tontorrera (izerdi patsetan).	<i>Llegó a la cima chorreando sudor.</i>

**EKINTZAK**

Txotxo, amari obeditu gero! Esanak egin gero!	<i>¡Chaval, obedece a tu madre!</i>
Jakin daiteke zer darabilzun ohepean! (zertan zabiltzan...)	<i>¿Se puede saber qué andas debajo de la cama?</i>
Zer darabilzu isilka misilka? (ixilimatoan)	<i>¿Qué te traes entre manos?</i>
Beti kontra egiten ere ezingo zara ibili, ezta?	<i>¿Qué, siempre llevando la contraria?</i>
Ez tentatu ze... ia-ian nago gero!	<i>¡No me mosquees, que no estoy de humor!</i>
Ze? Adarra jotzeko gogoia dago, ala?	<i>¿Tienes ganas de vacilar?</i>
Ez esan berba zatarrik? (hitz itsusirik)	<i>¡No digas palabrotas!</i>
Egin berba ganoraz, ahopean barik!	<i>¡Habla claro, y no entre dientes!</i>
Txotxo! Amamari ez zaio burlarik egiten!	<i>¡No le hagas burla a la abuela!</i>
Ederra egin duzu!	<i>¡La has hecho buena!</i>
Lau hankan ibiltzen ikasi du.	<i>Ha aprendido a andar a gatas.</i>
Asko garandu da ume hau denbora gutxian.	<i>¡Cómo se ha soltado a andar en poco tiempo!</i>
Oinez ikasi du!	<i>Ha aprendido a andar.</i>
Altxatu behe gainetik! (jagi, jaiki)	<i>Levántate del suelo.</i>
Hankarkulo eramango nauzu? (hankurkulu, hankatriko, arrelepo, arretriko, arrekokozilo)	<i>¿Me llevas a horcajadas? (a la espalda o sentado sobre los hombros)</i>
Txotxo! ez paratu tente mahaiaren gainean. (tentetu / zutitu)	<i>¡Eh, no te subas a la mesa!</i>

**EKINTZAK**

Kukulumixo jarri eta egin txiza (kokoriko)!	<i>¡Ponte de cuclillas y haz pis!</i>
Belaunikatu zaitetz, mesedez.	<i>Arrodíllate, por favor.</i>
Zeinurik ez egin gero!	<i>¡No hagas gestos! (muecas)</i>
Hara, ikasi du ezkerreko begiaz keinu egiten!	<i>Ya ha aprendido a guiñar con el ojo izquierdo.</i>
Ez jan atzamar oskolik! Eta hatz bizarrik ere ez.	<i>¡No te comas las uñas ni los padrastrós!</i>
Ez heldu labanari hortik.	<i>¡Coge el cuchillo por el mango!</i>
Ez ibili gero putzuei begiak ateratzen! (plisti-plasta putzurik putzu zipristinak ateratzen)	<i>¡No chapotees en los charcos!</i>
Sakatu pedalari! (eman)	<i>¡Pedalea!</i>
Kopla gutxiago eta ekin lanari!	<i>¡Menos cuento, y a trabajar!</i>
Eutsi hortik eta lagundu izarak tolestean.	<i>Agarra de ese lado y ayúdame a doblar las sabanas.</i>
Batu arropak, euria dator eta!	<i>¡Recoge la ropa, que tiene pintas de llover!</i>
Goazen biok arropa zabaltzera eguzkiak irten du eta.	<i>Vamos los dos a tender la ropa, que ya ha salido el sol.</i>

**JOLASAK**

Airezko buelta egin (zilipurdika ibili, txiri-buertaka ibili, txuntxurrunbuelta egin, kikunbehera egin).	<i>Dar la vuelta de campana</i>
Txotxolinka ibili, hanka bakarrean, koixo-koixoka, txantxurrika.	<i>A la pata coja.</i>
Eutsi tiragoma baina inori ez tiratu gero! (tori)	<i>Te dejo el tiragomas, pero no le tires a nadie</i>
Egingo dugu ezkutaketan / bat-bi-hiruka / kubika? (jolastuko gara, ibiliko gara...)	<i>¿Jugamos al escondite?</i>
Sokasaltoan ikasi duzu?	<i>¿Has aprendido a saltar a la comba? (soga)</i>
Goman ibiliko gara?	<i>¿Jugamos a la goma?</i>
Azkenga ibiliko gara? (harrapaketan)	<i>¿Jugamos a pillar?</i>
Lau kantoietara ere ibil gaitezke.	<i>¿Jugamos a las cuatro esquinas?</i>
Ikusi-makusika ibiliko gara?	<i>¿Jugamos a veo-veo?</i>
Apariketan egingo dugu.	<i>Vamos a jugar a cacharritos (comiditas)</i>
Amaka ibiliko gara?	<i>¿Jugamos a mamá?</i>
Ibiliko gara futboleant? / Egingo dugu futboleant?	<i>¿Jugamos al fútbol?</i>
Egingo dugu palaz?	<i>¿Jugamos a pala?</i>
Aldatuko ditugu kromoak?	<i>¿Cambiamos los cromos?</i>
Ibiliko gara tronpan? / Ea tronpari nork hobeto dantzan eragin!	<i>¿Jugamos al trompo?</i>

### JOLASAK

Ibiliko gara play-stationean?

*¿Jugamos con la play station?*

Kanikaka ere egin dezakegu hemen dauzkat kanikak eta.

*Tengo aquí las canicas y podemos jugar.*

Ziri-ziria eta ziburuak ipini dituzte parkean.

*En el parque han puesto un tobogán y unos columpios.*

## ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK

***Accidentes caseros, literatura infantil, limpieza corporal, política agraria europea, reforma constitucional.. Nola eman behar dira adjektibo horiek euskaraz: Konstituzio(-)erreforma, erreforma konstituzionala...?***

Ez da txantxetakoa, ez, egiten diguzun galdera, eta erantzuteko, neurri handi batean, Igone Zabalaren artikulu interesgarri batean<sup>1</sup> oinarrituko gara.

Hasteko, kontuan izan behar duzu adjektiboak, oro har, bi motatakoak izan daitezkeela: kalifikatzaileak (nolakotasunezkoak ere deitzen zaie) eta erreferentzialak; banaketa hori funtsezkoa da euskaratzerakoan.

Adibidez, *comportamiento cívico* sintagman, *cívico* izenondoa kalifikatzailea da, *comportamiento* izenaren ezaugarri bat adierazten baitu, *adecuado*, *moral*, *exquisito*, *desastroso* eta antzeko adjektiboekin gertatzen den bezala.

*Derecho civil* esaten badugu, berriz, *civil* hori erreferentziala da, ez baitu inolako ezaugarriarik adierazten, baizik eta lotura bat jartzen izenaren eta adjektiboaren artean. Horrelakoak dira ondorengoak: *radio terrestre* (de la Tierra), *acrobacias aéreas* (que tienen lugar en el aire), *discriminación racial* (por razón de la raza), *material quirúrgico* (para uso de los cirujanos), *residuos industriales* (provenientes de la industria), *infección vírica* (ocasionada por un virus)...

Batzuetan, zaila izaten da adjektibo bat mota batekoa edo bestekoa den jakitea, baina horretarako ere trukua eskaintzen digu Igonek:

1. ZABALA, Igone. "Argumentu-harremana / Eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila", *Terminologia Nazioarteko Biltzarra*. Donostia: HAEE / UZEI, 1997, 535.-564. or. Egile berak gai honi buruzko txosten bat aurkeztu zuen 2001ean Euskararen Erabilera Berezituen Mintegian: "Erreferentziazko erdal adjektiboaren euskal ordainak", baina, oraingoz behintzat, ez dago argitaratuta.

- Adjektibo kalifikatzaileek graduatzaile bat onartzen dute, eta erreferentzialek ez:

Tiene un comportamiento MUY cívico.

\*Es un derecho MUY civil.

- Adjektibo kalifikatzaileak txertatu daitezke esaldi batean, eta erreferentzialak ez:

Este comportamiento no es cívico.

\*Este derecho no es civil.

- Adjektibo kalifikatzaileak erraz bihurtzen dira izen; ez, ordea, erreferentzialak:

El CIVISMO de su comportamiento.

\*La CIVILIDAD de este derecho.

Kontu hau argitu dugunez, ikus dezagun zein bide eskaintzen digun Igone Zabalak, batzuk eta besteak euskaratzeko.

### ADJEKTIBO KALIFIKATZAILEAK

Izenaren eskuinaldean joaten dira euskaraz, eta nagusiki, hiru mota haue-takoak izan daitezke: berezko adjektibo bakunak, mailegatutakoak, eta atzizkien bidez eratorritakoak.

- Berezkoak:

Noche oscura

Gau iluna

Mueble antiguo

Altzari zaharra

- Maileguak:

Sidra natural

Sagardo naturala

\*Natur sagardoa

Oración gramatical  
 Perpaus gramatikala  
 \*Gramatika perpausa

- Eratorriak (atzizkien bidez) (-ti, -tsu, -(t)ar, -bera, -kor, -kari, -kin, -tiar / liar, -kor, -garri, -kizun, -dun, -ko)

Estación lluviosa  
 Urtaro euritsua

Insecto perjudicial  
 Intsektu kaltegarria

Fertilizante fosfatado  
 Ongarri fosfatoduna

Zona pantanosa  
 Zona zingiratsua

## ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK

Hiru modu nagusi daude horiek euskaraz emateko: hitz-elkarketa, mailegutza semantikoa, eta izenlagunak (deklinabide-markak).

- Hitz-elkarketa

Euskaltzaindiak hitz-elkartuen bidea proposatu zuen aspaldi adjektibo erreferentzialak itzultzeko (1995eko urtarrilaren 25ean onartutako araua), eta hori da gaur egun gehien erabiltzen den bidea<sup>2</sup>:

Problemas sociales  
 Gizarte(-)arazoak

Critica literaria  
 Literatur kritika

2. ESPAÑA OCIO, Edorta. "Gaztelaniazko adjektibo erreferentzialen euskal ordainak eta erabilera", *Terminologia Nazioarteko Biltzarra*. Donostia: HAEE / UZEI, 1997, 349.-369. or.



Deporte rural

Herri(-)kirola

Procedimiento administrativo

Administrazio(-)prozedura

Documentación municipal

Udal(-)agiriak

Ikusten denez, genitiboa badago azpiko egituran (*problemas de la sociedad, procedimiento de la administración, documentos de los ayuntamientos...*), ondo funtzionatzen du hitz-elkarketak.

- Mailegutza semantikoa

Beste batzuetan harreman semantiko hori ez da inondik inora agertzen, eta erreferentzia ahulagoa da. Kasu horietan euskal senak uko egin ohi dio hitz-elkarketari, eta erdal egiturara jotzen du:

Propiedad intelectual

Jabetza intelektuala

\*Adimen(-)jabetza

Composición química

Konposizio kimikoa

\*Kimika(-)konposizioa

Territorio histórico

Lurralde historikoa

\*Historia(-)lurraldea

Nolanahi ere, adi egon behar dugu, adjektibo batek esanahi bikoitza izan dezakeelako, eta ondorioz, modu batean edo bestean euskaratu. Har dezagun Igone Zabalak ematen duen adibide bat. *Electrónico* izenondoak elektroiei egiten die erreferentzia adibide honetan: *transporte electrónico*; izan ere, elektroien garraioaz ari gara. Hortaz *elektroi(-)garraioa* itzuli dezakegu (hitz-elkarketaz baliatuz). *Medidor electrónico* izenondoak, berriz, elektronikarekin du zerikusirik eta ez zehazki elektroiekin beraiekin; hau da, elektronika erabiliz darabilen neurgailuari dagokio. Beraz,

*neurgailu elektronikoa* (\**elektronika(-)neurgailua* nekez onartuko luke euskal hiztunaren intuizioak).

- Izenlagunak

Bide hau gutxiagotan erabiltzen bada ere, emankorra dugu oso, izenaren eta adjektiboaren arteko harreman batzuk finkatzeko. Definizioaren arabera, izenlagunak dira izenaren aurrean jartzen diren adjektiboak, norma-lean *-ko* eta *-ren* atzizkiez osatutakoak. Ikus ditzagun aukera batzuk:

Hilo dental

Hortz(-)haria [hitz-elkarketa]

Hortzetako haria [izenlaguna, helburua adierazteko]

Literatura infantil

Haur(-)literatura [hitz-elkarketa]

Haurrentzako literatura [izenlaguna, norentzako adierazteko]

Energia solar

Eguzki(-)energia [hitz-elkarketa]

Eguzkitiko energia [izenlaguna, iturburua adierazteko]

Corte transversal

Zehar(-)ebakidura [hitz-elkarketa]

Zeharkako ebakidura [izenlaguna, iturburua adierazteko]



Hemen amaitzen dira azalpen teorikoak; dena dela, ez gukez bukatu nahi ohar batzuk egin gabe.

Gaur egungo gaztelaniak –aztertu egin beharko nolakoak ziren gauzak lehen– oso erraz sortzen ditu adjektibo erreferentzialak; dena da *subsidiario*, *edificable*, *financiero*, *didáctico*, *mercantil*, *ejecutivo*, *corrector*, *transitorio*, *oneroso*... Adjektibo uholde horri egin behar dio aurre euskarak; adjektiboen zerrendak pilatzen dira gure terminologoen mahai gainean, euskarazko hiztegiak horiekin betetzen dira, eta ondorioz, gure testuak

honelakoez “apainduta” agertzen zaizkigu: *ekonomia- eta finantza-analisia, merkataritza-zuzenbidea, ugal-aparatua, bizitza-zikloa...*

Galderak: itzulpenak, hiztegiak... alde batera utzi eta euskaraz sortutako idazkietara jotzen badugu, zergatik egiten du behera adjektibo erreferentzialen kopuruak? Zergatik ez ditugu hain sarri topatzen *lehortar espeziak, landa-lana, erritmo ilargitarra...* gaurko eta atzoko idazle onenen liburuetan? Zer dela-eta garai bateko hiztegieta (Mokoroarena kasu) galdetzen badugu nola esaten den *ganado doméstico*, ematen digu *abereak*; edo *luz solar*, *egun argia*; edo *gerra civil*, *anai-arteko gerratea*?

Antza, adjektibo erreferentzialen uholde horrek badu zerikusirik gizartearen garapenarekin, teknologiaren aurrerapenarekin. Agian bai; baina gure ingurumarian beti izan dira itsasoak, ibaiak, nekazariak, abereak, gobernuak, hortzak, gibelak... eta dena ez da izan hain *marino, fluvial, agrario, ganadero, gubernamental, dental* edo *hepático*.

Beldur gara horren guztiaren atzean ez ote den ezkututzen betikoa: erdararekiko morrontza. Adibidez, Igone Zabalak *rural* euskaratzea proposatzen du bere artikuluan (iturburua, nola ez, gaztelania), eta hau dio: “Edozein euskaldunek esango luke ‘errural’ ez dela inola ere onargarria euskaraz, baina *Diccionario de la lengua española* delakoan ageri den definizioari begiratzen badiogu haxe aurkituko dugu: ‘Perteneciente o relativo al campo y a las labores de él’. Hortaz, garbi dago *rural* izenondoak *campo* izenari egiten diola erreferentzia, baina izen horretarako ordainik ez dugu euskaraz. Konponketa *campo* delako kontzeptuari erreferentzia egiten dioten izenondo erreferentzialetarako mugatzaile modura *landa-* izena duten hitz-elkartuak erabiltzea da”.

Hortik ateratzen du Igonek bikote hau:

- Medio rural
- Landa-ingurune
- Trabajo de campo
- Landa-lan

Eta EUSKALTERMen begiratzen badugu: *landa-mediku, landa-maistra, landa-bide...*

Beti bezala, gaztelaniazko termino-zerrenda da abiapuntu bakarra: *rural, campo...* Tamalez, gure euskara txiroak ez omen du izen horietarako

ordainik! Amazoniako landare batzuk izendatzeko ordainik ez izatea ulergarria da, baina *baserriarekin*, *mendiarekin*, *herri txikiekin*, *gurdibideekin* zerikusia duten kontzeptuak ezin eman izatea euskaraz... ez al da tristeza? Eskerrak *sendabelar* hitza gogoratzen dugun, bestela, nola esango genuke euskaraz *plantas medicinales*? *Landare medizinalak*? *Medikuntza(-)landareak*?

Gaztelaniari bakarrik begiratzea salatu du behin baino gehiagotan Ibon Sarasola euskaltzainak<sup>3</sup>. Bere ustez, inguruko hizkuntzei ere erreparatuko bagenie ez genuke esango *Historia garaikidea* (*Historia Contemporánea* adierazteko) baizik eta *Gaur egungo historia* –*garaikide* izena da euskaraz ez adjektiboa, eta gainera, alemanez eta errusieraz, esaterako, badirudi *historia* testuinguruan ez dutela bereizten *moderna* eta *contemporánea*, eta biak *berri*-ren eratorrien bidez egiten dituztela-. Antzera gertatzen da *ordenamiento jurídico* terminoarekin; Iparraldeko jendeari zer den galdetu, eta jakin ez; horren ordez, *legedi* jarri eta orduan bai, euskaldun guztiek ulertzen dute. Azken adibidea: uholde unibertsala. Espainolez *universal* esaten den bakoitzean, *unibertsala* guk; baina Noeren garaiko uholdeari, *uholde handia* esaten zioten lapurtar klasikoek, eta orobat, besteak beste, Mitxelenak.

Euskaldunoi, idazten ari garela, gaur egungo gizartearekin, bizimoduarekin, teknologiarekin... zerikusia duten kontzeptuak datozkigu burura, jakina, horixe baietz!; ez dakiguna da gaztelaniaren bidetik datozkigun antolatuta, hau da, adjektibo erreferentziaz betetik, edo beste modu batean. Azken batean, adjektibo erreferentzialak hizkera abstraktuaren ezaugarri dira, ustezko estilo “jaso” baten erakusgarri. Euskara gorbataz jantzi behar ote dugu, hizkuntza eleganteen dantzaldira sarbide izateko?

Gauza jakina da *helduek*, *zahartu ahala*, *gero eta gutxiago entzuten dute*. Esaldi hau euskaraz dago, hori ezin ukatu; baina nola azalduko genuke ideia konkretu hori, begien aurrean gaztelaniazko perpaus “dotore” hau izango bagenu: *La capacidad auditiva de los adultos va disminuyendo con el paso de los años*? Bada, seguru asko, honela: *Helduen entzumen-gaitasuna gutxituz doa, urteak aurrera joan ahala*.

Beste adibide bat. Nola emango genuke euskaraz ondorengo hau?: *La vida surgió en el mundo marino y se desarrolló más tarde en el medio*

3. SARASOLA, Ibon. *Euskara batuaren ajeak*. Zarautz: Alberdania, 1997.

*terrestre. Ikus dezagun... mundo marino... medio terrestre... Listo: Bizitza itsas-munduan sortu, eta lur-ingurunean garatu zen geroxeago. Ikusten zein “dotore”? Euskara prest daukagu milurteko berriari aurre egiteko, hizkuntza guztietan lehena izateko; izan ere, nora goaz XXI mendearen atarian honelako xinglekeriak esanda!: Bizitza itsasoan sortu, eta lehorrean garatu zen geroxeago!*

Honekin ez dugu esan nahi, ezta gutxiago ere, adjektibo erreferentzialen bidea itxi behar denik; esan nahi duguna da ohiko bi prozedura handiekin batera (hitz-elkarketa eta mailegutza semantikoa), badirela beste baliabide batzuk erdarazko kontzeptu horiek (hori gure patua!) euskaraz emateko. Segituan ikusiko ditugu adibide batzuk, den-denak Usurbilgo Ordenantzetatik ateratakoak (1887 urtea); konturatuko zara nola garai hartako estrategia asko erabilgarri izan daitezkeen gaur egun.

### ► Erabili izenlagunak

Aurretik ere azaldu dugu aukera hau, baina berriro azpimarratu nahi dugu, gure ustez, baztertu samar dagoelako:

La autoridad municipal es ejercida por el Alcalde...

Erriko agintaritza egiten du Alkateak... (Trebiño. *Testu historikoak*, 567. or.).

... de acuerdo siempre con la autoridad eclesiástica.

... orretarako entenditurik Eleizako autoridadearekin. (Trebiño. *Testu historikoak*, 568. or.).

### ► Kendu adjektiboak

Adjektibo erreferentzial “ponpoxoenak” sobran dira maiz, eta kendu daitezke, funtsezko informaziorik galdu gabe. Adi adibideari:

Serán castigados bajo las penas impuestas en las leyes vigentes...

Legeak agintzen duten moduan kastigatuak izango dira... (Trebiño. *Testu historikoak*, 568. or.).

Kasu honetan, garbi dago, testuingurutik besterik ez bada, legeak ezarriko badira, indarrean egon behar dutela.

Era berean, ondorengo *corporal* honek ez du zentzu handirik, ez bada *intelectual* edo antzekoetatik bereizteko:

Se prohíbe todo **trabajo corporal** en público los domingos y días festivos reconocidos por las disposiciones que hoy rigen.

Debekatzen da igande ta jai-egun ezagutu guztietan, agirian **lanik** egi-tea. (Trebiño. *Testu historikoak*, 568. or.).

### ► **Adjektibo baten ordeaz, beste bat erabili**

Adibide batekin berehala ulertuko duzu. Badakizu nola esan izan den beti euskaraz *pecado mortal* eta *pecado venial*? Bada, *bekatu astuna / larria* eta *bekatu arina*. Horiek egongo ez balira, nola esango genituzke gaur?

### ► **Adjektiboen ordeaz, erlatibozko esaldiak**

Prozedura hau ezin dugu ahaztu, adjektiboa euskaratzeak arazoak sortzen dizkigunean:

Las comparsas de músicos, bailarines y **jóvenes postulantes**...

Musikalari, dantzari eta beste orrelako konparsa edo **gizatalde eskean dabilzanak**... (Trebiño. *Testu historikoak*, 568. or.).

No podrán los músicos ambulantes...

Erriz-erri ibiltzen diren **soñu-jotzalleak**... (Trebiño. *Testu historikoak*, 569. or.).

### ► **Adjektiboen ordeaz, izenak (orokortasunetik zehaztasunera eta alderantziz)**

Testuingurua lagun, izen zehatzak jar daitezke, adjektibo erreferentzial orokorren ordeaz:

La autoridad y sus agentes podrán penetrar (...) en los **establecimientos públicos** citados...

Autoridadeak, eta beren mendekoak sartu litezke (...) **ostatu, taberna eta sagardotegietan**... (Trebiño. *Testu historikoak*, 570. or.).

Edo alderantziz, orokortasunera jo, beti ere, testuingurua kontuan izanik:

Se prohíbe sacar paja, heno, hojarasca y demás despojos vegetales...

Eziñ pillan ipiñiko da lasto, orbel, garo eta orrelakorik... (*Testu Historikoak*, 76., 570. or.).

## ► Adjektiboa esaldi batean txertatu

Hitzak esaldietan datoz; eta horiek, paragrafoetan; eta paragrafoak, testuetan... Adjektibo batek sakoneko egituran zer gordetzen duen ikus dezakegu, eta horren arabera, esaldia modu batera edo bestera moldatu. Begira hurrengo adibidean zein ondo libratzen den testuaren euskaratzailea:

No será admitido en las escuelas ningun niño y niña, que no lleve el **certificado facultativo** de haber sido vacunado, ni los que padecen de sarna, escarlatina ú otras **enfermedades cutáneas** hasta su completa curacion.

Ezta eskoletan utziko chertatu gabe dagoen aurrik sartzen, ez ta ere oso sendatu arte, eskabi, charranpiñ edo beste orrelako ereitasunen bat daukanik. Mediku jaunaren agiriarekin probatu beariko du chertatua dagoana eta osasun ona daukana. (Trebiño. *Testu historikoak*, 571. or.).

Ikusi ditugu, azaletik bada ere, beste modu batzuk adjektibo erreferentzialak euskaraz emateko. Orain zure txanda da.

## BIBLIOGRAFIA

ESPAÑA OCIO, Edorta. “Gaztelaniazko adjektibo erreferentzialen euskal ordainak eta erabilera”, *Terminologia Nazioarteko Biltzarra*. Donostia: HAEE / UZEI, 1997, 349.-369. or.

ZABALA, Igone. “Argumentu-harremana / Eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila”, *Terminologia Nazioarteko Biltzarra*. Donostia: HAEE / UZEI, 1997, 535.-564. or.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

TREBIÑO, Imanol. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: Herri Ardulararitza Euskal Erakundea, 2001.

—Usurbilgo Ordenantzak (1888), 567.-571. or.

IVAP

**B**estelakoa **K**

**e**  
**s**  
**t**  
**e**  
**l**  
**a**  
**k**  
**o**  
**a**  
**K**





## ITZULPENA: TESTU ELEBIDUNAK

**Ez naiz itzultzailea, euskara-teknikaria baizik. Baina, nire sailean itzultzaileak ez dagoenez, neuk euskaratzen ditut herri-tarrentzako hainbat testu (eskabideak, iragarkiak, oharra, gutunak, jakinarazpenak...). Ba al duzue “urrezko araurik” era horretako testuak euskaratzeko?**

Jakina, legeak ezarritakoa kontuan hartzea komeni da, artez joka dezagun. *Euskararen Legea* aztertzen badugu, erabaki hauekin egingo dugu topo:

“1. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean egon daitezen Herri-Agintaritzagatikako edozein aginte araupide edo erabaki ofizialek bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute zabalkunde ofiziala egiteko”.

“2. Euskal Herriko Autonomia-Elkarteango herri-agintariek eskuhartu dezateneko egintza guztiak, eta bai arduralaritza-mezu eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute; doakienek berariez Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu” (8. atala)”.

Beraz, legearen aurrean bi hizkuntzak ofizialak dira; eta legearen helburua kontuan harturik, ez bide da bata besteari makurtzea, herritarren esku-bideak urratu daitezkeelako. Gainera zortzigarren atal horrek ez du aipatzen itzulpena egitea nahitaezkoa denik, ez eta zein den jatorrizkoa.

Praktikan, ordea, hasieratik bertatik testu bakar bat izan ohi da (sorburuko testua). Gainera, testu horren arkitektura eta idazkera ezin da negoziatu eta berridatzi. Jakina, sorburuko testu “pribilegiatu” (ez baitu kontzesiorik egiten) hori gaztelaniaz idatzita izan ohi da. Horren guztia-  
ren ondorioz, testuak itzuli egin ohi dira, arkitektura bera izan dezaten. Eta fideltasun horretan hierarkia bat dago: lehendabizi idatzi ohi den testuak (hamarretik bederatzi, gaztelaniazkoak) markatzen du arkitektura: adibidez, testuak zenbat paragrafo izan behar dituen, nolako paragrafoak, eta zein ordenatan; eta jakina, gaztelaniazkoak izenburu eta azpi-izenbururik ez badu, bada, euskarazkoak ere ez; nahiz eta komunikaziorako ia-  
ia ezinbestekoak izan izenburua eta azpi-izenburuak. Beste hainbeste

gertatzen da ordenarekin: gaztelaniazkoak ordena kronologikorik erabiltzen ez badu, bada, euskarazkoak ere ez.

Gainera, bada beste kontu bat ere; izan ere, itzulpena egiteaz gain, itzulpen literarioaren irizpideak erabiltzen baitira, baita testurik xumeena (ofizioa, oharra...) euskaratzeko garaian ere: gaztelaniazko testuak nolako baliabide gramatikalak, euskarazkoak halakoak. Badirudi ez dagoela euskaratzeko beste modurik, itzulpen literarioaren bidez ez bada; are gehiago, esango genuke hitzez hitzeko itzulpen literarioa egin ohi dugula: gaztelaniazko testuak “nominalizazioa” erabiltzen badu, euskarazkoak ere bai. Beraz, beldur handirik gabe esan daiteke era horretara itzulitako idazkietan “unitatea” ez dela testua (komunikazio-teorian unitatetzat testua jotzen baita), hitza baizik. Hartara, euskarazko testua gaztelaniazkoaren morroi zintzoa izan ohi da; zenbaitetan gaztelaniazkoa irakurri behar da euskarazkoa ulertzeko: hain da morroi.

Beharbada, norbaitek esan lezake itzulpen literarioak ez daukala zertan izanik hitzez hitzekoa, eta hala da: gaur egungo literaturan ia erabat baztertuturik dago teknika hori, eta itzultzaile ospetsu hainbatek, bederen, unitatetzat ez dute ez hitza, ez esaldia eta ez paragrafoa, testua baizik; eta kapaz dira jatorrizkoa aldatzeko, testuinguruak eta komunikazioak hala eskatzen badu<sup>1</sup>. Nolanahi ere (hitzez hitzekoa izan ala ez) ez gara sartuko itzulpen literarioaren kontuetan, izan ere begi-bistakoa baita administrazio-testuak eta testu literarioak ez direla gauza bera; horixe baita lehenik eta behin bereizi beharrekoa.

Eskuarki, testu literarioek helburu estilistikoa izan ohi dute ardatz eta zutabe, eta, estrategia estetikoak erabilirik, zenbait efektu transmititu ohi dute, irakurlearen plazerra edo arreta lortzearen.


Aldiz, administrazio-testuek helburu komunikatiboa dute ardatz, herritarren eskubideei erantzun ahal izateko; izan ere, administrazioak, sarritan, herritarra jakinaren gainean jarri behar izaten baitu, dena delako prozedurak aurrera egingo badu, adibidez.

Esan gabe doa, hainbat eta hainbat itzulpenek (hitzez hitzekoak, batik bat), gaztelaniaren arkitekturari eta idazkerari orpoz orpo eta “leial-leial”

---

1. “Jatorrizkoa aldatu... noraino?”, *Ros Schwart eta Nicholas de Lange solasean*. Senez, 2001, 23. zenbakia, 1.-9. or.

jarraiturik, zer nolako kalte ikaragarriak sortzen dituen komunikazioan. Ikusi bestela adibidea, zein ez baita salbuespena, herritarrak maiz topatzen duen testua baizik:

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

**PLEGUAREN I. ERANSKINA**

**PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA**

.....jaunak/andreak,  
 .....(e)(a)n,  
 .....kalean helbidea eta  
 .....NaN zk. dudanak, nire izenean edota  
 .....empresa, .....  
 .....(e)(a)n,  
 .....kalean helbidea duena ordezkatzen,  
 .....p.k., .....  
 telefonoa eta..... IFK.

ADIERAZTEN DUT

I.- .....

..... xedea duen obra-kontratua esleitzeko eskainta.iragarpemaren berri izan dudala.

II.- Era berean, Oinarri Teknikoen Plegua, Klausula Administrazio Partikularren Plegua eta kontratu hau eraundu behar duen gainerako dokumentazioa ere ezagutzen ditudala eta bere osotasunean nire gain eta ontzat hartzen ditudala.

III.- Ordezkatzen dudan enpresak berori ireki, instalatu eta funtzionamenduan jartzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza er betebeharrak ditudala.

IV.- Eskaintza honen prestazioari dagokionez, hura betetzeko gutxira ondoko zenbatekoa proposatzen dudala:  
 ..... pta.  
 (letraz adierazi behar da), aipatutako prezioan kontzeptu gutxiak barne hartzen direla ulertuta, edozein alor fiskaleko zergak, gastuak, tasak eta arielak barne direla, bai eta BEZ eta kontratataren industri mozkina ere, prestazioa burutzeko epea.....  
 ..... (e)koa izanik (esleipen-modua lehiaketa denean eta esleitzeko irispide gisa ezarri denean besterik ez).

.....(e)(a)n, 199... (e)ko.....aren .....(e)(a)n.

Sin.:

NaN:

Gainera, bada beste kontu bat ere. Egun egiten diren hainbat itzulpen “por imperativo legal” egiten ditugu, presaka eta korrika; alegia, ez dugu sine-tsi ere egiten “funtzionatzeko” direnik. Baina, historiak eta errealitateak besterik erakusten dute: beti izan ohi da, da, eta izango da euskaraz bizi nahi duenik.

## ▮ Korredakzioa eta tradizioa

Gaur egun bada idazkera-estrategia berri bat, Quebec-eko administrazioan (Kanada) erabili ohi dutena (hain zuzen ere, testu juridikoetan): korredakzioa deritzo. Eta, hitzak berak adierazten duen bezala, ez dauka zerikusirik itzulpenarekin. Izan ere, bi idazle ezberdinek norik bere aldetik “bere” lehen zirriborroa idazten baitute, helburu bera lortzeko (zer informatu behar den, adibidez). Alegia, sortzeko prozeduraren hasiera-hasieran ez dago testu-zirriborro bat, bi baizik. Biak ere “fidelak” dira helburuarekiko, baina ez idazkerarekiko. Gero, bi idazleak bildu egingo dira, eta “negoziatu” egingo dute, bi testuek “arkitektura” berdintsua izan dezaten, gertatu ez dadin batak izenburua izatea, eta besteak ez; edo batak bi paragrafo izatea, eta besteak bost; edo batak ordena kronologikoa erabiltzea, eta besteak ez, eta abar (sari askotan, horiexek izan baitira arkitektura-arazoak). Negoziazio horretan, noski, ez dago hierarkiarik (esan nahi baita ez dela bata besteari makurtzen), baizik eta bi hizkuntzak maila berean daude.

Gure tradizioan, korredakziorik bete-betean bederen erabili ez bada ere, antzera samarreko teknikarik (egokitzapenak) erabili izan dela esan dezakegu Usurbilgo Ordenantzak (1888), besteak beste, aztertu ondoren. Ezin esan ordenantza haiek presaka eta korrika hala moduz euskaratu zirenik; izan ere, euskarazko bertsioaren azken lerroan hitz adierazgarri hauek erakusten digute ordenantza haien maila: *Donostiako Euskal itz-jostaldien Batzarreak Abuztuaren 8-an izan duen billeran, ontzat eman du Ordenantza oen Euskal-biurtza*”.

Horiek horrela, esan dezagun egingo ditugun proposamen gehienak gure historia eta tradiziotik hartu ditugula; ez dira, beraz, laborategian inolako sustrairik gabe eginiko esperimentu hutsalak. Funtsean hiru sailotan banatu ditugu gure proposamenak: komunikazioa, testugintza eta estiloa.

## KOMUNIKAZIOA

Hara testuaren lehen baldintza: testuak funtzionatu egin behar du; alegia, bere helburua lortu behar du, herritarren eskubideei dagokienez. Herritarrek informazioa jasotzeko eskubidea badute, horixe egin behar du euskarazko testuak, nahiz eta gaztelaniazkoak nahasmendua sortu, gaztelaniazkoaren egileak hala jokatu duelako, nahita edo ezjakinez (ez dauka gu zertan sarturik, eta ez gara sartuko, gaztelaniazkoaren egilearen galtzetan). Ikusi bestela adibideak:

Todos los vecinos y habitantes deben saber que las ordenanzas municipales obligan sin distinción de clases, y que están en el deber de prestar sus auxilios á la autoridad siempre que lo reclame, pues que no toda la responsabilidad por abandono, ha de recaer en la autoridad municipal, cuando todo vecino tiene intereses que atender y deberes que cumplir, y no bastaría formar y publicar unas ordenanzas, si el Ayuntamiento no fuere eficazmente secundado por sus administrados. Atento este Ayuntamiento á que se conserve inalterable el órden y la moralidad que en este vecindario ha reinado, y deseando armonizar los intereses particulares con el bien público, estrechando con el mutuo respeto los vínculos de solidaridad con que deben estar ligados todos los miembros de un pueblo para defensa de sus intereses; y persuadido de que la ejecución de estas disposiciones ha de redundar en provecho de la salud pública y seguridad y defensa de las personas y propiedades, precaviéndolas de todos los peligros que puedan alterar los fecundos beneficios de su tranquila posesión, recomienda por estas razones á todos, el más puntual y exacto cumplimiento de aquellas, confiando en que no se verá en la sensible necesidad de hacer uso de las facultades que le concede el artículo 77 de la ley municipal.

**Gaztelaniazko bertsioan kosta egiten da mezuaren mamiari antzematea. Euskarazkoan, aldiz, zailtasun handirik gabe antzematen zaio.**

Erri bateko biztanle guztiak jakin bear dute, erriko ordenanzai guztiak zor diotela obediencia: guztiak bear diotela lagundu autoridadeari, lege oek ondo kunplitu ditezen: ez dala bidezko gauza, ala kumplitzen ez badira, autoridadeari kulpa guztia ematea, bada errian bizi dan edozeñek dauka zeri begiratu, ta dauka ere zér egiñ, eta ez luke ezer balio ordenanza on batzuek ipintzea, baldin Aiuntamentuari erriko jende guztiak lagunduko ez balio alegiña ongi kunpli ditezen. Nai luke Aiuntamentu onek oraindño bezela segi dezatela erri ontan oitura onak; nai luke bakoitzaren interesari kalterik ez egin ta erriko guzienai mesede: nai luke denak, batzuek besteentzat izan dezatela erri bateko jendeen artean izan bear duen errespetoa ta onginaia; bateratu ditezen erri onen interesak eskudatzeko; ta uste du agindu oek kunplitzea guztientzat ongi etorriko dala, beren osasuna eta segurantza, eta personen eta ondasunen zaitzerako ta libratuko dituela elkarren arteko pakeak dakazkien ondasun ugariak galtzeko perilletatik. Argatik erregutzen die erriko guztiai egin dezatela al-duten guztia agindu oek ongi kunplitzeko, ta espero du ez duela premiarik izango Errientzako Legeak bere 77-garren agintean esaten duen eskubidea arturik, norbait kastigatzeko (Tربیڤو. *Testu historikoak*, 573.).

**TESTUGINTZA**

Bilatu egin behar dira bi hizkuntzetarako balio duten testu-arkitekturak, besteak beste, euskarazko testuan hutsuneak ezkerretara etorri ez daitezen. Inprimaki honek, adibidez, edozein hizkuntzatan funtzionatu lezake, arkitektura egokia duelako (konparatu 285. orrialdeko inprimaki traketsarekin):

**BERRIKUSTEKO ERREKURTSOA****ERREKURTSO-EGILEAREN DATUAK**

Izen-abizenak: .....  
 Nortasun agiria: .....  
 Helbidea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Jakinarazpena jasotzeko helbidea:  
 .....

**AURKATUTAKO EBAZPENA**

Bere garaian ebazpen honen berri izan nuen:

**Ebazpenaren ezaugarriak**

Noizkoa: .....  
 Organo erabakitzailea: .....  
 Erabakitakoa: .....  
 Espediente-zenbakia (*hala badagokio*): .....

Baditut alegazioak ebazpen horren aurka jotzeko, hain zuzen ere ondoren adierazten ditudanak.

**ALEGAZIOAK**

Alegazio horiek 30/92 Legean<sup>1</sup> (118. artikuluan), ezarritako lau baldintza haietako batean oinarritzen dira; hain zuzen ere honako honetan:

- Egintzak ematerakoan egitezko errakuntzaren bat izan eta, eta espedienteari erantsitako agiriak ikusita horretaz jabetzea.
- Arazoa ebazteko funtsezko agiriak agertzea, edo aurkeztea, ebazpenaren ondoren izan arren, eta agiri horiek errekurtsua jarri zaion ebazpenean akatsen bat badagoela agerian jartzea.
- Ebazpena ematerakoan funtsezko eragina izan duten zenbait agiri edo lekukotasun, epai irmo batek, ebazpenaren aurretik edo ondoren, faltsuak direla adieraztea.
- Prebarikazio, funtzionario-eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo bestelako jokabide zigorgarri baten ondorioz ematea ebazpena, eta epai irmo batek hala aitortzea.

Eskaria:

Ebazpena deuseztatzeko edo era honetara aldatzeko: .....  
 .....

<sup>1</sup>. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

## ESTILOA

Bistan da euskarak bere estilo propioa izan behar duela, bai komunikazioari dagokionez, eta bai gramatika-baliabideei (joskera, morfologia, eta hiztegia) dagokienez. Esate baterako, testu dibulgatiboetan, gaztelaniazko testuak hitz baten esanahia adierazi beharrik ere ez badu, horrek ez du esan nahi euskarazkoak behar ez duenik.

Beste hainbeste esan dezakegu baliabide gramatikalei buruz: euskarak “bere” baliabideak erabili behar ditu komunikazioa lortze aldera, gaztelaniazko testuan agerturiko estiloaren mende edo peskizan ibili gabe.

Usurbilgo ordenantzetan, adibidez, ikusi dezakegu nola ez dion jarraitzen euskarak gaztelaniazko testuan erabilitako estiloari, ez joskera, ez morfologia, eta ez hiztegian. Ikusi, bestela, adibideak:

### ► Joskera

#### **Punturik gabeko paragrafo lodiak nekea sortu diezaioke irakurleari**

No existiendo garantía más sólida para el buen régimen y gobierno de las sociedades y de los pueblos, que el temor de la Ley de Dios, y debiendo fundarse todos los reglamentos y constituciones humanas, para que tengan verdadera y eficaz fuerza ejecutiva, en la observancia fiel de los preceptos divinos, base y cimiento de todo principio de autoridad; y siendo el primordial deber de sus representantes, amparar, proteger y defender cuanto contribuye á la conservación de la Religion y de la moral evangélica.

Serán castigados bajo las penas impuestas...

Gizatalde eta erriak gobernatzeko gauzarik beárrena eta sostengatzaillerik onena, da Jaungoikoaren bildur santua. Argatik, gizonak egiten dituzten lege guztiak, lege egiazkoak izango badira eta jendeak errespetatuko baditu, bear dira egin Jaungoikoaren Lege Santuari begiratuaz, zergatik Lege Santu oni zor zaion errespeto eta obediencia da agintaritzaz edo autoridadearen zimendua. Orregatik, eta nola agintaritzaz edo autoridade au daukaten guztien lenbiziko eginbidea dan, Erljiyo Santuko gauzak eta Ebanjelioan agintzen diranak anparatzea, eskudatzea eta alegiña guzian gorderazitzea, Erri onetako Batzarrak erabaki du:

Legeak agintzen duten moduan kastigatuak izango dira...

(Trebiño. *Testu historikoak*, 568.).



### Betelanak alferrik puztu ohi du testua

Agi denean, beltzean daudenak hitzik gabe, testuak ez du gauza handirik galtzen, euskarazko bertsoan ikusten den bezala:

El público guardará en todos los sitios de general concurrencia, **bien en los establecimientos arriba indicados ú otro cualquiera, así como en la via pública**, el debido respeto y compostura, sin promover desórdenes, riñas ó disputas que causaren la perturbación de los vecinos **pacíficos**.

Jende guztiak egon bearke du moduz eta errespetoarekin, toki publiko edo mundu guztia joaten danetan, eta eziñ aterako du, beren arteko pakea ken lezakean erriyerta ta sesiyorik. (Trebiño. *Testu historikoak*, 570.).

### Esaldi pasibo agentedunaren orde ezaldi aktiboa (*nork*) erabil daiteke

La autoridad municipal es ejercida por el alcalde y sus Tenientes en la forma...

Erriko agintaritza egiten du **Alkateak** bere ordekoakin Legeak... (Trebiño. *Testu historikoak*, 567.).

### Posible da perpaus-mota ezberdina erabiltzea, mezu bera adierazteko

Art. 16. No se podrán establecer especuladores ambulantes que expongan al público juegos de envite y azar, y **para** poner rifas se habrá de obtener de la autoridad correspondiente la licencia oportuna.

Ez da utziko erriz-erri dabilzan saltzailleak ipiñi dezatela agirian joko debekaturik. Errifaren bat egin bear **badá**, eskatu bear da orretarako lendanaz eskubidea. (Trebiño. *Testu historikoak*, 568.).

### Sarritan, euskarak saihestu egiten ditu erlatibozko esaldiak<sup>2</sup>

La población y su término municipal se divide en las agrupaciones siguientes:

(...) Barrio de San Esteban ó de Urdayaga, **que tiene por límites** el Rio Oriá, el barrio de Zubieta y los puntos denominados de Ondardi y Loazu con Cizúrquil y Aya.

Erria eta bere mendeko lurak, berezitzen dira echadi edo eche-talde oetan:

<sup>2</sup>. Ikusi *Alferrikako erlatiboak*, 230. or.

(...) San Esteban edo Urdayaga-ko echadia. **Bere mugak dira:** Oria ibaya, Zubieta-ko echetaldea, eta Zizurkill eta Aya-ko lurrak Ondardi eta Loazu izendatzen diran tokiyetan. (Trebiño. *Testu historikoak*, 567.).

## Zenbaitetan, baiezkoan bizkorrago adierazten da mezua ezezkoan baino

No existiendo garantía más sólida para el buen régimen y gobierno de las sociedades y de los pueblos, **que el** temor de la Ley de Dios, y ... Gizatalde eta erriak gobernatzeko gauzarik beárrena eta sostengatzailerik onena, **da** Jaungoikoaren bíldur santua. (Trebiño. *Testu historikoak*, 568.).

### Aditza aurreratu<sup>3</sup>

Gainera, Usurbilgo ordenantzetan ikusi dezakegu garai hartan ere erabiltzen zituztela gaur egun proposatutako zenbait jokaera, komunikazioaren alde: esaldi luzeetan esate baterako, aditza aurreratzeko joera antzeman daiteke ordenantza haietan, esaldiaren atzeko muturrean (atzerakarga) egon gabe.

Adibidez, kasu honetan aditzak bereizi egin ditu objektua eta subjektua; bestela, nahastu egingo baitziren biak, elkarren segidan jarrita.

Gizatalde eta erriak gobernatzeko gauzarik beárrena eta sostengatzailerik onena, **da** Jaungoikoaren bíldur santua.

Beste kasu honetan ere aditza aurreratu egin zuen ordenantza-egileak, baina, nahitaez betebeharreko agindua dela adierazteko.

Chimini guztiak **garbituko dira** gichienaz urtean beñ, echean bizi diranen kontura.

## ► Morfologia

### Subjuntiboaz “urrun” gelditzen da ekintza; indikatiboaz, berriz, gertuago

Art. 15 No se permitirá tampoco durante el baile, faltar por medio de palabras, acciones ó de cualquiera otra manera irrespetuosa al decoro que se debe á las personas y á la moral; y los que lo **hicieren**, serán entregados á la autoridad ó a sus agentes; y por esta razon se impe-

3. Ikusi *Atzerakarga*, 217. or.

dirá que tomen parte en el baile los que se **hallen** en estado de embriaguez.

15.garrena. Dantzan ari dan bitartean, eziñ faltatuko zayo iñori itzez, eskuz edo beste moduren batera, eta oraindik guchiago gizabidea zuzentzeko bearrenak diran gauza santuai zor zaioten errespetoari. Ala egiten **badu** norbaitek, ipiñiko da autoridadearen eskuetan, kastigatu dezan. Etzayo utziko dantzan sartzen edanean pasatua **dagoenari**.

(Trebiño. *Testu historikoak*, 568.).

### Gerundioak, gaizki erabiliz gero, ez ditu ekintzak bereizten

Art. 17. Se permitirá en los días de carnaval andar por las calles con careta ó máscara desde las nueve de la mañana hasta el anochecer, á excepción del tiempo que duren los oficios divinos, **prohibiendo** usar para los disfraces los trajes que imiten los hábitos religiosos ó vestiduras sagradas y uniformes que estén destinados á ciertas y determinadas clases oficiales.

17.garrena. Iñauteri egunetan utziko da kalietan zomorroz jantzita ibiltzen goizeko bederatzietatik illunabarra arte, baña ez Eleiz-funzioak diran bitartean. **Debekatuta dago** Eleiz-jantzirik, edo beste autoridadea dutenentzat izendatuak daudenik jaztea. (Trebiño. *Testu historikoak*, 569.).

### Nominalizazioa abstraktuagoa izan ohi da aditza edo izena baino

Art. 21. Los especuladores y directores de compañías de cómicos y volatineros ambulantes, que traten de dar al público funciones al aire libre ó en edificio cerrado, presentarán antes á la autoridad, para su **examen** y **aprobacion** el programa detallado de la **representacion**.

21.garrena. Erriz-erri ibiltzen diran komedianta ta beste modu orrelako funzioak eman nai dituztenak, dala toki ichian, dala kalean, erakutsi bear diote lendanaz autorideari, **esamiñatu** eta **ontzat eman** dezan, egin bear duten **funzioaren** azaldea. (Trebiño. *Testu historikoak*, 569.).

## ▮ Hiztegia

### Hitzik ezagunena beti

Art. 57. La venta del pan deberá hacerse en piezas del peso que hoy se acostumbra, sujetándose al **sistema métrico decimal**...

57garrena. Ogia salduko da oraiñ oitura dan bezelako pisuan, au da, **kilogramo**, **kilogramo-erdi** ta orrelakoetan... (Trebiño. *Testu historikoak*, 571.).

## Erakunde baten atzean kargudun bat izaten da

Art. 54. No podrá darse sepultura á ningun cadáver antes de trascurrir por lo menos veinte y cuatro horas despues del fallecimiento, y previa la presentacion de la licencia expedida por el **Juzgado** municipal....

54.garrena. Eziñ gorputzik lurperatuko da, ill ta hogeí ta lau ordu igaro bitartean, eta erriko **Juezaren** baimenik gabe. (Trebiño. *Testu historikoak*, 570.).

## Formulak, zenbaitetan, ilundu egiten du mezua

Art. 72. Los niños comprendidos en la edad escolar que durante las horas de clase se hallen jugando en las calles y caminos, serán entregados á sus padres ó encargados; **y en su defecto**, conducidos á la escuela.

72.garrena. Eskolara joateko edadea duten aurrak, arkitzen badira kalean edo bideetan jostatzen, eskolako orduetan, izango dira beren gurasoai edo buru egiten dutenai entregatuak, **edo bestela** eramango dira eskolara. (Trebiño. *Testu historikoak*, 571.).

## Perifrasia baino zehatzagoa izan ohi da izena

Art. 13. ...No se permitirá que el tamboril (...) continúen ejecutándose despues del **toque de la oracion del anochecer**.

13.garrena. ...**Abe Maria** edo **Amezkill**a jotzen danetik, isilduko da ilunabarrean danboliñ edo... (Trebiño. *Testu historikoak*, 568.).

## Ez da aukera txarra, behar denean, terminoaren azalpena egitea

Materias combustibles

Errekaia edo erraz su-artzen duten gauzak

## Sinonimoak ere lagundu egiten du, hitza ezezaguna bada

Inhumaciones

Obiratzeak edo lurperatzeak

## Adjektibo erreferentziala baino egokiagoa izan daiteke izenlaguna<sup>4</sup>

Fiestas populares

Herriko festak

Dena den, estiloaren puntu honetan esandako guztia beste gauzarik ez da adibide sorta bat baizik. Esan nahi baita liburu honetan eta aurrekoetan (*Argiro, Hizkera argiaren bidetik...*) estiloaren gainean egindako proposa-

4. Ikusi *Adjektibo erreferentzialak*, 271. or.

men gehienak (guztiak ez esatearren) erabil ditzakegula hainbat testu elebidunetan (gutunak, bandoak, jakinarazpenak...), nahiz eta gaztelaniazko testuak ez erabili.

Guztiarekin ere, amaitu baino lehen errepika dezagun gure asmoa ez zela itzulpen-teoria aztertzea eta sakontzea, eta are gutxiago itzulpen literarioa. Gainera (ez gara aspertuko behin eta berriro errepikatuagatik), gure proposamen hauek ez ditugu egin gaur egun eta “hemengo” testu juridikoetan erabiltzeko asmoz (horiek euskaratzeko, beharko da itzultzaile trebaturik, ziurtasun juridikoa bermatze aldera), baizik eta euskara teknikariek euskaratu behar izaten dituen hainbat testutan (batez ere komunikazioarekin zerikusirik dutenak: jakinarazpenak, bandoak, iragarkiak...) baliatu ahal izateko. Quebec-en korredakzioa, hain zuzen ere, testu juridikoetan erabiltzen badute ere, guk testu apalagoetan erabiltzearekin konformatu beharko, oraingoz.

## BIBLIOGRAFIA

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. *Argiro idazteko proposamenak eta arketak*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1997.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. *Hizkera argiaren bidetik*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1994.

## ADIBIDEEN ITURRIAK

TREBIÑO, Imanol. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2001.

—Usurbilgo Ordenantzak (1888), 567.-573. or.

## NOLA DISEINATU TESTU ELEBIDUNAK

### Testu elebidunen itxurari buruzko galdera bi egin nahi dizkizuet:

- **Nola idatzi behar ditugu testu elebidunak: zutabeka, orrialdeka...?**
- **Zer egin daiteke testu elebidunetan euskara nabarmentzeko?**

Gai honetan izugarriko garrantzia du kasuan kasuko administrazioak jarraitu nahi duen hizkuntza politikak. Ondo dakizunez, era guztietako administrazioak ditugu gure ingurumarian. Batzuek ez dute inolako ardurarik erakusten euskararekiko, eta maiz “ahaztu” egiten zaie gure hizkuntza; beste batzuek legeari eusten diote, eta besterik ez: idazkiak ele bietan ematen dituzte inolako hausnarketarik egin gabe. Azkenik, euskararen aldeko diskriminazioa hautatu dutenak ere badira, euskara goratzen ahalgintzen direnak, alegia. Horrenbestez, zuri dagokizu esango ditugunak zure erakundearen hizkuntza-jokabideari egokitzea.

Hasteko esan dezagun, gure ustez, idazki-motak baldintzatu egiten duela testu elebidunen diseinua. Hiru kasu nagusi ikusten ditugu guk:

1. Euskarazko eta erdarazko testuak orriaren alde batean agertzea.
2. Euskarazko eta erdarazko testuak orriaren alde banatan agertzea.
3. Euskarazko eta erdarazko testuak orri bat baino gehiagotan agertzea.

1. Lehen kasuari dagokionez, eta idazki-motak kontuan izanik, hiru aukera-edo:

- Inprimaki batzuetan datuak eskatzen dira bereziki (izen-abizenak, helbideak, telefonoak, etab.). Horrelakoetan, hobe dugu hizkuntza biak bata bestearen ondoan jartzea; izan ere, datuok behin bakarrik eman behar ditugu. Adibidez:

Izena / Nombre:

Abizenak / Apellidos:

- Idazkiak ohar laburrak baldin baditu (bandoa, iragarkia, oharra), orrialdearen goiko aldean jar dezakegu testu bat, eta beheko aldean bestea. Esate baterako:

**OHARRA**

Obra batzuk direla-eta, ura moztuko dugu auzo honetan.

**Eguna:** 2002ko urriaren 22a (asteartea)

**Ordua:** 08:30 / 10:30

**AVISO**

De corte en el suministro de agua en el barrio debido a unas obras.

**Día:** 22 de octubre de 2002 (martes)

**Hora:** 08:30 / 10:30

- Idazkia orriaren alde batean sartzeko modukoa bada (ofizioa, gutuna, bilera-deia...), zutabeetara jotzen dugu askotan administrazioan. Hona adibide bat:

Ana Santamaría  
Zerbitzu zuzendaria  
Administrazio eta Zerbitzu Sailordetza  
Ogasun eta Herri Administrazioa  
Vitoria-Gasteiz

### Administrazioko hizkerari buruzko ikastaroak Cursos sobre lenguaje administrativo

Andre hori:

Urtero bezala, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak administrazioko hizkerari buruzko ikastaro batzuk antolatatu ditu. Hauek dira ikastaroren izenak:

- Testuen zuzenketa.
- Nola hitz egin jendearen aurrean.
- Idazketa prozesua, bere osan.

Honekin batera bestelako informazioa ere bidaltzen dizut interesatuei emateko (helburuak, irakasleak, toki-egunak, prezioak, eskari-orriak).

Aldez aurretik, eskerrik asko.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko azaroaren 12a

Olga Rojo  
HAEEko zuzendaria

Estimada señora:

Como viene siendo habitual, el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), ha organizado diversos cursos relacionados con el lenguaje administrativo:

- Corrección de textos.
- Cómo hablar en público.
- El proceso de la escritura.

Le adjunto información complementaria sobre dichos cursos (objetivos, profesorado, fechas, precios, impresos de solicitud) confiando en que se la haga llegar a los interesados.

Muchas gracias.

2. Zutabeak gehiegi gustatzen ez bazaizkigu, aurreko dokumentu horiek –orri batean sartzen direnak, alegia– orriaren alde banatan jar ditzakegu, hau da, alde batean euskaraz, eta bestean erdaraz.
3. Euskarazko eta erdarazko testuek orri bat baino gehiago hartzen badute, bi eratarata jokatzeko modua ikusten dugu; beti ere, idazkeraren luzera aintzat hartuta:
  - Testuak orri gutxi hartzen baditu (dekretua, erabakia...), oraindik ere bi zutabeak egokiak izan daitezke.
  - Testua luzeagoa bada (txostenak, aktak, liburuak...), egokiagoa da orrialde ezberdinak erabiltzea (ezkerreko orrian hizkuntza bat, eta eskuinean bestea; edo liburuaren aurrealdean bat, eta atzealdean, ipurdiz gora, bestea). Horretarako arrazoia garbi dago: zutabetan idazten dugunean paragrafoak labur-laburrak izaten dira, eta neka-garri egiten da orri erdira heldu orduko, begiei behin eta berriro ezkerrera eragitea aurrera egiteko.



Egin diguzun bigarren galdera ere oso interesgarria da: zer egin daiteke testu elebidunetan euskara nabarmentzeko?

Jakin ezazu –kolorearen erabilera alde batera utzita– hiru bide nagusi dau dela idazki elebidunetan, hizkuntza horietako bat goratzeko:

1. Kokapena.
2. Tipografia.
3. Osagai komunak.

1. Kokapenari dagokionez, hiru egoera aztertuko ditugu: elkarren ondoan doazen hitzak, zutabeak eta orrialdeak.

- **Elkarren ondoan doazen hitzak.** Hizkuntza bat nabarmentzeko, aurrean edo gainean jarriko dugu beti. Ikusi nola goratzen dugun euskara ondorengo adibidean:



Prestakuntza ikastaroetarako eskabide-orria  
*Solicitud para cursos de formación*

Izena / <i>Nombre</i>	1. abizena / <i>1º apellido</i>	2. abizena / <i>2º apellido</i>	NAN/DNI
-----------------------	---------------------------------	---------------------------------	---------

Erakundea / <i>Institución</i>	Saila / <i>Departamento</i>		
Zerbitzua / <i>Servicio</i>	Lanpostua / <i>Puesto de trabajo</i>	Lantaldea / <i>Grupo</i>	
Erakundearen helbidea / <i>Dirección de la Institución</i>		Tel.	Fax

Ikastaroaren izenburua / <i>Título del curso</i>	Lekua eta egunak / <i>Fecha y lugar</i>
--	---

Ontzat emana (izenpea eta zigilua) / *VºBº (firma y sello)*  
 Eskatzailearen izenpea / *Firma del solicitante*

- **Zutabeak.** Alor honetan egin diren ikerketen arabera, ezkerreko zutabea da nabarmentzen dena, begiek, berez, horretara jotzen baitute zuzenean:

Euskara:  
 Euskaraeuskaraeuskaraeuskar  
 araeuskaraeuskaraeuskara  
 euskaraeuskaraeuskaraeus  
 karaeuskaraeuskaraeuskara  
 euskaraeuskaraeuskaraeus  
 karaeuskaraeuskaraeuskara  
 euskaraeuskaraeuskaraeus  
 karaeuskaraeuskaraeuskara  
 euskaraeuskaraeuskaraeus  
 karaeuskaraeuskaraeuskara  
 euskaraeuskaraeuskara.

Erdara:  
 Erdaraerdaraerdaraerdaraerd  
 araerdaraerdaraerdaraerdara  
 erdaraer erdaraerdaraerdara  
 erdaraerdaraerdaraerdaraer  
 daraerdaraerdaraererdaraer  
 daraerdaraerdaraerdaraerdar  
 raerdaraerdaraerdaraerdara.

- **Orrialdeak.** Bi orrialde baldin baditugu parean –ezkerraldekoa (bikoitia), eta eskuinaldekoa (bakoitia)–, eskuinekoak omen du lehentasuna; horrexegatik izaten da garestiagoa iragarkiak eta publizitatea orrialde horretan jartzea, ezkerraldean baino.

<p>Erdara:</p> <p>Erdaraerdaraerdaraerdaraerd  araerdaraerdaraerdaraerdara-  erdaraer erdaraerdaraerdara-  erdaraerdaraerdaraerdaraer-  daraerdaraererdaraer-  daraerdaraerdaraerdaraerda-  raerdaraerdaraerdaraerdara.</p>	<p>Euskara:</p> <p>Euskaraeuskaraeuskaraeusk  araeuskaraeuskaraeuskara-  euskaraeuskaraeuskaraeusk-  karaeuskaraeuskaraeuskara-  euskaraeuskaraeuskaraeusk-  karaeuskaraeuskaraeuskara-  euskaraeuskaraeuskaraeusk-  karaeuskaraeuskaraeuskara-  euskaraeuskaraeuskaraeusk-  karaeuskaraeuskara.</p>
---	--

## 2. Tipografiak ere badu eraginik

Batetik, neurria erabil dezakegu: zenbat eta letra handiago, orduan eta garrantzi handiagoa hizkuntzarentzat:

ZIURTAGIRIA  
CERTIFICADO

Bestetik, letra-mota. Edozein letra hiru era hauetara ager daiteke, besteak beste: **lodia**, zuzena, *etzana*. Horien artean hierarkia bat eginez gero, lehen da nabarmenena; eta azkena, gaiztoena, irakurtzeko orduan:

ZIURTAGIRIA  
ZIURTAGIRIA  
ZIURTAGIRIA

Horiek horrela izan arren, kontu handiz ibili behar dugu tipografia aukeratzekoan. Letra **lodia**, neurriz erabilia, oso aproposa da zer edo zer azpimarratu edo indartzeko; neurririk gabe, berriz, nekatu egiten du, eta ez du testu luzeetarako balio. Antzera gertatzen da *etzanarekin*; letra normalaren aldean, etzanak askoz ere gehiago nekarazten ditu irakurlearen begiak, eta gainera arazo askoren iturri da: esaterako, zer egin behar dugu etzanez idatzitako testu batean etzana erabili behar badugu liburu bat edo dena delakoa aipatzeko? Ikusi paragrafo hau hiru letra-motak erabilia:

Horiek horrela izan arren, kontu handiz ibili behar dugu tipografia aukeratzeko. Letra lodia, neurritz erabilia, oso aproposa da zer edo zer azpimarratu edo indartzeko; neurririk gabe, berriz, nekatu egiten du, eta ez du testu luzeetarako balio. Antzera gertatzen da etzanarekin; letra normalaren aldean, etzanak askoz ere gehiago nekarazten ditu irakurlearen begiak, eta gainera arazo ugarien iturri da: esaterako, zer egin behar dugu etzanez idatziko testu batean etzana erabili behar badugu liburu bat edo dena delakoa aipatzeko? Ikusi paragrafo hau hiru letra-motak erabilia.

Horiek horrela izan arren, kontu handiz ibili behar dugu tipografia aukeratzeko. Letra lodia, neurritz erabilia, oso aproposa da zer edo zer azpimarratu edo indartzeko; neurririk gabe, berriz, nekatu egiten du, eta ez du testu luzeetarako balio. Antzera gertatzen da etzanarekin; letra normalaren aldean, etzanak askoz ere gehiago nekarazten ditu irakurlearen begiak, eta gainera arazo ugarien iturri da: esaterako, zer egin behar dugu etzanez idatziko testu batean etzana erabili behar badugu liburu bat edo dena delakoa aipatzeko? Ikusi paragrafo hau hiru letra-motak erabilia.

*Horiek horrela izan arren, kontu handiz ibili behar dugu tipografia aukeratzeko. Letra lodia, neurritz erabilia, oso aproposa da zer edo zer azpimarratu edo indartzeko; neurririk gabe, berriz, nekatu egiten du, eta ez du testu luzeetarako balio. Antzera gertatzen da etzanarekin; letra normalaren aldean, etzanak askoz ere gehiago nekarazten ditu irakurlearen begiak, eta gainera arazo ugarien iturri da: esaterako, zer egin behar dugu etzanez idatziko testu batean etzana erabili behar badugu liburu bat edo dena delakoa aipatzeko? Ikusi paragrafo hau hiru letra-motak erabilia.*

- 3.** Osagai komunak aipatu ditugu lehen; baina zertaz ari gara? Bi zutabetan idatzitako testuetan (ofizioak eta gutunak, esaterako), berez hizkuntza bietan errepikatu beharko genituzkeen osagai batzuk dauzkagu, hala nola, hartzailearen datuak (kargua, saila, helbidea), igorlearenak, data... Bada, gure hizkuntza nabarmentzeko modu bat hauxe izan daiteke: horiek guztiak euskara hutsean agertzea<sup>1</sup>.

<sup>1</sup>. Ikusi ofizioaren adibidea, 296. or.

Testuaren barruan berdin egin dezakegu bestelako osagaiekin; adibidez, toki-izenak (*Deba Garaia, Donostialdea...*), ehunekoen zeinuak (%65), eta abar euskaraz bakarrik eman.

**LABURBILDUZ**, testu elebidun batean euskara goratu nahi badugu, hauxe egin behar da:

- Hitzak elkarren ondoan badatoz, jarri aurretik edo gaineratik euskarazkoa, eta nabarmendu letra handiagoa edo lodia erabiliz, edota letra etzana (ilunagoa) erdararentzat utziz.
- Orri bakarraren alde banatan idatzi badugu (alde batean euskaraz, eta bestean erdaraz) kontuz ibili orria kartazalean sartzerakoan: kartazala irekitakoan euskarazkoak izan behar du irakurtzen den lehena. Triptikoak ere modu egokian tolestu eta aurkeztu.
- Testuak bi zutabetan ematen badira, utzi ezkerrekoa euskararentzat. Bi hizkuntzetan letra zuzena (normala) erabiltzea da egokiena; hala ere, erdara “apaldu” nahi izanez gero, idatzi zutabe hori etzanez. Honelako testuetan, beste probatxo bat egin dezakegu: testutik kanpoko osagai komunak (hartzailearen datuak, helbideak, igortzailearen zehaztasunak...) euskara hutsean eman.
- Batzuetan, euskara goratzeko beste bide bat osagai batzuk euskara hutsean ematea izan daiteke. Adibidez, kopuruak (%65), toki-izen batzuk (*Deba Garaia*) etab.
- Orrialdeka idazten badugu, gorde eskuinekoa euskararentzat.

## BIBLIOGRAFIAK

---

**Lanean, txostenak, urtekariak, artikuluak... idatzi behar izaten ditut, eta beti sortzen zait arazo bera: nola arraio idatzi behar dira liburuen erreferentziak bibliografietan? Zein datu eman behar ditut? Zein hurrenkeratan? Zein hizkuntzatan? Berdin egiten dira liburuen erreferentziak eta aldizkarietak?**

---

Gaizki-ulerturik egon ez dadin, hasi baino lehen, hau esan nahi dizugu: jakintza-arlo bakoitzak, muga batzuen barruan, bere ohiturak ditu aipamen bibliografikoak egiterakoan: ez dago, beraz, “lege orokorrik”; garrantzitsua da, nolana ere, lanaren barruan sistema koherente bat erabiltzea.

Zure galderari erantzuteko, nagusiki arau hauetan oinarrituko gara: nazioarteko ISO 690: 1987, eta horren gaztelaniazko itzulpenean: UNE 50-104-94. Dena dela, garbi gera dadila gure helburua ez dela katalogazioko adituentzat idaztea (horiek gure beharrik ez dute-eta), baizik eta euskaraz, inoiz, argitalpenen bat aipatu behar dutenentzat; zuzentzat, adibidez.

Ulertu behar duzun lehenengo gauza hau da: liburu bat aipatzerakoan, nazioarteko arauak bakar-bakarrik esaten digute zein datu sartu behar diren eta zein hurrenkeratan; bestelakoetan (puntuazioa, tipografia...) askatasuna ematen dute, baina adibideak modu jakin batez agertzen dituztenez, bide horri eutsiko diogu guk.

Gai honetan, bi gauza aztertuko ditugu:

1. Hasieran, aipamen bibliografiko guztien osagaiez jardungo dugu (egilea, izenburua, argitaletxea, etab.), eta osagai horietako bakoitzak sor ditzakeen arazoak konpontzen ahaleginduko gara.
2. Ondoren, argitalpen-mota batzuen aipamenak aztertuko ditugu banan-banan: liburuak, aldizkariak, artikuluak...

### 1. AIPAMENEN OSAGIAK ETA HURRENKERA

Hasi gaitezen, bada, lehen kontuarekin; horretarako, hainbat eremutan zatituko ditugu argitalpenen aipamenak:

## ▮ Erantzule nagusiaren eremua

Eremu honetan, egilearen edo egileen izen-abizenak jasoko ditugu.

### ■ Egile bakarra

Lehenbizi, bere abizena(k) ipiniko ditugu; gero, koma; eta komaren ondoren, izena. Abizenak letra larriz idatzi ohi dira, eta izenak txikiz. Izen-abizenok argitalpenean datozen moduan jasotzea komeni da; ez ibili, hortaz, euskarara ekartzen:

Manuel Alvar jartzen badu: ALVAR, Manuel.

Manuel Alvar López jartzen badu: ALVAR LÓPEZ, Manuel.

K. Meyer jartzen badu: MEYER, K.

Izenaren ordeaz, laburdura badator, letra larriz idatzi ohi da:

HABE.

Izen-abizenen ondoren puntua jartzen da; eta izena laburdurarekin ematen dugunean, puntu bakarra:

\*ARREGI, C.M..

ARREGI, C.M.

### ■ Egile bat baino gehiago

Egile bat baino gehiago bada, argitalpenean nabarmendutakoa jasoko dugu lehenik. Horrelakorik ez bada, agertzen diren hurrenkera berean ipiniko ditugu (artean puntu eta koma jarrita):

ALZOLA, Jesús Ángel; BALZATEGI, Félix; URTEAGA, José Rufino.

Hiru izen baino gehiago bada, nahikoa da lehena, edo lehenengo biak edo hirurak aipatzea; horrelakoetan, beste batzuk aipatu gabe geratzen direla adierazteko, latinezko laburdura hauek erabiltzen dira: [*et al.*] (et alii), [*varii*]; edo, bestela, esanahi bereko euskarazko hauek: [zenbaiten artean], [eta beste]. Katalogazioan hiru puntu jartzen dituzte beti laburduraren aurretik:

ARGOTE, Maite... [*et al.*].

GORROTXATEGI, Henry... [eta beste].

### ■ Egilea erakunde bat denean

Erakundearen izena jartzen da, besterik gabe:

Emakunde.

Batzuetan, erakunde horretako zein zerbitzuek edo atalek prestatu duen lana zehaztu nahi dugu:

HAAE. Euskalduntze Zerbitzua (Administrazioko Hizkeraren Atala).

Erakundea nongoa den garbi ez dagoela ikusten bada, herriaren izena ere aipa daiteke:

France. Ministère de Planification.

### ■ Ez da egilerik ezagutzen

Ez dugu inoiz “egile ezezaguna” jarriko; horren ordean, argitalpenaren izenburua jasoko dugu:

*Normas de trabajo*. Barcelona: Labor, 1979.

## ▶ Izenburuaren eremua

### ■ Nola idatzi izenburua

Jatorrizko argitalpenean agertzen den bezalaxe idatziko dugu; hortaz, ez itzuli euskarara. Nolanahi ere, estiloko beste kontu batzuk (letra larriak, puntuazioa...) ez ditugu zertan jaso zehaztasun osoz. Izenburua letra etzanez idatzi ohi da.

### ■ Bi izenburu edo gehiago

Jatorrizkoan izenburu bat baino gehiago bada –edo bakarra, hizkuntza batean baino gehiagotan–, guztietan nabarmenena jasoko dugu guk, eta horrelakorik ez bada, agertzen den lehena.

### ■ Azpiztitulua

Azpiztituluak jaso daitezke, baldin eta informazio gehigarria ematen badute eta informazio hori garrantzitsua bada argitalpena identifikatzeko. Izenburuaren eta azpiztituluaren artean bi puntu jartzen dira:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *Euskal administrazio publiko-  
etako hizkuntza normalkuntza: legeria eta jurisprudentzia hautatua*.  
Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1997.

### ■ Izenburuak eta azpigituluak moztea

Liburuen, aldizkarien eta gainerako argitalpenen izenburuak eta azpigituluak oso-osorik jasotzen dira; dena dela, izenburu horiek oso luzeak badi-  
ra, moztu egin daitezke, beti ere informaziorik esanguratsuena galdu  
gabe, jakina. Mozketa hori ezin egin daiteke izenburuaren hasieran, eta  
eten-puntuez markatu behar da:

Real Academia Española. *Esbozo de una nueva gramática...* Madrid:  
Espasa-Calpe, 1973.

### ■ Izenburuak, latinezkoak ez diren karakterretan

Bi aukera daude: bata, dagoen bezala jaso, eta kortxete artean, letraldatu-  
ta; eta bestea, letraldatuta bakarrik.

PLATON. *πολιτεία [Politeia]* (euskaratzailea: Juan José Pujana Arza).  
Bilbo: Klasikoak, 1993.

### ■ Liburu baten zatiak eta kapituluak

UNE arauen arabera, kapituluaren izenburua letra zuzenez idatzi behar da,  
eta ez etzanez (kakotx artean sartzea da, dudarik gabe, erabiliena). Gero,  
kapitulu hori zein liburutakoa den esan behar da, eta horretarako, nahi iza-  
nez gero, latinezko *in* preposizioaz balia gaitezke, edo, euskarazko,  
“hemen:” aditzondoaz:

SARASOLA, Ibon. “Erdararen eraso euskal kazetagintzan” (1990),  
*Euskara batuaren ajeak* (2. argitaraldia). Donostia: Alberdania, 1997ko  
abendua, 223.-235. or.

SARASOLA, Ibon. “Erdararen eraso euskal kazetagintzan” (1990).  
Hemen: *Euskara batuaren ajeak* (2. argitaraldia). Donostia: Alberdania,  
1997ko abendua, 223.-235. or.

### ▶ Bigarren mailako erantzuleen eremua

Inoiz beste lagun batzuk agertzen dira jatorrizko argitalpenean bigarren  
mailako eginkizunen bat betetzen (argitaratzaile zientifikoak, zuzenda-



riak, itzultzaileak, irudigileak, erakunde babesleak...). Nahi izanez gero, horiek guztiak izenburuaren ondoren jaso daitezke, argitalpenean agertzen diren hurrenkera berean, parentesi artean, eta euskaraz:

GRIMAL, Pierre. *Diccionario de la mitología griega y romana* (hitzaurrea: Charles Picard; itzulpena: Francisco Peyarols; berrikusketa eta gaztelaniazko argitaraldiaren hitzaurrea: Pedro Pericay). Barcelona: Labor, 1965.

### ▶ Edizioaren eremua

Lehen argitaraldiaz gain, beste argitaraldiak aipatu behar direnean, jatorrizko argitalpenean jasotzen den moduan eta hizkuntzan egingo dugu:

Bigarren argitaraldia  
 2. argit.  
 Tercera edición  
 3rd. ed.  
 New enl. ed.  
 Nueva edición ampliada  
 Canadian edition  
 5e éd, rev. par l'auteur

### ■ Argitaraldia

Datuak hurrenkera honetan emango dira: tokia (bi puntu), argitaletxea (koma) eta urtea. Beti ere, jatorrizko hizkuntza gorde egingo da:

London: Smith & Jones, 1992.

Izen bereko hiriak elkarrengandik bereizteko, probintziaren, herriaren edo dena delakoaren izena jar daiteke parentesi artean. Gauza bera egin dezakegu baldin eta hiria ezezaguna dela uste badugu:

Córdoba (Argentina)  
 Cambridge (Erresuma Batua)  
 Georgia (Estatu Batuak)

Argitalpen-toki bat baino gehiago bada, zenbait aukera daukagu: nabarmenena jaso, agertzen den lehena, edota guztiak (argitalpenaren hurrenkera berean):

London; New York; Toronto:

Argitaraldiaren urtea zenbaki arabiarretan jasoko dugu. Gaur egun ere oraindik argitaratzen bada, hasierako urtea jarriko dugu, eta gero, gidoi bat. Adibidez, 1993az geroztik gaur egunera arte argitaratzen den zerbairen aipamena egiteko:

1993-

Dagoeneko argitaratzen ez bada, ordea, hasierako eta amaierako urteak idatziko ditugu:

1975-1985

### ► **Deskribapen fisikoaren eremua**

Zati hau ez da derrigorrezkoa liburuen aipamen bibliografikoetan, baina bai erabil daiteke hauek jasotzeko: tomoak, liburukiak, faszikulak, orrialdeak...

MOGUEL, Juan Antonio. "La historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuence", *La gran enciclopedia vasca*, XI. tomoa. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1980, 349.-519. or.

### ► **Bildumaren eremua**

Idazkia bilduma edo sorta baten zatia bada, bilduma edo sortaren izena jar daiteke, eta baita dagokion zenbakia ere (horrelakorik badu):

CONTRERAS, Lidia. *Ortografía y grafémica*. Madrid: Visor, 1994 (Biblioteca Gráfica de la Lengua Española, 4).

### ► **Oharren eremua**

Aurreko guztiaren ondoren, informazio osagarriak jaso ditzakegu, nahi izanez gero; esate baterako, aurreko argitaraldi baten berrinprimatzea dela, argitaraldi mugatua, erabilera ofizialekoa... Argitaraldiari buruzko bestelako datuok ere sar daitezke: laster izango dela kalean, prentsan dagoela, eta abar.

Jarraitu baino lehen, hona hemen, laburbilduta, aipamen arrunt batek izan behar dituen osagaiak eta beren hurrenkera:

EGILEAREN ABIZENA(K), Izena. *Argitalpenaren izenburua*. Argitalpen-tokia: argitaletxea, urtea.



Ikus dezagun orain nola egiten diren, bada, aipamenak; beti ere, zein eraketa argitalpena den kontuan izanda:

## 2. ADIBIDEAK

### ► Liburuen aipamenak

#### Egile bakarra

TREBIÑO, Imanol. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: HAAE-IVAP, 2001.

#### Bi egile

ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello. *Idazkera liburua*. Vitoria-Gasteiz: Kultura Saila, 1993.

#### Egilea: erakunde bat

UZEI. *Sinonimoen hiztegia*. Donostia: UZEI, 1999.

### ► Aldizkarien aipamenak

#### Aldizkaria bera

*Administrazioa euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: HAAE, 1993- .

[Lehen azaldu dugunez, amaierako gidoi ireki horrek esan nahi du aldizkaria oraindik ere argitaratzen dela].

#### Aldizkariaren zenbaki jakin bat

ELERIA: *Euskalerriko legelarien Aldizkaria*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1996 (1. zenb.).

## ► Liburuen zatiak

### Artikuluak

URRUTIA BADIOLA, Andres. "Propuestas de simplificación del lenguaje jurídico. Breve reflexión desde el euskara"; *Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa erraztu nahian...* Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1996, 143.-149. or.

### Kapituluak

ZUBIMENDI, Joxe Ramon. "Udal-agiriak euskaraz idazteko irizpideak"; *Udal-agiriak: Euskal Herriko udaletxeetan gehien erabiltzen diren 80 agirien ereduak*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1999, 209.-218. or.

## ► Aldizkarietako artikuluak

ERKOREKA, Josu Iñaki. "Euskara euskal administrazioetan; erabilera arautzeari aurpegi emateko bideak"; *Eleria: Euskal Herriko legegariaren aldizkaria*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1996, 0 zenbakia, 35.-54. or.

## ► Lege-aipamenak

Euskal Autonomi Erkidegoa. Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 1992ko abenduaren 16a, 160. alea.

## ► Biltzarrak

### Biltzarretako argitalpenak

*Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetu nahian: hizkera errazteari buruzko jardunaldietako ponentziak: Donostia, 1995/XI/22-24*. Oñati: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1996, 213. or.

### Biltzarretako argitalpenetako artikuluak

OLAIZOLA, Mertxe. "Administrazioko hiztegia: normalizazio-bidean emandako urratsa"; *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia-San Sebastián: HAEE-IVAP / UZEI, 1997.

## ▮ Doktorego-tesiak

ECHARRI TOMÉ, Rosa M<sup>a</sup>. *Estudio de factores que pueden influir en la calidad de la pluma de gallos eusko-oiloa (variedad "Marradune") para la fabricación de moscas artificiales utilizadas en la pesca de la trucha*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 1996. (Tesis Doctorales; 31).

## ▮ Baliabide elektronikoak

Teknologiaren aurrerapena dela-eta, gero eta ugariagoak dira handik hona dabiltzan dokumentu elektronikoak. Ikus ditzagun horietako batzuk, eta hauek aipatzeko moduak.

### **Testu elektronikoak, datu-baseak eta programa informatikoak**

MOKOROA MUJIKA, Justo Maria. *Ortik eta emendik: Herri euskarako esamolde bilduma...* [CD]. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1998.

### **Testu elektronikoen, datu-baseen eta programa informatikoen zatiak**

Euskal mendiak. *Euskal Herria: multimedia entziklopedia* [CD]. Usurbil: Elhuyar Kultur Elkartea, 1997.

## **Aldizkari elektronikoak**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *Administrazioa euskaraz* [linean]. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP, 1997ko urtarriletik-hiru hilabetekaria. Helbide honetan:

<<http://www.ivap.es/eusk/admeusk/admeusk.htm>>

## **Aldizkari elektronikoetako artikulak**

EIZAGIRRE, Jexux. "Eguberrietan, armarioan hilotzak", *Administrazioa euskaraz* [linean]. Vitoria-Gasteiz, 2002ko urtarrila, 35. zenbakia. Helbide honetan:

<<http://www.ivap.es/eusk/admeusk/ae35.pdf>>

## **Informazio buletinak, mezu elektronikoak, eztabaida-zerrendak**

EGIA, Gotzon [gegia@kultura.gipuzkoa.net]. Kalitate plana [linean]. Hemen: <[itzul@yahoogroups.com](mailto:itzul@yahoogroups.com)> [Kontsulta: 2002-03-13].

**BIBLIOGRAFIA**

ISO 690: *Bibliographic references – Content, form and structure*  
<<http://www.nl-ben.ca/ISO/tc465c9/standard/690-le.htm>>

ISO 690-2: *Bibliographic references to electronic documents* <<http://www.nl-ben.ca/ISO/tc465c9/standard/690-2e.htm>>

MARTÍNEZ DE SOUSA, José. *Manual de estilo de la lengua española*. Gijón: Ediciones Trea, 2000, 74.-97. or.

MESTRES, Josep M; COSTA, Joan; OLIVA, Mireia; FITÉ, Ricard. *Manual d'estil: La redacció i l'edició de textos*. Barcelona: Eumo Editorial (Universitat de Barcelona), 1996, 389.-411. or.

SENZ BUENO, Silvia. *Normas de presentación de originales para la edición*. Gijón: Ediciones Trea, 2001.

UNE 50-104-94.

## A, B, C, D... MOTAKO GALDERAK ETA ZERRENDAK

---

**Itzultzailea naiz eta behin baino gehiagotan euskaratzen ditut azterketetako *item*-ak. Horrelakoetan, arazo asko sortzen zaizkit, besteak beste:**

- **Zein puntuazio erabili behar da enuntziatuan eta erantzunetan? Galderaren ostean bi puntu, galdera ikurra? Erantzunaren ondoren, koma, puntu eta koma, puntua... ezer ez?**
- **Ba al dago estrategiarik erdal eredutik ihes egiteko eta galde-erantzunak modu naturalagoan euskaratzeko?**

---

Esan dezagun, lehenengo eta behin, hemen emango ditugun azalpenek berdin balio dutela azterketako galde-erantzunetarako, edo testu baten barruan egiten diren zerrendetarako.

Puntuazioari dagokionez, hona gure proposamenak:

Galdera nolakoa, halakoa izan behar du amaierako puntuazio-zeinuak Ikus ditzagun zenbait adibide:

### **Galdera ikurra**

Hitz hauetatik, zein onartzen du Euskaltzaindiak euskara baturako?

- a) Konpromiso
- b) ...

### **Puntua**

Data bakarra dago ondo idatzita.

- a) 2002ko urtarrilaren 4a
- b) ...

### **Eten-puntuak**

1996ko udal erroldaren arabera, Araban euskaldunak...

- a) %20,2 dira.
- b) ...

### Bi puntuak

1996an, Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku-Batzordea eraberritu, eta hauxe agindu zion:

- a) Euskara biziberritzeko planen balioespenak egitea.
- b) ...

Lehen esan dugunez, testu normal batean halako zerrenda bat egiten denean, berdin jokatuko dugu: esaldia nola datorren ikusita, horren arabera aukeratuko dugu puntuazio-zeinu bat edo bestea. Nolanahi ere, egia da horrelakoetan bi puntuak erabiltzen direla gehien.

Euskararen plangintzak hiru helburu hauek lortu nahi ditu:

- ...
- ...

Hona hemen Zerbitzu berriaren eginkizunak:

- ...
- ...

Horrenbestez, badakigu zein puntuazio-zeinu jarri galderaren ondoren edota zerrenda bati sarrera ematen dion esaldiaren ostean. Hona lehen galderaren bigarren zatia: nola aurkeztuko ditugu erantzunak edo zerrendaren osagaiak? Aukerak asko dira, eta norberak ikusi behar du zer komeni zaion.

Esate baterako, goiko esaldian zenbaki bat aipatu bada (“hiru helburu hauek lortu nahi ditu”), zenbakiak erabiltzea da logikoena, helburuei sARBIDEA emateko (1., 2., 3.). Ordea, azterketa batean baldin bagaude, letren alde egingo dugu seguru aski: a), b), c). Bestelako testuetarako, aukera ugari dago:

- ...
- ...
- ...
- ...



- ❖ ...
- ...
- ◆ ...

Eta horrela... nahi beste.

Orain azter dezagun kezkatzen zaituen beste kontu bat: alegia, erantzun horien edo zerrendako osagai horien ondoren zein puntuazio-zeinu jarri behar den. Azken aldian, ingelesaren eraginez-edo honelakoak ikusi izan ditugu:

Euskararen plangintzak hiru helburu hauek lortu nahi ditu:

- aaa;
- bbb;
- ccc eta
- ddd.

Gure ustez, bide honek ondo funtzionatu dezake baldin eta esaldiak oso sinpleak badira. Zer gertatzen da, baina, esaldi horiek luzatzen baditugu? Bada, esaldiaren barruan beste puntuazio-zeinu batzuk ager daitezkeela: komak, puntu eta komak eta... puntuak (zergatik ez?). Hortaz, nola liteke barruan puntuak dituen esaldi batek puntu eta koma izatea amaieran? Hierarkia-lege guztien aurkakoa litzateke hori:

\*Euskararen plangintzak hiru helburu hauek lortu nahi ditu:

- Lehenengo eta behin, ezaguera hedatzea. Horretarako, behar diren neurri guztiak hartzeko prest dago Eusko Jaurlaritza;

Hoberena, beraz, esaldiaren amaieran puntua jartzea da. Salbuespen bat: esaldien partez, hitz solteak idazten baditugu, ez dirudi beharrezkoa denik puntu hori jartzea.

Zein da Koldo Mitxelenaen jaioterria?

- a) Usurbil
- b) Errenteria
- c) ...



Zure lehen galdera... konponduta (ustez). Gatozen orain bigarrenera: ba al dago estrategiarik erdal eredutik ihes egiteko eta galde-erantzunak modu naturalagoan euskaratzeko?

Estrategiarik ez dakigu; badira, bai, gomendio batzuk, galde-erantzunak itzultzerakoan ahalik eta arazo gutxien izateko, beti ere irizpide honi jarraituz: jatorrizko testuaren **egiturak** ez du zertan berdina izan itzulpenean.

### ► Enuntziatua hobeto adieraztea

Demagun galdera hau itzuli behar dugula:

La reciente Ley de Enjuiciamiento Civil:

- a) Ha modificado...
- b) Ha modificado...
- c) Ha modificado...
- d) No ha modificado...

Argi ez bagabiltza, honela eman dezakegu euskaraz:

\*Orain dela gutxi onarturiko Prozedura Zibilaren Legeak (LEC-ek):

- a) ... aldatu ditu.
- b) ... aldatu ditu.
- c) ... aldatu ditu.
- d) Ez ditu... aldatu.

Galdera irakurrita ez dakigu zer galdetzen diguten. Gramatikaren aldetik zuzena da planteamendua, jakina; baina komunikazioarenetik, gure ustez, ez hainbestekoa. Galderaren enuntziatuak zerikusi zuzena izan behar du erantzun-aukerekin, eta hori horrela bada, enuntziatuetako eta erantzunetako osagaiek ere loturaren bat izan behar dute beren artean. Hortaz, lotura horretaz baliatuz, zergatik ez agertu enuntziatuan erantzun guztietan azaltzen den osagaia? Kasu honetan “aldatu” aditza litzateke goian ere idatz litekeena. Eta orduan, zergatik ez idatzi honela?

Orain dela gutxi onarturiko Prozedura Zibilaren Legeak zer aldatu du?

- a) aaa
- b) bbb
- c) ccc

d) ddd

Proposatu dugun aldaketarekin edukia ez da batere ukitu, baina hasieratik bertatik bidea errazten ari gatzaizkio azterketaren sufrikarioa jasan behar duenari.

### ► Kontuz ezezkoekin

Galde-erantzunetan ez da komeni ezezko esaldirik jartzea; are gutxiago, ezezko horiek bikoitzak badira, bidea zabaltzen baitiete gaizki-ulertuei.

\*Ez da egia...

- a) Ertzaintzaren lanpostuek derrigortasun data ez dutela.
- b) ...

Hauetako bat gezurra da:

- a) Ertzaintzaren lanpostuek ez dute derrigortasun datarik.
- b) ...

### ► Nominatiboan (*nor, zer...*), hobeto

Erantzunak ahalik eta argien eman behar ditugu, eta horretan ez dago nominatiboa baino argiagorik. Azal dezagun. Erantzun askotan, pertsonen eta tokien izenak agertzen dira. Izen horiek ezagunak badira, ez dugu aparteko arazorik izaten deklinatzeko; kanpoko izen ezezagunak badira, sortu egiten da arazoa:

\*Non jaio zen Franz Neumann fisikaria?

- a) Cheb-en
- b) Joachimsthal-en
- c) Schleswig-Holstein-en
- d) New Windsor-en

Zein izan zen Franz Neumann fisikariaren jaioterria?

- a) Cheb
- b) Joachimsthal
- c) Schleswig-Holstein
- d) New Windsor

Ikusten denez, galderan moldaketa batzuk egin behar izan ditugu, erantzun guztiak deklinatu gabe emateko. Hori berori komeni zaigu, erantzunetan deklinabide-atzizki edo hitz bera errepikatzea aspergarri gertatzen zaigunean:

\*.../... Helburu horiek zeinentzat daude pentsatuta?

- a) A ereduko ikasleentzat
- b) B ereduko ikasleentzat
- c) D ereduko ikasleentzat
- d) Eredu guztietako ikasleentzat

.../... Helburu horiek eredu jakin bateko ikasleentzat daude pentsatuta. Zein da eredu hori?

- a) A eredua
- b) B eredua
- c) D eredua
- d) Eredu guztiak

### ► Galdera luzearen ordean, hobe azalpena + galdera laburra

Batzuetan komeni zaigu enuntziatuaren baitan arazoak sortzen dizkigun pasartea desegin eta kontakizun modura planteatzea. Lehen esan dugunez, ahaleginak egingo ditugu enuntziatuko galderan eta erantzunetan agertzen den deklinabide-atzizkia nominatiboa izan dadin (zer).

Eman dezagun galdera hau itzuli behar dugula:

Según la Ley Orgánica del Tribunal Constitucional, los magistrados ejercen su función de acuerdo con los principios de:

- a) Responsabilidad y dignidad
- b) Imparcialidad y dignidad
- c) Imparcialidad y responsabilidad
- d) Independencia e imparcialidad

Hausnarketa handirik gabe, honela emango genuke euskaraz:

\*Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoak dioenez, magistratuen jardura printzipio hauen arabera izango da:

- a) Erantzukizun eta duintasunaren printzipioaren arabera.
- b) Inpartzialtasun eta duintasunaren printzipioaren arabera.

- c) Inpartzialtasun eta erantzukizunaren printzipioaren araberakoa.
- d) Independentzia eta inpartzialtasunaren printzipioaren araberakoa.

Orain, begira beste aukera hau. Ederra aldea, ezta?

Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoak dioenez, magistratuen jarduerak zenbait printzipioen araberakoa izan behar du. Zein dira printzipio horiek?

- a) Erantzukizuna eta duintasuna.
- b) Inpartzialtasuna eta duintasuna.
- c) Inpartzialtasuna eta erantzukizuna.
- d) Independentzia eta inpartzialtasuna.

Zer egin dugu? Lehenengo eta behin, galderaren enuntziatua antolatu: baieztapena aurrera eraman dugu (“*Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoak dioenez, magistratuen jarduerak zenbait printzipioen araberakoa izan behar du.*”), eta galdera atzera.

Bigarrena: galdera “soildu” egin dugu, erraztu, enuntziatuari lotu kataforaren bidez, eta, garrantzitsuena... nominatiboan utzi: “*Zein dira printzipio horiek?*”.

Hirugarrena: galdera egiteko modu horrek berekin dakar erantzunak ere nominatiboan ematea; errazago eta txukunago, beraz.

## ► Erantzunetan egitura homogeenak bilatu

Erantzunen egiturak homogeenak behar du izan; esan nahi baita ez dugula zertan irakurlea nahastu honelakoekin:

\*Zer dagokie kide anitzeko organoko kideei?

- a) Bilkuretako aktak idatzi eta akta horien fede eman.
- b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.
- c) Kideek organoaren ordezkartasuna hartu dezakete beren gain.
- d) Erabaki beren botoaz, erabakiak hartzerakoan berdinketarik bada.

Hobe da egitura bat aukeratu eta, ahal dela, berari eutsi bete-betean:

Zer dagokie kide anitzeko organoko kideei?

- a) Bilkuretako aktak idatzi, eta akta horien fedea eman.
- b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartu.

- c) Organoaren ordezkartasuna euren **gain hartu**.
- d) Beren botoaz **erabaki**, erabakiak hartzerakoan berdinketarik bada.

### ► Hobe aditza, izenaren ordezk

Galderaren erantzunetan edo, galderarik ez bada, enuntziatuaren zerrendan, izenak erabiltzeko joera handia dago. Joera hori... hobe ez! gaztelanatik datorkigu, eta haren erruz gure testuek indarra eta freskotasuna galtzen dute eta ulergaitzago bihurtzen. Eman dezagun testu hau itzuli behar dugula:

El sistema informático garantizará que, a la recepción de un escrito, queden recogidos estos datos: la identificación del receptor, el órgano administrativo remitente, fecha y hora de su presentación, y, en su caso, referencia al contenido del escrito o comunicación que se presenta.

Itzulpena besterik gabe egingo bagenu, hau-edo aterako litzaiguke:

\*Idazkiren bat ailegatzan den bakoitzean, sistema informatikoak bermatu egin behar du datu hauek jasotzen direla: hartzailearen identifikazioa, administrazio-organo hartzailearena, aurkezpeneko data eta ordua, eta, behar izanez gero, erregistratzen den idazki edo komunikazioaren edukari buruzko aipamena ere bai.

Eta diseinua apur bat gehiago zainduz gero...

\*Idazkiren bat ailegatzan den bakoitzean, sistema informatikoak bermatu egin behar du datu hauek jasotzen direla:

- a) Hartzailearen identifikazioa.
- b) Administrazio-organo hartzailearena.
- c) Aurkezpeneko data eta ordua.
- d) Behar izanez gero, erregistratzen den idazki edo komunikazioaren edukari buruzko aipamena.

Goian esan duguna egingo dugu jarraian: izenen ordezk, aditzak erabili, zehar-galderen laguntzaz:

Idazkiren bat ailegatzan den bakoitzean, sistema informatikoak bermatu egin behar du datu hauek jasotzen direla:

- a) Zein den hartzailea.

- b) Administrazioako zein organok bidali duen.
- c) Zein egunetan eta zein ordutan aurkeztu den.
- d) Behar izanez gero, zeri buruzkoa den idazki hori.

### **▮ Zenbakiak erabiltzen badira, atzeratu**

Amaitzeko, txikikeria bat. Batzuetan (gutxitan, baina), hau gertatzen zaigu: erantzunak edo zerrendako esaldiak zenbatu egiten ditugu (1., 2...), konturatu gabe, erantzunaren edo zerrendako esaldia ere zenbaki batekin hasten dela. Honelako gauzak ikusten dira, beraz:

- 1. 2. kapituluan ezartzen dira zigor horiek guztiak.
- 2. 4 hilabete igaro behar dira, beste zentsura-mozio bat aurkezteko.

Ulerpen-arazorik ez izateko hobe dugu bi zenbakiok elkarrengandik bereiztea:

- 1. Zigor horiek guztiak 2. kapituluan ezartzen dira.
- 2. Beste zentsura-mozio bat aurkezteko 4 hilabete igaro behar dira.

## ONOMATOPEIAK

**Komiki egilea naiz eta nire kezka da euskaraz egiten diren komikietan, zenbaitetan, ez ditugula onomatopeiak behar bezala erabiltzen, edo ez behintzat, jatorriz euskarazkoak direnak.**

**Asko eskatzea ez bada, nire lanerako lagungarri izan daitekeen euskal onomatopeien zerrendatxo bat izan nahiko nuke. Horregatik, eskertuko dizuet zerbait eginda baldin badago bidaltzen badidazue, nik behintzat, ez baitut inolako bildumarik ezagutzen.**

Onomatopeia da zerbaiten hotsa islatuz sortutako izendapena. Hizkuntza guztiak bezalaxe, euskara oso aberatsa da onomatopeia kontuetan. Zuk diozun legez, komikietan, soinu ugari eta era askotakoak islatu behar izaten dira, eta arlo honetan, beste arlo batzuetan bezala, zergatik ez, asmatzea ere libre! Eskatu diguzunari kasu eginez, saiatu gara ahalik eta gehienak biltzen eta funtzioen arabera sailkatzen. Bestalde, kontuan izan zerrenda honetan agertzen diren guztiei *egin* aditza gehituz gero, aditz onomatopeikoak sortzen ditugula.

### ANIMALIEN HOTSAK

#### Esapidea

Au-au

Bee

Burrundada

Draka-draka

Girrin-girrin

Glaska-glaska/Lafa-lafa

Jau-jau

Kahaka

Kakara-kakara

Karra-karra

Kausk-kausk

Kisk-kisk

#### Esanahia

Zakurraren zaunka

Aharia, ardiak, oreinak egiten duten hotsa

Zenbait intsektuk hegoekin ateratzen duten hots gogaikarria

Zaldi-trosta

Txoriak zarataka ari direnean

Txakurrak jatean egiten duen zarata

Adin nagusiko txakurren adausia

Hontz emearen deitzeko modua

Oiloaren kantua

Erroiak, antzarak egiten duten hotsa

Txakur txikiaren haginkada

Ziztada, mokokada edo eztenkada



ANIMALIEN HOTSAK	
Esapidea	Esanahia
Klak / klask / klausk	1. Haginkada 2. Otso, txakur, txerri, eta abarrek zerbait irenstea
Krunk-krunk	Kurrinka; purrestada; marmarra
Krusk-krusk	Karraskaren hotsa (korrosk, kurrusk, kurruxk)
Kukurruku	Oilarraren kantua
Kurrin-kurrin	Txerriak egiten duen hotsa
Marru-marru	Zezenak / Behiak egiten duen murrusa
Mee	Ahuntzak, akerrak, egiten duten hotsa
Miau / Ñau	Katuak egiten duen hotsa
Orro-orro	Lehoiak egiten duen hotsa
Txau-txau	Txakur txikien adausia
Txio-txio	Txorien kantua
Txorrotxio	Txorien kantua
Txirripitixio	Txorien kantua
Ulu-ulu	Otsoak arrama egiten duenean
Zaunk-zaunk	Txakur handien adausia
Zor-zor	Zozoaren oihua

APURTU / EBAKI / URRATU	
Esapidea	Esanahia
Gliska-gliska	Ilea moztean egiten den hotsa
Irrist	1. Papera edo oihala urratzea 2. Laban egitea
Klik-klik	1. Ilea moztea 2. Objektuen talka 3. Sabel-zorriak izatea
Krak	Zerbait (batez ere hezurra) apurtzean ateratzen den zarata
Krosk	Izkina, arrakala
Plasta-plasta	Pusketan jausi den objektua
Plaust	1. Objektu bat jaustea 2. Hainbat kolpe edo elkar jotze
Ra-ra	Papera urratzea
Sarrast	Ehuna, papera... urratzean egiten den zarata
Sast	1. Ebakidura 2. Orratza atzamarrean sartu
Tarrat	1. Ohiala apurtzean ateratzen den hotsa. 2. Urrakadak
Zart	1. Kristalak edo kordelak apurtzea. 2. Erabakiak arin eta irmotasunez hartzea

**BARREA****Esapidea**

Ajaja  
He-he  
Iji-aja  
Ijiji  
Ja-ja-ja  
Kar-kar-kar  
Kur-kur  
A, a, a

**Esanahia**

Barrea  
Barrea  
Jendea barrez  
Benetakoa edo burrunbatsua ez den barrea  
Barre burrunbatsu samarra egitea  
Barre algarak  
Barrea, isil samarrekoa  
Barrea

**EGURALDIA****Esapidea**

Brist-brist  
Fir-fir  
Kiski-kaska / Karrak  
Mara-mara  
Zapar-zapar  
Zara-zara  
Ziri-ziri / Ziri-miri  
Krok-krok

**Esanahia**

Tximista agertzen denean  
Haizearen marmarra  
Txingorraren hotsa  
Elurrak egiten duen mugimenduaren leuntasuna  
Euri zaparrada  
Euri nahiko egitea, baina zaparrada egin barik  
Geldo erortzen den euria  
Elurra zapaltzean

**HITZ EGITEA****Esapidea**

Marra-marra  
Txatxala-patxala  
  
Txir-txor  
Txor-txor  
Txutxu-mutxu  
Zarta-zarta

**Esanahia**

1. Txutxu-mutxuka ibiltzea 2. Fintasun barik jatea  
1. Etengabeko jarduna. 2. Gorabehera handirik gabeko solasa  
Hitz eta pitz ari izatea eten barik  
Berriketa, besteek ez ulertzeko eran  
Belarrira hitz egitea  
Berba asko egitea jariotasun handiz eta arrazoi borobilak botaz

**IBILKERA****Esapidea**

Daka-daka  
Irra

**Esanahia**

Apurka-apurka etortzea, ibiltzea  
Korrika edo arineketan egitea

<b>IBILKERA</b>	
<b>Esapidea</b>	<b>Esanahia</b>
Jitipi-jatapa	Umeak lau hankatan ibiltzea
Kilinklin	Aldaroka, balantzaka ibiltzea
Kirriz-karraz	Oinetakoek ibiltzean ateratzen duten zarata
Pal-pal	Astiro ibiltzean
Taka-taka, tapa-tapa	Pauso arin eta laburra
Tiki-taka	Apurka-apurka oinez ibiltzea
Tikili-tokolo	Oinez ibiltzen zailtasunak izatea
Tipi-tapa	Erritmo berean ibiltzea. Apurka-apurka oinez ibiltzea
Tiriki-tarraka	Zailtasunekin baina aurrera egitea
Traska	Ibiltzen edo korrika hastea isilpean
Txaka-txaka	Apurka-apurka ibiltzea
Zapa-zapa	Geratu barik ibiltzea

<b>JATEA / EDATEA</b>	
<b>Esapidea</b>	<b>Esanahia</b>
Bor-bor	Irakitea
Danga-danga	Zurrutada handiak egitea
Ikimilikiliklik	Zurrutada
Kaxka	Mamurtzea
Klik	Zerbait gogorra eta txikia (botoia, hezurra) irenstea
Klik eta klak	Zerbait irenstea
Klika-klaka	Trakets jatea
Mauka-mauka	Janaria irenstea
Mauta-mauta	Gogoz eta kantitate handiak jatean ateratzen den zarata
Must	Xurgatzea
Parra-parra	Franko jatea
Pla-pla	Zartagian egin
Pil-pil	Zerbaitek geldiro-geldiro irakitea
Plausta-plausta	Irenstearen ekintza
Pol-pol	Uraren zarata iturburutik irtetea
Txil-txil	Zerbaitek geldiro-geldiro irakitea
Txir-txir	Gauzak frijitzea
Txurku-txurku	Etenik gabe edatea, zurrutada txikiak eginez
Txurru-txurru	Etenik egin barik edatea
Txurrut	Edatea
Zanga-zanga	Edaten ateratzen den hotsa
Zarra-zarra	Asko edatea
Zurrut	Ontzitik edatea
Zurrust	Zurrutadak edatea

**KANPAIAK / TIRO HOTSAK****Esapidea**

Dan  
 Dan-dan  
 Danba-danba  
 Dik-dak  
 Dilin-dalan  
 Din-dan  
 Dinbi-danba  
 Dinbili-danbala  
 Dranga  
 Drank  
 Dum-dum / Dum-dam  
 Dun-dun  
 Klan-klan  
 Tirrin

**Esanahia**

Jotzen den atearen edo kanpaiaren hotsa  
 1. Atea jotzea. 2. Kanpai eta kolpeen oihartzuna.  
 Kolpe sendo baten hotsa (zartada, lehergailu, tiroak ...)  
 Tiro-hotsa  
 Kanpai-joaldia  
 Kanpai-hots ezberdinak  
 Tiro edo kanpai hotsa  
 Kanpaiaren hotsa  
 Kanpai-deia  
 Kanpai-hotsa  
 Kanpai-hotsa  
 Kanoi hotsa  
 1. Zintzarriaren hotsa 2. Errotaren hotsa  
 Txirrria

**KOLPEA****Esapidea**

Brast  
 Bilin-balan  
 Birrinbili-barranbala  
 Blaust  
 Brau  
 Dan  
 Dan-dan  
 Danba-danba  
 Danga  
 Di-da  
 Dinbi-danba  
 Dzart (zart)  
 Dran-dran  
 Dzaka  
 Dzapa  
 Dzapart  
 Dzirt-dzart  
 Kas

**Esanahia**

Zerbait kolpe handiz martxan jartzea  
 Itzulipurdika jaustea  
 Zarata handia (lpar)  
 Uretara zein lokatzera jaustea  
 Bat-bateko ekintza edo kolpea. (lpar)  
 Jotzen den atearen; kanpaiaren; erortzen den uraren hotsa  
 Kanpai eta kolpeen oihartzuna. Atea jotzea  
 Kolpe sendo baten hotsa (zartada, lehergailu...) kanoi hotsa...)  
 Gauza astunak jaustea  
 Zerbait jotzea; erabakiak zorrotz hartzea; gauzak bizkor egitea  
 Kolpe handiak ematea (ateak, leihoak...)  
 1. Zerbaiti edo norbaiti kolpea ematea 2. Kolpeen hots lehorra  
 Atea eskuaz edo makilaz jotzea zarata handiz  
 Kolpe edo mugimendu bortitza  
 Presaz harturiko kolpe edo ekintza  
 1. Salto egitea 2. Belarrondokoa  
 Kolpeak ezker-eskuin ematea.  
 Norbait edo zerbait jotzea

<b>KOLPEA</b>	
<b>Esapidea</b>	<b>Esanahia</b>
Kask	Kolpea, talka
Kax	Kolpea, talka
Kax-kax	Atea jotzea
Kisk	Kolpea
Kisk-kask	Talka edota kolpea
Kiski-kaska	Umeei burukadak ematea
Klak-klak	1. Gauzen talka 2.Hortzak karraskatzea
Panp(a)	Kolpea edo elkar jotzea
Pla	Esku ahurraz emandako kolpea
Plast	Belarrondokoa
Plaust	Hainbat kolpe edo elkar jotze
Plist-plist	Belarrondokoa
Plisti-plasta	Ura jotzean
Taun-taun	Mailuaz kolpeak ematea
Txan-txan	Kolpeak emanaz edo mugimenduak eginez uretan ibiltzea
Zafla	Aurpegiko bat ematea
Zapla	Belarrondokoa
Zapla-zapla	Kolpeak emanez edo mugimenduak eginez uretan ibiltzea
Txapla-txapla	Kolpeak emanez edo mugimenduak eginez uretan ibiltzea
Txipli-txapla	Kolpeak emanez edo mugimenduak eginez uretan ibiltzea
Zipli-zapla	Belarrondokoak bata bestearen atzetik ematea
Zirt-zart / zirti-zarta	Behin eta berriz kolpeak ematea

<b>MUGIMENDUA</b>	
<b>Esapidea</b>	<b>Esanahia</b>
Arrats	Gauzak arrastatzea
Balaun	Jaitsiera zalapartatsua
Bilin-balan /Bilin -balun	Itzulipurdika jaustea
Binbili-bonbolo	Zabu egitea, balantza egitea
Blaust	Pertsona edo gauza bat zabal-zabal erortzean ateratzen duen hotsa
Brau	Norbait bat-batean agertzean
Bristi,brasta	Lastertasunez edo keinu zatarrez mugitzea edo hitz egitea (lpar.).

**MUGIMENDUA****Esapidea**

Brixt  
 Burrundada  
 Da  
 Dandarrean  
 Danga  
 Dar-dar  
 Dart  
 Ddarrast  
 Dil-dil  
 Dinbilin-danbolon  
 Dinbirri-danbarra  
 Dra  
 Drak  
 Dringili-drangala  
 Dringilin-drangalan  
 Dzaka  
 Dzanp  
 Dzasta  
 Dzauan  
 Dzi-dza(Di-da)  
 Dzit  
 Fara-fara  
 Fir-fir  
 Firrist  
 Gir-gir  
  
 Irrist  
 Kaxk  
 Kilin-kolo  
 Klik eta klak  
 Kusk  
 Laprast  
 Mara-mara  
 Pir-pir  
 Teink  
 Tirriki-tarraka  
  
 Tringilin-trangulun  
 Zara-zara  
  
 Zirri-parra  
 Zirrin-zarran  
 Zizt

**Esanahia**

Mugimendu laster eta bat-batekoa  
 Abiadura handia  
 Bat-bateko agerpena.  
 Pisu handiko zerbait arrastaka eramatea  
 Gauza astunak jaustea  
 Dardara izatea  
 Ezustekoen aurrean, bat-batean geratzea  
 Ihes egitea, bat-batean norabidea aldatzea  
 Dardara, ikara, presaka egindako mugimendua  
 Alderaka ibili. Lodien mugitzeko era.  
 1. Arrastatzea. 2. Asko mugitzea  
 Bat-bateko agerpena  
 Seko gelditzea  
 Sehaskaren kulunka  
 Abestietan, sehaskaren kulunka  
 Kolpe edo mugimendu bortitza  
 Gutxien espero denean gelditzea  
 Mugimendu azkarra  
 Geldi-geldi eta zabuka ibiltzea  
 Zerbait azkar egitea  
 Ari, ziztu bizian  
 Mugimendu leunak egitea  
 Hostoek mugitzean egiten duten zarata  
 Bat-batean eta azkar egindako mugimendua  
 Ondo ez dabilen argiak keinuak egitean, erdi-biztu eta erdi itzali  
  
 Irrist egitea  
 Mugimendu azkarra  
 Zerbait sendo finkatuta egoteari uzten dionean  
 Arin eta irmo egindako ekintza  
 Bultzada ematea  
 Irrist egitea  
 Mugimenduen leuntasuna adierazten du  
 Hostoek mugitzean egiten duten zarata *r*  
 Zerbaiti tira egitea  
 Zailtasunekin baina gelditu barik apurka-apurka mugitzea  
  
 Sehaskaren kulunka hotsa  
 Hegaztiak astiro hegan egitea edo narrastien mugimendua  
  
 Gauzak arintasunez egitea  
 1. Gauza astunak arrastatzea 2. Kreailerak hots  
 Azkar mugitzean egiten den zarata

URA	
Esapidea	Esanahia
Blai-blai	Bustita, blai eginda egotea
Mela-mela	Bustita, blai eginda egotea
Melau-melau	Bustita, blai eginda egotea
Plisti-plasta	Uretan jolasean ibiltzean egiten den hotsa
Tanga-tanga	Likidoak tantaz tanta jaustea
Txan-txan	Kolpeak emanez edo mugimenduak eginez uretan ibiltzea
Txapla-txapla	Kolpeak emanez edo mugimenduak eginez uretan ibiltzea
Zapla-zapla	Kolpeak emanez edo mugimenduak eginez uretan ibiltzea

ZARATAK	
Esapidea	Esanahia
Balaun	Jaitsiera zalapartatsua
Birrinbili-barranbala	Zarata handia. (Ipar.)
Bun	Atea indarrez ixtean ateratzen den hotsa
Burrundada	Neurriz gaineko zarata
Danga	Gauza astunak jaustea
Daunb	Burrunben zarata
Drango	Gurdiaren kulunka eta zuloz betetako errepedeetan egiten duen zarata
Drausk	Haginka egitea
Farrast	Pospolo bat piztean ateratzen den hotsa
Fiu	Txistua jotzea
Furrust	Erremuskadaka ibiltzea
Gur-gur	Haizeak hostoetan egiten duen hotsa
Karrask	Gauza baten karraska edo eztanda
Kilin-kilin	Kristal-hotsa
Klik-klak	Arpoiaren zarata bereizgarria
Kirri-korro	Tripen zaratak, goseak edo eraginda.
Korrok	Korroskada egin
Klauk	Korroka egitea
Krok-krok	Zapalduta dagoen elurra
Laprast	Zerbait zapaltzeagatik erortzean ateratzen den zarata.
Surru	Mukiak gorantz egitea
Pli-pla	Zuziriak lehertzean.
Tak-tak	Bihotzaren taupadak
Txin-txan	Metalek elkar jotzean ateratzen duten hotsa

**ZARATAK****Esapidea**

Txin-txin  
Txirrin  
Zarra-parra  
Zintz  
Zirt

**Esanahia**

Diruaren hotsa  
Iratzargailuaren hotsa  
Berba-hotsa, kexa-hotsa  
Mukiak kentzean egiten den hotsa  
Txinpartaren hotsa

**BESTELAKOAK****Esapidea**

Dank  
Drausk  
Fu  
Kisk-kisk  
Klak  
Klask  
Klaska  
Klax eta klux  
Klik eta klak  
Korrosk  
Krun-krunk  
Krusk  
Kurrusk  
Kurruxk  
Mar-mar  
Ñir-ñir  
Parra-parra  
Part  
Pauta-pauta  
Pirri-pirri  
Taup  
Tirri-tarra  
Traupa  
Txiri-txiri  
Zikirri-makarra  
Zirri-parra  
Zirrin-zarran  
Zisti-zasta  
Zizkili-bazkili

**Esanahia**

Gauzak pittin bat ukitzea  
Haginka egitea  
Putz egitea  
Ziztada, mokokada edo eztenkada  
1. Haginkada 2. Zerbait irenstea 3. Lotuta dauden gauza bi bereiztea  
1. Haginkada 2. Argazki makinaren karraska 3. Zerbait irenstea  
Karraskitako hotsa  
Karraska  
Arin eta erabakitasunez egindako ekintza  
Karraskaren hotsa  
Kurrinka, purrustada, marmarra  
Karraskaren hotsa  
Karraskaren hotsa  
Karraskaren hotsa  
Karraskaren hotsa  
Haserre dagoena, bere baitarako purrustadaka ibiltzea  
Begien disdira  
Asko ematea edo jasotzea  
Gauza bat mespretxuz botatzea  
Pipa erretzea  
Beheranzkoa  
Bihotzaren taupada gogorrak  
Bata bestearen ostean puzkerrak botatzea  
Norbait zerbait egiten bete-bete harrapatzea  
Etenik eta nekerik gabeko lana  
Gauzak arintasunez eta erdipurdi egitea  
Gauzak arintasunez egitea  
Gauza astunak arrastatzea  
Behin eta berriro zerbait ziztatzea  
Sukaldean narras ibiltzea



**BIBLIOGRAFIA**

AEK. (Aizu!). *Akabo Zalantzak! Euskal gramatikaren inguruko argibideak*. 1992. Bilbo.

IKASTIRA (2). CD-ROMa

ZAMARRIPA, Pablo. *Manual del vascofilo*. Bilbao: Wilsen editorial, 1987.

AZKUE, Resurrección Maria de. *Morfología Vasca-II*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.

## HARRIDURA-PERPAUSAK

**Ikastola bateko irakaslea naiz eta harridura-perpausak direla-eta, ondoko kezka hau luzatu nahi dizuet:**

**Hezkuntzako liburuetan harridura-perpausak egiteko irakas-ten diren formak beti dira berberak. Eta bestalde alde handia dute euskara jatorrean erabiltzen direnekin.**

Euskarak modu asko dauzka harridura-perpausak egiteko, baina egia esateko, gure ustez badago aldea konparatzen baditugu euskara jatorrean erabiltzen diren formak eta gaur egun ikastolan zein euskaltegian irakurtzen eta entzuten direnak.

Horregatik, lehendabizi, harridurak egiteko erabiltzen diren bideak eza-gutzeko zenbait liburu<sup>1</sup> irakurtzera gonbidatu nahi zaitugu, eta horietan aurkituko dituzun azalpen eta formekin batera, gure ustez jatorrizko erabileran entzuten ohi diren eta galtzear dauden zenbait forma eskaini nahi dizkizugu.

Hona, bada, bildu ditugunak:

### ► Erakusleak hasieran edo amaieran

Hau ume demonioa!  
Hara berriz! (Hau sorpresa!)  
Hara bestea!

Horrelakorik!  
Hori bai hori gizona, eta ez hi!  
Hau bai polita!  
Hau bai dela polita!  
Hori duk sasoia, mutil!  
Hori duk/dun hori azala!

1. ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Didaktiker, 2000, 605.-622. or. eta Euskaltzaindia. "Lokailuak", *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III*. 1990, 70.-71., 94., 97., 13.1, 159. or.

Hau da poza hau!  
 Hau(xe) da polita!  
 Han izan dira izatekoak!  
 Hango algarak eta besarkadak!  
 Hango anabasa!  
 Haren itxura eta pena!  
 Alferra halakoa!  
 Zatoz bekatari hori!  
 Ekarzu bosteko hori!  
 Egon geldi, ume demonio hori!  
 Egon isilik, barrabas hori!  
 Negarrez urtuko zara, gizagaixo hori!  
 Zuk egin duzu egitekoa, asto horrek!  
 Hori(xe) ere...!  
 Hau da...!

Zu kristo bazera ezaiguzu! **Au da andik onerako galdera!** (*con qué pregunta sale ahora!*) (Txirrita (A. Zabala). *Auspoa* 18-19 MS).

Hara bestea!

—Nola deitzen naizen?... Ni ez naiz deitzen; ‘deitu egiten naute’  
 —**Ara beste argi-iturri!**... (*¡Qué agudo!*) Bertso berriak (*Bertso pape-  
 rak*- MS).

Hura...!

**Ha** gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze gabea, oillariterik izanen eztena, sekulan argituko eztena, eta ez akhabatuko! (Axular. *Gero*, 286. or.).

## ► Galdetzaileak erabilita

Nor, eta zeu!  
 Badakizu nork egin duen? Nork eta amak!  
 Zer ote da! (*¡Hay que ver!*)

Zer ote da! Egin duzuna eginda ere ezin gaizki hitz egin zure senarraz!

Zer hiri zoragarria Bizkaiko hiriburu hau!

### ► **Baiezkoak eta ezezkoak erabilia**

Ezta oparitura ere!

Baita oparitura ere!

Etorri ez da ba! (ustekabea)

Jakingo ez du ba! (baiezko esanahia)

Ez da izango!

Baita zera ere!

Bai zera! (esaldia erabat ukatzeko)

Ez zera! (*Bai noski*-ren baliokidea, ezezko esaldiei erantzutean: *Gaur ez da etorri. Ez zera!*)

Lotsa behar da!

Horra zer dakarten soldadu zozo haiek fusilaren muturrean! Apaizaren sotana! Lotsa behar zuten! (Irazutza. *Joanixio*, 27. or.).

Ez da makala!

Ederki eman ere! (Inola ere ez, ezta pentsatu ere )

Umea ikaratu? Ederki eman ere! Ez duzue ezagutzen ume barrabas hori!

### ► **Errepikapenak eginda**

Zu bai zu!

Zu bai zu neska argia!

Ama zen ona, ama!

Hori da hori! Hori da hori daramazun itxura!

### ► **Eskerrak... esapidearekin**

Eskerrak ez zaren etorri!

Eskerrak aitek ez dakien zer egin duzun!

### ► **Ere lokailua erabilia**

Horrelako gauzak galdetzea ere!

Esatea ere!

Sinistea ere! (Sinestezina)

Sinistek ere kontuak dauzka...! Nola konpondu zara, azkenera arte hutsik egin barik jokatzeko pelota-partidua?

### ▶ **Izenlaguna + adjektiboa erabilia**

Biziaren garratza!  
Mendiko gozoa!  
Hori da neskatxaren ederra!

### ▶ **Gero esapidearekin**

Kontuz ibili, gero!  
Gaiztoa da, gero!  
Ez zara makala, gero!  
Ona da, gero!

### ▶ **Ederra esapidearekin**

Ederrak ikusi behar izan ditu!  
Ederra egin duzu!  
Astindu ederra hartu du!  
Ederra aurpegia!

### ▶ **Ene esapidearekin**

Ene bada! (Ezusteko baten aurrean)  
Ai ene bada! (Estutasuna edo larritasuna agertzean)  
Ene badatxoa! (Etsipena edo amorrua agertzean)

### ▶ **Aditza kenduta**

Ume barrabasa!  
Peru eta Fermin, bikote makala!

### ▶ **Bestelako esapideak erabiliz**

*Ikustekoa! (Bai xelebrea!):*

Ez al zaio lizunik jarioten belar horri? (-Bai jarioten zaio; baina bertan geratzen da belarrari kalte egin barik.) **Ikustekoa!** (Txirrita (A. Zabala). *Auspoa*, 18-19 MS).

*Inon direnak (eta bi)! (Sekulakoak)*

Inon direnak eta bi esan zizkidan!

*Handia egin du! (Arraroa da!)*

Handia egin du, gaur ez etortzen. Liberalen dotrina pekatu da (G. Arrueren itzulpena, 68. or.).

*Asko iritzita nago! (Harrituta nago)*

Asko iritzita nago!, (Harrituta nago!) zelan ezta ondiño iñor agertu (Principe de Viana aldizkaria 1970, 288. or.).

*Alapekotxea! (¿Habrased visto?)*

Neskazahar hark ere etsipena eman dit: Sasoian nagoela pasea! Ez dala nire zale, **alapekotxea!** (Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak (A. Zabala) *Auspoa* 63.-64., 119. or.).

*Bejondeizula! (Zorionak edo zerbait opa diozunean)*

## BIBLIOGRAFIA

Euskaltzaindia. “Lokailuak”, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1990.

ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker, 2001.

## ADIBIDEEN ITURRIA

AXULAR, P. *Gero*.

Euskaltzaindia. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987-.

MOKOROA, J.M. *Ortik eta emendik*. [cd-rom]. Bizkaia: Labayru ikastegia, 1990.

## LABURTZAPENAK

### Nola idazten dira hitzen *laburkerak* euskaraz?

Antza, **laburtzapenak** nola idazten diren jakin nahi duzu. Hau da: hitzak edo hitz segidak laburtuta emateko moduak. Hori argitu baino lehen, komeni da bereizketa bat egitea.

Laburtzapenek familia handia osatzen dute, eta barruan hiru mota bereizten dira: **ikurrak**, **laburdurak** eta **siglak**. Baina, kontuz: familia berekoak izan arren, ez dira gauza bera eta ez dira berdin idazten, arau ezberdinak dituztelako idazteko eta deklinatzeko. Euskaltzaindiak (oraingoz) ez du halako araurik eman; beraz, UZEIk plazaratutakoetara joko dugu<sup>1</sup>. Nolanahi ere, argi gera dadila UZEIrena ez dela araua, proposamena baizik.

#### ► Zer dira eta nola idazten dira siglak?

Hitz segida bat ordezkatzeko duen letra multzoak dira. Honela egin daitezke:

##### ■ Letra bana hartuta:

EGA > E(uskararen) G(aitasun) A(giria)

##### ■ Letra bat baino gehiago hartuta:

IRALE > IRA(kaskuntzako) L(angileen) E(uskalduntzea)

##### ■ Akronimoak: hitz zatiak hartuta eratzen dira.

EUSTAT > EU(skal) (E)STAT(istika Erakundea)

Letra larriz idazten dira eta euskaraz ez dute punturik hartzen, ez letren artean, ez bukaeran:

AEK EA EAJ EH ELA HABE HAEE LAB

1. UZEI *Laburtzapenen Gidaliburua*. Lizarra: UZEI, 1988.

Siglak izen bereziak bezala deklinatzen dira, hots, artikulurik gabe. Ez da marrarik jarri ohi, eta ez da deklinatzen siglaren azpian dagoen hitz multzoa, baizik eta sigla bera; hau da: sigla nola ahoskatu eta horrela deklinatzen da:

HABErekin, AEKrekin (hau da, [a-e-ka-rekin], eta ez \*[a-e-k-ekin]).

Marrari dagokionez, badira salbuespen batzuk: *-k* letrarekin amaitzen diren siglak (*AEK*, *ASK*...). Hasieran *-k* duen kasu marka batekin lotzean (*NORK*, *NONGO*...), marra hartzen dute:

AEK-k, ASK-ko...

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi siglen lexikalizazioa. Zer da hori? Bada, sigla batzuk, erabiliaren erabiliz, arrunt bilakatzen dira eta, ondorioz, sigla izatetik hitz arrunta izatera jotzen dute. Bilakaera horren lehenengo aztar-na artikulua hartzea izaten da. Horren adibide argia da *BEZ* (*Balio Erantsiaren gaineko Zerga*), ahoz sarritan hartzen baitute artikulua:

BEZa sartuta al dago?

Horrelakoetan zalantza bakarra dago, antza denez, askok dutena, hori bai: noiz artikulua jarri ez jarri. Ez dago arau finkorik horren gainean, baina badira joera batzuk:

■ Izenburuetan ez dute artikulurik hartzen:

BEZ ORDAINTZEKO JARRAIBIDEAK

■ Testu barruan bada, eta sigla, letraz letra barik, silabaka ahoskatzen bada, artikulua hartzen du normalean NOR kasuan. Bestelakoetan, artikulurik ez:

BEZa sartzen ez badut, ezin dizut ordain-agiririk egin.

BEZen ezarpena erabatekoa da gaur egun.

Bilakaera horren bigarren urratsa idazkera aldatzea da: letra larriz barik, letra xehez idaztera pasatzen dira. Esaterako, *radar* eta *laser* hitzak, jatorriz siglak baitziren:

RAdio Detecting And Ranging > RADAR > radar

Ez dute **radarrean** atzeman.



Light Amplification by Stimulated Emission of Radiation > LASER > laser

CD-ROMetako **laserra** kaltegarria da begietarako.

Gaur egun, gauza bera ari da gertatzen *HIES* siglarekin, gero eta sarriago ikusten baita hitz arrunt gisara idatzi eta deklinatuta: *hiesa*.

Eta, azkenik, gomendio bat: sigla ezezagun bat aipatzen den lehenengo aldian, komeni da parentesi artean siglaren azpiko sintagma osorik ematea, edo alderantziz, testuaren hartzaileak ulertzeko arazorik izan ez dezan.

### ► Zer dira eta nola idazten dira ikurrak?

Zientzian eta teknikan neurtzeko unitate gisa erabiltzen direnak dira. Nazioarteko balioa dutenez, hizkuntza guztietan (alfabeto bera badute) berdintsu idazten dira, punturik gabe:

cm, km, kW, MHz...

Munduko txanponek ere ikurra erabiltzen dute: euroak ikurra dauka, ez laburdura: [EUR]. Bukaeran ez du punturik eta, deklinatzean, marra hartzen du.

Deklinatzean marra eskatzen dute beti eta kasu marka hitz osoari jarriko bagenio bezala jartzen zaie:

2 m-ko (bi metroko)  
4 km-ra (lau kilometrora)  
6 cm-tik (sei zentimetrotik)

### ► Zer dira eta nola idazten dira laburdurak?

Hizkuntza bateko hitz arruntak laburtuta emateko modua dira. Hizkuntza batetik bestera aldatzen dira. Puntua dute amaieran:

tel., zuz., or., etab., ezk.

Deklinatzean ez dute marrarik hartzen eta kasu marka hitz osoari jarriko bagenio bezala jartzen zaie:

zuzendari: zuz.; zuzendariari: zuz.ari; zuzendariarekin: zuz.arekin

Nahiz eta txanponekin ikurrak erabili ohi diren, *zentimo* hitzak laburdura dauka: *zm.*, hain zuzen ere. Europako beste hizkuntzetan ere ari dira laburdura erabiltzen *zentimo* laburtzeko. Esaterako, gaztelaniaz *cént.* eta pluralean *cts.*, portugesez *cent*, finlandiera edo suomieraz *snt* eta nederlanderaz *ct.*

Azkenik, gogoratu ez dela batere komeni laburdurak esaldietan sartzea. Tauletan, zerrendetan, eskemetan, etab. lasai asko erabil daitezke, eta horietan ez dago deklinatzeko beharrik izaten, gehienetan.

## BIBLIOGRAFIA

UZEI. *Laburtzapenen Gidaliburua*. Lizarra: UZEI, 1998.

[www.ivap.org/eusk/argiro/argiro6.htm#LABURTZAPENAK](http://www.ivap.org/eusk/argiro/argiro6.htm#LABURTZAPENAK)



## Giltza-hitzak

- a (galderak nola markatu): 167
- A causa de* (erdal formulak euskaraz): 155
- A condición de* (erdal formulak euskaraz): 154
- A consecuencia de* (erdal formulak euskaraz): 156
- A efectos de* (erdal formulak euskaraz): 158
- A petición de* (erdal formulak euskaraz): 154
- A raíz de* (erdal formulak euskaraz): 162
- A riesgo/con el peligro de* (erdal formulak euskaraz): 160
- A tenor de* (erdal formulak euskaraz): 156
- Adbertsatiboak (alferrikako erlatiboak): 232
- Adibideak (bi puntuak): 33
- Adiera bereziak (letra etzana eta kakotxak): 41
- Adierazi (arazi)*: 138
- Aditz *arazi*-dunen zerrenda (*arazi*): 142
- Aditz deklaratiiboak (atzerakarga): 225
- Aditz deklaratiiboak (deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan): 57, 58
- Aditz eratorria (aditzoina): 135
- Aditz iragarleak (deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan): 59
- Aditzlagunak (atzerakarga): 223
- Aditz laguntzailea (aditzaren elipsia): 80
- Aditz nagusia aurreratzea (bi puntuak): 36
- Aditz onomatopeikoak: 321
- Aditza izenaren orde (a, b, c... motako galderak): 319
- Aditza aurreratu (galdegaia eta hitz-ordena): 210
- Aditza aurreratu (galderak nola markatu): 165
- Aditza aurreratu (itzulpena: testu elebidunak): 291
- Aditza aurreratu (atzerakarga): 220
- Aditzaren erregimena (*arazi*): 138
- Aditzoina: 135
- Aditzoinen forma: 135
- Aditz-sistema (hika tratamendua): 100
- Adjektibo erreferentzialak: 271
- Adjektibo erreferentzialak (itzulpena: testu elebidunak): 293
- Adjektibo kalifikatzaileak (adjektibo erreferentzialak): 272
- Adjektiboa (definizioak): 180
- Adjektiboa kendu (adjektibo erreferentzialak): 278
- Adjektibozko gerundioa (erdal gerundio okerrak): 205
- Adjektiboaren atzetik / aurretik (*bat*): 61
- Administrazioetako formulak (erdal formulak euskaraz): 153
- Administrazioko hizkera (erdal formulak euskaraz): 153
- Afektiboa (hika tratamendua): 101
- Agintera (kortesia): 83
- Agintera (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 128
- Ahal*: 86
- Ahal izan* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 117
- Ahal izan ezezkoan* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 119

- Ahalera (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 118
- Ahalera (kortesia): 82
- Aipamen bibliografikoak (bibliografiak): 302
- Akronimoak (laburtzapenak): 336
- Aktak (nola diseinatu testu elebidunak): 297
- Al* (galderak nola markatu): 167
- Al objeto de* (erdal formulak euskaraz): 158
- Ala* juntagailua (galderak nola markatu): 168
- Aldizkari elektronikoa (bibliografiak): 310
- Aldizkari elektronikoetako artikulua (bibliografiak): 310
- Aldizkarien aipamenak (bibliografiak): 308
- Aldizkarietako artikulua (bibliografiak): 309
- Alegia* (iragarleak / mugarriak): 192
- Alferrikako erlatiboak: 230
- Alokutiboa (hika tratamendua): 101, 107, 108
- Animalien hotsak (onomatopeiak): 321
- Animalien izenak (letra etzana eta kakotxak): 40
- Aposizio ez-murrizgarriak (aposizioa eta deklinabidea): 65
- Aposizio murrizgarriak (aposizioa eta deklinabidea): 65
- Aposizioak: 65
- Aposizioak (koma): 19
- Aposizioak (parentesiak, marrak eta komak): 49
- Apurtu/ebaki/urratu (onomatopeiak): 322
- Arazi*: 138
- Argitaraldia (bibliografiak): 306
- Argitaletxea (bibliografiak): 306
- Argitalpen-tokia (bibliografiak): 306
- Arrazoietatik ondoriora (bi puntuak): 37
- Aspaldian* (aspektuaren erabilera okerrak): 132
- Aspektua (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 122, 130
- Aspektu-jauziak (narraziogintza): 89
- Atsotitzak (aditzaren elipsia): 77
- Atzerakarga: 217
- Atzerakarga (alferrikako erlatiboak): 231
- Atzerakarga (*zein* erlatiboak): 239
- Atzerriko hizkuntzetako hitzak (letra etzana eta kakotxak): 40
- Aurkaritzako juntagailuak eta lokailuak (puntu eta koma): 30
- Aurrekaria (*zein* erlatiboak): 241
- Azpitulua (bibliografiak): 304
- Azterketetako galde-erantzunak (a, b, c... motako galderak): 312
- Azterketetako item-ak (a, b, c... motako galderak): 312
- Ba- ...ere* (baldintzazkoen erabilera okerrak): 115
- Bai* (aditzaren elipsia): 79
- Bai (bai eta)... ere* (iragarleak / mugarriak): 190
- Bai...*, *bai...* (koma): 24
- Baiezko esaldiak (itzulpena: testu elebidunak): 291
- Baiezko perpausak (atzerakarga): 227
- Baiezkoak / ezezkoak (harridura-perpausak): 333
- Bailtzan* (baldintzazkoen erabilera okerrak): 114
- Bailuen* (baldintzazkoen erabilera okerrak): 114
- Baino (baino gehiago)*: 197
- Baino gehiago*: 197
- Bainoago (baino gehiago)*: 198
- Bait-* (*zein* erlatiboak): 237, 239
- Baita (ere)*: 196
- Baizik (eta)* (iragarleak / mugarriak): 190
- Baldin (eta)* (iragarleak / mugarriak): 189
- Baldintza (baldintzazkoen erabilera okerrak): 112
- Baldintzazkoak (alferrikako erlatiboak): 233

- Baldintzazkoak (baldintzazkoen erabilera okerrak): 112
- Baldintzazkoak (erdal formulak euskaraz): 154
- Baliabide elektronikoak (bibliografiak): 310
- Barrea (onomatopeiak): 323
- Bat*: 60
- Batean (negar batean)* (erdal gerundio okerrak): 203
- Behar / beharko / behar izango* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 122, 125
- Beharra izan* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 126
- Beharre(t)an egon* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 126
- Beharreko* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 127
- Beharrezkoa izan* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 127
- Behartu (*arazi*): 140, 141
- Behartuta / beharturik* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 127
- Berezko adjektiboak (adjektibo erreferentzialak): 272
- Betebeharrak: 117
- Betelana (itzulpena: testu elebidunak): 290
- Bi puntuak: 33
- Bibliografiak: 302
- Bikoiztapenak (marraz idatzi behar diren hitz-elkartuak): 69
- Bildumaren eremua (bibliografiak): 307
- Biltzarretako argitalpenak (bibliografiak): 309
- Bizi izan* (aspektuaren erabilera okerrak): 133
- Con anterioridad / posterioridad a* (erdal formulak euskaraz): 162
- Con arreglo a* (erdal formulak euskaraz): 161
- Con carácter de urgencia* (erdal formulak euskaraz): 161
- Con carácter mensual / anual* (erdal formulak euskaraz): 163
- Con carácter previo a* (erdal formulak euskaraz): 163
- Con carácter temporal* (erdal formulak euskaraz): 163
- Con conocimiento de* (erdal formulak euskaraz): 161
- Con el argumento de* (erdal formulak euskaraz): 156
- Con el deseo de* (erdal formulak euskaraz): 158
- Con el objetivo de* (erdal formulak euskaraz): 158
- Con inclusión de* (erdal formulak euskaraz): 162
- Con la dificultad de* (erdal formulak euskaraz): 160
- Con la voluntad de* (erdal formulak euskaraz): 159
- Con motivo de* (erdal formulak euskaraz): 157
- Con ocasión de* (erdal formulak euskaraz): 157
- Con vistas a* (erdal formulak euskaraz): 159
- Conforme a* (erdal formulak euskaraz): 162
- da / ta / -nik* (erdal gerundio okerrak): 201
- Data (koma): 25
- Datu baseen zatiak (bibliografiak): 310
- De conformidad con* (erdal formulak euskaraz): 162
- Debekatu* aditza (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 120
- Debekuak: 119
- Definizio dibulgatiboa: 186
- Definizioak: 172
- Definizioak (atzerakarga): 224
- Definizioak (*bat*): 61
- Deikiak (koma): 19
- Deklinabide-atzizkiak (deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan): 55

- Deklinabide-atzizkiak (a, b, c... motako galderak): 317
- Deklinabide-marka aposizioetan (aposizioa eta deklinabidea): 65
- Dela... dela...* (iragarleak / mugarriak): 193
- Denbora-jauziak (narraziogintza): 89
- Denborazko perpausak (alferrikako erlatiboak): 232
- Denborazko perpausak (aspektuaren erabilera okerrak): 131
- Denborazko perpausak (erdal formulak euskaraz): 162
- Denborazko (perpauk menderatu faltsuak): 151
- Denborazkoak gaztelaniaz (perpauk menderatu faltsuak): 151
- Derrigorrezko* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 127
- Derrigortuta / derrigorturik* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 127
- Deskribapenak (*bat*): 61
- Deskriptorea (definizioak): 174
- Diseinua (nola diseinatu testu elebidunak): 295
- Doktorego tesiak (bibliografiak): 310
- dun / -koa* (definizioak): 183
- Ea* (galderak nola markatu): 168
- Ea... -(e)n* (iragarleak / mugarriak): 193
- Ederra* esapidea (harridura-perpausak): 334
- Edizioaren eremua (bibliografiak): 306
- Edun* (hika tratamendua): 110
- Egilea (bibliografiak): 303
- Egin* indartzailea (aditzaren elipsia): 80
- Eginean* (erdal gerundio okerrak): 201
- Eginez* (erdal gerundio okerrak): 200
- Eginik* (erdal gerundio okerrak): 200
- Egiten* (erdal gerundio okerrak): 200
- Egitura homogeneoak (a, b, c... motako galderak): 318
- Egokitzapena (itzulpena: testu elebidunak): 286
- Egon* (hika tratamendua): 110
- Eguraldia (onomatopeiak): 323
- Ekintzak (umeen kontuak): 268
- Elipsia (aditzaren elipsia): 75
- Elipsia (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 127
- Elipsia (erdal gerundio okerrak): 204
- Elipsia (koma): 21
- Elkarrekin (bat)*: 63
- Elkarrizketa (parentesiak, marrak eta komak): 50
- Elkarrizketa (narraziogintza): 91
- En aplicación de* (erdal formulak euskaraz): 159
- En base a* (erdal formulak euskaraz): 157
- En buena y debida forma / de forma adecuada* (erdal formulak euskaraz): 162
- En caso de* (erdal formulak euskaraz): 154
- En cumplimiento de* (erdal formulak euskaraz): 159
- En el supuesto de* (erdal formulak euskaraz): 155
- En evitación de* (erdal formulak euskaraz): 159
- En orden a* (erdal formulak euskaraz): 160
- En su defecto* (erdal formulak euskaraz): 155
- En virtud de* (erdal formulak euskaraz): 157
- Ene* esapidea (harridura-perpausak): 334
- enean ere* (baldintzazkoen erabilera okerrak): 115
- Enumerazioa (koma): 17
- Enumerazioa (bi puntuak): 33
- Enuntziatuak (a, b, c... motako galderak): 315
- Epitetoa (*bat*): 62
- Eragin (arazi)*: 140

- Erakusleak (harridura-perpauzak): 331
- Erantzunak (a, b, c... motako galderak): 318
- Erorritako adjektiboak (adjektibo erreferentzialak): 273
- Erazi (arazi)*: 138
- Erdal baldintzazko faltsuak (perpau menderatu faltsuak): 150
- Erdal denborazko faltsuak (perpau menderatu faltsuak): 149
- Erdal erlatibozkoak (perpau menderatu faltsuak): 152
- Erdal formulak: 153
- Erdal helburuzko faltsuak (perpau menderatu faltsuak): 149
- Ere*: 194
- Ere bai (ere)*: 195
- Ere ez (ere)*: 195
- Ere* lokailua (harridura-perpauzak): 333
- Erlatibozko esaldiak (adjektibo erreferentzialak): 279
- Erlatibozko esaldiak (itzulpena: testu elebidunak): 290
- Erlatibozko perpauak (alferrikako erlatiboak): 230
- Erlatibozkoak gaztelaniaz (perpau menderatu faltsuak): 152
- Errekurtsoa (itzulpena: testu elebidunak): 288
- Errepikapenak (aditzaren elipsia): 76
- Errepikapenak (harridura-perpauzak): 333
- Esaldi juntatuak (erdal gerundio okerrak): 205
- Esaldi luzeegiak (atzerakarga): 218
- Esaldi pasiboa (itzulpena: testu elebidunak): 290
- Esaldi soila (alferrikako erlatiboak): 231
- Esapideak: 153
- Esapideak (harridura-perpauzak): 334
- Eskabide-orria (nola diseinatu testu elebidunak): 298
- Eskerrak* esapidea (harridura-perpauzak): 333
- Eskubidea izan / ez izan* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 118, 120
- Eskubiderik ez izan (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 120
- Eskubideak: 117
- Esku-eskuan izan* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 118
- Estiloa (itzulpena: testu elebidunak): 289
- Eta abar* esapidea (koma): 19
- Eta* juntagailua (definizioak): 179
- Eta* juntagailua (erdal gerundio okerrak): 204
- Etxeko hizkera (umeen kontuak): 259
- Euskara nabarmendu (nola diseinatu testu elebidunak): 297
- Euskararen aldeko diskriminazioa (nola diseinatu testu elebidunak): 295
- Ez* (aditzaren elipsia): 79
- Ez...*, *ez...* (koma): 24
- Ez bada* (iragarleak / mugarriak): 191
- Ezaugarri espezifikokoak (definizioak): 179
- Ezaugarri fisikoak (definizioak): 173
- Ezen* (iragarleak / mugarriak): 192
- Ezezkoak (a, b, c... motako galderak): 316
- Ezezkoak (atzerakarga): 227
- Ezin*: 86
- Ezin* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 120
- Ezingo (ahal eta ezin)*: 87
- Ezpada (ere)* (iragarleak / mugarriak): 190
- Ezta (ere)*: 196
- Ezta...* *ere* (iragarleak / mugarriak): 190
- Eztabaida-zerrenda (bibliografiak): 310
- Falta izan* (aspektuaren erabilera okerrak): 133
- Formulak (erdal formulak euskaraz): 153
- Formulak (itzulpena: testu elebidunak): 293



- Gaixotasun, min, ondoezak... (umeen kontuak): 266
- Galdegai faltsuak (atzerakarga): 222
- Galdegai faltsuak (deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan): 58
- Galdegaia: 210
- Galdera erretorikoak (galderak nola markatu): 169
- Galdera luzeak (a, b, c... motako galderak): 317
- Galderak (a, b, c... motako galderak): 312
- Galderak (galderak nola markatu): 164
- Galderak (hika tratamendua): 108
- Galdera-partikulak (galderak nola markatu): 166
- Galdetu* aditza (galderak nola markatu): 165
- Galdetzaileak (galderak nola markatu): 165
- Galdetzaileak (harridura-perpauak): 332
- Garbitasuna (umeen kontuak): 261
- Garbizaletasuna (galdegaia eta hitz-ordena): 212
- Gehiago (baino gehiago)*: 197
- Geografia izenak (letra etzana eta kakotzak): 40
- Gero* esapidea (harridura-perpauak): 334
- Geroaldia (kortesia): 83
- Geroaldia (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 120, 125
- Gertaerak kontatzea (narraziogintza): 94
- Gertatutakoak (aspektuaren erabilera okerrak): 131
- Gerundio okerrak gaztelaniaz: 199
- Gerundioa (itzulpena: testu elebidunak): 292
- Gerundioa euskaraz (erdal gerundio okerrak): 199
- Gerundioaren ordainak (erdal gerundio okerrak): 207
- go / ko* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 122
- Gonbita (aspektuaren erabilera okerrak): 130
- Gutuna (nola diseinatu testu elebidunak): 296
- Gutxi balitz* (baldintzazkoen erabilera okerrak): 114
- Hain zuzen ere* (iragarleak / mugarriak): 192
- Hala bada* (iragarleak / mugarriak): 192
- Harik (eta)... arte* (iragarleak / mugarriak): 189
- Harridura-perpauak (hika tratamendua): 108
- Harridura-perpauak: 331
- Hasierako agurra (bi puntuak): 37
- Hau da* (iragarleak / mugarriak): 192
- Helburuzko gerundioa (erdal gerundio okerrak): 203
- Helburuzkoak (alferrikako erlatiboak): 233
- Helburuzkoak (erdal formulak euskaraz): 158
- Hierarkia (puntu eta koma): 28
- Hika: 100
- Hitz arrotzak (letra etzana eta kakotzak): 42
- Hitz egitea (onomatopeiak): 323
- Hitz-elkartuak (definizioak): 180
- Hitz-elkartuak (marra): 69
- Hitz-elkarketa (adjektibo erreferentzialak): 273
- Hitzez hitzeko aipamenak (bi puntuak): 33
- Hitzez hitzeko aipamenak (letra etzana eta kakotzak): 44
- Hitzik ezagunenak (itzulpena: testu elebidunak): 292
- Hitz-ordena: 210
- Hizkera abstraktua (adjektibo erreferentzialak): 277
- Hizkera metaforikoa: 251
- Hizkuntza "politikoki zuzena" (erdaratik datozkigun hitzen itzulpena): 247
- Hizkuntza postpositiboak (*zein* erlatiboak): 237

- Hizkuntza prepositiboa (*zein* erlatiboak): 237
- Hizkuntzen kokapena (nola diseinatu testu elebidunak): 297
- Hizkuntzen osagai komunak (nola diseinatu testu elebidunak): 297
- Hiztegia (itzulpena: testu elebidunak): 292
- Hori bai* (iragarleak / mugarriak): 191
- Hots* (iragarleak / mugarriak): 192
- Hurrenkera (deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan): 56
- Hurrenkera (*zein* erlatiboak): 239
- i* (aditzoina): 136
- Ibilkerak (onomatopeiak): 323
- Idazki-motak (nola diseinatu testu elebidunak): 295
- Ideiak azaltzeko (bi puntuak): 36
- ik* (*eginik*) (erdal gerundio okerrak): 200
- Ikurrak (laburtzapenak): 338
- “Ikuspegi positiboa” (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 128
- Indargarria (*ere*): 195
- Industria-konpainiak (letra etzana eta kakotxak): 40
- Informazioa buletinak (bibliografiak): 310
- Inprimakiak (nola diseinatu testu elebidunak): 295
- Instrumentala *-(e)z* (definizioak): 181
- Ipuin zaharrak (atzerakarga): 222
- Ipuinak (narraziogintza): 89
- Iragarkiak (nola diseinatu testu elebidunak): 296
- Iragarleak: 188
- Ironiaz esandako hitzak (kakotxen erabilera): 45
- Iruzkina (definizioak): 174, 184
- Iruzkina (galdegaia eta hitz-ordena): 212
- Itsasontzien, hegazkinen... izenak (letra etzana eta kakotxak): 40
- Itzulpena: 247
- Itzulpena (erdatatik datozkigun hitzen itzulpena): 283
- Izaera, egoera (umeen kontuak): 264
- Izan* (hika tratamendua): 109
- Izan* aditza orainaldian (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 126
- Izan, egon, ibili, jardun,...* (aditzaren elipsia): 79
- Izan ere* (iragarleak / mugarriak): 190
- Izana* (aspektuaren erabilera okerrak): 132
- Izen “komertzialak” (erdatatik datozkigun hitzen itzulpena): 249
- Izen bereziak (letra etzana eta kakotxak): 40
- Izen ezagunak (*bat*): 61
- Izenak (adjektibo erreferentzialak): 279
- Izenburua (bibliografiak): 304
- Izenburuak (letra etzana eta kakotxak): 39
- Izengoitiak (letra etzana eta kakotxak): 41
- Izengoitiak (parentesiak, marrak eta komak): 47
- Izenlaguna+adjektiboa (harridura-  
-perpauak): 334
- Izenlaguna (itzulpena: testu elebidunak): 293
- Izenlagunak (definizioak): 180
- Izenlagunak (adjektibo erreferentzialak): 275
- Izenlagunak (alferrikako erlatiboak): 231
- Izenondoa (adjektibo erreferentzialak): 271
- Jakin, zehatz* hitzen ordeztu (*bat*): 63
- Jana (umeen kontuak): 262
- Jantzi (umeen kontuak): 262
- Jatea / edatea (onomatopeiak): 324
- Jolasak (umeen kontuak): 269
- Joskera (itzulpena: testu elebidunak): 289
- Juntadura (alferrikako erlatiboak): 232
- Juntadura (perpau menderatu faltsuak): 147
- Juntagailuak (erdal gerundio okerrak): 205

- Juntagailuak (iragarleak / mugarriak): 188
- Juntagailuak (koma): 23
- Juntagailuak (perpaus menderatu faltsuak): 147
- Juntagailuak (puntu eta koma): 28
- Justaposizioa (alferrikako erlatiboak): 231
- Justaposizioa (definizioak): 180
- Justaposizioa (perpaus menderatu faltsuak): 147
- ka (negarka)* (erdal gerundio okerrak): 202
- Kakotxak: 44
- Kaleak (letra etzana eta kakotxak): 40
- Kalko sintaktikoak (perpaus menderatu faltsuak): 148
- Kanpaiak (onomatopeiak): 325
- Kataforak (atzerakarga): 225
- Kataforak (deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan): 59
- Kausazkoak (perpaus menderatu faltsuak): 152
- Kausazkoak (erdal formulak euskaraz): 155
- Kausazkoak gaztelaniaz (perpaus menderatu faltsuak): 152
- keta (berriketan)* (erdal gerundio okerrak): 203
- Kirol batzuen izenak (letra etzana eta kakotxak): 40
- ko bada* (baldintzazkoen erabilera okerrak): 115
- Kolpea (onomatopeiak): 325
- Koma: 17
- Koma (parentesiak, marrak eta komak): 46, 51
- Komak dituzten esaldiak lotzeko (puntu eta koma): 29
- Komunikazioa (itzulpena: testu elebidunak): 286
- Komunztadura aposizioetan (aposizioa eta deklinabidea): 65
- Konparazioak (hizkera metaforikoa): 257
- Kontakizun-hasieran (*bat*): 60
- Kontzeptu konkretuak (definizioak): 172
- Kontzeptu konplexuak (definizioak): 185
- Kontzesiboak (alferrikako erlatiboak): 232
- Kontzesiboak (erdal formulak euskaraz): 160
- Kontzesiboak (perpaus menderatu faltsuak): 150
- Korredakzioa (itzulpena: testu elebidunak): 286
- Kortesia: 82
- (e)la* (erdal gerundio okerrak): 201
- Laburtzapenak: 336
- Laburdurak (laburtzapenak): 338
- Laburdurak (parentesiak, marrak eta komak): 47
- (e)larik* (erdal gerundio okerrak): 201
- (e)larik ere* (erdal gerundio okerrak): 202
- Latinezko esamoldeak (letra etzana eta kakotxak): 41
- Lege-aipamenak (bibliografiak): 309
- Lehen (baino gehiago)*: 198
- Lehenago (baino gehiago)*: 198
- Leku-izenak (parentesiak, marrak eta komak): 47
- Letra etzana (nola diseinatu testu elebidunak): 299
- Letra lodia (nola diseinatu testu elebidunak): 299
- Letra zuzena (nola diseinatu testu elebidunak): 299
- Libre izan* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 121
- Liburuak (nola diseinatu testu elebidunak): 297
- Liburuen aipamenak (bibliografiak): 308
- Liburuen artikulua (bibliografiak): 309
- Liburuen erreferentziak (bibliografiak): 302
- Liburuen kapituluak (bibliografiak): 305, 309

- Liburukiak (bibliografiak): 307  
 Liburu zatiak (bibliografiak): 305  
 Loa (umeen kontuak): 260  
 Lokailua (erdal gerundio okerrak): 204  
 Lokailuak (iragarleak / mugarriak): 188  
 Lokailuak (koma): 20  
 Lokailuak (puntu eta koma): 30, 31  
*Lotu (arazi)*: 138  
 Lotura-hitzak (iragarleak / mugarriak): 188  
 Lotura semantikoa (bi puntuak): 34  
 Lotura semantikoa (puntu eta koma): 29  
 Lotura sintaktikoa (bi puntuak): 34  
  
 Mailegatutako adjetiboak (adjektibo erreferentzialak): 272  
 Mailegutza semantikoa (adjektibo erreferentzialak): 274  
 Maitasuna (umeen kontuak): 260  
 Markak (letra etzana eta kakotxak): 41  
 Marra: 46, 48, 51  
 Marra (marraz idatzi behar diren hitz-elkartuak): 69  
 Marra luzea (parentesiak, marrak eta komak): 51  
 Marratxoa: 51  
 Mendeko perpausak (atzerakarga): 219  
 Mendeko perpausak (galdegaia eta hitz-ordena): 212  
 Mendeko perpausak (hika tratamendua): 107  
 Mendeko perpausak (koma): 22  
 Menderagailuak (*zein* erlatiboak): 239  
 Menderagailuak (atzerakarga): 227  
 Menderagailuak (iragarleak / mugarriak): 188  
 Menderagailuak (perpaus menderatu faltsuak): 147  
 Menderagailuak (puntu eta koma): 28  
 Menderakuntza (perpaus menderatu faltsuak): 147  
 Merkataritzako erakundeak (letra etzana eta kakotxak): 40  
 Metaforak (hizkera metaforikoa): 255  
 Metahizkuntza (letra etzana eta kakotxak): 42  
 Mezu elektronikoak (bibliograia-aipamenak): 310  
 Mintzagaia (*ere*): 194  
 Mintzagaia (galdegaia eta hitz-ordena): 212  
 Mintzagaia (koma): 27  
 Moduzkoak (erdal formulak euskaraz): 161  
 Morfologia (itzulpena: testu elebidunak): 291  
 Mugarriak: 188  
 Mugimendua (onomatopeiak): 326  
 Murrizgarria (*zein* erlatiboak): 241  
  
*Nahi izan* (aspektuaren erabilera okerrak): 133  
*Nahi, ezin, behar* (aditzaren elipsia): 79  
*Nahitaezko* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 127  
*Nahiz (eta)* (iragarleak / mugarriak): 189  
 Narraziogintza: 89  
 Narraziogintza (aditzaren elipsia): 75  
*Negarka* (erdal erdal gerundio okerrak): 202  
*Negarrez* (erdal erdal gerundio okerrak): 202  
*Negarretan* (erdal erdal gerundio okerrak): 202  
*Negar batean* (erdal erdal gerundio okerrak): 203  
*-(e)netz* (galderak nola markatu): 168  
 Neurriak (letra etzana eta kakotxak): 40  
 Neutroa (hika tratamendua): 102, 105  
 Noka (hika tratamendua): 103  
*Nola...-(e)n / baita* (iragarleak / mugarriak): 191  
 Nominalizazioa (itzulpena: testu elebidunak): 292  
 Nominatiboak (a, b, c... motako galderak): 316

- Non* (*zein, zeinetan...*) (definizioak): 183
- Non eta ez -n* (baldintzazkoen erabilera okerrak): 114
- Non eta... ez -(e)n* (iragarleak / mugarriak): 191
- Non... bait-* (*zein* erlatiboak): 237
- Nor izatera* (baldintzazkoen erabilera okerrak): 115
- Nork bere buruari (hika tratamendua): 102
- Ofizioa (nola diseinatu testu elebidunak): 296
- Oharra (nola diseinatu testu elebidunak): 296
- Oharren eremua (bibliografiak): 307
- Oinarria (aditzoina): 136
- Ondoriotik arrazoiatarra (bi puntuak): 37
- Ondoriozko edo geroaldiko gerundioa (erdal gerundio okerrak): 204
- Onomatopeiak: 321
- Orainaldi historikoa (aspektuaren erabilera okerrak): 130
- Orainaldi neutroa (aspektuaren erabilera okerrak): 132
- Orduak (bi puntuak): 38
- Orrialdeak (bibliografiak): 307
- Orrialdeak (nola diseinatu testu elebidunak): 299
- Ortotipografia (letra etzana eta kakotxak): 39
- Ote* (galderak nola markatu): 166
- Para conocimiento de* (erdal formulak euskaraz): 160
- Para su posterior* (erdal formulak euskaraz): 160
- Paragrafo (itzulpena testu elebidunak): 289
- Parentesiak (parentesiak, marrak eta komak): 46, 47
- Partikula (galderak nola markatu): 166
- Partizipioa (aditzoina): 135
- Partizipioa (definizioak): 181
- Perifrasiak (itzulpena: testu elebidunak): 293
- Perpaua juntatuak (atzerakarga): 219
- Perpaua koordinatuak (koma): 23
- Perpaua menderatu faltsuak: 147
- Perpaua menderatuak (alferrikako erlatiboak): 232
- Perpaua menderatuak (koma): 25
- Perpauak elkartzeko moduak (bi puntuak): 34
- Por razón de* (erdal formulak euskaraz): 158
- Previa audiencia / presentación / autorización / deliberación* (erdal formulak euskaraz): 163
- Programa informatikoen zatiak (bibliografiak): 310
- Publizitatea (erdatatik datozkigun hitzen itzulpena): 248
- Puntu eta koma: 28
- Puntuazioa (a, b, c... motako galderak): 312
- Puntuazioa (*zein* erlatiboak): 242
- Puntuazio-zeinuak (a, b, c... motako galderak): 312
- Puntuazio-zeinuak (perpaua menderatu faltsuak): 147
- Punturik gabeko paragrafoak (itzulpena: testu elebidunak): 289
- Salvo disposición en contrario* (erdal formulak euskaraz): 155
- Siglak (letra etzana eta kakotxak): 39
- Siglak (laburtzapenak): 336
- Siglak (parentesiak, marrak eta komak): 47
- Siglen lexikalizazioa (laburtzapenak): 337
- Sin perjuicio de* (erdal formulak euskaraz): 161
- Sinekdokeak (hizkera metaforikoa): 257
- Sinonimoak (itzulpena: testu elebidunak): 293
- Solaskidea (hika tratamendua): 102
- Subjektua eta aditza elkarrengana hurbiltzea (atzerakarga): 220

- Subjuntiboa (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 127
- Subjuntiboa (hika tratamendua): 107
- Subjuntiboa (itzulpena: testu elebidunak): 291
- ta ere* (baldintzazkoen erabilera okerrak): 115
- (*e*)*tan* (erdal gerundio okerrak):
- Tartekiak (deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan): 159
- Tartekiak (koma): 19
- Tartekiak (parentesiak, marrak eta komak): 46, 48
- Terminoaren azalpena (itzulpena: testu elebidunak): 293
- Terminologia (erdaratik datozkigun hitzen itzulpena): 247
- Testu barruko definizioak: 177
- Testu elebidunak: 283
- Testu elebidunen diseinua (nola diseinatu testu elebidunak): 295
- Testu elektronikoen zatiak (bibliografiak): 310
- Testu juridikoak (itzulpena: testu elebidunak): 286
- Testu-antolatzaileak (puntu eta koma): 31
- Testuaren arkitektura (itzulpena: testu elebidunak): 283
- Testugintza (itzulpena: testu elebidunak): 288
- Testuingurua (galdegaia eta hitz-ordena): 211
- Testuak euskaratu (itzulpena: testu elebidunak): 283
- tik gora* (*baino gehiago*): 197
- Tipografia (nola diseinatu testu elebidunak): 297, 299
- Toka (hika tratamendua): 103
- Tomoak (bibliografiak): 307
- Tratamendua (hika tratamendua): 100
- ts*, -*tx*, -*tz* (aditzoina): 136
- tu* amaierako (aditzaren elipsia): 78
- tu beharra izan* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 126
- tu beharre(t)an egon* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 126
- Txostenak (nola diseinatu testu elebidunak): 297
- tzeko(ak) izan* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 126
- Umeen hizkera (umeen kontuak): 259
- Ura (onomatopeiak): 328
- Utziko da* (betebeharrak, eskubideak eta debekuak): 119
- Xuka (hika tratamendua): 101
- Zaratak (onomatopeiak): 328
- Zartatekoak eta enparauak (umeen kontuak): 265
- Ze*, *zeren*, *zergatik* (iragarleak / mugarriak): 188
- Zehar galderak (alferrikako erlatiboak): 233
- Zein* (*zein* erlatiboa): 237
- Zein* (definizioak): 183
- Zelan... bait-* (*zein* erlatiboa): 237
- Zenbaki hamartarrak dezimalak (koma): 25
- Zenbakiak (a, b, c... motako galderak): 320
- Zenbakiak (parentesiak, marrak eta komak): 47
- Zerbait* hitzaren orde ( *bat*): 63
- Zerrenda luzeak (atzerakarga): 224
- Zerrendak (a, b, c... motako galderak): 312
- Zerrendak (bi puntuak): 33
- Zuka (hika tratamendua): 101
- Zuka neutroa (hika tratamendua): 100, 104
- Zurumuru-baldintza (baldintzazkoen erabilera okerrak): 112
- Zutabeak (nola diseinatu testu elebidunak): 296, 298

